

**EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOAN EGOITZEZ KANPO  
ADINEKOENTZAT DAGOEN  
LAGUNTZARI BURUZKO  
TXOSTEN BEREZIA**



# ARARTEKOAREN ARGITALPENAK

## EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTEN BEREZIAK

- *Kalabozoak*. Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak. 1991.
- *Psikiatrikoak*. Ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera. 1992.
- *Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartean (1992-1993)*. 1994.
- *Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994)*. 1994.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzako dagoen laguntzari buruzko txosten berezia (1994-1995)*. 1996.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera*. 1996.

## EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTEN ARRUNTAK

Liburukiak: 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994.

### Txosten arrunten separatak

- *Arartekoaren gomendio eta iradokizunak*.  
Liburukiak: 1991, 1992, 1993, 1994.

## BESTELAKO ARGITALPENAK

- *Idatz arauak / Normas de redacción*. 1992.
- *Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia*. 1993.

### Faksimilak

- *Jaquin-bide Iritarautia - 1820*. Kadizko Konstituzioari buruz euskaraz idatzitako eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua. 1991.
- *Gaioren Institutionum*. 1992. (Gaztelera-zko lehen argitaralditik aterea, Madril, 1845).
- *Aita Frantzisko Vitoriakoaren De indis insularis. De iure belli*. 1993. (Lyonen 1557an egindako lehen argitaralditik aterea).

### Padre Francisco de Vitoria Giza Eskubideen Saila (bekadunen lanak)

- Eduardo Javier Ruiz Vieytez. *El derecho al ambiente como derecho de participación*. 1993.
- Miguel Angel Encinas Cañón. *Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991)*. 1994.
- Gema Varona Martínez. *La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos*. 1994.

EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOAN EGOITZEZ  
KANPO ADINEKOENTZAT  
DAGOEN LAGUNTZA  
ZERBITZUARI BURUZKO  
TXOSTEN BEREZIA

EGILEAK:

Ararteko Erakundearen aldetik::

Xabier Markiegi, Arartekoa

Mercedes Agúndez, Arartekoaren ondokoa

Faustino López de Foronda, Ararteko Erakundearen Aholkulariburua

Iosune Etxeberria, Ararteko Erakundearen Lege-aholkularia

Iñaki Mendieta, Ararteko Erakundearen Lege-aholkularia

Fernando Vázquez, Ararteko Erakundearen Lege-aholkularia

SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa Fundazioaren aldetik:

Ramon Saizarbitoria, SIISeko arduraduna

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.

Papel erreziklatua.

Azala: Hernando Viñes Soto, "Sin título", 1932. © argazkiarena: Bilboko Arte Ederretako Museoa

Itzulpena: J.M. Arzallus, L. Auzmendi, A. Olano

I.S.B.N.: 84-87122-65-5. Liburu Osoa.

L.G.: BI-299-96

EUSKO LEGEBILTZARRARI  
TXOSTEN BEREZIA  
1994-1995





**AURKIBIDEA**





|  |    |
|--|----|
| <b>I. ATALA. AURKEZPENA</b> .....  | 17 |
| <b>II. ATALA. TXOSTEN HONEN OSAKETAREN HELBURUAK<br/>ETA METODOLOGIA</b> .....   | 21 |
| 2.1. HELBURUAK .....   | 23 |
| 2.2. METODOLOGIA .....   | 24 |
| 2.2.1. Txostenaren eremua .....  | 24 |
| 2.2.2. Metodologia .....   | 24 |
| <b>III. ATALA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EUS-<br/>KADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN</b> .....  | 29 |
| 3.0. SARRERA .....   | 31 |
| 3.1. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUEN PARAMETRO<br>NAGUSIAK .....  | 37 |
| 3.1.1. Intentsitatea, maila eta hedapena .....   | 37 |
| 3.1.2. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Etxez Etxeko<br>Laguntza Zerbitzuak Europa barruan .....   | 41 |
| 3.1.3. Laguntzaren adierazle nagusiak udalerrietan .....   | 43 |
| 3.1.3.1. Hedapena .....  | 48 |
| 3.1.3.2. Intentsitatea .....   | 50 |
| 3.1.3.3. Maila .....   | 54 |
| 3.2. EELZ-REN LAGUNTZA HARTZEN DUTEN BIZTANLEEN<br>EZAUGARRIAK .....   | 57 |
| 3.2.1. Adina eta generoa .....   | 57 |
| 3.2.2. Ezintasun maila .....   | 58 |
| 3.2.2.1. Zeregin instrumentalak burutzeko ezintasuna eta<br>eragozpena .....   | 61 |
| 3.2.3. Elkarbizitzako egoera eta laguntza informala .....  | 63 |
| 3.2.4. Bizitokiaren egoera .....   | 66 |
| 3.3. ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA: ZERBITZUAREN<br>INTENTSITATEA, EZINTASUN MAILA ETA ZERBITZU-<br>HARTZAILEAREN ELKARBIZITZAKO EGOERA ..... | 68 |
| 3.4. EELZ-REN EGINKIZUNAK .....  | 76 |
| 3.5. HARREMANETARAKO LAGUNTZA .....  | 82 |

|            |   |            |
|------------|---|------------|
| 3.6.       | EELZ-REKIKO ADOSTASUN MAILA .....   | 84         |
| 3.6.1.     | Zerbitzua ordu jakinetara egokitzea .....   | 84         |
| 3.6.2.     | Zerbitzu-hartzaileek EELZri buruz duten iritzia .....   | 86         |
| 3.6.3.     | Zerbitzu-hartzaileek laguntzaileari buruz duten iritzia .....   | 87         |
| 3.7.       | ETXEZ ETXEKO ZERBITZUEZ BALIATZEN DIRENAK ETA GAINERAKO LAGUNTZA ZERBITZUAK .....                               | 92         |
| 3.7.1.     | Erresidentziara joatearen aurrean zer jarrera .....   | 93         |
| 3.8.       | ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ANTOLAKE-TARI DAGOZKIONAK .....  | 96         |
| 3.8.1.     | Auzi orokorrak .....  | 96         |
| 3.8.2.     | Onarpena, eginkizunen adjudikazioa eta zerbitzu-hartzaileak ordaindu behar duena .....                          | 99         |
| 3.8.3.     | EELZri dagozkion eginkizun propioak eta zeharbidez dagozkionak .....  | 100        |
| 3.8.4.     | Zerbitzu-eskatzailea onartzeko eta zenbat ordaindu behar duen kalkulatzeko kriterioak .....                     | 100        |
| 3.8.5.     | Laguntza zerbitzua hastea .....   | 105        |
| 3.8.6.     | Eske larriak bideratzeko era .....  | 106        |
| 3.8.7.     | Eginkizunak erabaki eta jarraipena egin .....   | 106        |
| 3.9.       | ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUKO LANGILEAK ETA HORREN ANTOLAERA DESBERDINAK .....                               | 111        |
| 3.9.1.     | Arazo orokorrak / kopuruak .....  | 111        |
| 3.9.2.     | Soldatak eta lan-baldintzak .....   | 113        |
| 3.10.      | ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEEN ARAZOAK ETA LAGUNTZA HORRETAKO BESTE ZENBAIT GORABEHERA ....                         | 116        |
| 3.10.1.    | Laguntzaileen eginkizunaren zehaztasun falta .....  | 116        |
| 3.10.2.    | Kontrako interesak laguntzaileen papera zehazterakoan .....   | 117        |
| 3.10.3.    | Zenbait ohar kritiko laguntzaileei buruz: eragin psikologikoa .....   | 117        |
| 3.10.4.    | Laguntza teknikoen eskasia .....  | 118        |
| 3.10.5.    | Bidezko bi eskakizun: laguntzaileei dagokien estatusa aitortzea eta prestakuntza berezi bat eskaini beharra ... | 119        |
| 3.11.      | EKONOMIA AZTERKETA .....  | 121        |
| 3.11.1.    | Udaletxe batzuen eta besteen arteko aldeen azterketa .  | 126        |
| 3.11.2.    | Zerbitzu-hartzaileek ematen duten diru kopuruaren azterketa, egindako inkestaren arabera .....                  | 133        |
|            | ERASKINA .....  | 135        |
| <b>IV.</b> | <b>ATALA. EGUNEKO ZENTROAK .....</b>  | <b>173</b> |
| 4.1.       | EGUNEKO ZENTROA: ONGI EZAGUTZEN EZ DEN BALIA-BIDEA .....  | 175        |
| 4.2.       | XEDAPEN ARAUEMAILEAK .....  | 176        |

|  |  |     |
|--|--|-----|
| 4.3.   | ZERBITZUAREN HEDAPENA .....  | 177 |
| 4.4.   | EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGUNEKO ZENTROEN EZAUGARRIAK .....   | 178 |
| <b>V. ATALA. EGOITZEZ KANPO ADINEKOENTZAKO DAUDEN ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN JAURBIDEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN</b> |  | 189 |
| 5.1.   | GIZARTE-LAGUNTZA KONTZEPTUA .....  | 191 |
| 5.1.1.   | Esapidearen zehaztasunik eza .....   | 191 |
| 5.1.2.   | Kontzeptuaren mugak jurisprudentzia konstituzionalean eta Zuzenbide positiboan .....                           | 191 |
| 5.1.3.   | Adinekoen babesa gizarte-laguntzaren atal gisa .....   | 193 |
| 5.2.   | EGOITZEZ KANPO ADINEKOEI LAGUNTZA EMATEKO DAUDEN ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA .....             | 193 |
| 5.3.   | ADINEKOENTZAKO LAGUNTZA-ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN HARTZAILE-EMAILEAK                      | 193 |
| 5.3.1.   | Egoitzez kanpo adinekoentzako dauden laguntza-zerbitzuen emaileak .....  | 193 |
| 5.3.2.   | Egoitzez kanpo adinekoentzako dauden laguntza-zerbitzuen hartzaileak .....                                     | 194 |
| 5.3.3.   | Gizarte-laguntza jasotzeko eskubidea. Egoitzez kanpo adinekoentzat dauden laguntza-zerbitzuen aipamen berezia  | 194 |
| 5.4.   | ADINEKOENTZAKO LAGUNTZAREN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN AZTERGAIA .....                                 | 196 |
| 5.5.   | EGOITZEZ KANPO ADINEKOENTZAT DAUDEN LAGUNTZA-ZERBITZUEN ESKUMEN-ESPARRUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN .....     | 197 |
| 5.5.1.   | Eskumenen banaketa gizarte-laguntza emaileen esparruan   | 197 |
| 5.5.2.   | Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen banaketa .....                                     | 197 |
| 5.5.3.   | Eskumenen banaketa Euskal Autonomia Erkidegoan .....   | 198 |
| 5.5.4.   | Toki-administrazioak gizarte-sorospenaren alorrean duen eskumena .....   | 204 |
| 5.5.5.   | Ondorioak .....  | 206 |
| 5.6.   | ARAUDIAREN ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK .....   | 206 |
| 5.6.1.   | Aztergaiaren aurkezpen orokorra .....  | 206 |
| 5.6.2.   | Egoitzez kanpoko laguntza-zerbitzuak arautzen dituen araudia eta publizitate irizpidea errespetatzea .....     | 206 |
| 5.6.3.   | Adinekoentzako egoitzez bestelako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea berdintasun-irizpidearen ikuspuntutik ..... | 207 |

|   |            |
|---|------------|
| <b>VI. ATALA. LABURPENA ETA ONDORIOAK .....</b>   | <b>211</b> |
| 6.1. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA .....  | 213        |
| 6.1.1. EELZren zabalerari buruzko datu orokorrak .....  | 213        |
| 6.1.2. EELZren adierazleak Europa barnean .....   | 213        |
| 6.1.3. Laguntzaren adierazle nagusiak udalerriz udalerriri .....                                  | 214        |
| 6.1.4. EELZren laguntza hartzen duten biztanleen ezaugarriak .....                                | 216        |
| 6.1.5. Elkarbizitzako egoera eta laguntza informala .....   | 217        |
| 6.1.6. Bizitokiaren egoera .....  | 218        |
| 6.1.7. EELZren eraginkortasun mailaren azterketa .....  | 218        |
| 6.1.8. EELZren eginkizunak .....  | 219        |
| 6.1.9. Harremanetarako laguntza .....   | 221        |
| 6.1.10. EELZrekiko adostasun maila .....  | 221        |
| 6.1.11. Etxez etxeko zerbitzuez baliatzen direnak gainerako laguntza zerbitzuen aurrean .....     | 221        |
| 6.1.12. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren antolaketari dagozkionak .....                         | 222        |
| 6.1.13. EELZetako langileak eta horren antolaera desberdinak .....                                | 224        |
| 6.1.14. Etxez etxeko laguntzaileen arazoak eta langintza horretako beste zenbait gorabehera ..... | 226        |
| 6.1.15. Ekonomia azterketa .....  | 227        |
| 6.1.16. Azken gogoetak.....   | 229        |
| 6.2. EGUNEKO ZENTROAK .....   | 231        |
| <b>VII. ATALA. GOMENDIOAK .....</b>   | <b>233</b> |
| <b>BIBLIOGRAFIA .....</b>   | <b>239</b> |

# **KOADROEN AURKIBIDEA**



1. KOADROA: LAGUNTZA ZERBITZUAK 65 URTEZ GORAKO PERTSONENTZAT EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN
2. KOADROA: LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK BIZTANLERIA OSOAREKIKO
3. KOADROA: EELZ-REN ADIERAZLEEN BILAKABIDEA
4. KOADROA: LAGUNTZA ORDUAK ZERBITZU-HARTZAILE BAKOITZEKO
5. KOADROA: ETXÉZ ETXEKO LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK EUROPAKO ZENBAIT HERRIALDETAN
6. KOADROA: HEDAPENA GORABEHERAK
7. KOADROA: LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK UDALERRIZ UDALERRI (ARABA)
8. KOADROA: LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK UDALERRIZ UDALERRI (BIZKAIA)
9. KOADROA: LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK UDALERRIZ UDALERRI (GIPUZKOA)
10. KOADROA: INTENTSITATE GORABEHERAK LURRALDEKA
11. KOADROA: EELZ-REN ADIERAZLEEN ARTEKO KORRELAZIOAK
12. KOADROA: MAILA GORABEHERAK LURRALDEZ LURRALDE
13. KOADROA: ZERBITZU-HARTZAILEEN ADINA ETA GENEROA
14. KOADROA: ZERBITZU-HARTZAILEEN ADINA ETA GENEROA
15. KOADROA: DEPENDENTZIA MAILA 65 URTEZ GORAKO BIZTANLEEN ARTEAN
16. KOADROA: EZINTASUN MAILAK LURRALDEKA
17. KOADROA: EZINTASUN MAILAK ARABAKO UDALERRIAK
18. KOADROA: EGINKIZUN PERTSONALAK BEREN KABUZ EGITEN DITUZTEN PERTSONA AUTONOMOAK
19. KOADROA: ELKARBIZITZAKO EGOERA
20. KOADROA: EZINTASUN MAILA, GENEROA ETA ELKARBIZITZAKO EGOERA
21. KOADROA: SEME-ALABA ZAINZTAILEAK
22. KOADROA: KALERA ATERATZEA ERAGOZTEN DUTEN OZTOPOAK
23. KOADROA: EELZ-REN LAGUNTZA HARTZEN DUTEN PERTSONA AUTONOMOAK
24. KOADROA: EELZ-REN INTENTSITATEA EZINTASUN MAILAREN ARABERA (ORDUAK/ASTEAN)
25. KOADROA: EELZ-REN INTENTSITATEA GENEROAREN ETA EZINTASUN MAILAREN ARABERA
26. KOADROA: LAGUNTZA ORDUEN BANAKETA EZINTASUN MAILAREN ARABERA

27. KOADROA: ZERBITZUAREN INTENTSITATEA ETA EZINTASUN MAILA
28. KOADROA: INTENTSITATEA, ELKARBIZITZA ETA EZINTASUNA
29. KOADROA: EELZ-REN ERAGINKORTASUN MAILA
30. KOADROA: EELZ-EK EMATEN DUTEN LAGUNTZA LURRALDEAREN ARABERA
31. KOADROA: EELZ-REN ESKU HARTZEA EGUNEROKO BIZITZAKO EGINKIZUNETAN
32. KOADROA: BISITA MAIZTASUNA
33. KOADROA: EELZ-REN BESTE ZENBAIT IHARDUERA
34. KOADROA: ORDU BANAKETA EGUNEAN ZEHAR
35. KOADROA: ZERBITZU-HARTZAILEEK EELZRI BURUZ DUTEN IRITZIA
36. KOADROA: EZINTASUN LARRIAK DITUZTEN PERTSONAK
37. KOADROA: ZERBITZU-HARTZAILEEN LAGUNTZAILEAREKIKO IRITZIA
38. KOADROA: EELZ-ETAKO LAGUNTZAILEZ ALDATZEA
39. KOADROA: EELZ-ETAKO ZERBITZU-HARTZAILEAK ETA GAINERAKO LAGUNTZA ZERBITZUAK
40. KOADROA: ERRESIDENTZIARA JOATEARI BURUZKO JARRERA
41. KOADROA: EELZ-ETAKO ZERBITZU ORDUAK KONTRATAZIO SISTEMAREN ARABERA
42. KOADROA: KONTRATAZIO SISTEMA ETA LANGILE KOPURUA
43. KOADROA: ZERBITZU-HARTZAILEEN ETA UDALETXEKO GIZARTE-LAGUNTZAKO LANGILEAREN ARTEKO HARREMANAK
44. KOADROA: GIZARTE-LAGUNTZAKO LANGILEAREN ETA ZERBITZU-HARTZAILEEN ARTEKO HARREMANEN SARRITASUNA
45. KOADROA: ZERBITZU-HARTZAILEEN KOPURUA/LANGILEAK
46. KOADROA: EELZ-ETAKO ORDUAK/LANGILEAK
47. KOADROA: LAN-ORDUAK/ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEEN ASTEA
48. KOADROA: LANGILEEN BATEZBESTEKO SOLDATA
49. KOADROA: ASTEKO SOLDATA GARBIAK
50. KOADROA: EELZ-ETAKO ORDU-KOSTUAREN ETA LAGUNTZAILEEN SOLDATEN ARTEKO ERLAZIOA
51. KOADROA: EELZ ZENBAT KOSTA IZATEN DEN ETA NOLA FINANTZIATZEN DEN
52. KOADROA: EELZ-REN FINANTZIAZIOA
53. KOADROA: ZER KORRELAZIO DAGOEN ZERBITZU/KOSTUAREN ETA ERAKUNDEEK NAHIZ ZERBITZU-HARTZAILEAK ORDAINTZEN DUTENAREN ARTEAN
54. KOADROA: ERABILTZAILEEK EMATEN DUTEN DIRUTZA



I. ATALA  
**ARARTEKOAREN AURKEZPENA**



Txosten monografiko hau, Ararteko erakunde honek Eusko Legebiltzarri aurkezten dion laugarrena da, eta 1994ko azken hiru hilabeteetan hasi eta 1995ean burututako ofiziozko jarduera bati erantzuten dio.

Horrek esan nahi du, lan hau Juan San Martin aurreko Arartekoak bururatu eta hasitakoa dela, eta horregatik eskerrak ematen dizkiot premiarik handienak dituztenen alde eginiko etengabeko defentsa lanagatik.

Aurreko jarduera monografikoak osatzeko jarraitu den eta neure egiten dudan irizpidea hau da: premiarik larrienak dituzten gizarte-taldean arazoak ofizioz tratatzea, beharrik handienak dituzten hiritarrak izanda ere, sistemak beraien esku jartzen dituen berme-tresnak gutxien erabiltzen dituztenak baitira eta, beraz, baita erakunde honetara gutxien jotzen dutenak ere.

Iaz Euskal Autonomia Erkidegoko Adinekoen Egoitzen egoeraz txosten bat aurkeztu zenez gero, ia ezinbestekoa zen hurrengo txostenak adinekoentzat dauden beste zerbitzu alternatiboan azterketa burutzea, egoitzetan ez dauden adinekoak bezalako talde baten premiei aginte publikoetatik ematen zaien erantzuna ezagutzeko, talde horretakoak beste hiritarrak baino behar handiagoekin egon baitaitezke.

Egoitzei buruz aipatutako txostenean erakunde honek laugarren gomen-dioan hau eskatzen zuen: “adinekoei beren ohizko giroan jarraitzeko aukera emateko dauden zerbitzu-eskaintza alternatiboak gehitu behar dira”.

Adinekoa, ahal bada, bere etxean eta familia giroan baino hobeto inon ez dagoela dioen printzipioa onartuz, uste dugu adinekoentzako egoitzak ez diren beste zerbitzu alternatiboak eta osagarriak sustatu behar dituela Administra-zioak. Horretarako, apalki gure adinekoen egoera ezagutu nahi dugu eta eza-gutzero eman, jarduera egoki bat planteatzeko, gogoetarako bide izan dadin.

Horretarako, kalera irten behar da, beraien etxebizitzetara joan, beraien beharrak ezagutu eta gizarteari eta aginte publikoei onartu ezin ditzakegun babesik gabeko egoerak erakutsi.

Gizarte baten osasun morala neurtzeko parametroa, gizarte horrek bere adinekoei ematen dien tratua dela esan izan da.

Ez gara ari belaunaldien arteko beharrezko elkartasunaz bakarrik, Zuzen-bideko Estatu sozial eta demokratiko batean hiritarrek dauzkaten eskubideez ari gara eta, beraz, horien arazoei erantzuteko neurriak martxan jartzeaz, alegia.

Hau bezalako lan monografikoak osatzen direnean, oso konplexuak direnez, aztertu behar diren gai guztiak ezin tratatu izaten dira.

Nolanahi, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen errealitatera egin den hurbilpena zorrotza eta aski zehatza izan dela esan dezakegu, gure lurraldean

egoitzez kanpo adinekoentzat dauden eskaintza publikoen ikuspegi ahalik eta zuzenena ematen baitio.

Lan monografikoak burutzeko eguneko zentroetara eta beste administra-zio zentro batzuetara egindako bisiten bitartez ikerketa lan bat egin nahi izan dugu, datuak biltzeko eta errealitatea ezagutzeko. Beste alde on batzuk ere badauzkate bisita horiek: alde batetik, gure erakundea hurbiltzen dute beren eskubideez eta eskubide horien babeserako erakundeez baliatzeko joera handiegirik ez duten hiritarrengana; eta, bestetik, prebentzio-neurri egokia izan daitezke administrazioaren jardura zuzena izan dadin, kontrol-erakunde batek ikuskatuak izan daitezkeela ikusten dutelako.

Amaitzeko, txosten hau burutzen aritu diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.

Lehenik, bihotz-bihotzez eta bereziki azpimarratuz, beren etxeetako ateak zabaldu dizkiguten aiton-amonei, beren denbora eskaini digutelako, erakunde honek Etxez etxeko Laguntza aztertzeko eta beraiek zerbitzu horri buruz duten iritzia ezagutzeko.

Hiru foru aldundietako Gizarte Ongizate sailtako arduradunei eta sail horietako taldeei, adinekoen ardura daukaten udal arduradunei bezalaxe.

Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Sailburuari eta bere taldeari, eskatu zaizkion gaietan eman duen laguntzagatik.

Iritziak emanaz, beraiek alor horri buruz ezagutzen dutenaren berri azalduaz eskuzabaltasunez lagundu diguten elkarte, sindikatu eta enpresei.

Azkenik, txosten hau atal ezberdinetan osatzeko lanean aritu den erre-dakzio eta ikerketa taldeari, SIIS Fundazioko kideei eta bereziki Ramon Saizarbitoria bertako zuzendariari, Ararteko Erakundeko taldeari bezala.

Amaitzeko, txosten honek gogoetarako bide emango duela espero dut, eta baita dei bat ere izango dela, aginte publikoek hain premiatsua den taldeari eman beharreko laguntza-zerbitzuetan sakon dezaten.

Xabier Markiegi Candina  
ARARTEKOA

II. ATALA  
TXOSTEN HONEN OSAKETAREN  
HELBURUAK ETA METODOLOGIA



## 2.1. HELBURUAK

Txosten honen bidez egoitzetatik kanpo bizi diren aiton-amonen egoera aztertu nahi da, eta zehazkiago, aginte publikoek adinekoen premiei ematen dizkieten erantzunak eta Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoentzako egoitzeez kanpoko giza zerbitzuak erabiltzen dituzten aiton-amonen eskubideak zein diren.

Azterketa honetan, adinekoen egoitzeez kanpo dauden bi eskaintza mota nagusiak arakutzen dira: etxez etxeko laguntza eta eguneko zentroak.

Ez dira aztertu egoitzeez kanpo dauden beste giza zerbitzu batzuk, hala nola egoitzetan aldi baterako egonaldiak edo babesak ematen duten familiak.

Familietan babesak emateko dauden programak oso-oso urriak dira, eta zerbitzu hori erabili duten aiton-amonak oro har oso ongi hartu duten arren, hain gutxi direlako ez dugu horien azterketa zehatzik egin.

Bestalde, egoitzetan aldi baterako egonaldien esperientzia oso interesgarria ikusi da, gainera adinekoak zaintzen dituzten familiei laguntzen zaie adinekoek familia giroan egoten jarraitzen dutelarik; baina zerbitzuaren iraupena hain laburra,enez gero, 2 egun eta 2 hilabete bitartekoa baita, zerbitzu horri buruzko azterketa egitea oso zaila gertatzen da, eta oso gutxi hedatua dagoenez ez da azterketa hori justifikatzen.

Uste dugu, ordea, zerbitzu hori eskainiko duten plazak jarri beharko direla nahiz Eguneko Zentroetan, nahiz egoitzetan asteburuetakoko zerbitzua eskaintzeko.

Helburu nagusia helburu zehatz batzuetan gauzatzen da:

- 1- Euskal Autonomia Erkidegoko egoitzaz kanpoko adinekoentzako laguntza-zerbitzu sistemaren ebaluaketa.
- 2- Etxez etxeko Laguntzaz baliatzen diren aiton-amonen egoera aztertea, beraien eskubideak zenbateraino errespetatzen diren eta zerbitzuaz eta langileez daukaten iritzia ezagutzea.
- 3- Euskal Autonomia Erkidegoko eguneko zentroen egoerari buruzko azterketa: dagoen eskaintza, prestazio eta zerbitzuen maila, higiezin-egoera.

## 2.2. METODOLOGIA

### 2.2.1. Txostenaren eremua

Ararteko erakunde honek, euskal aiton-amonen egoera aztertzeari ekin zionean, zenbait alor azterketa horretatik kanpo uztea erabaki zuen, hala nola, oñasun gaiak edo pentsioekin lotutakoak eta etxebizitza edo denborapasa arazoak. Adinekoen bizitza kalitatean horiek eragin zuzena duten arren, ez zen ikusi burutu nahi zen proiektuan sartzeko premiarik.

Horrela, lehen txosten bat egin eta Eusko Legebiltzarrari 1993ko abenduaren 28an igorri zitzaion (batzordearen aurrean) 1992-1993 ekitaldiko txosten berezi gisa, adinekoen egoitzetan zeuden aiton-amonen egoera aztertzen zelarik.

Orain aurkezten dugun txosten hau adinekoentzako zerbitzu publikoen azterketen zirkuloa ixteko bokazioarekin sortu zen, egoitzez kanpoko eskaintza aztertuz, alegia, nagusiki eguneko zentroak eta etxex etxeko laguntza ikertuz, lehen esan den bezala.

### 2.2.2. Metodologia

Ararteko erakundeak egin dituen beste lan monografikoen antzera, aztergaiaren errealitatera hurbiltzeko bide ezberdin eta osagarriak erabili dira.

Adinekoen egoitzei buruz egin zen lanak, egoitzez kanpoko zerbitzuei buruzko ikerketan kontuan eduki beharreko pautak batzuk eskaini zizkigun, zeharka eta maila batean bakarrik izan bazen ere.

Giza zerbitzu horien funtzionamentuari buruz hiritarrek aurkezten dituzten kexen oinarrian beti arazo oso zehatzak eta partikularrak dauden arren, planteatzen diren arazoak sistemaren oker hutsak edo hedatuagoak ote diren jakiteko aukera ematen dute.

Propio ikerketari dagozkion faseei helduz, egoeraren alde zuzeneko diagnostikoa egin eta behin-behineko gidoi bat diseinatu zen gaien arabera, aztertu beharreko arazoak mailakatzeko eta baloratzeko.

SIISen zegoen eta etxex etxeko laguntzarekin zerikusia zeukan dokumentazioa ere zehatz-mehatz aztertzeari ekin zitzaion. Guztira zazpirehun dokumentutik gora aztertu ziren, bereziki Europar Batasuneko politikak orokorrak eta sailen araberrak kontuan izan zirelarik. Inguruko herrialdeetan zerbitzu horiei buruz zegoen eskari eta eskaintzari buruzko datu estatistikoak ere bildu ziren, Euskal Herriko errealitatea egokiki kokatzen lagunduko ziguten erreferentzien bila.

Bigarren fasea lehenengoaren osagarria izan zen, eta horreterako bi mahai inguru antolatu ziren, horietara gaiarekin erlazioz zuzenean zeuden eta alor ezberdinetakoak ziren pertsonak gonbidatu zirelarik.



Bilera bakoitzari egun bat eskaini zitzaion, eta alde zuzenetik gonbidatuei aztertzekeo bidali zitzaizkien gidoiak jarraituz burutu ziren. Lehenengo bileran, administrazio eta antolaketa mailako gaiak eta lege eta finantziaketa aldetik zeuden arazoak aztertu ziren. Bertan, Ararteko bulegoko eta SIISeko ordezkari-  
ez gain beste sail hauetako teknikariek ere parte hartu zuten:

- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate Zuzendaritza
- hiru Foru Aldundiak
- hiru hiriburuetako Udalak
- beste Udala eta Mankomunitate batzuk, hala nola Eibar, Audio, Tolosa eta Lea Artibai
- Caritas eta Gurutze Gorria

Gai laboral eta enpresarialak aztertzekeo egin zen bigarren bileran bildu ziren etxez etxekeo laguntzarako bost enpresateko teknikariak -ASAD, Arabako Laguntza, Servicios Sociales Integrados, Etxe Laguntza eta Guztiontzat- eta UGT, LAB, ELA, ESK-CUIS eta CCOO sindikatuetekeo ordezkariak. Sindikatuetekeo dagokienez, azpimarratu behar da Euskal Autonomia Erkidegoa jarduera eremutat daukaten guztiak gonbidatuta zeudela bileran parte hartzera.

Aztertu beharrekeo arazo nagusiak finkatu ondoren, galdeketak diseinatu ziren. Galdeketa horiek hirugarren fase batean erabiliko ziren, aztertu behar zen sailean zuzenki murgilduta dauden lau alorrek sakonki atzertzekeo bide emango zutelarik. Hauek dira aipatutako lau alorrek: teknikariak, Administrazio Publikotik zerbitzua gestionatzen dutenak; enpresa partikularretekeo arduradunak, sarritan azpikontratazio bidez zerbitzu horien kargu daudenak; adineko-  
koei laguntzekeo eguneko zentroetekeo arduradunak; eta azkenik, etxez etxekeo laguntza zerbitzua hartzen dutenak. Lehenengo hiru kasuak atzertzekeo unibertso osoarekin egin zen lan.

Gaur egun Administrazio Publikotik etxez-etekeo laguntza gestionatzen duten 144 teknikarier egin zitzaion itaunketa ondorengo gaier buruzko informazioa biltzearren:

- zerbitzuaren antolaketa,
- zerbitzua jasotzekeo baldintzak,
- norabideak eta araudiak,
- zerbitzuaren ezaugarriak eta laguntza-motak,
- datu estatistikoak eta funtzionamentua,
- premien ebaluaketa, eta
- langileen ezaugarriak, zegozien kasuetan bakarrik, hau da, langileak Administrazioak zuzenean aukeratuak eta kontratatatuak ziren kasuak bakarrik.

Sail horretan administrazioen eskariz lanean ari ziren 29 enpresei ere egin zitzaion galdeketa, eta bereziki lan alorrekeo gaiak azpimarratu ziren: kontratazio baldintzak, soldata mailak, ordutegiak, langileen prestaketa, etabar.

Azter zitezkeen gaier artean, besteak beste honako hauek finkatu ziren: egoitzez kanpoko zerbitzuen eskaintza urria, eta ondorioz eskari asko bete gabe utzi beharra; egoitzez kanpoko zerbitzueri buruz adinekoek daukaten

informazio falta; etxez etxeko laguntzan aritzen diren langileen egoera, beraien zeregiaien eta lan baldintzen definizio eza eta soldata arazoak.

Etxez etxeko laguntzaz baliatzen direnen azterketa burutzeko lagin-teknikak erabili behar dira; teknika horiek lurralde historiko ezberdinetako zerbitzu-hartzaileen egoera adierazteko aski errepresentagarriak izan behar dute, ondoren Euskal Autonomia Erkidego mailan ondorioak ateratzeko.

Horrek, zerbitzu-hartzaileen etxetara joatera behartzen gintuen, etxean bertan galdeketei erantzun ziezaieten. Era berean, administrazio ezberdinetara ere galdeketak bidali ziren, zein zerbitzu eta nola araututa zeuden ezagutzeko.

Inkesta egiteko oinarritzat hartu zen galdesortak ehun eta berrogeita hamar galderatik gora zituen eta bere helburua zerbitzuaren aspektu kuantitatibo eta kualitatiboak, zerbitzu-hartzaileen premiak eta premia horiei eskaintzen zitzairen arreta ezagutzea zen. Zehazkiago, behatu nahi ziren aspektuak hauek ziren:

- Familiako eta gizarteko giroa: habitataren baldintza materialak -auzoa, etxebizitza, instalazioak, zerbitzuak, mugak, etabar-, familia mota eta zerbitzu-hartzaileak familian jokatzeko zuen papera, familiako kideen ezaugarriak.
- Zerbitzu-hartzaileek zeukaten autonomia pertsonala eta inguruak konpondu dizkion arazoak. Eguneroko jardueri eskaintzen zitzaizkien hogeita hamazazpi galderen bidez, adinekoaren gaitasuna neurtzeaz gain, eduki dituen edo daukan gabeziak betetzeko gertuko bere girotik jaso duen laguntza ere neurtu nahi izan zen.
- Zerbitzuaren ezaugarriak: ordutegia, egindako lanak eta zerbitzu-hartzailearen beharretarako egokitzapena.
- Zerbitzu-hartzaileak hartu duen laguntzari buruz duen iritzia.
- Adinekoak beste zerbitzu-aukera batzuk ezagutzen ote dituen eta egoitza batean sartzeari buruz duen jarrera.

Inkesta 1995eko martxoan egin zuen EMAIKER, S.L. Azterketa Soziologikoetarako Kabineteak eta 505 zerbitzu-hartzailearen etxebizitzetan burutu zen: une hartan zeuden 100 zerbitzu-hartzailetatik %6,3. Emaita osoetarako espero den errore-tartea Autonomia Erkidego mailan %4,99 da.

Bestalde, txosten hau 1995eko azaroan bukatu den arte Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoei laguntzeko dauden 22 eguneko zentroak bisitatu ziren, kopuruak ematen baitzuen horretarako aukera, eta guztietan informazio bera jaso zen: inguru fisikoaren baldintzak, zerbitzu eta langile-zuzkidura eta praktika profesionalak.

Esan behar da, ikerketari ekin zitzaionean 13 eguneko zentro zeudela Euskal Autonomia Erkidegoan; kopuru hori 22ra igota zegoen txosten hau amaitu zenean.

Ikusten da, beraz, eguneko zentroak sortzeko joera badagoela; zentro horiek normalean udal mailakoak dira eta egoitza edo zahar-etxe bat dagoela aprobetxatuz irekitzen dira, eta litekeena da, ondorioz, txosten hau argitaratzeko beste batzuk martxan jarrita egotea.

Zentroetara egindako bisiten bidez, lehen esan bezala, eguneko zentroa kokatutako eraikinaren egoera materiala eta bete bahar dituen zereginetarako daukan egokitasun maila ikusi nahi ziren, giza zerbitzu horretaz baliatzen diren zerbitzu-hartzaileen egoera aztertzearekin batera.

Ararteko erakundeko ordezkariak ondorengo eguneko zentroak bisitatu dituzte:

| ARABA                        |             |
|------------------------------|-------------|
| AJURIA EGUNEKO ZENTROA       | GASTEIZ     |
| ARANA EGUNEKO ZENTROA        | GASTEIZ     |
| SAN PRUDENCIO EGUN. ZEN.     | GASTEIZ     |
| TXAGORRITXU EGUN. ZEN.       | GASTEIZ     |
| TXAGORRITXU E.Z. PSIKOPE.    | GASTEIZ     |
| BIZKAIA                      |             |
| EGUNON ETXEA EGUNEKO ZENTROA | BILBO       |
| TXURDINAGA EGUNEKO ZENTROA   | BILBO       |
| EGUNEKO ZENTROA              | MUSKIZ      |
| UDALAREN EGUNEKO ZENTROA     | ORTUELLA    |
| EGUNEKO ZENTROA              | PORTUGALETE |
| GIPUZKOA                     |             |
| EGUNEKO ZENTROA              | DEBA        |
| MATIA EGUNEKO ZENTROA        | DONOSTIA    |
| LAGUNTZA-ETXEA               | DONOSTIA    |
| NTRA. SRA. DE LAS MERCEDES   | DONOSTIA    |
| EGUNEKO ZENTROA              | EIBAR       |
| EGUNEKO ZENTROA              | HONDARRIBIA |
| UDALAREN EGUNEKO ZENTROA     | IRUN        |
| EGUNEKO ZENTROA              | LEGAZPIA    |
| EGUNEKO ZENTROA              | PASAIA      |
| EGUNEKO ZENTROA              | ERRENTERIA  |
| EGUNEKO ZENTROA              | TOLOSA      |
| EGUNEKO ZENTROA              | URRETXU     |

Eguneko zentroetara egindako bisitetatik eta zentro horietan egindako galdeketetatik ateratako emaitzekin, Euskal Autonomía Erkidegoan zentro horiek daukaten errealitatea zentuz ezagutzeko aukera izan da.

Aginpideen banaketa, arautegien azterketa eta zerbitzu-hartzaileen esku-bideei dagozkien atalak adinekoen egoitzei buruz egindako txostenean aztertutako berdinak dira. Aurreko txosteneko erreferentziak ematera muga gintezkeen, baina gogoeta juridiko haiek hemen ere sistematikoki jasotzea egokia goa ikusi dugu; alor honetan ezartzen ez direnak baztertu egin dira, ordea, eta, aldiz, azterketa honi berez dagozkionak gehitu.

Azkenik, esan behar da txosten hau idazteko gaiari buruzko bibliografia ugari aztertu dela, txostenaren azken emaitza lortzeko ezinbestekoa.

Txostenaren helburua, ordea, legebiltzar honi aurkeztea denez, aipamen bibliografikoak ez dira sartu, alor akademikoan nahitaezkoa izango zen arren.

Baina, gai hau sakondu nahi duenarentzat azken eraskin batean badoa oinarritzko bibliografia bat, gaia sakonkiago aztertzeke ezinbesteko erreferentziak ematen dituen.

III. ATALA  
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA  
ZERBITZUA EUSKADIKO  
AUTONOMIA ERKIDEGOAN



### 3.0. SARRERA

Gaiso eta adinekoei etxez etxeko laguntza eskaintzea –gehienbat sektore informalen aldetik– honez gero ohizkoa bada ere, laguntza hori baliabide publiko gisa eskaintzea eta, horrenbestez, gure lurralde osoan zehar zabaltzeko programa publikoak –udaletakoak batez ere– bideratzen hastea gauza berri samarra da, 1980 ondoko lehen urteetakoa.

EAEko etxez etxeko laguntzari buruzko programa haiek –Espainiako Estatuan aintzindari zirenak– bazituzten zenbait ezaugarri, guztiz espezifikoak ez izan arren, gogorarazi beharrekoak, programen bilakabidea baldintzatu baitzuten.

Foru Aldundiak, etxez etxeko laguntza finantzatzeko, “Gizarte Egoera Larrialdietarako Planak” deiturikoak bideratu zituzten. Plan horiek bi helburu nagusi zituzten. Bietan garrantzikoena jendeari, batez ere diru premia zuten emakumeei, nolabaiteko laguntza ematea zen. Horretarako adinduen eta ezinduen zaintza –eta hauxe da hain zuzen ere beste helburua– eskaini zitzaien.

Helburu bikoitz horrek erakargarriago egin zezakeen, itxuraz behintzat, etxez etxeko laguntza, errentagarria izan zitekeen aldetik. Baina, aitzitik, helburu bikoitz horren ondorio zuzena, ez ordea desiragarria, laguntzailearen eginkizunak balioa galtzea izan zen, aldeaz edo moldez «onuradun» delakoaren irudierekin lotzen baitzen.

Horiek izanik oinarriak, zaila zen ikusaraztea etxez etxeko laguntzak eskatzen dituen egitekoak eta funtzioak behar bezala betetzeko ardura bere gain hartuko zuen langile profesionala definitzeko zegoen premia. Ez bada ere erantzule bakarra, eta ezta garrantzikoena ere, egoera horrek ez zuen batere laguntzen langileen kontratazio baldintzak lan zuzenbidera egoki zitezen, eta ezta ordainsariak bete beharreko lan motarekin bat etor zitezen ere.

Bestalde, oso bakanetan aritu ziren –inoiz ez zirela aritu ez esatearren– etxez etxeko laguntzan elkar harturik sektore formal eta informala. Eta geroago «ongizatearen ekonomia mistoa» deitua izan denak ez zuen inolako garrantzirik izan, ezta ikuspegi teoriko huts batetik begiratuta ere. Inoren laguntzaren mende zeuden pertsonak zaintzeko erantzukizuna pribatua ala publikoa izaten zen, inoiz ez batarena zein bestarena, eta bigarren horrena jendea instituzioetan sartzera mugatzen zen.

Logikoa zenez, zerbitzu-hartzaile bihur zitezkeenak, batez ere adinekoek, nekez uler zezaketen zerbitzuaren benetako zentzua. Izan ere, laguntza hori hartzeak erants ziezaikeen izen txarren beldur baitziren, hots, bai beraiek beren burua bai gizarteak bere aldetik “inoren laguntzaren mendeko” edo “bakarrik utzitako” pertsona gisa ikustearen beldur. Edo, agian, beren intimitatea gorde nahiko zuten, arriskuan ikusten zutelako. Kontua da hasieran, ageri-

ko eskaririk ez zegoen lehenengo aldi hartan, zerbitzuaren promozioa egin behar izan zela zenbait tokitan, zerbitzu-hartzaileak “aurkitu” ahal izateko.

Nolanahi ere, eraginari buruzko azterketarik ez, ez dago ezer segurtazterik, eta litekeena da, aurreko guztia kontuan hartuz, herritarren sektore batzuek, nork gehiago nork gutxiago, pentsatzea nolabait alferrik ari zela alor publikoa pribatuan esku hartzen. Eta dena esan behar bada, zenbait udaletzek zerbitzu-hartzaileen hautaketarako erabili zuten teknikaren desegokitasunak lagunduko zuen ere gauzak era horretara uler zitezten.

Köntzeptuzko okerren edo gaizki ulertuen saila osatzeko ez da ahaztu behar etxez etxeko laguntza zerbitzuak biztanleriaren benetako arazoei aurre egiteko ez ezik, edo agian horretarako baino gehiago; Europan jadanik sendo ziren modu eta prozedurekin lehian sartzeko sustatu zirela, baina epe ertain eta luzera egin beharrekoak garbi zehaztu gabe beti ere.

Jasotako eskariekin batera zerbitzuaren eskaintza-parametroak pixkana handitzeak, eta langileen jomuga profesionala –ekonomikoa barne– gero eta gorago egoteak programaren kostu orokorra gehiegitxo handitzea eragin dute, eta baita, gainera, halako liskar giroak erroak egitea ere. Horrek guztiak ez du, noski, batere lagundu elkar hartze egokian aurrera egiten, eta ezta konpromezuak hartzen ere. Are gutxiago –eta lehen esandakoaren ildotik– udal-txe batzuentzat etxez etxeko laguntza esparru pribatuari baino ez dagokiola eta programaren finantza bideak urri samarrak direla kontuan hartzen bada.

Aipagarria da, gatazkaren mugari nagusietako bat delako, zerbitzu-hartzaileak zuzenean langilea ordaintzea zela eta –erantzukizun laboralak saihesteko, INSERSOk egin izan zuen bezala, eta, bide batez esanda, oraindik ere udal-txe batzuek egin ohi duten bezala–, langile horiek harreman laborala bazutela aintzat hartzea eskatu ziotela Sozial auzietarako Epaitegieari, eta hala aitortu izan zutela bai Epaitegi horiek bai Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Justizi Auzitegi Goreneko Sozial auzietarako Salak.

Izan ere, udaletxeek zuzenean kontratatu zituzten langileen artean, askok auzibidez lortu zuten egoera arautzea. Nolanahi ere, hori lortzeko bidea gorabehera, laguntzaileak, udal enplegatuak, talde txikia osatzen dute bi mila langileko taldearen barruan. Izan ere, udal-batza gehienek ekimenez enpresak –kooperatibak gehienbat– sortu baitziren zerbitzua bertan kontratatzeko.

Aipagarri da halaber, langile horiek onartu behar izan ziren udal-txe askotan, kontratu berriak zirela eta, kostuaren gehikuntzaren arabera moldatu zituztela zerbitzuak. Izan ere, sektore horretako langileen eta enpresen hobera egin nahiak mugatzeko erabiltzen den arrazoi nagusia hau baita: aurrerantzean ezingo zaiola zerbitzuen ordu arteko hedapen eta intentsitate mailari eutsi, ez sektore publikoan ez pribatuan, etxez etxeko langilearen antzeko funtzioak betetzen dituzten langileen konbenioak aplikatuz gero.

Logikoa da zerbitzuari dagozkion faktoreen kostuak eraginen bat izatea zerbitzuaren kalitatean eta maiztasunean, eta arrazoizkoa da, halaber, adinekoei etxez etxeko laguntza emateko gizarteari ordaintzea dagokion zenbatekoa neurtzea. Baina, nolanahi ere herritarren ageriko beharrak –oso egoera kaskarrean bizi baitira asko– bete daitezten langileek beren egoera hobetzeko asmoei



–horiek ere guztiz bidezkoak askotan– uko egin behar izateak argi eta garbi erakusten du, lehenxeago ere esan den bezala, bai zerbitzu-hartzaileak bai zaintzaileak “elkarren mesedean” ari diren pertsonatzat hartuak izaten direla.

Baldock eta Evers-ek<sup>1</sup> ere hori bera aipatzen dute. Eta horiek ere aipatzeak arazo hori guk eredutzat ditugun zenbait herrialdetan gurean baino larriagoa izan daitekeela esan nahi du, besteak beste. Aditu horiek aipatzen dutenez Holandan, Britainia Handian eta Suedian “etxez etzeko laguntzak langileak esplotatzeko arrisku handia dakar berekin” eta “argi dago diru publikoak ordaintzen diren etxez etzeko laguntza zerbitzuak eskaini ahal izatea, horretarako prest leudekeen langileak –emakumezkoak gehienetan– aurkitzeari dago kiola askotan; eta hain da ahula emakumeen tokia merkatuan ezen oso ordainsari urrien truke lan egiten baitute”.

Langileen eta Adminstrazioaren arteko gatazka funtsean arazo ekonomikoak izanagatik, badu beste alderdirik ere. Haien beste eskabideetako bat etxez etzeko laguntzailea profesionaltzat ezagutzea da, eta baita, ezaupide jakin batzuk behar baitira, betetzen dituzten funtzio anitzei dagokien estatusa ezagutzea ere. Adminstrazioarentzat, bestalde, eta ageriki esaten ez badu ere, etxean egin ohi diren oinarrizko lanetarako ez dago zertan eratu beste estatus profesional bat. Eta zera darabil, gainera, argudio gisa: estatus profesional arautu bat sortzeak malgutasuna galaraziko liokeela emakumezkoen lan merkatuari, emakumez eta etxeoandreez horni daitekeen eta hornitu beharko litatzatekeen lan merkatua baita hori; izan ere, emakumeek zatiko jardueran lan egin nahi izaten baitute, lanaldiaren osagarri, eta horrek, gainera, zerbitzu-hartzaileek nahiago izaten dituzten orduak eta zerbitzu eskaintza bat etortzea errazten baitu.

Gatazkaren izaeraz eta bilakabideaz honako gogoeta hauek egin daitezke:

- Gaur egun, etxez etzeko laguntza ez da, noski, alferrikako zerbitzutzat hartzen, baina, hala ere, bada oraindik alde batera utzi ez ote daitekeen ustea. Nekez uler daiteke oinarrizko zerbitzu bat bertan behera uzteko burutapena izatea galera politikoa handia jasateko arriskua izan gabe edo laguntza bideratzeko beste alternatibaren bat aurkeztu gabe.
- Zerbitzuari hasiera eman zion logikaren arabera, zerbitzu-hartzaileak eta etxez etzeko langileak elkarren mesedean diharduten onuradunak balira bezala hartzen dira –beste ezein sektoretan baino nabarmenago da hori horrela–, helburu bera duten kidetzat, alegia. Hala, bada, alde batekoen erreibindikazioak aintzat hartzeak dakarren kostu gehikuntzak nahitaez murrizketa dakarkiola onartu behar dute beste aldekoek.
- Hori dela eta sortu den interes borrokak –inoiz ere, eta denbora luzean gainera, gogorra izan dena– ez du batere lagundu kontzeptuzko eta estrategiazko auziak planteatzeko behar den giroa lortze aldera, eta hala ere, nola edo hala, konponbidea eman behar zaio auziari, gaur egungo eta ondorengo zerbitzu-hartzaileei laguntza egokia eman nahi bazaie.

<sup>1</sup> “Innovations and Care of the Elderly: The Cutting-edge of Change for Social Welfare Systems. Examples from Sweden, the Netherlands and the United Kingdom”. *Ageing and Society*, 12, 1992, 299. or.

Zerbitzua sortu zela hamabost urte igaro direnean, honako hau izango da, beharbada, oraindik konpondu gabe dirauen arazo nagusia: zer leku bete behar du etxez etxeko laguntzak gainerako laguntza moten barruan?

Zilegi bekigu gai honi buruz gogoeta egitea.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua adinekoak erresidentzietan ez sartzeko “aukera merke” gisa definitzea baliagarri gertatuko zen garai batean gai horrekiko uzkur agertu ziren politikoak komenitzeko edo inplikatzeko, baina gaur egun ez da inondik ere bidezkoa horrelakorik erabiltzen jarraitzea.

Nahiz eta, gizabanakoari dagokionez, hobe izan, gehienetan behintzat, etxeko laguntza izatea egoitza batean bizitzea baino, oro har, biak elkarren osagarri dira. Izan ere, EAEn egoitza plaza gehien eskaintzen dituen Lurralde Historikoa bera da etxez etxeko laguntzarako zerbitzu ordu gehien eskaintzen dituen ere. Hala, bada, egoitzak eta etxez etxeko laguntza, bata zein bestea, ahalik eta zabalena izan behar duen zerbitzu eskaintza orokorraren bi atal nagusi dira.

Teorian ez dago bi laguntza mota horien hartzaileak desberdintzen hasi beharrik. Izan ere, edozein pertsona, kasurik gogorrena izanda ere, hala nola arreta handia eta iraunkorra behar duenarena, egoitza batean laguntzarekin bizi den zerbitzu-hartzaile tipoa, alegia, etxean ere behar bezalako laguntza hartuta bizi baitaiteke. Baldin eta zerbitzuak badira zerbitzu-hartzaileen beharri-zanetara egokitu behar direnak, eta ez alderantziz, egia da ere, baliabideak ahalik eta hobekien aprobetxatzeko, hau da, behar bezala banatu ahal izateko eta, funtsean, ahalik eta errentagarritasun sozial handiena lortzeko, behar-beharrezkoa dela hartzaile izan daitezkeen pertsonen eta horien familia gora-beheren perfilak zehaztea.

Gure herrialdean eta, oro har, Europako gainerakoetan, ez dago adostasunik zerbitzu-hartzaile izan daitezkeen pertsonen ezaugarriak zehazterakoan. Eskaini beharreko lanaren gehienekoa mugatu ohi da, premia jakin batzuetatik aurrera egoitzan eman daitezkeen laguntza hobesten delako. Aukera horrek badu gutxienez aldaera bat: laguntza publikoaren gehienekoa mugatzea, bai, baina adinekoaren dependentzia maila muga izan gabe egoitzan sartzeko.

Zerbitzua hartzeko dependentzia mailaren gutxieneko mugak ere ezartzen dira. Puntu horretan daude, beharbada, kontzeptuzko gorabehera handienak. Alde batetik begiratuta, etxez etxeko laguntza batez ere ezintasun larriak dituzten pertsonen eskaini beharko litzaieke, gizabideak hala eskatzen duelako besterik ez bada ere. Baina, bestalde, etxez etxeko laguntzak zerbitzu arina eta batez ere prebentziozkoa izan beharko zuen, autonomia galera urria izan duten eta, beraz, laguntza batez ere zahartzeari egokitzeko behar duten pertsonen zuzendua.

Bada argudio bat bigarren tesi horren alde erabiltzen dena. Izan ere, egoitzan sartzeko baiespenaren zain, itxaron zerrendetan dauden pertsonak batez ere pertsona autonomoak edo ia autonomoak izaten baitira, beren buruaz baliatu ezinda gelditzeko beldurrez daudenak eta/edo ezgaitasuna eramaten ikasi ez dutenak. Baina ikerketa batzuen arabera, dependentzia mailak

ez du proportziorik gordetzen sare naturalak eraman dezakeen kargarekin, eta are gutxiago berari buruzko pertzepzioarekin.

Muga horiek direla eta, era batera edo bestera jokatzek –garrantzi guxtiago duten beste faktore batzuekin batera– elkarren muturreko bi jokabide adierazten dituzte etxez etxeko laguntzari dagokionez. Alde batetik, politika intentsiboa dago, egunean ordu askotako zerbitzua eskaintzearen aldekoa bera, trinkoa alegia, dependentzia handiko zerbitzu-hartzaileei zuzendua. Horren aurrean, aldiz, politika extentsiboak zerbitzu-hartzaileen kopuruan zabalagoa baina ordu kopuruan urriagoa den laguntza eskaintzen du.

Beraz, etxez etxeko laguntza intentsiboa edo extentsiboa izan, hainbat faktoreri dagokio, hala nola beste motako zerbitzuak ez izateari –erresidentzietan eta eguneko zentroetan laguntza berezia eskaintzen duten lekurik eza adibidez– edo, besterik gabe, jarduera lerro bakoitzarentzat aurreikusten den politika onuragarritasunaren handi-txikiari. Esan dezagun, azken horri dagokionez, lerro extentsiboa, prebentziosko lerroa alegia, oso kritikatu izaten dela, probetxu politikoa bilatu nahia leporatzen baitzaio, laguntza ahalik eta zerbitzu-hartzaile gehienengana zabaltzen saiatzeagatik, erabat edo ia autonomo diren adinekoen artean hautaketa eginez horretarako.

Ez da dependentziaren handi-txikia, ordea, hautaketa burutzeko erabiltzen den irizpide bakarra, eta ezta kontzepziosko eragozpen gehienak planteatzen dituen ere. Izan ere, zerbitzu-hartzaile izan daitezkeen beharrianak handiagoak edo txikiagoak izatea, eta beharrian horiei dagokien laguntza kultura faktoreei baitagokio, hala nola gizartean eta familiarean inoren laguntza izan edo ez izateari eta komunitatearen zerbitzuek ingurune natural horri dagokion papera ikusten duten moduari.

Familia, ahula edo zaharkitua delako, beste zerbaiten ordez aldatu behar den baliabidez hartzea badago. Halaber, harekin batera lankidetzan aritu behar den baliabide osagarritzat har daiteke, duen eginkizuna bete dezan lagunduz eta hondatzetik begiraturaz. Azkenik, familia inguruko kideak, eta batez ere zaintzaile nagusien papera betetzen dutenak era agerian edo isilpean laguntza beharrean dauden zerbitzu-hartzaile berezitat har daitezke; laguntza, adibidez, autonomia arazoak dituen familiarterako batek baldintzatutako egoerei egokitze beren osasun fisikoa eta mentala galtzeko arriskurik gabe eta ongizatea gordez.

Jakina, laguntza emate horretan sare naturalak bete behar duen papera zer ikuspegitik aztertzen den, eragin zuzena du etxez etxeko laguntza zerbitzua ezartzean eta haren parametro nagusietan. Hori dela eta, ahalik eta zuzenen zehaztu behar dira estrategia arazo horiek, bai eta beste batzuk ere, etxez etxeko laguntzari eskainitako gizarte ekimenaren ahaleginak lortu nahi den eragina izan dezan.

“Ongizatearen ekonomia mistoaren” ikuspegitik laguntza formalak eta informalak elkar baztertu barik elkar harturik aritu beharra daukate. Ez dago soilik “publikoari” edo soilik “pribatuari” dagokion esparrurik. Sare informala egoteak ez du sare formala laguntzan parte hartzetik salbuesten eta, noski, berdin alderantziz ere: sektore publikoak eskuhartzeak ez du esan nahi sare

informala ordezkutzen duenik, eragin handiagoa izan behar duela baizik, ongi-zate orokorra, hau da, laguntzaren mende dagoen adinekoarena eta beronen familiartekoena, bilatuz.

Gainera, ekonomia mistoaren aurka doan “dena ala ezer ez” politika gainditzeko, zerbitzuek molda-errazak izan behar dute nahitaez, laguntzaren mende dauden pertsonen eta haiei laguntza ematen dien sare informalak dituzten era askotako beharrianetara egokitzeko modukoak.

Horretarako baliabide formalak zein informalak kudeatzeko eta mota desberdineko profesionalak eta boluntarioak helburu baten inguruan koordinatzeko gauza izango den EAE mailako laguntzarako politika aurrera bultzatu beharko da, elkarrekiko mesfidantzak –maizenean funtsik gabeak, bide batez esanda– gainditu ondoren beti ere.

Gizarte Zerbitzuetarako Legeak, hamabost urte betetzera doanean, oraindik ez da horrelako politikarik bideratzea lortu. EAE mailako laguntzaren ardatza den etxez etxeko laguntzari dagokionez, errealitatea askotarikoa da, beste sektore batzuetan den bezala. Baina askotasun hori ez da, ez beti behintzat, arazo partikularretara jakinaren gainean egokitu izanaren ondorio, hots, erabaki politikoen ondorio. Alderantziz, askotan, irizpide politikorik ezaren, axolagabetasunaren eta ezjakintasunaren ondorio da.

Orain, azterketa honetan azaltzen ahaleginduko garen aniztasun horrek gauza bat adierazten du beste ezeren gainetik, hots, gure komunitateko adineko guztiei ez zaiela beren ohizko ingurunean, egoera kaskarretan bada ere egon nahi duten horretan, bizitzeko oinarrizko eskubide sozial bera aitortzen.

### 3.1. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUEN PARAMETRO NAGUSIAK EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN

#### 3.1.1. Intentsitatea, maila eta hedapena

EAEko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak 65 urtez gorako 8.214 pertsoneri lagundu zien 1984. urtean zehar. Pertsona horiek etxez etxeko langileen bitartez Gizarte Ongizaterako alorraren zerbitzuak hartutakoak dira, hau da, kopuru horretan ez dira sartu osasun zerbitzuen laguntza hartu zutenak. Beraz, xifra hori 65 urtez gorako biztanleen %3.05i dagokio<sup>1</sup>.

Laguntzari dagokionez, Araba da hedapena indizeirik handiena eskaintzen duen lurraldea (%3.87), eta, kontuan hartu behar da, erresidentzietan eta eguneko zentroetan ere hedapenik handiena eskaintzen duena dela.

#### 1. KOADROA: LAGUNTZA ZERBITZUAK 65 URTEZ GORAKO PERTSONENTZAT EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN

|                           | EAE     | Hedap.<br>% | ARABA  | Hedap.<br>% | BIZKAIA | Hedap.<br>% | GIPUZKOA | Hedap.<br>% |
|---------------------------|---------|-------------|--------|-------------|---------|-------------|----------|-------------|
| 65 urtez gorako bizt.     | 269.098 | -           | 30.952 | -           | 152.082 | -           | 86.064   | -           |
| EELZren lag. hartutakoak  | 8.214   | 3,05        | 1.192  | 3,85        | 4.557   | 2,99        | 2.465    | 2,86        |
| Erresidentzietan izanak   | 9.500   | 3,53        | 1.660  | 5,36        | 4.662   | 3,06        | 3.178    | 3,69        |
| Eguneko Zentroetan izanak | 440     | 0,16        | 146    | 0,47        | 105     | 0,06        | 189      | 0,22        |
| Guztira (hiru zerbitzuak) | 18.154  | 6,74        | 2.998  | 9,68        | 9.324   | 6,13        | 5.832    | 6,77        |

Informazio etorbidea: Foru Aldundiak 1995. Bertan egindakoak

Izan ere, Arabak 65 urtez gorako biztanleen %9,3 babesten baitu, Gipuzkoak %6,3 eta Bizkaiak %5,9. EAEn 65etik gorako biztanleen %6,4k hartzen du hiru zerbitzu (EELZk, erresidentziak edo eguneko zentroak) horietako baten laguntza.

Bizkaietan eta Gipuzkoan 65 urtez gorako biztanleen %2,99k eta %2,86k hartzen du, hurrenez hurren, etxez etxeko zerbitzuen laguntza, eta Araban, berriz, 65 urtez gorako biztanleen %3.87k.

Zerbitzu-hartzaile bakoitzak 5.67 orduko laguntza hartzen du batez beste astean. Laguntzaren intentsitatea –zerbitzu-hartzaile bakoitzak astean zehar dituen laguntza orduen bitartez emana– handiagoa da Araban beste lurraldeetan baino: Arabari 6.77 orduko laguntza dagokio astean, Gipuzkoari 6.37 eta

<sup>1</sup> Ez dira ere kontuan hartu zenbait erakunde ongilek lagundutako pertsonak. Erakunde horien artean aipagarria da, egiten duen lanagatik, Caritas.

Bizkaiari, berriz, 5.01. Bizkaia da, gainera, arestian esan dugun bezala, hedapen indizerik txikiena duen Lurralde.


Laguntza zenbaterainokoa den hobekien adierazten duen indizea "maila" da: laguntza orduak adinekoen populazioaren arabera. Araban 261 orduko laguntza ematen da astean 65 urtez gorako mila biztanleko, Bizkaiari 150 eta Gipuzkoari 182.



## 2. KOADROA: LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK BIZTANLERIA OSOAREKIKO

|   | EAE       | ARABA   | BIZKAIA   | GIPUZKOA |
|---|-----------|---------|-----------|----------|
| 1. EELZ lag. +65 pers. kop.   | 8.214     | 1.192   | 4.557     | 2.465    |
| 2. +65 biztanle kopurua   | 269.098   | 30.952  | 152.082   | 86.064   |
| 3. Hedapena (Lag. hartutako pertsona kop./ Biztan. osoa x 100)      | 3,05      | 3,87    | 2,99      | 2,86     |
| 4. Adindunei urtean eskainitako laguntza orduak                     | 2.423.563 | 419.920 | 1.187.498 | 816.145  |
| 5. Laguntza orduak astean   | 46.607    | 8.075   | 22.836    | 15.695   |
| 6. Intentsitatea (Lag. orduak astean zerbitzu-hartzaile bakoitzeko) | 5,67      | 6,77    | 5,01      | 6,37     |
| 7. Maila (Zerbitzu orduak astean 65 urtez gorako 1.000 biztanleko)  | 173,19    | 260,90  | 150,16    | 182,42   |

Informazio etorbideak: Foru Aldundiak. Bertan egindakoak.

### 1. GRAFIKOA: EELZEN ADIERAZLEAK BIZTANLERIA OSOAREKIKO ETA LURRALDEKA





Argi dago 1980-1990 hamarraldiko azken urteetan zerbitzuak aurrera-  
pen bizkorra izan ondoren, ekimen publikoa, sektore horri dagokionez, gelditu  
egin dela, eman lezakeen guztia eman balu bezala. 1991tik 1994ra mailak  
Gipuzkoan baino ez du aurrera egin. Izan ere, lurralde horretan Zerbitzuak  
bilakabide historiko bizkorragoa izana zuen, eta horren ondorioz edo, zenbait  
urtetan nolabaiteko geldialdia jasan zuen.

### 3. KOADROA: EELZEN ADIERAZLEEN BILAKABIDEA

|          | 1988   |        | 1989   |        | 1991   |        |       | 1994   |        |        |
|----------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|-------|--------|--------|--------|
|          | HEDAP. | KOBER. | INTEN. | MAILA  | HEDAP. | INTEN. | MAILA | HEDAP. | INTEN. | MAILA  |
| ARABA    | 1,70   | 2,59   | 9,46   | 167,54 | 3,55   | 8,02   | 285,5 | 3,87   | 6,77   | 260,90 |
| BIZKAIA  | 1,51   | 1,81   | 8,48   | 153,06 | 2,28   | 7,42   | 169,4 | 2,99   | 5,01   | 150,16 |
| GIPUZKOA | 2,11   | 2,32   | 7,52   | 181,49 | 2,34   | 6,39   | 149,8 | 2,86   | 6,37   | 182,42 |
| GUZTIRA  | 1,72   | 2,08   | 7,66   | 159,54 | 2,44   | 7,20   | 175,8 | 3,05   | 5,67   | 173,19 |

Informazio etorbideak: Foru Aldundiak. Bertan egindakoak.

Oro har, intentsitatea apaldu izanak, hau da zerbitzu-hartzaileek batez beste hartutako laguntza orduen kopurua gutxitzeak, eragin du beherakada. Ematen duenez, beraz, datuek hala erakusten baitute –Bizkaiko biztanle kopuruak duen pisua kontuan hartuta beti ere–, hedapena handitzea eta, horren ordainez, intentsitatea gutxitzea da joera nagusia.

Izan ere, 1991-1994 bitartean, Arabako hedapen indizea 3,55etik 3,87ra igo da, %10 baino gutxiago, alegia; Gipuzkoakoa, berriz, %20 baino gehiago, 2,34tik 2,86ra; eta, azkenik, Bizkaikoa, %30 baino gehiago, 2,28tik 2,99ra.

Nolanahi ere, Arabako eta Bizkaiko gehikuntza hori zerbitzuaren intentsitatea Araban ia %20 eta Bizkaian %50 gutxitu izanaren ondorio da. Osotara, lurralde bakoitzean emandako laguntza ordu guztiak kontuan hartuz, Araban eta Bizkaian %9 gutxitu dira ordu horiek eta Gipuzkoan, berriz, %15 gehitu.

Horren guztiaren ondorioz, EAEn hedapena gehitzea lortu da –2,44tik 3,05era, %25eko gehikuntza alegia–, intentsitatea ia proportzio berean gutxituz eta lehengo zerbitzu ordu kopuruari eutsiz.

Zerbitzu-hartzaile bakoitzak batez beste bost orduko laguntza jasotzen badu asteen, Bizkaian zerbitzu-hartzaile gehienek asteen hiru orduko laguntza dute (16 gehienez eta ordu bat gutxienez). Arabako moda Bizkaikoa baino bi ordu gehiagokoa da, bost ordu beraz (bat gutxienez eta 23 gehienez). Eta Gipuzkoan, laguntza motarik zabalduena lau ordukoa da (21 gehienekoa eta ordu bat ere ez gutxienekoa)<sup>2</sup>.

Aurreko kopuru horiek EAE osora aldatuz gero, hona emaitzak: moda asteen hiru ordukoa da; Arabak, gehienekoa, 23 orduko laguntza eskaintzen du asteen; eta Gipuzkoak, gutxinekoa, ordu batera iristen ez dela.

<sup>2</sup> Zerbitzuen intentsitatea handitzea da erakusgarriaren bidez lorturiko datuetan. Foru Aldundiek emandako datuetan baino. Baina, nolanahi ere, bataren eta besteren artean dauden aldeek oso zentzuzkoak dirudite. Kasurik gehienetan iturri horietatik lorturiko datuak aipatzen dira, hau da, Foru Diputazioetakoak, erroldako datuak direnez gero. Frakusgarriaren datuetara joko dugu laguntza parametroak eta nahitaez beste bide horietatik lortu behar izan diren aldagaiak elkarrekin erlazionatzerakoan.



4. KOADROA:  
LAGUNTZA ORDUAK ZERBITZU-HARTZAILE BAKOITZEKO

|          | Batez beste | Gehienez | Gutxien. | Moda |
|----------|-------------|----------|----------|------|
| Araba    | 6,77        | 23       | 1        | 5    |
| Bizkaia  | 5,01        | 16       | 1        | 3    |
| Gipuzkoa | 6,37        | 21       | < 1      | 4    |
| Guztira  | 5,67        | 23       | < 1      | 3    |

**3.1.2. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak Europa barruan**

Espanian eta Europan oso zaila da laguntza zerbitzu desberdinen konparazioarako elementuak, baita kopuru, aldetikoak ere, finkatzea, oso informazio gutxi baitago eskura. Izan ere, etxez etxeko laguntza zerbitzuak oso deszentralizatuak eta lekuan lekuko administrazioen mende izanik, ez da batere erraza informazio fidagarria lortzea.

EAEko zerbitzuaren hedapen indizea oso txikia da Europako gainerako herrialdeenarekin alderatuz gero, are gehiago zerbitzu osagarri eta alternatiboetan gure komunitatea askoz urriagoa dela kontuan hartuz gero. Europako beste herrialde batzuetan, Frantzia edo Belgika adibidez, Eskandinaviako herrialdeekin alderatuz gero oso hedapen urria badute ere, proportzioan EAEn baino bi aldiz jende gehiagori laguntzen zaio.

5. KOADROA:  
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK EUROPAKO ZENBAIT HERRIALDETAN

|                | Hedapena | Intentsitatea | Maila |
|----------------|----------|---------------|-------|
| Suedia         | 18,4     | 4,75          | 1.016 |
| Danimarka      | 20,5     | -             | -     |
| Erresuma Batua | 12,5     | 3,2           | 320   |
| Frantzia       | 6,1      | 2             | 128   |
| Belgika        | 6        | 2,2           | 133   |
| Finlandia      | 18,4     | 1,4           | 271   |
| Austria        | 8,8      | 1,1           | 104   |

Informazio etorbideak: The 1993 Report of The European Observatory

Hori dela eta, ez da ahaztu behar Espainiako Gerontologia Planak hedapen indizea %8 izatea gomendatzen duela 2000. urterako, eta asmo apalagoak dituen Euskadiko Gerontologia Planak ere hedapena handitzeko beharra adierazten zuela, gaur egungoa halako bi izateraino, %6 alegia, hurrengo 10-15 urteetan.

Baina, adibidez, Arabak duen hedapen tasa epe laburrean EAE osora zabaltzeko Bizkaian 2.315 plaza eta Gipuzkoan 2.042 sortu beharko lirateke, hau da Bizkaiak gaur egun duen hedapen tasa %70 handitu beharko luke eta Gipuzkoak %80 berea.

- EAEko EELZk zerbitzu intentsiboen sailekoak dira inolako dudarik gabe. Hau da, laguntza ordu asko eskaintzen diote zerbitzu-hartzaileen kopuru mugatu bati. Izan ere, zerbitzu-hartzaile bakoitzari dagokion laguntza orduen kopurua, ia sei ordu asteko, Suediakoa bainoa handiagoa baita, eta Frantzia edo Belgikakoa baino hiru aldiz handiagoa.

Mailari, hau da, 65 urtez gorako biztanleen arabera eskaintzen den laguntza orduen kopuruari dagokionez –hori da, arestian esan bezala, laguntzaren zenbatekoa hobekien islatzen duen adierazlea–, EAEkoa, 173 orduekin, Frantzia, Austria edota Belgikakoa baino handiagoa da.

Europar, oro har, eredu extentsiboa da nagusi. Hau da, emateko dagoen laguntza zerbitzu-hartzaile askoren artean banatzen da, eta, ondorioz, pertsona horiek hartzen duten laguntzaren intentsitatea urria da.

Bizkaian eta Gipuzkoan erresidentzia plaza lagunduen eskasia dagoenez gero, hipotesi hau egin daiteke, alegia, EAEko etxez etxeko laguntzak, gehiago edo gutxiago, erresidentzia eskaintzaren eskasia estaltzen duela, autonomia oso murriztua eta arreta ordu askoren premia duen biztanleriaren beharriak betetzera behartuz.

- Nolanahi ere, bada aipatzea merezi duen gai garrantzitsurik auzi horren inguruan.

Lehenbizi, Araban etxez etxeko laguntza hartzen dutenen ezintasun maila gipuzkoarra eta, batez ere, bizkaitarra baino handiagoa dela. Araban, bestalde, eta lehen esan bezala, erresidentzia plaza lagunduen eskaintza ere handiago da.

Bigarren, udaletxe askotako teknikariek, praktikan laguntza eredu intentsiboa aplikatzen dutenak, eredu extentsibotzat jotzen dituzte, zalantzarik gabe, darabiltzaten parametroak. Horrek esan nahiko luke ematen duten laguntza ez dela zerbitzu-hartzaileen beharriak –hauen dependentzia maila dela eta– asetzeko adina.

Hirugarren, kontuan hartu behar dugu gurean, Europako beste herrialde batzuetan ez bezala, “etxeko lanetako zerbitzuak” –neskameak alegia– izan duen eta oraindik ere duen garrantzia. Izan ere, baita langile-klaseko jendeak ere, harengana jotzen baitu beste testuinguru batzuetan nahitaez etxez etxeko laguntzaren bidez betetzekoak diren konponbide pribatuak bilatzera.

Eta azkenik, ez da ahaztu behar, Europako eredu extentsiboa berrikusten hasiak direla, eta Frantzian bertan asko direla gaur egun indarrean dagoen politika aldatzearen alde agertu direnak, laguntzaren intentsitatea, hein batean behintzat, handitzeko, horrek hedapena murriztea badakar ere.

### 3.1.3. Laguntzaren adierazle nagusiak udalerrietan

Hedapena, intentsitatea eta maila balioei dagokienez, oso gorabehera handiak daude oinarrizko unitate desberdinen artean<sup>3</sup>. Dena den, gorabehera hori txikiagia da Bizkaian, udaletxeek askotan EELZen gaineko arduraren mankomunitateei uzten dietelako edo. Hori horrela izatearen arrazoia alde batera utzita, kontua da lurralde bateko eta besteko aldaketa koefizienteek adierazten dutenez, Gipuzkoan eta Araban sakabanaketa handia dagoela hedapenean eta batez ere mailan; baita, bigarren lurralde horretan, intentsitatean ere. Bizkaian, aldiz, balio horiek gehiago hurbiltzen dira batez besteko neurrietara.


## 6. KOADROA: HEDAPEN GORABEHERAK

|                       | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|-----------------------|-------|---------|----------|
| Hedapena guztira      | 3,87  | 2,99    | 2,86     |
| Hedapena batez beste  | 2,94  | 2,40    | 4,42     |
| Gehiena               | 10,00 | 4,2     | 18,75    |
| Gutxiena              | 0,7   | 0,3     | 0,72     |
| Gorabeh. koefizientea | 0,69  | 0,39    | 0,72     |


EAEn Gipuzkoako udalerririk txikiak dituzte hedapen tasarik handienak. Lurralde horretan erabiltzen –eta geroxeago aztertuko– den finantza formula bereziagatik izango da, seguraski, hori horrela. Orixan, adibidez, bertan bizi diren 65 urtez gorako hamabi pertsonetatik, 1994an laguntza hartu zutenen batez bestekoa 2,25 izateak udalerririk horren hedapen tasa 18,75era igoarazten du.

<sup>3</sup> Ikus Eraskina: 1, 2 eta 3. taulak.


6. GRAFIKOA:  
HEDAPEN GORABEHERAK BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA  
(ARABA)



7. GRAFIKOA:  
HEDAPEN GORABEHERAK BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA  
(BIZKAIA)



8. GRAFIKOA:  
HEDAPEN GORABEHERAK BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA  
(GIPUZKOA)



Biztanle kopuruaren eta hedapen indizearen artean ez dago ageriko erlaziorik. Agian, aldagai horiek oso maila desberdinekoak direla eta, eta ajuste logaritmiko bat eginagatik, ez dago bi aldagai horien arteko erlazioa korrelazio koefizientearen bitartez adierazterik.

## 7. KOADROA: LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK UDALERRIZ UDALERRI (ARABA)

| HEDAPENA                        |               |          |                                 |               |          | INTENTSITATEA                   |               |         |
|---------------------------------|---------------|----------|---------------------------------|---------------|----------|---------------------------------|---------------|---------|
| Hedapen handieneko 10 udalerrri |               |          | Hedapen txikieneko 10 udalerrri |               |          | Intens. handieneko 10 udalerrri |               |         |
| Udalerrriak                     | Biztanle kop. | Hedapena | Udalerrriak                     | Biztanle kop. | Hedapena | Udalerrriak                     | Biztanle kop. | Intens. |
| Zalduondo                       | 120           | 10,00    | Lantziego                       | 638           | 1,40     | Urizarra                        | 222           | 20,00   |
| Leza                            | 190           | 7,80     | Koartango                       | 350           | 1,30     | Erribera Goitia                 | 499           | 17,50   |
| Artziniega                      | 1.234         | 6,90     | Bilar                           | 361           | 1,30     | Alegria-Dulantzi                | 966           | 17,30   |
| Bastida                         | 972           | 6,70     | Uriona                          | 348           | 1,30     | Kanpezu                         | 1.144         | 13,70   |
| Okondo                          | 708           | 5,90     | Zambrana                        | 328           | 1,30     | Arraia-Maeztu                   | 696           | 12,50   |
| Asparrena                       | 1.477         | 5,70     | Arratzu-Ubarrundia              | 653           | 0,90     | Artziniega                      | 1.234         | 12,20   |
| Vitoria-Gasteiz                 | 205.749       | 4,11     | Erribera Goitia                 | 499           | 0,90     | Amurrio                         | 9.669         | 11,70   |
| Eltziego                        | 908           | 4,20     | Harana                          | 394           | 0,90     | Agurain                         | 3.649         | 11,00   |
| Laudio                          | 20.475        | 4,29     | Donemiliaga                     | 671           | 0,80     | Laudio                          | 20.475        | 10,95   |
| Erribera Beitia                 | 367           | 4,10     | Zuia                            | 1.203         | 0,70     | Aiara                           | 2.047         | 10,70   |

## 8. KOADROA: LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK UDALERRIZ UDALERRI (BIZKAIA)

| HEDAPENA                        |               |          |                                 |               |          | INTENTSITATEA                   |               |         |
|---------------------------------|---------------|----------|---------------------------------|---------------|----------|---------------------------------|---------------|---------|
| Hedapen handieneko 10 udalerrri |               |          | Hedapen txikieneko 10 udalerrri |               |          | Intens. handieneko 10 udalerrri |               |         |
| Udalerrriak                     | Biztanle kop. | Hedapena | Udalerrriak                     | Biztanle kop. | Hedapena | Udalerrriak                     | Biztanle kop. | Intens. |
| Bilbo                           | 369.839       | 4,20     | Ugao                            | 7.820         | 0,30     | Ereño                           | 277           | 10,38   |
| Berango                         | 4.102         | 4,01     | Miraballes Unit.                |               |          | Alonsotegi                      | 3.075         | 8,44    |
| Trapagaran                      | 13.239        | 3,97     | Bermeo                          | 17.923        | 0,89     | Ermua                           | 19.114        | 8,36    |
| Etxebarri                       | 6.458         | 3,48     | Mungia                          | 17.648        | 1,15     | Unitatea                        |               |         |
| Lea-Artibai                     | 27.301        | 3,39     | Unitatea                        |               |          | Erandio                         | 25.055        | 8,13    |
| Manko.                          |               |          | Ermua                           | 19.114        | 1,38     | Ugao-                           |               |         |
| Abanto -                        | 9.351         | 3,27     | Barakaldo                       | 105.088       | 1,60     | Miraballes Unit.                | 7.820         | 7,72    |
| Zierbena                        |               |          | Txorierr-                       | 16.581        | 1,64     | Mungia                          | 17.648        | 7,68    |
| Leioa                           | 24.815        | 3,17     | Manko.                          |               |          | Unitatea                        |               |         |
| Basauri                         | 50.224        | 3,12     | Busturialdea-                   | 25.626        | 1,71     | Barakaldo                       | 105.088       | 7,61    |
| Santurtzi                       | 50.466        | 3,01     | Manko.                          |               |          | Zornotza-Etxano                 | 15.818        | 7,53    |
| Ereño                           | 277           | 2,94     | Galdakao                        | 28.569        | 1,79     | Unitatea                        |               |         |
|                                 |               |          | Zornotza-                       | 15.818        | 2,09     | Trapagaran                      | 13.239        | 7,17    |
|                                 |               |          | Etxano-Unit.                    |               |          | Busturialdea                    | 25.626        | 6,84    |
|                                 |               |          | Urduña                          | 4.038         | 2,10     | Manko.                          |               |         |

|                               |               |         | MAILA                       |               |        |                             |               |       |
|-------------------------------|---------------|---------|-----------------------------|---------------|--------|-----------------------------|---------------|-------|
| Intens. txikieneko 10 udalerr |               |         | maila handieneko 10 udalerr |               |        | maila txikieneko 10 udalerr |               |       |
| Udalerrak                     | Biztanle kop. | Intens. | Udalerrak                   | Biztanle kop. | Maila  | Udalerrak                   | Biztanle kop. | Maila |
| Aramiñon                      | 126           | 0,20    | Artziniega                  | 1.234         | 846,26 | Aramiñon                    | 126           | 8,88  |
| Lagran                        | 188           | 1,00    | Alegria-Dulantzi            | 966           | 675,78 | Lagran                      | 188           | 16,48 |
| Moreta                        | 272           | 1,40    | Kanpezu                     | 1.144         | 517,78 | Moreta                      | 272           | 20,07 |
| Samaniego                     | 271           | 2,00    | Bastida                     | 972           | 478,66 | Harana                      | 394           | 20,44 |
| Harana                        | 394           | 2,30    | Laudio                      | 20.475        | 470,50 | Samaniego                   | 271           | 28,17 |
| Zalduonde                     | 120           | 2,50    | Okondo                      | 708           | 459,75 | Donemiliaga                 | 671           | 30,44 |
| Leza                          | 190           | 3,00    | Asparrena                   | 1.477         | 456,08 | Koartango                   | 350           | 40,74 |
| Koartango                     | 350           | 3,10    | Iruña                       | 1.538         | 406,94 | Arratzu-Ubarrundia          | 653           | 53,57 |
| Beranturi                     | 422           | 3,30    | Biasteri                    | 1.481         | 383,28 | Zuia                        | 1.203         | 70,68 |
| Donemiliaga                   | 671           | 3,90    | Urizaharra                  | 222           | 363,64 | Lantziego                   | 638           | 86,96 |

|                               |               |         | MAILA                       |               |        |                             |               |        |
|-------------------------------|---------------|---------|-----------------------------|---------------|--------|-----------------------------|---------------|--------|
| Intens. txikieneko 10 udalerr |               |         | maila handieneko 10 udalerr |               |        | maila txikieneko 10 udalerr |               |        |
| Udalerrak                     | Biztanle kop. | Intens. | Udalerrak                   | Biztanle kop. | Maila  | Udalerrak                   | Biztanle kop. | Maila  |
| Portugalete                   | 55.823        | 5,18    | Ereño                       | 277           | 305,43 | Ugao-Miraballes-Unitatea    | 7.820         | 23,36  |
| Santurtzi                     | 50.466        | 5,17    | Trapagaran                  | 13.239        | 284,52 | Bermeo                      | 17.923        | 52,43  |
| Ea                            | 802           | 5,08    | Alonsotegi                  | 3.075         | 232,62 | Txorierr                    | 16.581        | 76,71  |
| Durango Manko.                | 53.064        | 4,96    | Lea-Artibai Mako.           | 27.301        | 219,67 | Mungia Unitatea             | 17.648        | 88,11  |
| Urduña                        | 4.038         | 4,96    | Basauri                     | 50.224        | 205,71 | Muskiz                      | 6.358         | 93,48  |
| Txorierr Manko.               | 16.581        | 4,69    | Etxebarri                   | 6.458         | 204,18 | Urduña                      | 4.038         | 103,96 |
| Ortuella                      | 8.976         | 4,66    | Abanto - Zierbena           | 9.351         | 198,73 | Galdakao                    | 28.569        | 114,30 |
| Berango                       | 4.102         | 4,12    | Erandio                     | 25.055        | 197,25 | Ortuella                    | 8.976         | 115,37 |
| Muskiz                        | 6.358         | 4,10    | Leioa                       | 24.815        | 178,25 | Ermua Unitatea              | 19.114        | 115,74 |
| Bilbo                         | 369.839       | 4,01    | Bilbo                       | 369.839       | 168,46 | Busturialdea Manko.         | 25.626        | 117,03 |

## 9. KOADROA: LAGUNTZAREN ADIERAZLEAK UDALERRIZ UDALERRI (GIPUZKOA)

| HEDAPENA                        |          |          |                                 |          | INTENSITATEA |                                 |          |         |
|---------------------------------|----------|----------|---------------------------------|----------|--------------|---------------------------------|----------|---------|
| Hedapen handieneko 10 udalerrri |          |          | Hedapen txikieneko 10 udalerrri |          |              | Intens. handieneko 10 udalerrri |          |         |
| Udalerrriak                     | Biztanle | Hedapena | Udalerrriak                     | Biztanle | Hedapena     | Udalerrriak                     | Biztanle | Intens. |
| Orexa                           | 78       | 18,75    | Zegama                          | 1.399    | 0,72         | Alkiza                          | 264      | 14,46   |
| Elduaian                        | 233      | 15,20    | Antzuola                        | 2.062    | 1,28         | Olaberria                       | 1.123    | 14,37   |
| Ikaztegieta                     | 370      | 13,88    | Irura                           | 632      | 1,51         | Ezkio-Itsaso                    | 545      | 14,24   |
| Orendain                        | 170      | 13,35    | Hernani                         | 18.489   | 1,53         | Mutiloa                         | 184      | 13,36   |
| Belauntza                       | 295      | 11,89    | Errezil                         | 677      | 1,66         | Segura                          | 1.297    | 10,55   |
| Gaintza                         | 123      | 11,13    | Elgoibar                        | 11.693   | 1,69         | Antzuola                        | 2.062    | 10,49   |
| Berrobi                         | 603      | 9,40     | Usurbil                         | 5.333    | 1,86         | Baliarrain                      | 99       | 10,38   |
| Aduna                           | 296      | 8,93     | Lizartza                        | 697      | 1,94         | Abaltzisketa                    | 284      | 10,08   |
| Beizama                         | 175      | 8,33     | Zerain                          | 227      | 1,96         | Albiztur                        | 303      | 9,85    |
| Abaltzisketa                    | 284      | 7,33     | Azpeitia                        | 13.427   | 2,05         | Zerain                          | 227      | 9,81    |

### 3.1.3.1. Hedapena

#### ARABA

Arabako 120 biztanleko udalerrri txiki bat  $-16,6\%$ ek 65 urte baino gehiago dituenak, Zaldondo da hedapen tasarik handienekoa: adineko horien  $10\%$ ek hartzen du laguntza. Lurralde horretan, heina, hau da, balio handienaren eta txikiaren arteko aldea, Gipuzkoan baino txikiagoa eta Bizkaian baino handiagoa da. Bestalde, Arabako balioen batez bestekoa kontuan harturik, udalerrri horretako balioak oso sakabanaketa handia dute, Gipuzkoan bezalaxe.

Hedapen tasarik handiena duten hamar udalerrietako bat Laudio da  $-Arabako bigarren biztanle gune nagusia-, Zaldondo, Leza, Artziniega, Basteri, Okondo eta Asparrena ondoren. Gasteizko hedapen indizea ere Arabakoaren batez bestekoa baino handiagoa da: 4,11.$

Udalerrietako hedapen indizearen batez bestekoa (2,94), Lurralde osokoa (3,87) baino txikiagoa da. Horrek zera adierazten du, biztanleria gune nagusiek indize handiagoa izateko joera dutela.

Arratzu-Ubarrundia, Erribera Goitia, Harana, Donemiliaga eta Zuia udalerrien hedapen indizeak 1 baino txikiagoak dira. Alde batera utzi dira Arabako Errioxako Kripan, Nabaridas eta Ekora udalerrri horietan ez baitzen zerbitzu-hartzaileak, izan.



|                                |          |         | MAILA                        |          |          |                              |          |        |
|--------------------------------|----------|---------|------------------------------|----------|----------|------------------------------|----------|--------|
| Intens. txikieneko 10 udalerri |          |         | Maila handieneko 10 udalerri |          |          | Maila txikieneko 10 udalerri |          |        |
| Udalerriak                     | Biztanle | Intens. | Udalerriak                   | Biztanle | Maila    | Udalerriak                   | Biztanle | Maila  |
| Deba                           | 5.012    | 3,26    | Elduaian                     | 233      | 1.459,62 | Zegama                       | 1.399    | 54,22  |
| Zestoa                         | 3.383    | 4,08    | Orexa                        | 78       | 1.434,29 | Deba                         | 5.012    | 66,90  |
| Errenteria                     | 41.646   | 4,14    | Ikaztegieta                  | 370      | 1.234,43 | Lizartza                     | 697      | 88,61  |
| Mutriku                        | 4.578    | 4,49    | Orendain                     | 170      | 942,31   | Errenteria                   | 41.646   | 103,60 |
| Lizartza                       | 697      | 4,56    | Gaintza                      | 123      | 927,88   | Irura                        | 632      | 112,37 |
| Zumaia                         | 8.162    | 4,73    | Belauntza                    | 295      | 850,96   | Mutriku                      | 4.578    | 114,71 |
| Ordizia                        | 9.325    | 4,76    | Berrobi                      | 603      | 755,94   | Hernani                      | 18.489   | 115,98 |
| Irun                           | 53.276   | 4,93    | Abaltzisketa                 | 284      | 739,01   | Azpeitia                     | 13.427   | 117,77 |
| Getaria                        | 2.349    | 5,04    | Aduna                        | 296      | 673,42   | Eibar                        | 32.362   | 117,78 |
| Placencia-Soraluze             | 4.838    | 5,08    | Hernalde                     | 287      | 646,15   | Hondarribia                  | 13.524   | 119,00 |

## BIZKAIA

Bizkaian Bilbo da hedapenik handiena eskaintzen duen udaletxea, 4,2, baina ondoz ondo ditu biztanleria gune txikiak, hala nola Berango, 4,01, edo Trapagaran, 3,97. Nolanahi ere, Bizkaian, mankomunitateak direla eta, udalerriaren tamainak ez du Gipuzkoan besteko eraginik, eta baldin badu, ez da antzematen, ezkutuan geratzen da. Bestalde, Bizkaiko hedapen indizeen banaketaren heina, eta horien batez bestearekiko sakabaneta, Gipuzkoakoak eta Arabakoak baino txikiagoak dira.

Babes hedapenari dagokionez, Lurraldeak guztira duena (2,99) baino handiagoa duten unitateen artean badira 50.000 biztanle baino gehiago dituzten biztanleria guneak, hala nola Basauri eta Santurtzi, eta baita 25.000 biztanle inguru dituztenak ere, Lea-Artibai eta Leioa, adibidez.

Hala ere, hedapen txikiko udalerrien artean badira biztanleria gune handiak ere, Barakaldo adibidez, Lurralde osoari dagokion batez bestekoaren oso azpitik dagoena, 65 urtez gorako adinekoen %1,6ak hartzen baitu laguntza.

Bermeo eta Ugao-Miraballes udalerrien hedapen indizeak ez dira %1era iristen (alde batera utzi da Ajangiz<sup>4</sup>, 1994an ez baitzuen zerbitzu-hartzailerik izan).

<sup>4</sup> Udalerri sortu berria.

**GIPUZKOA**

Gipuzkoako hedapen indizerik handieneko hamar udalerrietatik Berrobi da biztanle gehien dituen, 603. Irun izan ezik, hedapen indizea 2,91 baitu, Gipuzkoako biztanleria gune nagusiek, Arrasate, Donostia, Eibar eta Errenterriak, Lurraldeak duena (2,86) baino hedapen indize txikiagoa dute.

Gipuzkoako udalerrien hedapenaren batez bestekoak, 4,42, -Lurralde osoaren batez bestekoa, aipatu berri den bezala, 2,86 den bitartean-, adierazten duena da biztanle gutxiko udalerririk askok hedapen indize handia duela.


Gipuzkoan Arama, 1994an zerbitzu-hartzailerik izan ez zuena, eta Zegama dira %1eko hedapen indizea iritsi ez ziren udalerririk bakarrak. Beraz, ez dago erlaziorik hedapenaren eta biztanle kopuruaren artean.

**3.1.3.2. Intentsitatea**


10. KOADROA:  
INTENTSITATE GORABEHERRAK LURRALDEKA

|            | Gipuzkoa | Bizkaia | Araba |
|------------|----------|---------|-------|
| Guztira    | 6,37     | 5,01    | 6,77  |
| Bat. Beste | 7,59     | 5,99    | 7,04  |
| Gehiena    | 14,46    | 10,38   | 20,00 |
| Gutxiena   | 3,26     | 4,01    | 0,20  |
| Gorab.ko.  | 0,30     | 0,29    | 0,65  |


1.3. GRAFIKOA:  
INTENTSITATE GORABEHERRAK BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA (ARABA)



2.2. GRAFIKOA:  
 INTENSITATE GORABEHERAK BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA  
 (BIZKAIA)



2.3. GRAFIKOA:  
 INTENSITATE GORABEHERAK BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA  
 (GIPUZKOA)



ARABA

Intentsitate handiko biztanleria guneak, hala nola Ribera Altak, 17.5 ordu, edo Arraia-Maeztuk, 12.5, hedapen txikikoak dira. Beste batzuek, hala nola Alegria-Dulantzik (17.3 orduko laguntza zerbitzu-hartzaile bakoitzeko),

Kanpezuk (13,7), edo Artziniegak (12,2), intentsitate handikoak izateaz gainera, hedapen tasa ere Lurrealde osoarena baino handiagoa dute.

### BIZKAIA

Bizkaian, biztanle kopuruaren eta intentsitatearen artean ez dago inolako erlaziorik. Bilbok, esan dugun bezala, hedapen indizerik handiena du, baina intentsitatea, aitzitik, txikiena (4,01), alde batera utzita, noski, EELZrik ez dituzten udalerriak.

Esan beharra dago ere, biztanle kopuru handiko zenbait udalerririk, hala nola Barakaldok (7,61 orduko laguntza zerbitzu-hartzaile bakoitzeko), intentsitate handiko zerbitzua eskaintzen dutela. Nolanahi ere, Bizkaian, intentsitate handieneko zerbitzua Ereñok du, 10,38 orduko laguntza astean. Bizkaiko gainerako unitateen zerbitzu intentsitatearen batez bestekoa 5,99 da, Lurrealde osoarena baino ia puntu bat handiagoa.

### GIPUZKOA

Intentsitatearen eta udalerraren biztanle kopuruaren artean ere ez dago erlaziorik Gipuzkoan. Hala ere, udalerrietako intentsitatearen batez bestekoa (7,5) lurrealde osoarena (6,37) baino handiagoa da. Horrek adierazten duena da udalerririk txiki askotan intentsitate handiko zerbitzua ematen dela.

Gipuzkoak oro har eskaintzen duen laguntzaren intentsitatea (6,37 ordukoa) bikoizten duten herriak txikiak dira: Alkiza (14,6 orduko laguntza astean), Olaberria (14,37), Ezkio-Itsaso (14,24), Mutiloa (13,36). Zenbait herri handik ere, Zumarragak (9,74) edo Arrasatek (8,59), adibidez, batez bestekoa gainditzen dute. Bestalde, eta Arama kenduta –lehen esan bezala ez baitu inor laguntza hartzen duenik–, Gipuzkoan laguntzaren intentsitatea txikiena duen udalerririk Deba da (3,26). Udalerririk nagusiei dagokienez, Donostiak hartzen duen laguntza zerbitzuen intentsitatea 6,22 da, Eibarrek hartzen duena 5,47 eta Errenteriarena 4,14.

### 11. KOADROA: EELZ-REN ADIERAZLEEN ARTEKO KORRELAZIOAK

| Araba     | Hedapena | Intentsi. | Maila |
|-----------|----------|-----------|-------|
| Hedapena  | —        | —         | 0,65  |
| Intentsi. | —        | —         | 0,67  |
| Maila     | 0,65     | 0,67      | —     |

| Bizkaia   | Hedapena | Intentsi. | Maila |
|-----------|----------|-----------|-------|
| Hedapena  | —        | —         | 0,80  |
| Intentsi. | —        | —         | 0,50  |
| Maila     | 0,80     | 0,50      | —     |

| Gipuzkoa  | Hedapena | Intentsi. | Maila |
|-----------|----------|-----------|-------|
| Hedapena  | —        | —         | 0,95  |
| Intentsi. | —        | —         | 0,37  |
| Maila     | 0,95     | 0,37      | —     |

| Gipuzkoa<br>(>2000 biz. udal.) | Hedapena | Intentsi. | Maila |
|--------------------------------|----------|-----------|-------|
| Hedapena                       | —        | —         | 0,85  |
| Intentsi.                      | —        | —         | 0,40  |
| Maila                          | 0,85     | 0,40      | —     |


Gasteizko laguntza zerbitzuen intentsitatea, udalekoa eta aldundikoa batuta, 5,82 da. Laudion, aldiz, hedapen indizea hiruburukoa baino handixeagoa delarik, 11 orduko laguntza ematen da zerbitzu-hartzaile bakoitzeko. Laguntza hartzen ez duten udalerrriak alde batera utzita, laguntza intentsitate urrienerako udalerrriak Aramiñon, Lagran eta Moreta dira: bi ordu baino gutxiagoko laguntza astean. Intentsitatearen sakabaneta askoz handiagoa da Araban EAeko beste bi lurraldeetan baino.

Lehenago ere adierazi den bezala, herri batean etxez etxeko laguntzaren alde egiten den ahalegina "maila"-ren arabera neurtzen da ondoen, hots, 65 urtez gorako mila biztanleko eskaintzen den laguntza orduen arabera. Ahalegin hori, edo maila hori, berdin erabil daiteke zerbitzu-hartzaile askori intentsitate urriko laguntza emateko zein zerbitzu-hartzaile gutxiri intentsitate handiko laguntza emateko.

## 12. KOADROA: MAILA GORABEHERAK LURRALDEZ LURRALDE

|                | Gipuzkoa | Bizkaia | Araba  |
|----------------|----------|---------|--------|
| Guztira        | 182,42   | 150,16  | 260,90 |
| Bat.-Beste     | 338,16   | 144,77  | 222,09 |
| Gehiena        | 1.459,62 | 305,43  | 846,26 |
| Gutxiena       | 54,22    | 23,36   | 8,88   |
| Gorabeh. koef. | 0,83     | 0,43    | 0,82   |

3.1. GRAFIKOA:  
MAILA GORABEHERAK BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA  
(ARABA)




3.1.3.3. **Maila**

ARABA

Arabaren EELZren mailak lotura bera du intentsitatearekin zein hedapenarekin, lotura handia bietan. Aurrerago ikusiko den bezala, beste bi lurraldeetan, mailak eta hedapenak oso erlazio estua dute elkarrekin, Araban baino estuagoa, baina, bestalde, mailaren eta zerbitzu-hartzaile bakoitzari dagokion laguntza orduen batez bestekoaren arteko erlazioa, oso txikia da, Araban baino askoz txikiagoa. Fsan liteke, beraz, Arabako EELZek ematen duten ordu kopurua intentsitatearen eta hedapenaren artean banatzerakoan oreka gordezten dela.

Mailari dagokionez Artziniega gailen da Araban: 846,26 ordu, hots, Arabako batez bestekoa baino hiru aldiz gehiago. Haren ondotik ere bada udalerririk handirik, hala nola, Alegria-Dulantzi (846,26 ordu) eta Kanpezu (517,78 ordu). Laudio ere oso maila garaia du: 470,5 ordu asteen 65 urtez gorako mila biztanleko. Gasteiz, berriz, 239,2 orduekin, Arabako batez bestekoaren azpitik geratzen da.

3.2 GRAFIKOA:  
MAILA GORABEHERA BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA  
(BIZKAIA)




*BIZKAIA*

Bizkaian, biztanleria gune handi batzuek, Basaurik eta Bilbok, adibidez, maila lurraldearen batez bestekoa baino handiagoa dute, baina, aitzitik, beste udalerrri handi batzuek, hala nola Portugaletek, Getxok edo Barakaldok, batez besteko horren azpitik.

Bizkaian, 65 urtez gorako biztanle bakoitzeko laguntza ordu gehien ematen duen herria Ereño da, 205,43 orduko maila iristen baitu. Maila urrienero udalerrria, berriz, Ugao-Miraballes da: 23,36 ordu. Heina, hau da, mailarik handienaren eta txikienaren arteko diferentzia, askoz urriagoa da Bizkaian Gipuzkoan eta Araban baino.

3.3 GRAFIKOA:  
SAKABANAKETAREN, MAILAREN ETA BIZTANLE KOPURUAREN  
DIAGRAMA



## GIPUZKOA

Gipuzkoan, EAeko beste bi lurraldeetan ez bezala, EELZk oinarritzat dituen udalerrietako biztanle kopuruaren eta mailaren arteko korrelazioa oso txikia da, eta negatiboa. Hala ere, udalerrietako mailen batez bestekoa (338.16 ordu) Lurralde osoaren maila (182,42) baino askoz handiagoa izateak erakusten duenez, Gipuzkoan biztanle kopuru txikiko eta oso maila handiko udalerrri asko daude.

Mailak estatistiketan adirezgarria den korrelazioa erakusten du intentsitatearekin eta, batez ere, hedapenarekin. Zerbitzu-hartzaile bakoitzari ematen zaion laguntzaren intentsitateak baino gehiago, laguntzat hartutako biztanle kopuruaren batez bestekoak mugatzen du eskainiko den ordu kopurua eta baita, azken finean, zerbitzuaren kostua ere.

Logikoa da, beraz, maila garaieneko herriak izatea hedapen indizerik handienekoak ere. Hala, Gipuzkoan, Elduainek, adibidez, 1.459 orduko maila du, hau da, astean ia ordu eta erdiko laguntza 65 urtez gorako biztanle bakoitzeko -ez zerbitzu-hartzaile bakoitzeko-, Oresak 1.434 ordu eta Ikaztegietak 1.234 ordu. Orendain, Gaintza, Belauntza, Berrobi eta Abaltzisketak, guztiek 1.000 orduko laguntza baino gutxiago eta 700 ordukoa baino gehiago hartzen dute astean 65 urtez gorako mila biztanle bakoitzeko.

Gipuzkoan maila handieneko hamabi herriek 400 biztanletik behera dute bakoitzak, Berrobik izan ezik, 603 baititu. Guztiek laguntza intentsitate handi samarra dute, astean 7 ordukoa baino handiagoa beti ere. Maila 120tik beherakoa duten herriak hauek dira: Hondarribia, Eibar, Azpeitia, Hernani, Mutriku, Irura, Errearteria, Lizartza, Deba eta Zegama, eta horien artean Irurak eta Lizartzak baino ez dituzte 1.000 biztanle baino gutxiago. EELZk herri horietan duen intentsitatea, itxuraz behintzat, mailan gailen diren herrietakoa baino handiago da, baina bada beste zenbait, Antzuola, Elgoibar, Hernani, Irura edo Zegama, adibidez, intentsitatea handi samarra eta maila, aitzitik, txikia dutenak.

Gipuzkoako 15.000 biztanlez gorako herrien artean Pasaiak 298,44 orduko maila du, Arrasatek 230,86, Bergarak 210,97, Tolosak 202,93 eta Zarautzek 194,02. Guztiek beraz, gainditu egiten dute batez bestekoa (182,42). Andoain batez bestekoren pare dago: 185,95 ordu 65 urtez gorako 1.000 biztanle bakoitzeko. Eta azpitik daude, aldiz, Donostia (154,47 ordu), Irun (143,77), Lasarte-Oria (123,74), Eibar (117,78), Hernani (115,98) eta Errearteria (103,60).

Gipuzkoan etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen duten udalerrietatik, laguntza mailarik garaiena eta txikiena dutenen artean, hau da, Elduainen (1.459 ordu) eta Zegamaren (54 ordu) artean, 1.405 orduko aldea dago.



### 3.2. EELZREN LAGUNTZA HARTZEN DUTEN BIZTANLEEN EZAU- GARRIAK

#### 3.2.1. Adina eta generoa

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuen hartzaileen batez besteko adina 80 urte eta 9 hilabetekoa da, eta EAEko hiru lurraldeetako populaziorik zaharrena (81.58 urte) Gipuzkoako zerbitzuek zaintzen dutena.

13. KOADROA:  
ZERBITZU-HARTZAILEEN ADINA ETA GENEROA

| Zerbitzu-hartzaileen generoa eta batez besteko adina Lurraldeka |             |              |         |
|---|-------------|--------------|---------|
|   | Gizonezkoak | Emakumezkoak | Guztira |
| Araba   | 80,79       | 79,79        | 80,08   |
| Bizkaia   | 79,45       | 80,64        | 80,36   |
| Gipuzkoa  | 81,43       | 81,62        | 81,58   |
| Guztira   | 80,38       | 80,82        | 80,72   |

Azpitarragarria da zerbitzu-hartzaileen hiru laurdenak emakumezkoak izatea. Bi dira horren arrazoi nagusiak: batetik, eta biztanleriaren osaerari dagokionez, emakumezkoen proportzioa handiago delako (65 urtez gorakoen %58,4 eta 80 urtez gorakoen ia %70), eta bestetik, ezinduen kopurua handiagoa delako emakumezko adinduen artean.

14. KOADROA:  
ZERBITZU-HARTZAILEEN ADINA ETA GENEROA

| Generoa | Adina        |       |                        |       | Guztira |       |
|---------|--------------|-------|------------------------|-------|---------|-------|
|         | 65 - 79 urte |       | 80 urte eta<br>gehiago |       | Z       | %     |
|         | Z            | %     | Z                      | %     |         |       |
| Gizon   | 58           | 26,1  | 63                     | 22,4  | 121     | 24,0  |
| Emakum. | 164          | 73,9  | 218                    | 77,6  | 383     | 76,0  |
| Guztira | 222          | 100,0 | 281                    | 100,0 | 504     | 100,0 |

Seguraski bi ezaugarri horiek ez dute, besterik gabe, justifikatuko EELZen onduradunen artean generoaren arabera antzeman den desberdintasuna; izan ere, azterketa epidemiologikoen emaitzetatik ateratzen denaren arabera, adineko ezinduen artean emakumezkoek %70 osatzen baitute doi-doi. Hala ere, gure datuen arabera, 80 urte baino gehiago dituzten zerbitzu titularren ia %80 emakumezkoak dira.

15. KOADROA:  
DEPENDENTZIA MAILA 65 URTEZ GORAKO BIZTANLEEN ARTEAN

Beren kabuz dutxatzeko edo bainatzeko ezintasuna

|           | 65-74 urte | %     | 75 eta + | %     | Guztira | %     |
|-----------|------------|-------|----------|-------|---------|-------|
| Gizonezk. | 5.882      | 44,8  | 12.430   | 34,2  | 18.312  | 37,1  |
| Emakum.   | 7.241      | 55,2  | 23.870   | 65,8  | 31.111  | 62,9  |
| Guztira   | 13.123     | 100,0 | 36.300   | 100,0 | 49.423  | 100,0 |

Etxea garbitzeko ezintasuna

|           | 65-74 urte | %     | 75 eta + | %     | Guztira | %     |
|-----------|------------|-------|----------|-------|---------|-------|
| Gizonezk. | 10.458     | 42,4  | 14.704   | 30,7  | 25.162  | 34,6  |
| Emakum.   | 14.210     | 57,6  | 33.262   | 69,3  | 47.472  | 65,4  |
| Guztira   | 24.668     | 100,0 | 47.966   | 100,0 | 72.634  | 100,0 |

Iturria: Euskadik ● Gerontologia Planaren Egitasmoa. Gizarte Ongizatek ● Zuzendaritza. Eusk ● Jaurlaritza

Hala, bada, seguraski, etxez etxeko laguntza zerbitzuek zaindutako populazioaren artean emakumezkoak halako ordezkartza zabala izatearen arrazoia kultur arazo bati dagokio, funtsean: emakumezko ezinduek laguntza eskari gehiago egiten dizkiete zerbitzu publikoei, edota, hauek, halako kasu baten aurrean, esku hartzeko joera handiagoa dute. Aitzitik, gizona denean ezindurik dagoena, ia ziur inguruneke emakumeen laguntza izango duela.

Bikoteen kasuan, gizona etxeko lanak egiteko gauza ez dela gelditzen denean, elbarri edo eri dagoelako, gauzak ez dira askorik aldatzen zeregin horietan ematen duen laguntzaren kantitateari eta kalitateari dagokionez. Aitzitik, alderantziz gertatzen denean, alegia, emakumea denean etxeko lanaz arduratzeko gauza ez dela gelditzen dena, gizonak, egoera horri aurre egiteko "gauza izan" ez eta, laguntza bilatzen eta hartzen du. Beraz, emakumezkoek etxeko laguntza gizonezkoek baino geiagotan hartzearen arrazoia, hein batean behintzat, hau da: gizonezkoak ez arduratzea emakumeez, ernakumezkoak gizonez arduratzen diren bezainbat.

### 3.2.2. Ezintasun maila

Etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen duen %40k inguru eragozpenak ditu oinarriko zeregin pertsonaletan aritzeko, hala nola ohetik jaikitzeke, oheratzeko, garbitzeko edo jantzeko. Eraskinaren 4. eta 5. Tauletan gai horri

buruzko informazioa ematen da, bai zeregin pertsonalei bai instrumentalei buruzkoa. Azken horiei dagokionez, zerbitzu-hartzaileen ia %45 ez da gauza etxeko zereginak betetzeko, %20k laguntza behar du, eta beste hainbestek eragozpenak ditu zeregin horiek behar bezala burutzeko. Zerbitzu-hartzaileen %11 baino ez da gauza laguntzarik eta eragozpen handirik gabe etxeko zereginak betetzeko.

Jakina, adinekoen populazio osoari dagokionarekin alderatuz, zerbitzuaren laguntza hartzen dutenek dependentzia maila handia dute. Adinekoaren autonomia mailaren adierazle izan daitekeen zeregin pertsonal bat hartuz gero, oheratzea eta ohetik jaikitzea adibidez, zera ikusten da: etxez etxeko laguntza hartzen duten adinekoen %61,7 baino ez da zeregin hori laguntzarik eta eragozpenik gabe burutzeko gauza. Aitzitik, adinekoen populazio osoa aintzat hartuz gero –erreferentzi gisa hartzen den azterketetaren arabera beti ere–, zeregin hori burutzeko gauza direnen kopurua %90 ingurukoa izaten da. Oro har, dependentzia maila lau aldiz handiagoa da zerbitzuaren laguntza hartzen dutenen artean adinekoen populazio osoan baino, eta, beraz, zerbitzua nori adjudikatu erabakitzeke erabili beharko den irizpideetako bat da.


Ezintasunaren mailari dagokionez, harrigarria da lurralde batetik bestera dagoen aldea, eta are harrigarriago Arabako datuek erakusten duten tasa handia.

Azterketa konparatiboa errazteko zeregin pertsonalei buruzko dependentzia lau sail handitan banatu dugu, adinekoek ondoren adierazten diren zeregin hauek burutzeko duten gaitasun mailaren arabera: ohera joan eta ohetik jaiki, garbitu, bainatu edo dutxatu, jantzi eta erantzi, jan, ibili eta komunera joan.

#### 16. KOADROA: EZINTASUN MAILAK LURRALDEKA

| Ezintasun mailak | Lurralde Historikoa |       |         |       |          |       |         |       |
|------------------|---------------------|-------|---------|-------|----------|-------|---------|-------|
|                  | ARABA               |       | BIZKAIA |       | GIPUZKOA |       | GUZTIRA |       |
|                  | Z                   | %     | Z       | %     | Z        | %     | Z       | %     |
| Autonomoak       | 36                  | 35,6  | 112     | 48,1  | 58       | 34,1  | 206     | 40,9  |
| Ezin. arina      | 13                  | 12,9  | 67      | 28,8  | 57       | 33,5  | 137     | 27,2  |
| Ezin. larria     | 32                  | 31,7  | 43      | 18,5  | 46       | 27,1  | 121     | 24,0  |
| Erabateko ezin.  | 20                  | 19,8  | 11      | 4,7   | 9        | 5,3   | 40      | 7,9   |
| Guztira          | 101                 | 100,0 | 233     | 100,0 | 170      | 100,0 | 504     | 100,0 |

## 11. GRAFIKOA: EZINTASUN MAILAK



Aipatu berri ditugun zeregin horiek inolako eragozpenik gabe burutzeko gauza den neurrian guztiz autonomotzat har daitekeen lehen taldeak zerbitzu-hartzaileen %40,9 hartzen du. Bigarren taldeak, nola edo hala baina zeregin guztiak bakarrik burutzen dituztenena, zerbitzu-hartzaileen %27,2 hartzen du. Hirugarren taldeak, aipatutako zeregin horietakoren bat burutzeko laguntza behar dutenena, %24 hartzen du. Eta azken taldeak, zeregin horiek burutu ezin dituztenena, nahitaez laguntza behar duten pertsonen dagokiena, alegia, %7,9 hartzen du.

Hala, guztiz ezinduek dauden taldean Arabako zerbitzuen laguntza hartu dutenen %20 sartzen da, baina Gipuzkoan eta Bizkaian laguntza hartu dutenen %5 baino ez. Araban, beraz, beste Lurraldeetan baino zainketa personal gehiago emango da seguraski.

Guztiz alderantziz gertatzen da Bizkaian, zerbitzu-hartzaileen ia erdia guztiz autonomo baita, Gipuzkoan %34,1 eta Araban %35,6 den bitartean.

Arabako Lurraldea bi zati eginez gero, batean "udalerrri handiak" (Gasteiz, Laudio eta Amurrio) eta bestean gainerako "udalerrri txikiak", lehen taldean, dependentzia maila beste bi lurraldeetan baino handiagoa izanagatik, aldea ez dela horren handia, eta, beraz, "arabar ezaugarria" herri txikiek ernaten dutela ikusten da. Izan ere, bigarren taldeko zerbitzu-hartzaileen %70ek baino gehiagok ezintasun larriak baititu norberekiko eginkizunak burutzeko. Eginkizun horiek burutzeko gai direnak, erabat autonomo alegia, %25 baino gutxiago dira.

17. KOADROA:  
EZINTASUN MAILAK ARABAKO UDALERRIAK

|                                 | Arabako udalerriak |         | Guztira |
|---------------------------------|--------------------|---------|---------|
|                                 | Handiak            | Txikiak |         |
| Ezintasun mailak                | %                  | %       | zutab.% |
| Ezintasun larria edo erabatekoa | %47,6              | %70,6   | %51,5   |
| Ezintasun bat                   | %14,3              | %5,9    | %12,9   |
| Autonomoak                      | %38,1              | %23,5   | %35,6   |
| Guztira                         | %100,0             | %100,0  | %100,0  |
| Zki. Absol.                     | 84                 | 17      | 504     |

Hala, bada, Araban, eta batez ere lurralde horretako udalerrri txikietan, zerbitzuaren eskaria eta/edo zerbitzu-hartzaileen hautaketa egiteko, kontuan hartzen dira autonomiaren galera larriak. Nolanahi ere, irizpide horrek beste bi lurraldeetan baino garrantzi handiagoa du. Bizkaiak, aurrerago ikusiko denez, zerbitzura iristeko darabilen irizpide nagusia bakartasunarena du.

Zerbitzu-hartzaileen ezintasun mailari buruzko datu horiek baietsi egiten dute lehenago, generoa dela eta, dagoen diskriminazio objektiboari buruz esandakoa.

Izan ere, zerbitzu-hartzaile guztiak kontuan hartuz, zerbitzua hartzen duten emakumezkoek gizonezkoek baino dependentzia maila handiagoa dute la ikusten da. Datu horietatik atera daitekeenez, eta Arabako “udalerrri txikien” kasurako lehenago aipatzen genuen bezala, emakumezkoek –arrazoi bategatik edo bestegatik– gizonezkoek baino autonomia galera handiagoa dutelarik jotzen dute zerbitzuaren laguntza eskatzera.

### 3.2.2.1. Zeregin instrumentalak burutzeko ezintasuna eta eragozpena

Erabateko ezintasuna dutenen artean sailkatu diren zerbitzu-hartzaileak ez dira gauza, ezta lagunduta ere, azterketa honetarako kontuan hartu diren zeregin instrumentalak burutzeko. Ezintasun larriren bat duten ia guztiak ere ez dira gauza etxeko lanak eta erosketak egiteko. Horien artean, %20,6 otordua bere kabuz prestatzeko gauza da, nekez bada ere.

Eguneroko bizitzan norberekiko eginkizunak burutzeko eragozpenak dituztenen artean %25 nekez baina etxeko lanak egiteko gauza da, eta gainerakoak otordua prestatzen moldatzen dira. Beraz, otordua prestatzea da nekerik gutxien sortzen duen zeregin instrumentala norberekiko eginkizunak burutzeko arazoak dituzten etxeko laguntzaren zerbitzu-hartzaileentzat.

Interes handiagoa du autonomoen artean sailkatutik dauden adinduek zeregin instrumentalak burutzeko dituzten eragozpenak aztertzea. Talde horre-

tan, adinduen ia %40 ez da gauza, laguntzarik gabe, etxeko lanak egiteko; %32k laguntza behar du erosketak egiteko, eta %9,2 ez da gauza bere kabuz otordua prestatzeko.

18. KOADROA:  
EGINKIZUN PERTSONALAK BEREN KABUZ EGITEN DITUZTEN  
PERTSONA AUTONOMOAK

|                             | Zerbitzu-hartzailearen sexua |             |            |             | Guztira    |             |
|-----------------------------|------------------------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|
|                             | Gizonezk.                    |             | Emakumezk. |             |            |             |
|                             | Z                            | %           | Z          | %           | Z          | %           |
| <b>Bainatzea edo dutxa.</b> |                              |             |            |             |            |             |
| / <b>ahalmena</b>           |                              |             |            |             |            |             |
| bakarrik bai                | 54                           | %100        | 152        | %100        | 206        | %100        |
| <b>Mugitzea / ahalmena</b>  |                              |             |            |             |            |             |
| bakarrik bai                | 54                           | %100        | 152        | %100        | 206        | %100        |
| <b>Bazkaria pres.</b>       |                              |             |            |             |            |             |
| / <b>ahalmena</b>           |                              |             |            |             |            |             |
| bakarrik bai                | 35                           | %64,8       | 132        | %86,8       | 167        | %81,1       |
| nekez                       | 7                            | %13,0       | 13         | %8,6        | 20         | %9,7        |
| laguntzarekin               | 1                            | %1,9        | 5          | %3,3        | 6          | %2,9        |
| ezin du                     | 11                           | %20,4       | 2          | %1,3        | 13         | %6,3        |
| <b>Etx. lanak</b>           |                              |             |            |             |            |             |
| / <b>ahalmena</b>           |                              |             |            |             |            |             |
| bakarrik bai                | 11                           | %20,4       | 38         | %25,0       | 49         | %23,8       |
| nekez                       | 18                           | %33,3       | 61         | %40,1       | 79         | %38,3       |
| laguntzarekin               | 6                            | %11,1       | 41         | %27,0       | 47         | %22,8       |
| ezin du                     | 19                           | %35,2       | 12         | %7,9        | 31         | %15,0       |
| <b>Eroske. / ahalmena</b>   |                              |             |            |             |            |             |
| bakarrik bai                | 34                           | %63,0       | 55         | %36,2       | 89         | %43,2       |
| nekez                       | 8                            | %14,8       | 43         | %28,3       | 51         | %24,8       |
| laguntzarekin               | 1                            | %1,9        | 31         | %20,4       | 32         | %15,5       |
| ezin du                     | 11                           | %20,4       | 23         | %15,1       | 34         | %16,5       |
| <b>Dirua adm.</b>           |                              |             |            |             |            |             |
| / <b>ahalmena</b>           |                              |             |            |             |            |             |
| bakarrik bai                | 51                           | %94,4       | 140        | %92,1       | 191        | %92,7       |
| nekez                       |                              |             | 1          | %0,7        | 1          | %0,5        |
| laguntzarekin               |                              |             | 2          | %1,3        | 2          | %1,0        |
| ezin du                     | 3                            | %5,6        | 9          | %5,9        | 12         | %5,8        |
| <b>Guztira</b>              | <b>54</b>                    | <b>%100</b> | <b>152</b> | <b>%100</b> | <b>206</b> | <b>%100</b> |

Pertsona autonomoek etxeko lanak egiteko dituzten eragozpenei buruzko azterketak argi eta garbi erakusten du dependentsiak kultur arazotik asko duela. Izan ere, generoaren arabera espezializazio nabarmenago ager ditzaketen eginkizunak –hala nola otordua prestatzea eta etxeko lanak egitea– kontuan hartuz, norberarekiko eginkizunetan autonomo diren gizonezkoen %20,4k ez baitu otordua prestatzeko ahalmenik, eta %35,2k ezta etxeko lanak egiteko ere. Aitzitik, talde bereko emakumezkoen %1,3k baino ez du otordua prestatzeko ahalmena eta %7,9k ezin ditu etxeko lanak egin.

Oinarrizko lau eginkizun pertsonalak –ohera sartzea eta ohetik jaikitzea, garbitzea, janzteia eta eranztea, jatea– egiteko guztiz autonomo diren zerbitzu-hartzaileen taldea kontuan hartuz ikus daitekeenez, denek dute bainua hartzeko ahalmena eta arazorik gabe mugitzekoa.

### 3.2.3. Elkarbizitzako egoera eta laguntza informala

Zerbitzuen laguntza hartzen duten pertsonen erdia baino gehiago bakarrik bizi da, eta %70 baino gehiago emakume ezkongabeak edo alargunak dira. EAEko 65 urtez gorako adinekoen populazio osoa kontuan hartuz gero, ordea, bakarrik bizi diren pertsonen proportzioa askoz txikiagoa da, %16,5. Horren ondorioz, argi eta garbi ikus daitekeenez, bakarrik bizitzeak zerikusi zuzena du zerbitzuaren adjudikazio irizpideetan.

#### 19. KOADROA: ELKARBIZITZAKO EGOERA

|                  | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA | + 65 BIZT. GUZT. |
|------------------|-------|---------|----------|---------|------------------|
| Bakarrik bizi da | %34,7 | %61,8   | %49,4    | %52,2   | %16,5            |
| Bestela          | %65,3 | %38,2   | %50,6    | %47,8   | %83,5            |
| Guztira          | %100  | %100    | %100     | %100    | %100             |
| Zbki. Abso.      | 101   | 233     | 170      | 504     | 271.652          |

Bakarrik bizi diren pertsonen proportzioa askoz handiagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan. Lehenengo lurralde horretan adinekoen %60 bizi da bakarrik, eta bigarrenean zerbitzuaren laguntza hartzen dutenen erdia. Araban, aitzitik, zerbitzu-hartzaileen %34,7 baino ez.

Bakarrik bizi diren zerbitzu-hartzaileak beste pertsona batzuekin bizi direnak baino autonomoago izan ohi dira. Bakartien erdia guztiz autonomo da, eta, bestalde, bikote lagunarekin bizi direnei dagokienez, %34 baino ez. Elkarbizitzako egoera, generoa eta dependentsia maila batera aztertetik ondorio hauek atera daitezke: etxex etxeko laguntza zerbitzua hartzen eta bakarrik bizi diren gizonezkoen artean bakarrik bizi diren emakumezkoen artean baino

askoz pertsona autonomoago gehiago dago. Izan ere, etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen eta bakarrik bizi diren gizonen %70,7 guttiz autonomo da, eta emakumezkoen artean, berriz, %46,8 baino ez. Esan liteke, beraz, gizonzkoek emakumezkoek baino errazago lortzen dutela etxez etxeko laguntza zerbitzua.

**20. KOADROA:**  
**EZINTASUN MAILA, GENEROA ETA ELKARBIZITZAKO EGOERA**

| Ezintasun maila       | Bakarrik bizi dira |       |       | Ezkontidearekin |       |       |
|-----------------------|--------------------|-------|-------|-----------------|-------|-------|
|                       | GIZON              | EMAK. | GUZTI | GIZON           | EMAK. | GUZTI |
|                       | %                  | %     | %     | %               | %     | %     |
| Autonomoak            | 70,7               | 46,8  | 50,6  | 32,0            | 36,9  | 34,8  |
| Ezin. arina           | 12,2               | 34,7  | 31,2  | 14,0            | 24,6  | 20,0  |
| Erabat ezin. edo lar. | 17,1               | 18,5  | 18,3  | 54,0            | 38,5  | 45,2  |
| GUZTIRA               | 100,0              | 100,0 | 100,0 | 100,0           | 100,0 | 100,0 |
| Zki. Absol.           | 41                 | 222   | 263   | 50              | 65    | 115   |

Bestalde, bikote lagunarekin bizi diren pertsonen taldea aztertzean, argi ikusten da gizonzkoari emakumezkoak baino ezintasun maila handiagoa duenean ematen zaiola laguntza. Datu horrek zera esan nahi dezake, bikoteek errazago jotzen dutela etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskea egitera laguna zaintzea gizonzkoari dagokionean, edota, bestela, kasu horietan aukera gehiago izaten dela laguntza eskea onartzeko.

Laguna zaintzea emakumezkoari egokitzen zaionean, gizonak autonomia galera oso larria behar du izan laguntza zerbitzua ematea onar dakion.

Laburbilduz, gizonak autonomia galera ez larria izateak ez du ezertan aldatzen bikotearen laguntza premia. Bai, ordea, emakumea denean autonomia galtzen duena, galera larria ez izanik ere. Horra zergatik, hein batean behintzat, zerbitzuaren laguntza hartzen duten gizonzkoen autonomia galera ezkontidearekin bizi direnen emakumezkoena baino handiagoa izaten den.

Etxez etxeko laguntza hartzen duten adinekoen %54,6k zaintzaile informalekin bat izaten du lagun. Zerbitzuaren titularrak diren gizonzkoen %62k laguntzaileekin bat du inguruko ezagunen artean. Emakumezkoen artean proportzioa txikiagoa da: %52,2k du laguntza mota hori<sup>1</sup>.

Zaila gertatzen da inguruneko pertsona batek zaintzaile papera bere gain noiz hartzen duen zehaztea, zeregin horren mugak balioztatzea oso gauza subjektiboa baita. Daitekeena da gizonen eta emakumeen iritzia desberdina izatea zainketa mota beraren aurrean. Izan ere, galdeketa egitean agerian gelditu

<sup>1</sup> Ikus eraskina: 24. Koadroa.



zenez, emakumeek zaintzailatzat ezkontideak jotzen zituzten, hauek etxeko lanak egiteagatik, nahiz eta bestelako laguntzarik eman ez. Aitzitik, gizonekoentzat, lan hori bera egiteak ez zituen emakumezkoak zaintzaile egiten. Joera hori zuzenduta dago gure informazioan, zaintzailearen funtzioa eginkizun jakin batzuk betetzen dituenari aitortu baitzaio soilik.

Bestalde, zaintzaile informalekiko lotura desberdina izaten da laguntza hartzen duen pertsona gizoneko ala emakumezkoa den. Gizona zaintzea emaztearen ardura da kasuen erdian, baina, aitzitik, etxez etxeko laguntza hartzen duten emakumeen %17,5 baino ez du senarrak zaintzen. Seme-alabek gizonekoaren %36 eta emakumezkoen %50 laguntzen dute. Suiet eta errainei, berriz, zainketen %5,3 eta %6,5 dagokie.

Guztira, gizonekoak zein emakumezkoak batera hartuta, laguntzaren %25 ezkontideak hartzen du bere gain, %46,5 seme-alabek, eta %6,2 sui eta errainek.

Zaintzaile nagusiaren papera betetzea dagokien hirutik bat 65 urtez gorako pertsona izaten da, hau da, "hirugarren adina" deitu ohi zaion kolektiboko kide da.

Hiru lurralde historikoen arteko azterketa konparatiboa eginda, hau da ondorioz ateratzen den datu nagusia: zaintzaile informala baduten etxez etxeko laguntza zerbitzuen hartzaileak proportzioan askoz gehiago direla Araban Gipuzkoan eta, batez ere, Bizkaian baino. Izan ere, azken lurralde horretan non, proportzioan, lehenago aipatu den bezala, bakartiak gehiago diren adinekoen %36,5ek bakarrik baitu zaintzailea; Gipuzkoan, gizonekoaren %81,1ek badu, baina emakumezkoen artean, aldiz, %56,4k baino ez; eta Araban, gizonekoaren %89,7k eta emakumezkoen %81,9k.

Azterketatik atera den beste ondorioetako bat da ezkontideek, gizonekoak nahiz emakumezkoak izan, zainketan betetzen duten paperak garrantzi gutxiago duela Gipuzkoan EAeko beste lurraldeetan baino, eta seme-alabek amaren zainketan betetzen dutena garrantzitsuagoa dela Araban Gipuzkoan eta Bizkaian betetzen dutena baino. Bestalde, deigarria da, laguntzan esku hartzeak zuzenena kenduta, hau da ezkontideena eta seme-alabena proportzioan pisu espezifiko handiagoa izatea Gipuzkoan.

Argi dago alabak izaten direla, semeak baino gehiago, zaintzailtzaren ardura hartzen dutenak. Etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen duten pertsonen seme-alabetatik, semeen %12,1ek eta alaben %27,9k hartzen dute beren gain betekizun hori. Bestalde, laguntza hartzen duen pertsonak seme bakarria duenean, semeek kasuen %39,9an hartzen dute zaintzailtzaren ardura, eta, aitzitik, alaba bakarria duenean, hauek kasuen %62,5ean hartzen dute betekizun hori. Etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen duenak semeak eta alabak dituenen, semeen %18k eta alaben %46,9k hartzen dute zaintzailtzaren ardura. Aldea nabarmena da.

## 21. KOADROA: SEME-ALABA ZAINZAILIAK

| Seme-alaba zaintzaileak |              |               |         |         |
|-------------------------|--------------|---------------|---------|---------|
|                         | Seme zaintz. | Alaba zaintz. | Bestela | Guztira |
| Familia                 | %            | %             | %       | %       |
| Seme bakarra            | %39,3        | -             | %60,3   | %100,   |
| Alaba bakarra           | -            | %62,5         | %37,5   | %100,0  |
| Semeak bakarrik         | %36,4        | -             | %63,6   | %100,0  |
| Alabak bakarrik         | -            | %52,4         | %47,6   | %100,0  |
| Seme-alabak             | %18,0        | %46,9         | %55,1   | %100,0  |
| Guztira taldeko         | %20,4        | %36,3         | %41,3   | %100,0  |
| Zki. absol.             | 46           | 81            | 148     | 229     |

Ez dirudi, ordea, ikerketa<sup>2</sup> batean azaltzen zen bezala, alaben artean zaintzailetza hartzea familiako ondorengo ordena jakin bati jarraitzen dionik.

Zaintzailea duten zerbitzu-hartzaileen %32k bat baino gehiago du, edo, beste era batera esanda, zaintzaileen %68k bakarrik betetzen du bere eginkizuna, eta etxez etxeko laguntzan diharduen laguntzaile profesionalarekin baino ez du lana banatzen.

Bigarren mailako zaintzaileari dagokienez, erdiak baino gehiago zerbitzu-hartzaileen beraien seme-alabak izaten dira; ezkontide zaintzaileak bakan izaten dira. Zaintzaile nagusien artean baino are emakume gehiago izaten dira, gainera, talde honetan, eta gaur egungo joera beste talde horretakoak baino gazteagoak izatekoa da.

Bestalde, zerbitzu-hartzaileen %6,3k beste pertsonaren bat kontratatu ohi du EELZren osagarri. Azkenik, zerbitzu-hartzaileen %1,4k baino ez du boluntarioen laguntza hartzen.

### 3.2.4. Bizitokiaren egoera

Etxez etxeko laguntza hartzen duten pertsonen %80 baino gehiago (eta/edo berorien ezkontidea) bizi den etxearen jabe da. Ia zerbitzu-hartzaileen %12, aldiz, seme-alabaren baten etxean bizi da.

Adinekoen %52,2 bakarrik bizi da etxean, eta %36,7 beste pertsonaren batekin batera, eta etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen duten %3,2 baino ez da lau bizikide baino gehiagorekin batera bizi.

<sup>2</sup> "La Red Natural de Atención". SILS. 1995. Arabako Ongizaterako Foru Institutuak argiratua (prentsan).

Bakan dira, bestalde, etxean oinarrizko azpiegitura ez dutenak. Aipagarria da, zentzu horretan, soilik zerbitzu-hartzaileen %3,6k ez duela logela beretzat bakarrik, ez dagoela urik edo argindarrik gabeko etxerik, eta Araban bat izan ezik, ez dagoela komunik gabekorik ere. Bizkaian pertsona bat aurkitu da, bizi den tokia eskatzat har daitekeena.

Zerbitzu-hartzaileen %3,6k ez du ur berorik etxean eta %4,8k ez du berogailurik. Gehiago dira bainontzia edo dutxa ez dutenak: %6,7 EAE osoan, baina %12 baino gehiago Gipuzkoako lurraldean. Gipuzkoa da era berean telefonorik gabeko zerbitzu-hartzaile gehien dituenena, %9,4. Aitzitik, etxean telealarma dutenen kopurua handia da (%21,8), EAE osoan zerbitzu-hartzaileen %13,7k baino ez duen bitartean.

EAEko 65 urtez gorako adinekoen populazio osoa kontuan hartuz, telealarma zerbitzua hedatuago dago Gipuzkoan (%09,8), Araban (%07,9) eta Bizkaian (%04,9) baino. EAEn 65 urtez gorako 1.000 biztanletik 7k du telealarma zerbitzua etxean.

Etxeak eta kaleak egiteko modutik datozen “oztopoak” direla eta, eragozpen handiak izaten ditu aztertzen ari garen talde honek etxetik ateratzeko. Azterketan ikus daitekeenez, galdeketa egin zaien adinekoen %53,6 igogailurik gabeko etxebizitzetan bizi da. Kale-etxeetako oztopoak direla eta, adinekoen %20,8k ez du etxetik ateratzeko gogorik ere izaten, %8,9k eragozpen handiak ditu ateratzeko, eta %8,1ek ezin du inolaz ere atera. Hala, bada, etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen duten 665 pertsona, gutxienez, etxetik atera gabe gelditzen da kale-etxeetako oztopoak direla eta.

## 22. KOADROA: KALERA ATERATZEA ERAGOZTEN DUTEN OZTOPOAK

|   | Lurralde historikoa |         |          | Guztira |
|---|---------------------|---------|----------|---------|
|   | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa |         |
| Oztopoak                                      | %                   | %       | %        | %       |
| Ez dago oztoporik                             | %63,4               | %63,5   | %59,4    | %62,1   |
| Oztop. direla eta atzera ematen du ateratzeak | %19,8               | %23,2   | %18,2    | %20,8   |
| Ateratzea eragozten dute                      | %7,9                | %7,7    | %11,2    | %8,9    |
| Etxean gelditzera behartzen dute              | %8,9                | %5,6    | %11,2    | %8,1    |
| Guztira                                       | %100                | %100    | %100     | %100    |
| Zki. Absol.                                   | 101                 | 233     | 170      | 504     |

### 3.3. ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA: ZERBITZUAREN INTENTSITATEA, EZINTASUN MAILA ETA ZERBITZU-HARTZAILEAREN ELKARBIZITZAKO EGOERA

Irizpide estuago bat erabiliz “eguneroko bizitzako eginkizunetan autonomia” duena zehaztasun handiagoz mugatu nahi izan da. Hala, bada, oinarritzko lau eginkizunak ez ezik etxeko ekonomia eragozpenik gabe administratzeko ahalmena ere badutenak bereizi dira. “Autonomo” direnengandik janzea edo oheratzea bezalako jardura mekanikoak burutzeko ahalmena bai baina portara gabeziaren bat dutenak bereizteagatik egin da hori horrela. Talde hori kenduta, beraz, zerbitzu-hartzaile guztiek osatzen duten kolektiboaren %37,9 da autonomo. Pertsona horiek, gogoan hartu, jantzi eta erantzi, ohera sartu eta ohetik jaiki, garbitu, eta duten dirua administratzeko ahalmena dutenak dira.

Eraskinean, 6. taulan, zerbitzu-hartzaile horiek beste eginkizun edo jardura batzuk betetzeko duten eragozpen maila ikus dezakegu. Gauzarik aipagarriena zera da, pertsona horiek ez dutela inolako arazorik mugitzeko. Aitzitik, arazorik handiena etxeko garbiketa egitea dute –kolektibo horretako %22,5 ez da erratza erabiltzeko gauza–, garbiketa handia edo berezia batez ere, %40k baino gehiagok ezin baitezake era horretako lanik egin.

Etxez etxeko laguntza zerbitzu hartzen duten gizonezkoen %42,1 eta emakumezkoen %36,6 da autonomo. Lehenago aipatu dugun bezala, emakumezkoak nagusi izaten dira talde guztietan, bai adinekoen populazioan gehiago direlako, eta baita, seguraski, autonomian galeraren bat dutenean zailago izaten dutelako ere familiartekoen eta, bereziki, ezkontidearen aldetik behar duten laguntza jasotzea.

Gainera, autonomo gisa hartuak izan daitezkeen genero bakoitzeko zerbitzu-hartzaileen artean, gizonezkoak emakumezkoak baino gehixeago dira proportzioan. Beraz, zerbitzua xedatzeari dagokionez, EELZ eraginkorragoa da emakumezkoen kasuan, gizonezkoenean baino.

23. KOADROA:  
EELZREN LAGUNTZA HARTZEN DUTEN PERTSONA AUTONOMOAK

| PERTSONA AUTONOMOAK |           |            |         |
|---------------------|-----------|------------|---------|
|                     | Gizonezk. | Emakumezk. | Guztira |
| <b>Araba</b>        |           |            |         |
| Ez autonomoak       | 75,9      | 62,5       | 66,3    |
| Autonomoak          | 74,1      | 37,5       | 33,7    |
| <b>Bizkaia</b>      |           |            |         |
| Ez autonomoak       | 38,2      | 58,4       | 53,6    |
| Autonomoak          | 61,8      | 41,6       | 46,4    |
| <b>Gipuzkoa</b>     |           |            |         |
| Ez autonomoak       | 73,0      | 70,7       | 71,2    |
| Autonomoak          | 27,0      | 29,3       | 28,8    |


Zerbitzuaren adjudikazioa bere gain duten teknikariek oso kontuan hartzen dute adinekoaren dependentzia maila, bakoitzak dagozkion laguntza orduak izan ditzan.

Izan ere, batez beste, dependentzia osoa dutenen artean sartu diren pertsonen ia 9 orduko laguntza hartzen dute astean, dependentzia maila handia dutenek 8,33 ordu, eragozpenen bat dutenek 6,21, eta zerbitzu-hartzaile autonomoek 4,68 ordu. Azken horiek, batez beste, dependentzia osoa duten zerbitzu-hartzaileei astean dagozkien laguntza orduen erdia hartzen dute. Bestalde, esan behar da, estatistikazko lotura adierazgarria dagoela zerbitzu-hartzaileek duten laguntza intentsitatearen eta dependentzia mailaren artean.

24. KOADROA:  
EELZREN INTENTSITATEA EZINTASUN MAILAREN ARABERA  
(orduak/astea)

|              | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|--------------|-------|---------|----------|---------|
| Ezin. osoa   | 9,54  | 7,17    | 8,94     | 8,75    |
| Ezin. larria | 10,10 | 6,85    | 8,47     | 8,33    |
| Ezin. arina  | 7     | 5,31    | 7,09     | 6,21    |
| Autonomoak   | 5,30  | 4,35    | 4,92     | 4,68    |
| GUZTIRA      | 7,88  | 5,22    | 6,82     | 6,29    |

19. GRAFIKOA:  
EELZREN INTENTSITATEA EZINTASUN MAILAREN ARABERA



Laguntzaren intentsitatean ez da, generoaren arabera, gorabehera handirik: gizonezkoek, batez beste, 6,64 orduko laguntza eta emakumezkoek 6,19

ordukoa hartzen dute. Baina autonomo diren gizonetzkoak eta emakumezkoak batera hartuz gero, bada diferentziarik: emakumezkoek astean 4,30 orduko laguntza hartzen duten bitartean gizonetzkoek 5,15 orduko laguntza dagokie. Beraz, esan liteke, emakumezkoak eta gizonetzkoak berdinago direla ezintasunen bat dutenean, autonomo direnean baino.

**25. KOADROA:**  
**EELZREN INTENTSITATEA GENEROAREN ETA EZINTASUN MAILAREN**  
**ARABERA**

|              | Ezin. larria<br>edo osoa | Ezin.<br>arina | Autonomoak | Guztira |
|--------------|--------------------------|----------------|------------|---------|
| Gizonetzkoak | 8,21                     | 6,32           | 5,29       | 6,64    |
| Emakumezkoak | 8,54                     | 6,20           | 4,46       | 6,19    |
| Guztira      | 8,43                     | 6,21           | 4,68       | 6,29    |

Ematen diren laguntza orduen araberako azterketak erakusten duenez, ordea, laguntzaren intentsitatearen eta dependentzia mailaren artean dagoen eriazio horren barruan ere, dependentzia osoa edo handia duten pertsona askori autonomotzat har daitezkeen beste batzuei baino laguntza ordu gutxiago ematen zaie.

Ordu bitarteak agertzen diren taulak aztertzean 5-7 ordu bitarteari dagokiona alde batera uztea komeni da, laguntzaren banaketa normala hausten eta datuen azterketa nahasten baitu. Oso jende gutxiri ematen zaio 5-7 orduko laguntza, horren aurreko eta ondoko zutabeei dagokien denbora bitarteko laguntza hartzen duen jende kopuruari baino askoz gutxiagori bai behintzat. Izan ere, 5-7 orduko laguntza zerbitzua egunero -larunbatak eta igandeak barne- ordu bateko laguntza ematen duen ereduari baitagokio, eta, aurrerago ikusiko denez, EELZren jarduera askoz apalagoa izan ohi da asteburuetan.

26. KOADROA  
LAGUNTZA ORDUEN BANAKETA EZINTASUN MAILAREN ARABERA  
(pertsonek portzentaia intentsitatearen arabera)

| Ordu kop.       | 0-1        | 1-3         | 3-5         | 5-7         | 7-14        | 14 edo +    | Guzt.        |
|-----------------|------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|
| <b>Araba</b>    |            |             |             |             |             |             |              |
| Ezin. osoa      |            |             | 25,0        | 10,0        | 55,0        | 10,0        | 100,0        |
| Ezin. larria    |            | 3,1         | 12,5        | 9,4         | 56,3        | 18,7        | 100,0        |
| Ezin. arina     |            | 23,1        | 23,1        | 15,4        | 30,8        | 7,7         | 100,0        |
| Autonomoak      | 2,8        | 30,6        | 38,9        | 8,3         | 13,9        | 5,6         | 100,0        |
| <b>Guztira</b>  | <b>1,0</b> | <b>14,9</b> | <b>25,7</b> | <b>9,9</b>  | <b>37,6</b> | <b>10,9</b> | <b>100,0</b> |
| Zki. Absol      | 1          | 15          | 26          | 10          | 38          | 11          | 101          |
| <b>Bizkaia</b>  |            |             |             |             |             |             |              |
| Ezin. osoa      |            | 9,1         | 45,5        |             | 36,4        | 9,1         | 100,0        |
| Ezin. larria    |            | 7,0         | 32,6        | 11,6        | 48,8        |             | 100,0        |
| Ezin. arina     |            | 22,4        | 46,3        | 7,5         | 22,4        | 1,5         | 100,0        |
| Autonomoak      | 0,9        | 43,8        | 32,1        | 8,9         | 14,3        |             | 100,0        |
| <b>Guztira</b>  | <b>0,4</b> | <b>29,2</b> | <b>36,9</b> | <b>8,6</b>  | <b>24,0</b> | <b>0,9</b>  | <b>100,0</b> |
| Zki. Absol.     | 1          | 68          | 86          | 20          | 56          | 2           | 233          |
| <b>Gipuzkoa</b> |            |             |             |             |             |             |              |
| Ezin. osoa      |            | 33,3        | 11,1        |             | 22,2        | 33,3        | 100,0        |
| Ezin. larria    |            | 19,6        | 17,4        | 10,9        | 37,0        | 15,2        | 100,0        |
| Ezin. arina     | 1,8        | 10,5        | 33,3        | 14,0        | 28,1        | 12,3        | 100,0        |
| Autonomoak      | 5,2        | 34,5        | 27,6        | 12,1        | 20,7        |             | 100,0        |
| <b>Guztira</b>  | <b>2,4</b> | <b>22,4</b> | <b>25,9</b> | <b>11,8</b> | <b>27,6</b> | <b>10,0</b> | <b>100,0</b> |
| Zki. Absol.     | 4          | 38          | 44          | 20          | 47          | 17          | 170          |
| <b>E.A.E.</b>   |            |             |             |             |             |             |              |
| Ezin. osoa      |            | 10,0        | 27,5        | 5,0         | 42,5        | 15,0        | 100,0        |
| Ezin. larria    |            | 10,7        | 21,5        | 10,7        | 46,3        | 10,7        | 100,0        |
| Ezin. arina     | 0,7        | 17,5        | 38,7        | 10,9        | 25,5        | 6,5         | 100,0        |
| Autonomoak      | 2,4        | 38,8        | 32,0        | 9,7         | 16,0        | 1,0         | 100,0        |
| <b>Guztira</b>  | <b>1,2</b> | <b>24,0</b> | <b>31,0</b> | <b>9,9</b>  | <b>28,0</b> | <b>6,0</b>  | <b>100,0</b> |
| Zki. Absol.     | 6          | 121         | 156         | 50          | 141         | 30          | 504          |

Hauek dira zazpi orduz gorako laguntzaz baliatzen direnak: ezintasun osoa edo larria duten zerbitzu hartzaileen %57,1, eragozpenen bat dutenen %32,1 eta autonomoen %17. Laguntzaren intentsitatearen eta autonomia galeraren korrelazioa hiru lurraldeetan gertatzen da, 26. koadroan argi eta garbi ikus daitekeen bezala. Nolanahi ere, emaitzak ikusita, Araban EAEko beste bi lurraldeetan baino handiagoa da ezintasun osoa edo larria izan eta intentsitate handiko laguntza hartzen duten pertsonen proportzioa.

Ez da ahaztu behar halere, intentsitate handi samarreko laguntzaz baliatzen den pertsona autonomoen proportzioa ere handia dela, %17, hain zuzen ere, EAE osoan: Arabako pertsona autonomoen %19,4, Gipuzkoako %20,7, eta Bizkaiko %14,3.

Beste ikuspegi batetik aztertzen badugu, argiago geratuko da beharbada hori.

Astean gehienez hiru orduko laguntza hartzen duten pertsonak kontuan harturik ikus daitekeenez, adinekoen %13,4k erabateko ezintasuna du, edo larria; %66,9, aldiz, guztiz autonomo da.

Argi dago, beraz, intentsitate apaleko laguntza eguneroko bizitzako egin-kizunak betetzeko arazorik ez duten pertsona horiei zuzenduta dagoela.

Beste muturreko kasua aztertzen badugu, hau da, astean gutxienez zazpi orduko laguntza hartzen dutenena, zera ikusten da: talde horretako adinekoen %20,5 autonomo da, eta %53,8k, berriz, ezintasun larria edo osoa du. Hauxe da, bada, inolako zalantzarik gabe, gauzarik aipagarriena, hots, intentsitate handi samarreko laguntza hartzen dutenen %20 inguru guztiz autonomo dela. Intentsitate handi samarreko laguntzaz baliatzen diren pertsona autonomo horiek gutxienez zazpi orduko laguntza hartzen duten arabarren %14,3, gipuzkoarren %18,8 eta bizkaitarren %27,6 dira.

## 27. KOADROA: ZERBITZUAREN INTENTSITATEA ETA EZINTASUN MAILA

(gutxienez 7 orduko laguntza astean)

|             | Guztira | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|-------------|---------|-------|---------|----------|
| Larria      | 53,8    | 75,5  | 44,8    | 45,3     |
| Arina       | 25,7    | 10,2  | 27,6    | 35,9     |
| Autonomoak  | 20,5    | 14,3  | 27,6    | 18,8     |
| Zki. Absol. | 171     | 49    | 58      | 64       |

Laguntzaren intentsitatearen eta zerbitzu-hartzailearen dependentzia mailaren artean dagoen desegokitasuna laguntzaren adjudikaziorako irizpide soil gisa autonomiaren galera ez erabiltzeari zor zaiola pentsatzea logikoa da. Izan ere, familiartekoen laguntza izateak edo ez izateak, adjudikazio irizpiderik argiena aipatzearren, nahitez baldintzatzen baitu oinarrizko gizarte zerbitzua- ren xedapena.

Puntu horri dagokionez, jakingarri da ikustea nola laguntzaren batez beste intentsitatea txikiagoa den bakarrik bizi diren pertsonentzat (5,93 ordu astean) bakarrik bizi ez direnentzat baino (6,69). Izan ere, familia elkartuetan, zabalduetan, nukleo-anitzekoetan bizi diren adinekoek intentsitate handiko laguntza hartzen dute, pertsona bakarreko familia osatzen dutenek baino intentsitate handiagokoa beti ere. Bakarrik bizi diren pertsonen artean bestee- tan baino autonomo gehiago izatea da, hein batean behintzat, hori horrela izate- ren arrazoia.



28. KOADROA:  
INTENTSITATEA, ELKARBIZITZA ETA EZINTASUNA

|                              | <b>ordu / asteko</b> |
|------------------------------|----------------------|
| <b>Ezin. larria edo osoa</b> |                      |
| Bakarrik bizi da             | 9,03                 |
| Familiarekin                 | 8,18                 |
| <b>Ezintasun bat</b>         |                      |
| Bakarrik bizi da             | 6,63                 |
| Familiarekin                 | 5,59                 |
| <b>Autonomoak</b>            |                      |
| Bakarrik bizi da             | 4,39                 |
| Familiarekin                 | 5,21                 |
| <b>GUZTIRA</b>               | 6,29                 |

Bakarrik bizi diren zerbitzu-hartzaileek ezintasun maila bera izan baina beste pertsona batzuekin bizi direnek baino ordu bete gehiagoko laguntza hartzen dute, batez beste, asteen. Baina autonomoen artean alderantziz gertatzen da: eguneroko bizitzako oinarritzko eginkizunak betetzeko arazorik izan ez eta bakarrik bizi diren pertsonak beste batzuekin bizi direnek baino ordu bete guxtiagoko laguntza dute.

Hori horrela izatea ez da erraz ulertzekoa, baina, kontuan hartu behar da, askotan, autonomo izan baina eginkizun instrumentalak betetzeko eragozpenak dituzten zerbitzu-hartzaile horiekin bizi diren pertsonak –ezkontide adin-duak gehienetan– benetako laguntza baino gehiago, lana ematen diotela, hein batean, etxez etxeko laguntzaileari.

Davies eta Bebbington-en azterketaz gero<sup>1</sup>, bi eraginkortasun maila bereizten dira etxez etxeko laguntzaren ebaluazioan. Eraginkortasun bertikala, dituzten ezaugarriengatik zerbitzua hartzea badagokien zerbitzu-hartzaileen proportzio errealaren bitartez neurtzen da. Eraginkortasun horizontala, berriz, etxez etxeko laguntzaren beharra duten ahalik eta pertsona gehienei ematea lortzean datza. Beste era batera esanda, bigarren eraginkortasun maila horrek, horizontalak, ea “denak dauden” neurtuko luke, eta bertikalak ea “badiren dauden guztiak”.

Lortuko den eraginkortasun maila, noski, diana populazioa eratzeke oinarri diren premia mailak zehaztean hartuko diren irizpideen arabera izango da.

Eraginkortasun bertikalaren –dependentzia maila handia izan eta laguntza hartu dutenen proportzioa zerbitzu-hartzaile guztiekiko– arabera irizpide teknikoari jarraituz ikus daitekeenez, Bizkaia da zerbitzu-hartzaile autonomoen

<sup>1</sup> “Equity and Efficiency in the allocation of the Personal Social Services”. Journal of Social Policy, 12:13, 1983.

proportzio handiena duen lurraldea (%46,4), Gipuzkoaren (%28,8) eta Arabaren (33,7) aurretik. Horrela, Bizkaian, beste inon baino argiago agertzen da eraginkortasunak generoaren arabera duen joera, etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen duten gizonezkoen %61,8 autonomo baita, emakumezkoen artean autonomo direnen proportzioa %41,6 baino ez den bitartean. (Ikus 23. Koadroa)

EAEen etxez etxeko laguntza zerbitzuen eraginkortasun bertikalaren maila 31,9 da, eta askoz handiagoa da Araban (51,5) Gipuzkoan (32,4) eta, batez ere, Bizkaian (23,2) baino.

## 29. KOADROA: EELZREN ERAGINKORTASUN MAILA

|   | EAE    | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|--------|-------|---------|----------|
| EELZ hartzen duten per. kopurua   | 8.170  | 1.198 | 4.507   | 2.465    |
| EELZ hartzen eta ezin. larria edo osoa duten 65 urtez gorako pertsona kopurua                         | 2.606  | 616,9 | 1.045,6 | 798,7    |
| Ezintasun larria edo osoa duten EAEko 65 urtez gorako pertsona kopurua                                | 15.212 | 1.175 | 8.810   | 5.227    |
| Eraginkortasun horizontala<br>Ezint. larriak dituzten per (EELZ)<br>Ezint. larriak dituzten per (EAE) | 17,3   | 52,5  | 11,9    | 15,3     |
| Eraginkortasun bertikala<br>Ezint. larriak dituzten per (EELZ)<br>Laguntza hartzen dutenak            | 31,9   | 51,5  | 23,2    | 32,4     |

Iturria: Eusko Lehen Gerontologia Egitasmoa

Eraginkortasun horizontala (edo dependentzia maila handiko zerbitzu-hartzaileen kopurua dependentzia maila handiko adineko guztiekiko), berriz, %17,13 da. Araban gehiago, 52,5, eta Gipuzkoan eta Bizkaian askoz gutxiago, 15,3 eta 11,9 hurrenez hurren.

Arabak eraginkortasun tasa handia izateak badu, EELZen beraien eraginkortasunaz gainera, arrazoi nagusi bat: lurralde horretan zaintzaileekiko ohe eskaintza beste lurraldeetan baino askoz handiagoa denez<sup>2</sup>, askoz txikiagoa da etxebizitza partikularretan bizi direnen proportzioa.

<sup>2</sup> Laguntza hartzen zuten oso elbarrien artean %40,9, Gipuzkoan %17,7 eta Bizkaian %17,1.

Davies eta B.-k zehaztu zutenez, Erresuma Batuko<sup>3</sup> etxez etxeko laguntza zerbitzuen eraginkortasun horizontala 32 zen eta bertikala 39. Hango eta hemengo egoeraren konparazioa egitea bidezkoa ez bada ere, aipagarria da eraginkortasun bertikalari dagokion xifra hori oso hurbil dagoela EAEk duenarenetik.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko EELZk eraginkortasun maila handia du zerbitzu-hartzaileak dependentzia mailaren arabera hautatzeko, baina ez du, ordea, behar besteko hedapenik dependentzia maila handiko adinekoei laguntzeko, Araban izan ezik, lurralde horretan ezintasun larriak dituzten adinekoen %50k baino gehiagok hartzen baitu laguntza hori.

---

<sup>3</sup> "Effizient Targeting of Community Care: The Case of the home help". *Journal of Social Policy*, 22:3, 1993.

### 3.4. EELZREN EGINKIZUNAK

Euskadiko Autonomia Erkidegoan diharduten EELZk ez dira soilik etxeko lanez eta arduratzen. Eraskinean, 8. taulan, udal eta mankomunitateen zerrenda eskaintzen da, bakoitzean ematen den laguntza mota barne. Laguntza horiek lau talde handitan banatu dira: eguneroko eginbeharrak burutzeko laguntza (ohetik jaikitzea eta oheratzea, garbitzea, dutxa eta bainua hartzea, jatea eta sendagaiak kontrolatzea), etxeko lanak egiteko laguntza (ohea egitea, erosketak, etxeko garbiketa, arropa garbitzea), laguntza eta konpainia (solastea, eta, batez, ere, paseatzea), eta Organizazioa edo Antolakuntza sailean, batez ere etxeko ekonomiaren kontrolarekin zerikusia duten eginkizunei buruzko laguntza.

Gauzarik aipagarriena da, udal eta mankomunitateek emandako informazioaren arabera, ia zerbitzu guztien programek, beste errealitate batzuetan ez bezala, aintzat hartzen dutela nolabaiteko laguntza pertsonala ematea.

Hala, bada, osasunbideari legozkiekeen laguntza emateak ere aintzat hartzen dira –hala nola zarakarrak sendatzea–, nahiz eta, berez, udaleko EELZen araudiaren arabera, beren egitekoa ez izan. Hala ere, Bizkaian, eta batez ere Gipuzkoan, EELZ askok, itxuraz behintzat, bere gain hartzen dituzte berez osasun saileko profesionaleri legozkiekeen egitekoak, eta horrek agerian uzten du EAEk erien zaintzan duen defizita. Aipagarria da Araban, adibidez, EELZk ez dituela, inolaz ere, zarakarrak sendatzea, oxigenoa kontrolatzea eta gisako lanak bere gain hartzen.

Etxeko laguntzari dagokionez, zenbait tokitan, gutxitan halere, erosketak egitea ez da egin beharreko lanen artean sartzen. Kristalak garbitzea, garbiketa bereziak eta etxeko konponketa lanak etxer etxeko laguntzari ez dagozkion zereginak izaten dira udalerrien erdietan baino gehiagotan. Izan ere, horixe baita Europako zerbitzu askoren eginbidea, hau da, filosofia extentsiboa aplikatuz, oinarrizko beharrianetara mugatzea laguntza. Hiriburuetako zerbitzuei dagokienez, Bilbokoak ez ditu garbiketa bereziak bere gain hartzen, baina Donostiakoak eta Gasteizkoak bai.

Gauza berdintsua gertatzen da etxeko konponketei edo lan arinei dagokienez: udaletxe askok –Bilbok eta Gasteizek, adibidez– laguntza mota hori bere gain hartzen duten bitartean, beste batzuek –hala nola Donostiak– ez.

Konpainia egitea, eta batez ere paseatzea ateratzeko laguntza, ez da aintzat hartzen Gipuzkoako zenbait udaletxetako zerbitzuen artean, hiruburuakoak barne, baina, aitzitik, dagozkien Gizarte Zerbitzuek adierazten dutenaren arabera, Bizkaiko eta Arabako ia udaletxe guztiek eskaintzen dute laguntza mota hori.

Azkenik, garrantzi handia duen beste eginkizun batean, etxearen antolamenduan alegia, laguntza ematea ez da Gipuzkoa osoan aintzat hartzen, ezta, zehazki, Donostian ere.

Hala, bada, udaletxeek beraiek eman duten informazioaren azterketa eginda, esan daiteke ia zerbitzu guztiek etxeko laguntzaz gainera beste laguntza mota batzuk ere eskaintzen dituziela, hala nola laguntza pertsonala, ohe-

ratzen eta ohetik jaikitzen laguntzea, jaten ematea, bainatzea etab. Ez hori bakarrik, zenbait zerbitzuek, “nursing” laguntza ere eskaintzen dute, hori, berez, osasun alorraren egitekoa izan beharko lukeen arren.

Berez etxeko lanak diren eginkizunei dagokienez, zerbitzuen laguntza eskaintza desberdina da udalerrri batetik bestera. Batzuek aintzat hartzen dute etxeko oinarritzko lanak egiteko laguntza ematea, eta beste batzuek, aldiz, ez dituzte lan jakin batzuk egiten, hala nola garbiketa bereziak edo leihoetako kristalaren garbiketa.

Azterketa honetarako erabili den zerbitzu-hartzaileen erakusgarriari egin-dako galdeketari esker Zerbitzuari buruzko xehetasun hauek eman daitezke: EAEko zerbitzu-hartzaileen %30ek, laguntza pertsonala zein etxeko laguntza hartzen du, %60k etxeko laguntza bakarrik, eta %7,5ek laguntza pertsonala bakarrik. Beraz, argi dago, EELZk ez direla soilik etxeko lanak egiteko laguntza ematera mugatzen. Hori da, hein handi batean, batez besteko laguntzaren intentsitatea handi samarra izatearen arrazoia.


Guztiarekin ere, laguntza pertsonalak zerbitzu orokorraren barruan duen garrantziari dagokienez, bada alderik. Izan ere, Araban beste bi lurraldeetan baino pisu handiagoa baitu. Hala, Lurralde horretan, zerbitzu-hartzaileen erdiak baino gehiagok hartzen du laguntza pertsonala, baina Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, %35ek eta %30k baino ez.

### 30. KOADROA:

#### EELZEK EMATEN DUTEN LAGUNTZA LURRALDEAREN ARABERA

| EELZk<br>ematen duen<br>lag. mota | Araba |      | Bizkaia |      | Gipuzkoa |      | Guztira |      |
|-----------------------------------|-------|------|---------|------|----------|------|---------|------|
|                                   | Z     | %    | Z       | %    | Z        | %    | Z       | %    |
| Etxekoa eta<br>pertsonala         | 26    | 25,7 | 72      | 30,9 | 51       | 30,0 | 149     | 29,6 |
| Pertsonala                        | 28    | 27,7 | 2       | 0,9  | 8        | 4,7  | 38      | 7,5  |
| Etxekoa                           | 42    | 41,6 | 158     | 67,8 | 111      | 65,3 | 311     | 61,7 |
| Beste batzuk                      | 5     | 5,0  | 1       | 0,4  |          |      | 6       | 1,2  |
| GUZTIRA                           | 101   | 100  | 233     | 100  | 170      | 100  | 504     | 100  |

### 13. GRAFIKOA: EELZEK EMATEN DUTEN LAGUNTZA LURRALDEAREN ARABERA



#### Laguntza pertsonala

Eraskinean, 9. Taulak eguneroko eginbeharrekoei buruzko informazioa ematen du. Hau da, zerbitzu-hartzaileak eguneroko bizitzako oinarriko eginkizun pertsonaletan nola moldatzen diren argitzen du. Hona hemen, laburbilduz, daturik aipagarrienak.

#### Oheratzea:

Arabako zerbitzu-hartzaileen ia erdiek laguntza behar dute ohetik jaikitze-ko eta oheratzeko. Laguntza behar du, halaber, beste bi lurraldeetako zerbitzu-hartzaileen %15-20k inguru. Arabako Zerbitzuko adinekoen %40k ohetik altxatzeko edo oheratzeko laguntza hartzen du. Aitzitik, Gipuzkoan eta Bizkaian, adinekoen %11k baino ez du hartzen horretarako laguntza.

Daturik aipagarrietako bat hau da: Bizkaiko zerbitzu-hartzaileen %4,3k (196 pertsona guztira) arazoak ditu ohetik jaikitze-ko eta ohera sartzeko, eta hala ere, ez du nork lagundu. Halaber, beste datu hau ere oso adierazgarria da: nahiz eta Arabako zerbitzu-hartzaileek, batez beste, dependentzia maila handiagoa izan, eta proportzioan, zaintzaile informal gehiago izan ere, zaintzaile horiek ez dira, beste bi lurraldeetakoak baino maizago behintzat, adinekoak ohetik altxatzeaz eta ohera sartzetarako arduratzen soilik. Esan nahi da, Arabako EELZk sustengu handiagoa ematen diola zaintzaile informalarik Bizkaikoak edo Gipuzkoakoak baino. Beste era batera esanda, zaintzaile informalairen eta etxez etxeko laguntza zerbitzuetako langilearen lanak bateragarri direla. Izan ere, Araban, zerbitzu-hartzaileen %20k baino gehiago jaikitze-ko eta oheratzeko laguntza hartzen baitu, hala zaintzaile informalairen aldetik nola EELZen laguntzaileen aldetik.

### **Zerbitzu-hartzailearen garbiketa:**

Egoera, kasu honetan, aurrekoaren oso antzekoa da. Arabako zerbitzu-hartzaileen erdiek laguntza hartzen dute garbitzeko. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, %30ek du horretarako laguntza hartzen. Araban zerbitzu-hartzaileen %45ek hartzen du EELZen laguntza garbitzeko, Gipuzkoan %23,5ek eta Bizkaian %21ek. Garbitzeko laguntza behar duten Bizkaiko zerbitzu-hartzaileen %3k (hau da, 137 pertsona) ez du nork lagundurik. Egoera berean daude Gipuzkoako zerbitzu-hartzaileen %1,2.

### **Bainua eta dutxa:**

Eginkizun honi buruzko datuak eta zerbitzu-hartzailearen garbiketaz esan direnak ez dira oso desberdinak. Araban, EELZk bere gain hartzen du, berak bakarrik edo zaintzaile informalekin txandakatuz, zerbitzu-hartzaileen %45 bainatzearen ardura. Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, zerbitzu-hartzaileen %20k eta %26k hartzen dute Zerbitzuaren aldetik bainatzeko laguntza. Gipuzkoan, bestalde, zerbitzu-hartzaileen %3k laguntza behar du bainatzeko, baina ez du nork lagundu. Bizkaian behar bai baino laguntzarik ez dutenak %4 dira. Oro har, eta etxez etxeko laguntza zerbitzuen hartzaile diren adineko guztiei buruzko datuak EAE osora eramanez, Gipuzkoan 75 pertsonak bainatzeko laguntza behar arren, ez du laguntzarik hartzen, eta Bizkaian, berriz, 185 dira laguntza behar bai baina ez dutenak.

### **Janzteia:**

EAEko EELZ, bera bakarrik edo zaintzaile informalekin batera, Arabako zerbitzu-hartzaileen %40, Gipuzkoako %20 eta Bizkaiko %14 janzteaz eta eranzteaz arduratzen da. Azken lurralde horretan, Bizkaian, zerbitzu-hartzaileen %4,3k –200 bat pertsona– eragozpen handiak ditu bakarrik janzteko eta eranzteko, baina bakarrik aritzea beste erremediorik ez du, ez baitu nork lagundurik.

### **Jatea:**

Txikia da jateko arazo larriak dituzten zerbitzu-hartzaileen proportzioa. Bestalde, jaten ematea, gehien-gehienetan, bakarrik zaintzaile informalen zeregina izaten da. Bizkaian baino ez dira aurkitu jateko arazoak izan eta laguntzarik hartzen ez duten zerbitzu-hartzaileak (2 pertsona).

### **Sabeleko egitekoei ezin eutsia:**

Bai EELZk bai zaintzaile informalak, biak arduratzen dira arazo horretaz. Arazo hori zabalduagoa dago Arabako zerbitzu-hartzaileen artean. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, txikiagoa da sabeleko egitekoei ezin eutsi diotenen pertsonen kopurua –zerbitzu-hartzaileen artean, noski–, eta, gainera, Lurralde horietan, zaintzaile informalek sabeleko egitekoei arazoak dituzten adinekoegi laguntza ematea dute eginkizunetako bat. Gipuzkoan baino ez da aurkitu pertsona bat, sabeleko egitekoei ezin eutsia dela eta, hortik datozen arazoei aurre egiteko laguntzarik ez duena, ez EELZen ez zaintzaile informalen aldetik ere.

Aipatu diren oinarrizko eginkizun horiek guztiak –oheratu eta ohetik jaiki, jantzi-erantzi, jan, komunera joan– kontuan harturik, Gipuzkoako zerbitzu-hartzaileen artean %2,4k, 58 bat pertsona alegia, arazoak izan arren eginkizun horietako bat betetzeko ez du EELZen laguntza hartzen arazo horri aurre egiteko. Bizkaian %6,4 dira (293 bat pertsona, alegia) egoera berean dauden pertsonak. Araban, aldiz, ez da aurkitu halakorik.

## **Eginkizun instrumentalak betetzeko laguntza**

Eginkizun instrumentalei buruzko azterketa argiago baten alde, lau zeregin mota bereizi dira.

### **Otordua prestatzea:**

Lehenago esan den bezala, zerbitzu-hartzaileen %40k ez du ahalmenik, edo laguntza behar du, otordua prestatzeko. Egoera horretan daudenen %22,6k EELZen laguntza hartzen du –%8,7k zaintzaile informalekin batera–, eta ia kasuen erdian zaintzaile informala den bizkar dago laguntza ematea. Otordua laguntzarik gabe ezin presta dezaketen zerbitzu-hartzaileen %1,2k –150 bat pertsona EAE osoan– ez du nork lagundurik.

Otordua prestatzeko laguntza ematen den lurraldeari dagokionez, EELZk Araban (%13,8) baino gehiago Bizkaian (%25,8) eta Gipuzkoan (%23,5) dihardute horretarako laguntza ematen.

Zerbitzuaren laguntza batez ere bazkaria prestatzeko izaten da, afaritarako baino gehiago. Beraz, eguneko azken otordua prestatzeko nork lagundurik ez duten pertsonen proportzioa handiagoa da: laguntzarik gabe otordurik ezin presta dezaketen %10, hau da, 294 bat pertsona EAE osoan.

### **Etxeko lanak:**

EAEko EELZen laguntza hartzen dutenen %67,7k laguntza behar du etxeko lan arruntak egin ahal izateko. EELZk, berak bakarrik, laguntza horren premia dutenen %66,9ri eta, familiarteko zaintzailearekin batera, %23,6ri ematen die laguntza. Beraz, EELZk, bakarrik zein laguntzarekin, zerbitzu-hartzaileen %90,5i laguntzen dio. EELZk etxeko lanetan ematen duen laguntza askoz urriagoa da Araban (zerbitzu-hartzaileen %66,4) Gipuzkoan eta Bizkaian (%90) baino.

### **Erosketak:**

Zerbitzu-hartzaileen %64,1ek laguntzaren premia du erosketak egiteko. EELZk, berak bakarrik, zerbitzu-hartzaile horien %26,4ri laguntzen dio, eta zaintzaile informalekin batera %7,5i.

Oro har, EELZk, berak bakarrik edo bestela, laguntzaren premia dutenen %33,9ri laguntzen dio erosketak egiten, eta zaintzaile informalak, berriz, %33,9ri. Laguntzarik gabe erosketak ezin egin ditzakeen zerbitzu-hartzaileen %4,2k, 325 pertsona alegia, ez du nork lagundurik alor horretan.

Etxeko beste eginkizun batzuetan bezala, erosketei dagokienez ere, EELZen esku hartzea apalagoa da Araban (zerbitzu-hartzaileen %22,8) beste



bi lurraldeetan baino. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, EELZk, bakarrik zein bestela, zerbitzu-hartzaileen %35,6ri eta %38,2ri laguntzen die, hurrenez hurren, erosketak egiten.

### **Etxeko administrazioa:**

Etxeko diruak-eta administratzeko ezintasunak beste ezintasun mota batzuk baino garrantzi gutxiago du, zerbitzu-hartzaileen %30,8ri baitagokio soilik. EELZk etxearen administrazioan ematen duen laguntza ere beste arazo batzuetarako ematen duena baino apalagoa da, zerbitzu-hartzaileen %4,2ri baino ez baitio laguntzen.

Laburbilduz, eta alde batera utzita laguntza pertsonala baino hartzen ez dutenen taldea, Araban baino ez baita kontuan hartzekoa –zerbitzu-hartzaileen %32,7–, esan daiteke, beraz, laguntza eginkizun instrumentaletan baino hartzen ez duten adinekoen erditsuari etxeko lanak egiteko laguntza ematen zaiola bakarrik.

## 31. KOADROA: EELZREN ESKUHARTZEA EGUNEROKO BIZITZAKO EGINKIZUNETAN

|                 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira |
|-----------------|-------|---------|----------|---------|
| Etxeko lanak    | 98,6  | 99,6    | 98,8     | 98,6    |
| Otorduak prest. | 20,6  | 26,0    | 24,7     | 24,7    |
| Erosketak       | 33,9  | 36,1    | 40,1     | 37,1    |

*Portzentaien batura ez da 100, eginkizun bat betetzeak ez duelako bestea egin ezin daitekeenik esan nahi.*

Portzentaien batura ez da 100, eginkizun bat betetzeak ez duelako bestea egin ezin daitekeenik esan nahi.

“Etxeko lanak” saileko eginkizunetan, garbiketan batez ere, laguntzeaz gainera, EELZ erosketak egiteaz (%37) eta otordua prestatzeaz (%24,87) ere arduratzen da, besteak beste.

Eginkizun bakoitzak zerbitzuan duen pisuari dagokionez, lurraldeen arteko desberdintasunak urriak dira. Zerbitzuak laguntza ematen duen ia kasu guztietan garbiketa orokorraz arduratzen da, eta gainera, laguntza behar dutenen %25i bazkaria prestatzen eta %37ri erosketak egiten ere laguntzen die.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen dutenen artean, eginkizun instrumentalen bat betetzeko laguntza behar dutenen %9,91ek, hots, EAE osoko 813 zerbitzu-hartzailek, ez du nork lagundurik alor horretan.

### 3.5. HARREMANETARAKO LAGUNTZA

Oro har, EELZen hartzaileek inguruko lagunarteko harremanak ondo lotuta dituzte, eta bakartasunezko egoerak ez dira sarri gertatzen. Lehenago ere esan den bezala, zerbitzu-hartzaileen erdia baino gehiago bakarrik bizi da, baina bakarti horien %60k egunero izaten du familiartekoren baten bisita, seme-alabena gehienetan, edo lagunaren batena. Pertsona horien %25k gutxienean astean behin izaten du bisita, eta %3,6k gutxienean hamabost eguneha behin. Zerbitzu-hartzaileen %8,9k, berriz, ez du hilabetez behin baino gehiagotan izaten bisitarik.

Beraz, zerbitzu-hartzaileen %4,4 –hau da, 379 pertsona EAE osoan–bakartasunezko edo arrisku handiko egoeran bizi dela esan daiteke, bakarrik bizi eta bisita bakanak dituelako.

#### 32. KOADROA: BISITA MAIZTASUNA

|                               | Bakartasuna      |       |              |       |
|-------------------------------|------------------|-------|--------------|-------|
|                               | Bakarrik bizi da |       | Familiarekin |       |
|                               | Z                | %     | Z            | %     |
| Bisita maiztasuna             |                  |       |              |       |
| Egunero (gutxi.)              | 150              | %60,7 | 110          | %50,0 |
| Astero (gutxi.)               | 66               | %26,7 | 73           | %33,2 |
| Hamabostean<br>behin (gutxi.) | 9                | %3,6  | 16           | %7,3  |
| Hilabetean<br>behin (gutxi.)  | 22               | %8,9  | 17           | %7,7  |
| Inoiz ez                      |                  |       | 4            | %1,8  |
| Guztira                       | 263              | %100  | 241          | %100  |

Ia udaletxe eta mankomunitate guztiek jendeari konpainia egiteko zerbitzua dute, hala nola erosketak egiteko, paseatzeko, laguntza eskaintzen duten beste batzuek ere. Izan ere, zerbitzu-hartzaileen %40k aitortzen duenez, etxera joaten zaien laguntzaileak etxeko lanak egiteaz eta laguntza pertsonala emateaz gainera, haiekin mintzantzen da, eta konpainia egiten die. Harremanezko bizitzarako laguntasun funtzio hori, zerbitzu-hartzaile askok etxeko lanak egitea baino gehiago eskertzen dutena, askoz hedatuago dago Arabako EELZn, Gipuzkoakoan eta Bizkaikoan baino. Hori horrela izatea Arabako zerbitzu-hartzaileek dituzten berezitasunengatik izango da seguraski. Izan ere, lurralde horretakoek besteak baino dependentzia maila handiagoa baitute. Hala, Arabako zerbitzu-hartzaileen %75ek badu konpainiarik, eta beste bi lurraldeetan %30ek baino ez.

Paseatzeko laguntza, konpainiako zerbitzuen barruko laguntza mota bat dena, eta EELZ guztiek eskaintzen dutena, zerbitzu-hartzaileen %5,8k hartzen dute. Laguntza mota hori hartzen duten aiton-amonen kopuruari dagokionez ere, alde handiak daude EAEko lurralde batetik bestera: Araban zerbitzu-hartzaileen %17,8k, Gipuzkoan %3,5ek eta Bizkaian %2,1ek.

### 33. KOADROA: EELZ-REN BESTE ZENBAIT IHARDUERA

| Lurralde historikoa  |       |       |         |       |          |       |         |       |
|----------------------|-------|-------|---------|-------|----------|-------|---------|-------|
|                      | Araba |       | Bizkaia |       | Gipuzkoa |       | Guztira |       |
|                      | Z     | %     | Z       | %     | Z        | %     | Z       | %     |
| EELZ/Solas. aritu    |       |       |         |       |          |       |         |       |
| bai                  | 77    | %76,2 | 72      | %30,9 | 53       | %31,2 | 202     | %40,1 |
| ez                   | 24    | %23,8 | 161     | %69,1 | 117      | %68,8 | 302     | %59,9 |
| EELZ/Paseoan lagundu |       |       |         |       |          |       |         |       |
| bai                  | 18    | %17,8 | 5       | %2,1  | 6        | %3,5  | 29      | %5,8  |
| ez                   | 83    | %82,2 | 228     | %97,9 | 164      | %96,5 | 475     | %94,2 |

Zerbitzu-hartzaileen %55,8 egunero ateratzen da paseatzera, eta hori da egunero egiten den jarduera nagusietako bat, bigarrena hain zuzen ere, paseatzea baino gehiago zerbitzu-hartzaileen eguneroko jarduera nagusia telebista ikustea baita (%90,1). Baina gai hau beste ikuspegi batetik begiratu gero, ondorioak bestelakoak dira: zerbitzu-hartzaileen %44,2 (3.611 pertsona EAE osoan) ez da paseatzera ateratzen. Bestalde, zerbitzu-hartzaileen %10,3k (842 pertsona) ez du ezertxo ere egiten egun osoan zehar, eta azterketatik ateratzen denez, beste era bateko ekintzak –ludikoak, edo dituzten harremanak aberaste aldekoak– egiten dituztenen proportzioa ere oso txikia da.

### 3.6. EELZREKIKO ADOSTASUN MAILA

#### 3.6.1. Zerbitzua ordu jakinetara egokitzea

Puntu honi buruz esan daitekeen lehenengo gauza da zerbitzu-hartzaileen %85,9k egunero ordu berean hartzen duela zerbitzuaren laguntza. Laguntza ordu desberdinetan hartzen duten zerbitzu-hartzaileen proportzioa handiagoa da Araban beste bi lurraldeetan baino. Izan ere, Araban, zerbitzu-hartzaileen %36k ez baitu beti ordu berean hartzen laguntzailearen bisita. Nolanahi ere, ez du ematen zerbitzu-hartzaileak horregatik kexu direnik.

Zerbitzu gehienak goizeko 09.00-12.00 bitartean egiten dira, eta 15.00etarako adinekoen %80k hartuta daude laguntza. Laguntza ordu jakinetan hartzen dutenen azterketa eginda, zera esan daiteke: EAE osoan, zerbitzu-hartzaileen %20k 09.00etan hartzen dute laguntza, eta 11.15erako eginak dira bisiten %60 baino gehiago. Ordu banaketa ez da askorik aldatzen astean zehar.

#### 34. KOADROA: ORDU BANAKETA EGUNEAN ZEHAR


|          | Maiztasuna | %    |
|----------|------------|------|
| 6-9 h.   | 9          | 1,8  |
| 9-12 h.  | 229        | 45,4 |
| 12-15 h. | 161        | 31,9 |
| 15-18 h. | 57         | 11,3 |
| 18-21 h. | 39         | 7,7  |
| 21-6 h.  | 7          | 1,4  |
| Guztira  | 502        | 100  |

Zerbitzuaren laguntza ordu berean hartu ohi dutenetatik, %12,6k beste ordu batean hartu nahiko luke.

Laguntzaren orduari dagokionez, 4. Grafikoan argi eta garbi ikusten da laguntza ematen den orduaren eta zerbitzu-hartzaileek nahiko luketenaren arteko hurbiltasuna. Goizaldeko lehen orduetan, laguntza orduan hartu nahi duten zerbitzu-hartzaileen proportzioa baino handixeagoa da zerbitzuaren jardura: %30ek 06.00-09.00ak bitartean hartzen du laguntza, eta %27 da laguntza denbora-bitarte horretan hartu nahi duena.

Goizaldeko 09.15etik 12.00etara %47,2k hartzen du laguntza, eta %55,1ek hartu nahiko luke. Eguerdiko 12,15etik 15,00etara %17,5ek hartzen du laguntza, eta %13k nahiko luke. Arratsaldean, 15,15etik 18.00etara %5,1ek hartzen du laguntza, eta %4,6k hartu nahiko luke denbora-bitarte horren barruan. Azkenik, 18,15etik 21.00etara %0,2k baino ez du hartzen laguntza, eta nahi, %0,7k hartu nahiko luke orduan.

4. GRAFIKOA:  
EELZ-REN ORDUTEGIA ZERBITZU-HARTZAILEEN NAHIETARA ZEIN  
NEURRITAN EGOKITZEN DEN



Laguntza hartzen den orduarekiko adostasun mailari buruz, zera esan daiteke: laguntza eguerdia baino lehen hartzen dutenen %80-90ak ez duela laguntza hartzeko ordua aldatu nahi.

Laburbilduz: laguntzailearen bisita goizaldeko lehenengo laguntza-orduetan hartzen duen zenbait pertsonak nahiago luke beranduxeago hartzea; aitzitik, goizaldeko bigarren laguntza-orduetan alderantziz gertatzen da. Eguerditik aurrera berdin-berdin gertatzen da: laguntzailearen bisita bazkalordu inguruan hartzen duen zenbait pertsonak nahiago lukeela lehenxeago hartu ahal izatea.

Nolanahi ere, gauzarik aipagarriena, hau da: zerbitzuaren laguntza-ordua oso ondo egokitzen direla zerbitzu-hartzaileen nahieta; baina, bestalde, ez da ahaztu behar, badirela ere zerbitzuak ezarritako ordutegira egokitu direnak. Laguntza ematen den eta hartu nahiko litzatekeen orduen arteko gorabehera handiagoa da Bizkaian Gipuzkoan baino, eta handiagoa, halaber, Gipuzkoan Araban baino. Azken lurralde horretan zerbitzu-hartzaileen %3,3k baino ez luke laguntza hartzeko ordua aldatuko, Gipuzkoan %12,7k eta Bizkaian %18,3k.

Beraz, eskaintza eta eskariaren arteko egokitasuna ia erabatekoa da Araban, ona Gipuzkoan eta ez hain ona Bizkaian. Datu hori kontuan harturik, oinarritzko gizarte zerbitzuetako laguntzaileei galdetu zitzaizen ea, ordutegia erabakitzean, lehentasuna ematen zaien zerbitzu-hartzaileen beharriari. Arabako ia guztiek, gutxiago Gipuzkoan, eta askoz gutxiago Bizkaian, baietz erantzun zuten, lehentasun handiagoa duela zerbitzuaren laguntza eskatzen duen pertsonaren nahiari zerbitzuak lana antolatzeke dituenak baino.

### 3.6.2. Zerbitzu-hartzaileek EELZri buruz duten iritzia

Etxez etxeko laguntza zerbitzuak hartzen dituzten pertsonen %70 oso gustura dago ematen zaion laguntzarekin, eta %25 nahikoa gustura. Zerbitzu-hartzaileen %5 baino ez da gustura ez dagoena. Gustura ez egotearen arrazoi nagusia laguntza orduen kopurua da, gutxienez zerbitzu-hartzaileen %22,5ek ordu gehiago nahiko lituzke eta.

#### 35. KOADROA: ZERBITZU-HARTZAILEEK EELZ-RI BURUZ DUTEN IRITZIA

| EELZri buruz duten iritzia                  |            |              |
|---|------------|--------------|
|   | Z          | %            |
| <b>Oso iritzi ona</b>                       | <b>355</b> | <b>70,4</b>  |
| <b>Nahikoa iritzi ona</b>                   | <b>125</b> | <b>24,5</b>  |
| Ordutegiaz eta laguntzaileaz kexu           | 4          | 0,8          |
| Ordutegiaz kexu                             | 94         | 18,7         |
| Langileaz kexu                              | 3          | 0,6          |
| Beste arrazoi batzuk                        | 24         | 4,8          |
| <b>Nahikoa iritzi txarra edo oso txarra</b> | <b>24</b>  | <b>4,8</b>   |
| Ordutegiaz eta lanaz kexu                   | 6          | 1,2          |
| Ordutegiaz kexu                             | 9          | 1,8          |
| Laguntzaileaz kexu                          | 7          | 1,4          |
| Beste arrazoi batzuk                        | 2          | 0,4          |
| <b>GUZTIRA</b>                              | <b>504</b> | <b>100,0</b> |

Etxez etxeko laguntza zerbitzuek ematen dituzten laguntza orduei eta laguntzaren banaketari buruzko adinekoen iritziak balio erlatiboa du zerbitzua biztanleen beharrezanetara zer neurritaraino egokitzen den zehaztu nahi denean. Horiek baino datu objektiboagoak behar dira horretarako.

36. Koadroan oinarritzko funtzioak –hala nola, oheratzea, janzte, garbitzea edo jatea– betetzeko eragozpen larriak izan eta –zaintzaile informalik ez izateaz gainera, funtzio horiek laguntzarik gabe betetzeko gauza ere ez izatean– etxez etxeko laguntzaren erabat mende dauden pertsonen buruzko informazioa bildu dugu. Pertsona talde horrek zerbitzu-hartzaileen %20 osatzen du. Horietatik %7k baino ez du egunero, asteburuak barne, hartzen laguntza. Oinarritzko lau funtzio horiek betetzeko laguntzaren mende dauden pertsonen artean, Araban %84,4k, Gipuzkoan %94,1ek eta Bizkaian %100ek ez du, astean behin gutxinez, inolako laguntzarik hartzen.

### 36. KOADROA: EZINTASUN LARRIAK DITUZTEN PERTSONAK

|   | Araba<br>% | Bizkaia<br>% | Gipuzkoa<br>% | Guztira<br>% |
|---|------------|--------------|---------------|--------------|
| EELZko laguntzailea ez da joaten asteko (larunbata eta igandea barne) egunen batean | 84,4       | 100,0        | 94,1          | 93,0         |
| Etxeko laguntzailea ez da joaten astelehena-ostirala bitarteko egunen batean        | 6,3        | 26,5         | 14,7          | 16,0         |

Astelehenetik ostiralera, astea bost egunekoa balitz bezala hartuta, ezintasun larriak izateagatik laguntza nahitaez behar duten horien %6,34k Araban, %14,7k Gipuzkoan eta %26,5ek Bizkaian, astean behin, gutxienez, ez du inolako laguntzarik hartzen. Lan egunetako defizitatik datorrena gutxietsi gabe, asteburuetakoa oso arazo larria da; izan ere, jaikitzeo eta oheratzeko, janzteko eta erantzeko, garbitzeko edo bazkaltzeko nahitaez laguntzailea behar duten zerbitzu-hartzaileen %98k (1.500 pertsona) ez baitu inolako laguntzarik hartzen.

Tamalgarria da egoera, baina ez dauka bestela izaterik. Izan ere, larunbatetan, zerbitzu-hartzaileen %17,7k baino ez baitu laguntzarik hartzen, eta igandeetan %2,2k baino ez. Gainera, kontuan hartzen bada zerbitzua hartzen duten pertsonen %31,9k eragozpen handiak dituela oinarritzko eginkizunak betetzeko, eta horietatik %62,1ek ez duela inolako laguntzarik hartzen inguruko artetik, erraz ulertuko da asteburuetakoko zoritxarreko laguntzarik ezak ondorioz dakarren eskasiaren larria. Gaueko laguntzari dagokionez ere, egoera tamalgarria da, 21.00-06.00 bitartean zerbitzu-hartzaileen %1,4k baino ez baitu laguntza hori hartzen.

#### 3.6.3. Zerbitzu-hartzaileek laguntzaileari buruz duten iritzia

Dudarik gabe, zerbitzu-hartzaile gehien gehienak gustura daude etxeko laguntza zerbitzuko laguntzaileen lanarekin. Salbuespen bat edo beste salbu, laguntza hartzen duten pertsonen oso iritzi ona dute laguntzaileaz, eta, era berean, laguntzaileekiko bileretan agertzen denez, hauek ere oso gustura daude egiten ari diren lanarekin, eta txerazko hitzak dituzte adinekoekiko. Are gehiago, bada profesional bati berez legokiokoen neurritz gaineko arduraren hartzten duenik ere, bai baitakite beraiek direla adinekoak munduarekin duen lotura eta kanpotik hartzen duen laguntza bakarra. Badira ere, beraiek hala nahita, eta lanari dagozkion eginkizunak bete ondoren, adinekoa paseatzera ateratzen dutenak, edo otorduetara agertzen direnak, edota berez osasun alorrari dagozkion eginkizunak, hala nola larruko zarakarrak garbitzea, betetzen dituztenak ere.

Egia da zerbitzu-hartzaileen dependentzia egoerak hartzen duen laguntzari buruzko iritzia baldintza lezakeela, baina egia da ere nekez lor daitekeela halako iritzi batasunik.

Bestalde, etxeko laguntzan kritika gai izan ohi diren gorabeherak zehazten saiatzean, alderdi bati buruzko erantzun negatiboen proportzioa gutxitan izan da %5 baino handiagoa.

Zerbitzu-hartzaileen kexa nagusia da –erantzunen %10 baino gutxiago beti ere– laguntzaileek ez dutela haiek nahi adina hitz egiten. Arrazoi horregatik gustura ez daudenen portzentairik handiena Gipuzkoako zerbitzu-hartzaileei dagokie (%16,5).

### 37. KOADROA: ZERBITZU-HARTZAILEEN LAGUNTZAILEAREKIKO IRITZIA

| Zerbitzu-hartzaileen laguntzailearekiko iritzia |       |         |          |         |
|---|-------|---------|----------|---------|
|   | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira |
|   | %     | %       | %        | %       |
| <b>Gutxi hitzegiten du</b>                      |       |         |          |         |
| bai   | 7,9   | 3,4     | 16,5     | 8,7     |
| ez  | 92,1  | 96,6    | 83,55    | 91,3    |
| <b>Gehiegi hitzegiten du</b>                    |       |         |          |         |
| bai   | 3,0   | 3,0     | 5,9      | 4,0     |
| ez  | 97,0  | 97,0    | 94,1     | 96,0    |
| <b>Lan gutxi egiten du</b>                      |       |         |          |         |
| bai   | 5,9   | 2,1     | 7,6      | 4,8     |
| ez  | 94,1  | 97,9    | 92,4     | 95,3    |
| <b>Gauzak oker egiten ditu</b>                  |       |         |          |         |
| bai   | 5,0   | 1,7     | 5,3      | 3,6     |
| ez  | 95,0  | 98,3    | 94,7     | 96,4    |
| <b>Modu txarrak ditu</b>                        |       |         |          |         |
| bai   | 3,0   | 2,3     | 3,5      | 2,4     |
| ez  | 97,0  | 98,7    | 96,5     | 97,6    |
| <b>Narratsa da</b>                              |       |         |          |         |
| bai   | 2,0   | 0,4     | 1,8      | 1,2     |
| ez  | 98,0  | 99,6    | 98,2     | 98,8    |
| <b>Ez ditu gauzak zeuk nahi bez. egit.</b>      |       |         |          |         |
| bai   | 9,9   | 3,0     | 8,8      | 6,3     |
| ez  | 90,1  | 97,0    | 91,2     | 93,7    |
| <b>Jenio txarrekoa</b>                          |       |         |          |         |
| bai   | 7,9   | 0,9     | 4,7      | 3,6     |
| ez  | 92,1  | 99,1    | 95,3     | 96,4    |
| <b>GUZTIRA</b>                                  | 100   | 100     | 100      | 100,0   |
| Zki. absol                                      | 101   | 233     | 170      | 504     |



Pentsatu izan da ere, zerbitzu-hartzaile batzuek arazoak izan zitzaizketela egokitutako laguntzailearekin moldatzeko, dela adinagatik, dela sexuagatik dela kultur mailagatik. Horri buruzko galderak egin eta gero, ez da pertsonen arteko desegokitasun nabarmenik aurkitu. Izan ere, zerbitzu-hartzaileek esaten dutenez, ez baitie askorik arduraren laguntzailearen adina, generoa edota darabilten hizkuntza.

Bizkaian, gaztelaniaz egiten dieten eta euskaraz egitea nahiago luketen bi pertsona aurkitu dira, eta beste bat alderantzizko egoeran dagoena. Gipuzkoan gaztelaniaz hitz egiten dieten 8 pertsonak nahiago euskaraz egingo balitzate, eta alderantzizko egoeran ere bada beste bat. Hala, bada, era horretako hizkuntza arazoren bat izandako zerbitzu-hartzaileen portzentaia %2,4 da.

Azterketa honetarako erabili den erakusgarriaren arabera, laguntzaileen %2,57 baino ez dira gizonezkoak, eta hala ere, soilik zerbitzu-hartzaile bakar batek, emakumezko baten laguntza duena, gizonezkoa nahiagoa duela esan du.

Halaber, sei pertsonak nahiago laguntzaile (49,3 urte batez beste) gazteagoak, eta beste hainbestek, berriz, dituztenak baino adinean sartuagoak nahiago. Azken hauei laguntzen dieten emakumeen batez besteko adina 28,6 urte da.

Zerbitzu-hartzaileek, oro har, duten laguntzaileari eutsi nahi izaten diote, eta laguntzailea ez aldatzeagatik, ez dute laguntza hartzeko ordua aldatzeko eskaerarik egiten.

Udaletxe eta mankomunitateek badakite hori, eta diotenez, "adinekoak beti laguntzaile bera izan dezan saiatzen gara". Batzuetan, ordea, hori ezinezkoa izaten da, eta zerbitzu-hartzaileen %40k baino gehiagok etsi eta onartu behar izan du laguntzaileaz aldatzea. Proporzioan, pertsona aldaketa gehiago izan da Bizkaian –ia zerbitzu-hartzaileen erdiak laguntzaile bat baino gehiago izan baitu– Gipuzkoan (%37,6) eta Araban (%29,7) baino.

38. KOADROA:  
EELZ-ETAKO LAGUNTZAILEZ ALDATZEA

| Laguntzaile aldaketak        |        |         |          |         |
|------------------------------|--------|---------|----------|---------|
|                              | Araba  | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira |
| <b>Langilea aldatu dute?</b> |        |         |          |         |
| bai                          | %29,7  | %49,1   | %37,6    | %41,4   |
| ez                           | %70,3  | %50,9   | %62,4    | %58,6   |
| Guztira                      | %100,0 | %100,0  | %100,0   | %100,0  |
| Zki. absol.                  | 101    | 232     | 170      | 503     |
| <b>Zenbat aldiz?</b>         |        |         |          |         |
| 1                            | %30,0  | %5,3    | %13,3    | %11,3   |
| 2                            | %33,3  | %34,5   | %21,7    | %30,5   |
| 3                            | %23,3  | %19,5   | %21,7    | %20,7   |
| 4                            | %3,3   | %17,7   | %15,0    | %14,8   |
| 5 edo gehiago                | %10    | %23     | %28,3    | %22,7   |
| Guztira                      | %100,0 | %100,0  | %100,0   | %100,0  |
| Zki. absol.                  | 30     | 113     | 60       | 46      |
| <b>Zenbat iraun du?</b>      |        |         |          |         |
| 12 hilabete baino gutxiago   | %3,3   | %4,4    | %9,7     | %5,9    |
| 12-24                        | %30,0  | %23,0   | %29,0    | %25,9   |
| 25-47                        | %6,7   | %28,3   | %21,0    | %22,9   |
| 48-99                        | %60,0  | %44,2   | %40,3    | %45,4   |
| Guztira                      | %100,0 | %100,0  | %100,0   | %100,0  |
| Zki. absol.                  | 30     | 113     | 62       | 205     |

Aldaketa egiten denean, aldaketa maiztasuna handi samarra izaten da, hau da, aldaketa gehienak zerbitzu-hartzaile gutxi batzuen artean izaten dira, eta, beraz, pentsa daiteke aldaketa hori arrazoi edo faktore jakin bati dagokio-la. Aldaketaren bat onartu behar izan duten zerbitzu-hartzaileen %30,5ek bi laguntzaile izan ditu gutxienez, %20,7k hiru, %14,8k lau eta %22,7k bost edo gehiago. Behin bakarrik aldatu dutenak %11,3 dira.

Laguntzaile aldaketak izaten diren denbora-bitarteari dagokionez, hau esan daiteke: aldaketen %6 zerbitzuak urtea bete baino lehen izaten da, eta aldaketen %25 baino gehiago zerbitzuak bi urteak bete baino lehen. Beraz, aldaketen %30 baino gehiago aipatutako denbora-bitarte horren barruan izaten da, eta, beraz, ezin esan daiteke oso denbora bitarte laburra denik hori. Baina, bestalde, aldaketen %45,4 zerbitzuak lau urte bete baino lehenago izaten da.

Lehenago ere aipatu dugun bezala, Araban, laguntzaileak zerbitzu-hartzaile batekin zerbitzuan irauten duen denbora luzeagoa izaten da, eta, gainera, laguntzailez aldatzen denerako zerbitzuak denbora gehiago iraun izan du.

Azkenik, galdeketa egileei etxeetan ikusitako ordenari eta garbitasunari zer irizten dieten galdetu zaie. Horien iritziz, ikusitako etxebizitzaren %5ean nabarmena da utzikeria eta zikinkeria, eta, espero zen bezala, halako baldintzetan bizi diren zerbitzu-hartzaileak ez daude gainerakoak bezain gustura.

### 3.7. ETXEZ ETXEKO ZERBITZUEZ BALIATZEN DIRENAK ETA GAINERAKO LAGUNTZA ZERBITZUAK

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaz baliatzen direnek, zaharren etxea izan ezik, oso gutxi erabiltzen dituzte gainerako laguntza zerbitzuak. Inkestatu ditugun %3k bakarrik izan du aldirako erresidentzian egoteko aukera. Aukera hori izan dutenak Araban %8 dira; Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, %1,8 eta %1,3, hurrenez hurren. Bizkaian, etxez etxeko laguntza zerbitzuez baliatzen diren %80k jakin ere ez daki gisako posibilitaterik duenik. Izan ere, aldirako Erresidentzien hori oso berria da Bizkaian, 1994koa.

EAEn eskaintzen den laguntza zerbitzua, oro har, intentsiboa da, nahikoa zerbitzu-hartzaile gutxiri baino bakoitzari ordu kopuru haundi samarra eskaintzen diona, alegia. Europan, berriz, kontrarako joera dago, zerbitzu-hartzaile askori, baina bakoitzari ordu gutxiago eskaintzekoa.

#### 39. KOADROA: EELZ-KO ZERBITZU-HARTZAILEAK ETA GAINERAKO LAGUNTZA ZERBITZUAK

|                           | Araba      |             | Bizkaia    |             | Gipuzkoa   |             | Guztira    |             |
|---------------------------|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|
|                           | Z          | %           | Z          | %           | Z          | %           | Z          | %           |
| <b>Erresidentziak</b>     |            |             |            |             |            |             |            |             |
| Ez ezag.                  |            |             |            |             |            |             |            |             |
| / ez erabil.              | 36         | %35,6       | 187        | %80,3       | 72         | %42,4       | 295        | %58,5       |
| Ezag. eta ez erabil.      | 57         | %56,4       | 43         | %18,5       | 95         | %55,9       | 195        | %38,7       |
| Erabil.                   | 8          | %7,9        | 3          | %1,3        | 3          | %1,8        | 14         | %2,8        |
| <b>EEko jan. zerbitz.</b> |            |             |            |             |            |             |            |             |
| Ez ezag.                  |            |             |            |             |            |             |            |             |
| / ez erabil.              | 26         | %25,7       | 219        | %94,0       | 127        | %74,7       | 372        | %73,8       |
| Ezag. eta ez erabil.      | 72         | %71,3       | 14         | %6,0        | 41         | %24,1       | 127        | %25,2       |
| Erabil.                   | 3          | %3,0        |            |             | 2          | %1,2        | 5          | %1,0        |
| <b>Eguneko zentroak</b>   |            |             |            |             |            |             |            |             |
| Ez ezag.                  |            |             |            |             |            |             |            |             |
| / Ez erabil.              | 33         | %32,7       | 220        | %94,4       | 112        | %65,9       | 365        | %72,4       |
| Ezag. eta ez erabil.      | 63         | %62,4       | 12         | %5,2        | 54         | %31,8       | 129        | %25,6       |
| Erabil.                   | 5          | %5,0        | 1          | %0,4        | 4          | %2,4        | 10         | %2,0        |
| <b>Jubilatu etxeak</b>    |            |             |            |             |            |             |            |             |
| Ez ezag.                  |            |             |            |             |            |             |            |             |
| / ez erabil.              | 3          | %3,0        | 4          | %1,7        | 14         | %8,2        | 21         | %4,2        |
| Ezag. eta ez erabil.      | 80         | %79,2       | 172        | %73,8       | 113        | %66,5       | 365        | %72,4       |
| Erabil.                   | 18         | %17,8       | 57         | %24,5       | 43         | %25,3       | 118        | %23,4       |
| <b>Guztira</b>            | <b>101</b> | <b>%100</b> | <b>233</b> | <b>%100</b> | <b>170</b> | <b>%100</b> | <b>504</b> | <b>%100</b> |

Etkez etxeko otordu zerbitzuarena Araban %25ek ez du ezagutzen, Gipuzkoan %75ek eta Bizkaian %94k. Zerbitzu mota horretaz Araban baliatzen da jende gehiena, %3.

Eguna igarotzeko egoitzak ia inork ez ditu Bizkaian, egon ere oso gutxi baitago horrelakorik. Araban ethez etxeko laguntza zerbitzuaz baliatzen direnen %32k ez du Eguneko zentroarena ezagutzen, eta horietaz baliatu, %5 baliatzen da; Gipuzkoan %65k ez du ezagutzen, eta %2,4k erabiltzen dute.

Zaharren etxean, berriz, %4,2k bakarrik ez du ezagutzen, eta horien %23,4 joan ere egiten da tarteka.

### 3.7.1. Erresidentziara joatearen aurrean zer jarrera

Ukaezina da ethez etxeko laguntza zerbitzuak erroak egin dituela, eta adineko pertsonentzat gizarteko zerbitzu gisa garrantzi handia duela ere. Eta bide batez, kontzeptu mailan ere, gizarteko zerbitzu gisa hartzeko joera dago. Eta horrela hartzea, beharrezkoa ezezik nahitaezkoa ere bada historian horri buruz izan diren beste iritzi batzuen aurrean, zeren iritzi horien arabera ethez etxeko zerbitzua erresidentzietako zerbitzuen lagungarri bat baino ez baitzen.

Gaur egun ez da batere horrela. Etkez etxeko zerbitzuaz baliatzen diren gehienak gustura daude eskaintzen zaien zerbitzuarekin; ez egoteak ere ez du berez erresidentzian sartzea nahiago dutenik esan nahi.

Etkez etxeko zerbitzuaz baliatzen direnetan gutxi dira erresidentziaren batera joateko eskea egina dutenak: %6,6 Autonomia Erkidegoaren mailan, %10 Araban, %6 Gipuzkoan eta %5,6 Bizkaian. Beste daturik kontuan hartu gabe ere, Araban bertan balegoke gutxienez 119 lekuren eskea, Gipuzkoan 145ena eta Bizkaian 252rena.

Gorago esan denetik pentsa daiteke Araban eske gehiago izatea probintzia horretako ethez etxeko laguntza zerbitzuaz baliatzen direnak beste bi herrialdeetakoek baino autonomia gutxiago dutelako dela eta, berebat, laguntza premia gehiago dutelako. Baina, hain zuzen ere, nola beharrik gehiena dutenen artean erresidentziarako eske gutxien egiten den, arrazoi horrek ez dirudi, beraz, fidagarria. Seguru asko aukera gehiago izateak eta zerbitzu hobeak egoteak eske gehiago izatea dakar berekin.

Nolanahi ere, inkestatu ditugunen %50-60ren iritzian erresidentzien hori ez da adineko pertsonentzat irtenbide oso egokia, edozein izanda ere adineko pertsonaren egoera. Etkez etxeko laguntza zerbitzuaz baliatzen direnen ia %45ek dio ez litzatekeela, egoerarik txarrean aurkituta ere, bakarrik eta berez baliatzeko ez dela geratuta ere erresidentzian sartuko.

Dena den, erresidentziak egokiak inorentzat ez direla uste duten gehiago dira autonomia gutxiko pertsonen artean besteetan baino. Ezintasun larriko pertsonen %43,5 iritzi horren aldekoa da; ezintasun txikiagoa dutenetan %23,7 da iritzi horren aldekoa, autonomo direnetan, berriz, %18,3.

Erresidentzia batera inola ere ez litzatekeela joango esaten duen gehiago da, bestalde, ezintasun larria edo osoa dutenen artean. Gorago esan bezala,

erresidentzia batean sartzeko eskaera formala egin dutenen porzentaiarik txiki-  
kienak ezintasun larria edo osoa dutenen artean daude, %3,8, eta handienak,  
%9,5, erabat autonomo izan gabe, bizitzako eginkizun premiazkoenak bete  
ezin dituztenen artean.

40. KOADROA:  
ERRESIDENTZIARA JOATEARI BURUZKO JARRERA

| Ezintasun mailak  |                               |                         |                 |              |
|---|-------------------------------|-------------------------|-----------------|--------------|
|   | Ezin. larria<br>edo osoa<br>% | Ezintasunen<br>bat<br>% | Autonomoak<br>% | Guztira<br>% |
| <b>Erresidentziak norentzat, bere<br/>buruaz balia ezin direnentzat</b> |                               |                         |                 |              |
| Gutziz ados   | 29,9                          | 38,2                    | 35,1            | 34,2         |
| Nahikoa ados  | 27,3                          | 23,7                    | 37,7            | 30,5         |
| Ez ados   | 42,9                          | 38,2                    | 27,2            | 35,3         |
| <b>Erresidentziak<br/>edonorentzat</b>                                  |                               |                         |                 |              |
| Gutziz ados   | 7,8                           | 21,4                    | 14,1            | 14,1         |
| Nahikoa ados  | 10,4                          | 6,1                     | 11,0            | 9,5          |
| Ez ados   | 81,8                          | 72,5                    | 74,9            | 76,5         |
| <b>Erresidentziak,<br/>inorentzat ez</b>                                |                               |                         |                 |              |
| Gutziz ados   | 43,5                          | 23,7                    | 18,3            | 27,9         |
| Nahikoa ados  | 9,7                           | 14,5                    | 24,6            | 17,0         |
| Ez ados   | 46,8                          | 61,8                    | 57,1            | 55,0         |
| <b>Sartzeko eskaririk<br/>egin duzu?</b>                                |                               |                         |                 |              |
| Bai   | 3,8                           | 9,5                     | 6,8             | 6,6          |
| Ez  | 96,3                          | 90,5                    | 93,2            | 93,4         |
| <b>Joango al zinateke<br/>erres. batera?</b>                            |                               |                         |                 |              |
| Neure buruaz ezin balia ban.  | 12,1                          | 23,9                    | 27,1            | 21,5         |
| Bakarrik geratuko ban.  | 8,9                           | 3,7                     | 6,9             | 6,7          |
| Aurreko 2-engatik   | 22,3                          | 26,9                    | 22,2            | 23,5         |
| Inola ere ez  | 52,9                          | 41,0                    | 40,9            | 44,7         |
| Bai   | 3,2                           | 3,7                     | 3,0             | 3,2          |
| bai, baina dirua  | 0,6                           | 0,7                     |                 | 0,4          |
| <b>Guztira</b>  | <b>100,0</b>                  | <b>100,0</b>            | <b>100,0</b>    | <b>100,0</b> |
| <b>Zki. absol.</b>  | <b>161</b>                    | <b>137</b>              | <b>206</b>      | <b>504</b>   |

Arestian eman den informazio horrek garrantzia handia du eta etxez etxeko laguntza zerbitzuak kontzeptu mailan zein oinarri dituen adierazteko bidea ematen digu.

Datu horiek erakusten dute, alde batetik, besteren behar gehiena duten adineko pertsonak ere, inoren laguntzarik izanez gero, nahiago dutela ezagutzen duten gizartean edo ingurunean bizi. Hori horrela dela jakitea arrazoi nahikoa litzateke etxez etxeko laguntza zerbitzua gehitzeko eta indartzeko, hots, ezintasun larrian bizi direnentzat berentzat ere etxez etxeko zerbitzua probetxuzkoa ezezik beharrezkoa, edo hobeto, egokia dela aitortzeko.

Datu horiek erakusten dute bestalde, oso besteren beharrean aurkitzen diren pertsonak nahiko ondo moldatzen direla etorri zaien egoerara, eta hori dela erresidentziara eramateko eske portzentaiarik txikiak pertsona horietan egotearen arrazoia, eta, bestalde, erabat autonomo direnen artean erresidentziarako eskearen parte bat autonomia hori galtzeko bildurrak eragina dela adierazten duena ere. Besteren mende egon beharrak baino horretara iristeko bildurrak gehiago eragiten ditu erresidentzian sartzeko eskea egitera. Etxez etxeko zerbitzua garaiz eskaintzea erresidentzian sartzeko eskerik ez egiteko elementu garrantzizko bat izan daiteke, beraz. Hori da, bestetik, laguntza zabalago eta inten-tsiitate gutxiagokoa eskaini beharraren oinarrian dagoen arrazoia, etxez etxeko laguntza beharrak hala eskatu hala etorriko den konfiantza eta segurtasuna ematea helburu duena.

### 3.8. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ANTOLAKETARI DAGOZKIONAK

#### 3.8.1. Auzi orokorrak

Gipuzkoan eta Bizkaian, etxez etxeoko laguntza nola antolatu eta horretaz nor baliatu, udaletxeen eta mankomunitateen gain dago. Araban, zuzenki Ongizate Sozialerako Foru Institutua egiten da horren kargu, Lurralde bereko herriei dagokienez, Gasteizen eta Laudion, berriz, aipatu den erakundeak eta udaletxeek hartzen dute horren ardura, nahiz eta gero Gasteizko udaletxeak hartu eskeak bideratzeko ardurarik zuzenena, diru eta antolaketari dagozkien eginbeharretan bederen.

Eske horiek bildu, Gipuzkoan eta Bizkaian bezalaxe egiten da Araban ere, Gizarteko Laguntzen oinarriko zerbitzuen bidez, alegia. Arabakoaren eta beste bietakoen arteko aldea eske horiek bideratzeko moduan dago; Araban, Gasteizko Gizarte Laguntzako oinarriko zerbitzuek, hots, udaletxeek dute, datozenen dependentzia maila dauzkaten baremoen arabera neurtu ondoren, eske horiek udaletxeoko zerbitzuetara edo Foru Institutuenetara bideratzeko ardura.

Pertsona gisa egitea dagozkion zereginetan ezintasunak dituztenak, eta laguntza ere handiagoa behar dutenak Gizarte Ongizaterako Foru Institutura bidaltzen dira, etxeoko txukunketa egin ezin dutenen kasuan, berriz, udaletxeak duen etxez etxeoko zerbitzua arduratzen da.

Arabako laguntza zerbitzu hori nahikoa berezia da, baina ez horrelakorik den leku bakarra, zeren beste zenbait lurraldetan ere bai baitira antzekoak, Frantzian adibidez, non ere badituzten beren “services de soins” edo “aide ménagère” deritzenak, administrazioako sail batek edo besteak bideratzen dituenak.

Arabako zerbitzuaren orijinaltasuna beste gauza batean datza, lurralde horretan, instantzietako batek agintzen du eskea nora bideratu, eta gero Foru Institutuak hartzen du kasu bakoitzaren ardura osoa; horrek banatzen ditu eskeak kasuen arabera, eta ez izango dituen beharren arabera, Frantzian egiten den bezala, non ere, “soin” edo laguntza zerbitzua eskaintzen duten instantziak eta pertsonak, eginkizun pertsonalez arduratzen direnak, alegia, ez diren etxeoko txukunketa arazoez arduratzen, hori dagozkien instantziek egiten baitute beti.

Eta horrela, Frantzian, ezinduak dituen premien arabera pertsona eta erakunde bat, bi edo gehiago pasa daitezke etxe beretik. Araban, aldiz, Foru Institutuak norbaiten kasua bere gain hartzen duenean, dituen behar guztiak betetzeko hartzen du, eta ez du udaletxeoko etxez etxeoko zerbitzuak lagundu beharrik izaten.

Arabako sistemak baluke berez Foru Institutua eta Gasteizko Udaletxea izendatu zaizkien kasuak bestearen gain botatzeko arriskua, baina, zerbitzu horietan lanean ari diren teknikoek diotenez ez da gisa horretako arazo asko-



rik izaten. Normalean, Foru Institutuak onartu egiten du gizarteko laguntzeta-ko oinarriko zerbitzuen epaia, gero udaletxeko teknikoak ikuskatzen duena. Eztabaidagarri izan daitezkeen kasuetarako, berriz, bi aldetako ordezkari ez osatutako komisio bat dago. Eta horrela, Gasteizen bizi eta etxez etxeko zerbitzuez baliatzen diren 881 pertsonatatik 478ri, erdia baino pixka bat gehiagori, alegia, Udaletxeak eskaintzen die zerbitzu hori.

Arabako eredu horretaz aparte, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ardurarik handiena Foru Institutuak daraman horrez aparte, badago beste eredu bat, Gipuzkoakoa; lurralde honetan 87 zerbitzugune daude, beste hainbat udalerritan banatuak. Bi eredu horien artekoa edo da Bizkaikoa, zeren, mankomunitateen arabera, baina aldi berean oinarriko taldeen lanean finkatzen baita lurralde honetako zerbitzua.

Udaletxe eta mankomunitate gehienek beste entitate, elkarte eta enpresei eman ohi diete zerbitzu hori eskaintzeko ardura eta lana. Araban eta Bizkaian, adibidez, udaletxeek eta mankomunitateek (Foru Institutuak, Araban) kontratatutako enpresek betetzen dute etxez etxeko laguntza zerbitzu ia guztia; Gipuzkoan, formula bat baino gehiago erabiltzen da.

Gipuzkoan bertan ere, hogeita hamar udaletxe pasatxok -Donostiakoa barne- erabiltzen dute antolaketa sistema hori, etxez etxeko laguntza elkarten eta enpresen gain uztekoa, alegia; beste hogeitabatek-edo udaletxeko langileak kontratatutako langileak erabiltzen ditu. Bizkaian, 10 bat udaletxek bakarrik hartu dute azkena aipatu den modu hori, administrazioa beste moduetan baino gehiago konprometitzea eskatzen duena, seguru asko.

EELZ udaletxeko langileen bidez eskaintzea zabalduena dagoen lurraldea Gipuzkoa den arren, bera da zerbitzuaren ordainketa zerbitzu-hartzaileen gain utzi duen udaletxe gehiena dituen lurraldea ere; horren arrazoia langileekin arazo gutxiago izatea da, seguru asko.

EELZko langileen eskearen aurrean men egin eta horiei kontratua egin dako udaletxeak ere Gipuzkoan beste lurraldeetan baino gehiago dira, halaber; hori egiteko arrazoirik ere bazuten agian, zeren, EELZren hasieran legez kanpo ari izan baitziren langile horiek, eta ez, beste zenbait udaletxetan bezala, lanari zegozkion irizpide tekniko batzuen arabera kontrataturik.

Baina, berebat, eta honetan dago paradoxa, edo paradoxa dirudiena, zenbait udaletxek oraindik ere zaputz egiten dio kontratatu dituen langileak berak pagatzeari; horietan, zerbitzu-hartzaileak pagatzen du langilea, eta udaletxeak hari aurreratutako duena bihurtzen dio. Zenbait udaletxetan autonomo egiteko eskatu ere egiten zaie lan horretan laguntzaile gisa sartu nahi dutenei.

Formula hori hartu duten udaletxeetako oinarriko langileek, hala ere, kontratatutako balira bezalaxe jokatzeko dute askotan; beraiek bideratzen dituzte adineko pertsonen eskeak eta antolatzen dute dagokion laguntza.

Langilea zerbitzu-hartzaileak eta hau udaletxeak pagatze horretan bada, laneko auzi juridikoez aparte (geroago aztertuko dugu alde juridikoa) beste gauza bat EELZren oinarriko kontzeptioari uzkur zaiona, egiteko era horrek EELZ mesedeko laguntza baten mailako bihurtzen duela, alegia.


Bizkaian, Mallabian, Lemoan eta Bedian bakarrik erabiltzen da aipatu den formula hori; gainerantzean, herri txikietan, batez ere, baina hain txiki ez diren direnetan ere bai, Gipuzkoan: Antzuolan, Ataunen, Bergaran<sup>1</sup>, Elgeta, Eskoriatza eta Lazkaon, Mendaron eta Ormaiztegin, Seguran, Zegaman eta Zestean, esate baterako.

Herrialde batean eta bestean horietako zein formula zabalduen dagoen jakiteko, EELZko lanean egiten diren ordu guztietatik zein formulak ordu gehien hartzen duen neurtzea da biderik egokiena. Ordurik gehiena, kontratatutako enpresen bidez egiten denak hartzen du, %90 orotara, %100 Araban, %90,7 Bizkaian eta %71,1 Gipuzkoan. Udaletxeek edo mankomunitateek zuzenean kontratatutako langileen bidezkoari ia %10 dagokio, %9 Bizkaian eta %17,4 Gipuzkoan. Zerbitzu-hartzaileek zuzenean kontratatutako langileen bidezkoak, berriz, orotara %4,1 hartzen du. Azkeneko formula hori Araban ez da erabili ere egiten, eta Bizkaian ere oso gutxi, %0,3; Gipuzkoan, berriz, orduen %11,4 era horretan egiten da.

41. KOADROA:  
ORDUAK KONTRATAZIO SISTEMAREN ARABERA

|          | Enpresa |       | Udaletxeko lang. |       | Zerb. hartzaile bidez |      | Guztira |       |
|----------|---------|-------|------------------|-------|-----------------------|------|---------|-------|
|          | Z       | %     | Z                | %     | Z                     | %    | Z       | %     |
| Araba    | 11.398  | 100   |                  |       |                       |      | 11.398  | 100,0 |
| Bizkaia  | 18.677  | 90,7  | 1.846            | 9     | 66                    | 0,3  | 20.589  | 100,0 |
| Gipuzkoa | 12.149  | 71,2  | 2.979            | 17,41 | 1.942                 | 11,4 | 17.070  | 100,0 |
| Guztira  | 42.224  | 86,11 | 4.825            | 9,8   | 2.008                 | 4,1  | 49.057  | 100,0 |

41. GRAFIKOA:  
ZENBAT LANGILE KONTRATAZIO SISTEMAREN ARABERA




<sup>1</sup> 1995etik aurrera, Bergarako EELZren egitekoak enpresa batek bateko ditu.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuetan, guztira 29 enpresak hartzen du parte, 5ek Araban, 7k Bizkaian eta 17k Gipuzkoan. Horietatik 12 elkarteak edo irabazi-asmorik gabeko elkargoak dira eta 463 langile dituzte, EELZren saileko %26, sail horretan enpresekin edo udaletxeekin inolako kontraturik ez duten langileak ere sartuz gero. Beste 8 erantzukizun mugatuko elkarteak dira eta langileetan EELZren saileko %25 hartzen dute. Elkarte anonimoa, berriz, bakarra, 85 langilekoa eta Bizkaia mailan lan egiten duena da. EELZko langile guztien %5 eta sail bereko Bizkaikoen %10,8 hartzen du.

#### 42. KOADROA: KONTRATAZIO SISTEMA ETA LANGILE KOPURUA

|          | Enpresa |       | Udaletxeko lang. |      | Prest. ekonomikoa |      | Guztira |       |
|----------|---------|-------|------------------|------|-------------------|------|---------|-------|
|          | Z       | %     | Z                | %    | Z                 | %    | Z       | %     |
| Araba    | 461     | 100,0 |                  |      |                   |      | 461     | 100,0 |
| Bizkaia  | 784     | 87,4  | 106              | 11,8 | 7                 | 0,8  | 897     | 100,0 |
| Gipuzkoa | 395     | 58,6  | 147              | 21,8 | 132               | 19,6 | 674     | 100,0 |
| Guztira  | 1.640   | 80,7  | 253              | 12,5 | 139               | 6,8  | 2.032   | 100,0 |

#### 42. GRAFIKOA: ZENBAT LANGILE KONTRATAZIO SISTEMAREN ARABERA



### 3.8.2. Onarpena, eginkizunen adjudikazioa eta zerbitzu-hartzaileak ordaindu behar duena

Udaletxe eta Mankomunitate gehienek dute etkez etxeko laguntza zerbitzuak dakartzan eginkizunak zehazteko eta antolatzeke araudia.

Eginbehar horren administrazioa, eskaerak jasotzea eta bideratzea bazterrerara utziz gero, hiru atal nagusi dituzte araudi horiek:

- EELZri dagozkion eginkizun propioak eta zeharbidez dagozkionak zehazten dituenak.
- Inor onartzeko irizpideak zehazten dituenak.
- Zerbitzu-hartzaileak zenbait ordaindu behar duen zehazten duena.

### 3.8.3. **EELZri dagozkion eginkizun propioak eta zeharbidez dagozkionak**

Araudi guztietan zehazten da EELZ zer den eta zein eginkizun dituen, baina horietako askotan aipatu ere ez da egiten beste zenbait eginkizun, eta bi arrazoiengatik hori, zerbitzuen funtzionatzeko era errazionalizatzeko eta langileen zerbitzu-hartzaileen interesak babesteko.

Araudi horietan EELZren eginkizun propio gisa agertzen direnak hauek dira:

#### *Zerbitzu-hartzailearen etxean egitekoak*

Etxea garbitu

Ohea egin

Arropa garbitu eta lisatu

Erosketa premiazkoenak egin, zerbitzu-hartzailearen kontura

Otordua prestatu etxean edo prestatuta eraman

Egunero erabiltzen dituen arroparen konponketatxoak egin

#### *Zerbitzu-hartzailearekiko betekizunak*

Ezin duenari garbitzen lagundu

Jaikitzen, oheratzen, janzten eta jaten lagundu

Etxe barruan hara eta hona ibiltzen lagundu

Osasun-zerbitzuko arduradunak errezetatutako botikak hartzen eta kontrolatzen lagundu

Zenbait jestio egiten lagundu

Konpainia egin

#### *Etxebizitzari berari dagozkionak*

Erizainek egin ohi dituzten lanak, indizioak eta sondak jartzea, beste zenbait sendaketa egitea, etab. ez dira EELZren eginkizun propio gisa hartzen. Ezta bizilagun bat baino gehiago diren etxeetako garbiketa egitea eta harekin bizi direnei laguntzea ere.

### 3.8.4. **Zerbitzu-eskatzailea onartzeko eta zenbat ordaindu behar duen kalkulatzeko kriterioak**

Elkarrekin oso lotuak dauden auziak dira biak. Izan ere, laguntza hori eskatu duenaren eta/edo familia artekoen diru-sarrerek garrantzi handia izan

ohi dute emango zaion laguntzagaratik zenbat ordaindu behar duen kalkulatzeko orduan; eta erabakiorra ere izan daiteke egin duen eskeari baiezkoa edo ezezkoa ematerakoan.

Zerbitzu-eskatzailea berez baliatzeko gai ez dela egon arren edo bakarrik bizi arren, zenbait udaletzek eta mankomunitatek atzera botatzen die eskea, baldin hainbateko bat baino diru-sarrera handiagoa badute; oso diru-sarrera urria dutenei ere bai, askotan.

Hauek dira, ekonomia irizpideak direla-eta adineko pertsonak EELZtik kanpora uzten dituzten udaletxeak, besteak beste: Getxo, Trapagaran, Sestao, Barakaldo, Arratia, Berango eta Uribe-Costa Bizkaian, eta Gabiria, Bergara, Tolosa eta Ormaiztegi Gipuzkoan.

Uribe-Costan eta Berangan, bizi den etxeaz aparte beste bat izatea asko da eskatzaileari EELZ ukatzeko. Tolosan, parejako 88.200 pezeta baino gehiagoko diru-sarrera dutenei ukatzen diete. Arratian, GS (gutxieneko soldata) bider 2,5ean daukate eskea onartzeko muga, eta Elduainen, 80 urte ez eta 40.000 pezeta baino gehiagoko diru-sarrera dutenei ukatzen diete.

Ekonomia irizpideek erabilera handiagoa dute zerbitzu-hartzaileak ordaindu behar duena kalkulatzeko. Ordaindu behar dutena horrela erabakitzen dutenen artean ere badira udaletxe eta mankomunitate batzuk prezio publikoak ezartzen dituztenak, zerbitzuaren kostu osoa gehienetan; hori egitea, ordea, batez ere zenbait enpresak zerbitzu bera udaletxeak baino merkeago eskaintzen duela jakinik, eskatzailea atzera botatzea bezalatsu da. Izatez, eskaera egiten duenari kostu osoa ordain dezan eskatzea, ia-ia zerbitzua ukatzea da.

Norbait EELZn onartzeko, laguntza horretatik kanpora uzteko, hobeto esan, ekonomia irizpideak erabiltzea ez da EELZren oinarriko filosofiari oso zuzen datzekion jokabidea.

EELZ beste zerbaiten bidez ordezkatzeko, eta batez ere, behar bezala, hau da, langile kualifikatuak eta lehengo teknika maila duen beste zerbait ez ordezkatzeko, dauden baino bastante gorago jarri beharko dira norbait EELZn ez onartzeko diru-sarreraren neurriak ere. EELZk, jarraipena eta gizarteko beste laguntzekin harremana izatea ere ziurtatzen ditu, bide batez.

EELZz lehendik dagoen aurriritzia, hori ezinduei edo diru askorik ez dutenei neskame bat edo antzeko zerbait eskaini ahal izateko asmatutako zerbait dela dioena indartu baino ez du egiten aipatu den jokaera horrek, eta iritzi hori bazterrarazteko egin den ahalegin guztia alferra izan dela agerian utzi, aldi berean. Aldundiek EELZ behar dutenentzat aurreratutako dirua zuzenean langileak pagatzeko erabiltzen duten udaletxeak ere bide beretsutik dabilta.

Ez da dudarik laguntza-eske datorrenaren ekonomia ahalmenak kontuan izan behar dituela EELZk, etxe-garbiketa eta beste zenbait gauzatarako bere aldetik molda al daitekeen edo ez jakiteko-eta, baina horrek ez du esan nahi EELZ ukatu behar zaionik.

Egia da, udalen aurrekontuak mugatuak direnez, hartzaile potentzialen eskubidea izaera objetiboarekin ezarriko den lehentasunak baldintzatuko duela, eskari-egile bakoitzaren arrazoi pertsonalen arabera. Horrela, gaitasun ekonomikoa zerbitzua emateko orduan elementu erabakiorra izan daiteke.

Baina, berriro diogu, faktore ekonomikoak zerbitzu-hartzaileak ordaindu beharreko kantitatean baino ez du eraginik izan behar, eta inoiz ez zerbitzu hori hartzeko gaitasunean.

Diru-sarrera jakin batetik gora zerbitzuaren kostu osoa kobratzeari dago-kionez, berriz, gauza bat utzi beharra dago garbi, laguntzaren premian dagoen bati zor zaiona ukatzen ari dela hori egiten duena, eta halakoa laguntza alternatibo batzuetara eragiten eta behartzen, bide batez, benetako alternatiba ez direnetara, gainera.

Horietako araudi batzuk diren berean aplikatzeak erdiko eta erdia baino beheraxeagoko klaseko zenbait pertsonari EELZrako bidea ixten dio, zeren, zerbitzuengatik eskatzen dioten ordukako diru-ordaina merkatukoa baino bi bider handiagoa dela ikusirik, ez baitute EELZn sartzeko eskaerarik egiten.

Ez dago eginbide estu unibertsalista bat hartu beharrik, baina komeniko litzateke zerbitzuen kostu osoa ordainarazteko erabiltzen diren irizpideak hobeto egokitzea eta, are hobea izango litzateke, gehiengo prezioak politikoak edo, kostu erreala baino txikiagoak eta merkatukoak baino apalxeagoak izatea.

Horrela, lekuan lekuko Herri Ogasunen Foru Arauetako 47. artikulua arabera, zerbitzuak emategatik ordaindu beharreko prezio publikoek gutxienez ematen den zerbitzuaren kostua estali behar badute ere, artikulua horretan esaten da arrazoi sozial, benefiko edo kulturaletan, edo interes publikoetan, erakundeak iragarritako mugetatik behera dauden prezio publikoak ezarri ahalko dituela.

Horrela, orain laguntza egokirik ez duten pertsonak ere behar bezala zainduta egongo lirateke, eta ez gaur bezala, kualifikazio minimorik ez duten pertsonen eskuetan eta gizarteko beste zerbitzuekin harremanik gabe.

Dirutara ezker ez da ahaztu behar, etxez etxeko laguntzak ezezik beste hainbat zerbitzu ere, gehienak gainera, diru-galeran ematen dituztela udaletxeek.

Aldiz, zuzena dirudi zenbait udaletxeek, kontrako muturrera gabe, hartu duen erabakia, batere ordaintzen ez duenik ez uztekoa eta huskeria bada ere denei zerbitzu ordainaraztekoa, alegia.

Eta ekonomia kontutan gabiltzanez gero, esan behar dugu hogeiren bat udaletxe direla Gipuzkoan EELZren izenean pezetarik ere kobratzen ez dutenak, guztira 260tik gora pertsonari zerbitzua ematen dietelarik.

Bestalde, Zerbitzu Sozialen Legeak berak iragartzen du erabiltzaileek zerbitzu sozialen ordainketan parte hartuko dutela ezarriko diren irizpideekin, egon daitezkeen arrazoi pertsonalengatik aitor daitezkeen salbuespen eta hobariez gain.

Familiakoen diru-sarrerak ere araudi askotan hartu dira kontuan, emandako laguntzaren truke zerbitzu-hartzaileak ordaindu behar duena erabakitze-ko. Eta ez dirudi hori oker dagoenik, baina erabiltzen den familia-unitate kontzeptua hartu behar da kontuan. Horrela, udal batzuek, eta baita Arabako Foru Aldundiak ere, familia-unitatetzat zerbitzu-hartzaileak, bere ezkontideak eta 18 urtetik beherako seme-alabek osatutakoa hartzen dute. Beraz, prezio publikoa finkatzeko kontuan eduki beharreko pertsona bakoitzaren errenta, familiaren errenta familia osatzen dutenen artean zatituz kalkulatzeko dute.

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergarako ere erabiltzen den familia-unitatearen kontzeptu “murriztu” hori, sare formala eta informala, edo nahiago bada, sare publikoa eta pribatua osatzeko lehen azaldutako filosofiarekin bat dator. Eta horrela, zerbitzua ordaintzerakoan adineko pertsonak edo elbarriak beraien etxeetan zaintzen dituzten familiek ez dute bakarrik bizi direnek baino zama handiagoa jasan behar.

Badira, ordea, elkarrekin bizi direnen unitate kontzeptuaz baliatzen diren udalak, alegia, zerbitzu-hartzailearekin bizi direnen adina edo ahaidetasuna kontuan hartu gabe kide guztiak unitatean sartzen dituztenak.

Aukera hori hartzen denean jarraian azaltzen dugun bezalako kasuak gerta daitezke: elbarri bat guraso jubilatuekin bizi da, eta astean ordubeteko laguntza etxean jasotzeagatik ordaintzen duen prezio publikoa daukan pentsioaren %80 da, oinarri bezala gurasoen pentsioak ere kontuan hartzen dizkiotelako.

Erdibideko formula familia-unitate kontzeptu bata edo bestea erabiltzen duena da, hori laguntza pertsonala edo neskame bidezkoa erabiltzearen baitan dagoelarik. Lehenengo kasuan, laguntza jasotzen duenaren irabaziak bakarrik kontatzen dira; bigarrenean, unitate konbentzionaleko kide guztiak.

Gure ustez, zereginak zuzen izendatuko balira bereizketa hori ez litzateke beharrezkoa, beraz, ezin da esan zerbitzuak zerbitzu-hartzailea ez den beste inori zeharka onura dakarkionik.

Nolanahi, formula bata nahiz bestea erabili, ezin da esan etxez etxeko laguntza zerbitzua erabiltzaileek zuzenean kontratatutako neskameek ere eskaini dezaketen zerbitzua denik, eta horreterako ordainketa-muga batzuk ezartzea ezinbestekoa dirudi, egoitzetan daudenei ezartzen zaizkien antzekoak, laguntza eskatzen duenaren gutxienezko disponibilitate ekonomikoa berma dezaten.

Euskadiko Plan Gerontologikoak, adinekoei zuzendutako politiken balantze ekonomikoan egonkortasuna lortzeko bidean aginte publikoek hartu beharreko neurrien artean hau proposatzen du: zenbait zerbitzuren ordainketa neurtzerakoan, bereziki adinekoak beren etxeetan zaintzearekin erlazionatutakoei dagokienean, adineko behartsuei arretarik handiena eskaintzen dieten familiak saritzeko elementuak onar daitezela.

Eta gai honekin lotuta, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua erabiltzen dutenek ordaindu behar duten diru kantitatean zuzenean edo zeharka eragiten duen araudian erakundeen aldetik dagoen koherentzia falta zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke.

Familia-unitatea ulertzeko modu batzuk adinekoa zaintzeagatik familiak saritu ordez ekonomiaren aldetik larriki zigortzen dutela esan dugu, baina horrez gain, egitatezko egoera batzuetan Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergan (PFEZ) gai horri ematen zaion trataera ere oso deigarria gertatzen da.

PFEZ zergak guztiz izaera pertsonala dauka, alegia, sujetu pasiboan ordaintzeko gaitasunean dauden gora beherak kontuan hartzen du gastu publikoari eusteko ordaindu behar duena finkatzerakoan. Halere, lurralde histori-

koetako PFEZ zergari buruzko Foru Arauek ez dute adinekoen eta elbarrien zainketak familiei sortutako gastuak deduzitzeko aukerarik uzten, horiek sujetu pasiboaren aurreko edo ondorengoak ez diren kasuan.

Horrela, eta Plan Gerontologikoak ere aurreko kasuetarako, alegia, beharturik dauden adinekoen familientzako desgrabazio fiskalak sortzeko gomendatzen duen arren, ezin dute dedukzio horren onurarik jaso. Adinekoei edo kasu batzuetan elbarritasun larriak dituztenei ematen zaien laguntza hori etxez etxeko laguntza zerbitzuaren bidez edo egoitzetan emana izan daiteke eta hori ordaintzen dutenek ez dute derrigorrez gurasoak edo aitona-amonak izan behar, baizik izeba-osabak, anai-arrebak, etabar izan daitezke.

Eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten kasuetan dedukzioak zabalteko Arartekoak egindako gomendioa ez dute betetzen Arabako eta Bizkaiko Foru Diputazioek; Gipuzkoakoaren kasuan, Batzar Nagusien erabakiz 1995ko ekitalditik aurrera egin ahalko dira dedukzio horiek.

Prezio publikoen politika zehazterakoan, sarri gertatzen da bestalde, zerbitzu-hartzaileari mantenua ematera behartuak dauden pertsona fisikoak eta juridikoak ere horren ordeko gisa hartzea.

Hau da Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Institutoak ematen duen etxez etxeko laguntzako prezio publikoak arautzen dituen araudiaren kasua. 3. artikuluan zuzenean ordaintzera behartutakoan ordeko, haiei elikagaiak ematera zibilki beharturik dauden pertsona fisikoak edo juridikoak izendatzen ditu.

Baina, gai hau aztertzerakoan berriro gogoratu behar da prezio publikoak eta zergak ez direla maila berekoak, eta aztertzen ari garen gaiari dagokionez axola zaizkigun ondorioak zuzenbide publikokoak diren sarrera horien osakera legeatik eratorritakoak dira.

Lurralde Historikoetako zergei buruzko Foru Arau Orokorrek, Zergei buruzko Lege Orokorrek eta Konstituzioak berak bezala, Legearen erreserba-printzipioa aldarrikatzen dute ondare izaerako betebeharrak ezartzeko eta betebeharrak hori osatzen duten gainontzeko elementu funtsezkoetarako, hala nola, egitate ezargarria edo sujetu pasiboak erabakitzeke.

Horrela, tasen kasuan, Herri Ogasunen Legeak berak kasu batzuetarako zergapekoaren ordeko figura iragartzen du, eta horrela prezio publikoen kasuetarako azaldu den betebeharra errespetatzen da. Antzeko ezer iragartzen ez den kasuan, Foru Arauak aldagatzen bat sartu beharko luke, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua hartzen dutenen familiartekoei ordaintzeko ardura zabalduko liekena.

Maila formalean tasaren eta prezio publikoaren artean dagoen bereizketa hau da: lehenengoa "ex lege" bete beharrekoa da; prezio publikoa, aldiz, borondateen artekoa edo administrazioak bere aldetik onartzen duen akordio bat da. Beraz, horren ondorioak ezin zaizkie gaineratu negozio juridiko horrekin bat ez datozela adierazi duten pertsonen.

Ikuspegi horretatik, zerbitzu publiko batetik laguntza hartzen dutenei edo laguntza hori eskatu dutenei bakarrik eska dakieke ordaintzea, legalki ezin da



bestela izan, eta ez bakarrik udal ordenantza fiskalen kasuan, ezta Araban foru dekretu bidez indarrean dagoen araudian ere.

Eta azkenik, zerbitzu-hartzaileari mantenua ematera behartuak daudenak ezezkoan jartzen diren kasurako ere beren neurriak hartu dituzte udaletxe batzuek; kasu horietan, eman zaizkion zerbitzuetan egin duen zorra ezagutu eta sina dezala eskatzen diote zerbitzu-hartzaileari udaletxe batzuek.

Azkena aipatu den formula hori zerbitzuak kostu handikoak direnean, adineko pertsonak erresidentzian bizi behar duenean-eta erabiltzen da, batez ere. Formula horren gainean eztabaida asko izan da Europan, eta oro har bi arrazoi azaldu izan dituzte hori egitearen kontra.

Adineko pertsonari dituen ondasunak (familiaz datorkion etxea gehienetan) bahitan utzi beharrak ematen dion mina da formula horren kontra dagoen arrazoirik bortitzena; hori egin baino beste edozein laguntzari uko egin nahia-go izaten dute, zeren ondasun horiek ondorengoei utzi behar dizkietenak direla, edota bahitan uztea dituzten diru-sarrereren merman izango dela uste izaten duten.

Zerbitzu-hartzailearen dependentzia maila eta autonomiarik eza ere ia araudi guztiek hartu dituzte kontuan, hala EELZn onartzeko, edo ez, nola eman beharko zaion laguntzaren intentsitatea eta gainerakoa neurtzeko.

Araudi guztiek eman diote zerbitzu-hartzailea berez baliatzeko gai izateari edo ez izateari duen garrantzia. Hori baloratzeko Guttman-en eskala erabiltzen da Gipuzkoan eta Bizkaian; Araban, berriz, Geronte-rena. Udaletxe batzuk beren eskala propioak erabiltzen dituzte, hala ere.

Zerbitzu-hartzaileen dependentziari dagokionez, araudietan horri buruz agertzen diren neurriak alde batera utzita orain, ikusi ahal izan dugu egindako inkestan, Arabako zerbitzu-hartzaileen dependentzia maila handiagoa dela Gipuzkoakoena baino, eta hauena handiagoa, berebat, Bizkaikoena baino.

Zerbitzu-eskatzaileak EELZn onartzeko ezintasun eta dependentzia maila minimo bat eskatzen dute udaletxe batzuk. Nolanahi ere, berez ezin baliatu izatea behar luke EELZn onartzeko irizpide nagusia eta hori beharko litzateke neurtu eta kontrolatu arretaz.

Inkestan ikusten denez, udaletxe batzuk ez diote duen garrantzirik ematen horri, aldiz, sentiberatasun handia erakusten dute kultur dependentzia jakin batzuentzat, zerbitzu-eskatzailea gizonezkoa denean batik bat.

Auzi honi bukaera emateko esan dezagun, zenbait udaletzek ez duela oraindik egindako araudirik argitaratu eta etxerako araubide gisa erabiltzen dituztela, eta are badirela oraindik zerbitzu-eskatzailea zein irizpideren arabera onartu eta lan horri zenbat ordu eskaini behar zaion zehaztu ez duenik.

### 3.8.5. Laguntza zerbitzua hastea

Eskaera egin eta zerbitzua hasterako lau aste inguru igarotzen da batez beste. Udaletxe eta mankomunitate gehienetan hiru hilabete behintzat behar

izaten da. EAEko hiru hiriburuetan epea luzeagoa izaten da, horietan bost aste ere igarotzen dira zerbitzuak hasterako.

Eskaera egitetik zerbitzua martxan jartzea bitarteko epea bi alditan banatuz gero, eskaera onartzeko gunea erdibidean aurkituko litzateke, Gipuzkoan eta Bizkaian. Hain zuzen ere, bi aste igarotzen dira eskaera jaso eta balorazioa egiterako, eta beste bi aste-edo behar izaten dira zerbitzua martxan jartzerako.

Eskea jasotzetik zerbitzua martxan jartzera bitarteko epeen batez bestekoa baino denbora luzeago eta laburrago igarotzen dutenetan alde handirik ez dago Gipuzkoan eta Bizkaian. Leku batzuetan, zerbitzua berehala jartzen da martxan, beste batzuetan, aldiz, 16-17 astetaraino luza daiteke epe hori, hala nola, Zestoan eta Trapagarananen. Araban ez da horrenbesteko gorabeherarik izaten; eskea jasotzetik zerbitzua hartzen hasi bitarteko eperik laburrena bi astekoa izan ohi da, eta luzeena bost astekoa.

### **3.8.6. Eske larriak bideratzeko era**

Udaletxe eta mankomunitate gehienek dute eskeak bideratzeko era ohizkoaren ondoan beste bat, larriei ere erantzun ahal izateko jarria; badira, guztiaz ere, ohizkoa beste biderik ez dutenak. Gipuzkoako 8 herritako oinarriko zerbitzuetan (Anoetakoan, Berastegikoan, Berrobikoan, Debakoan, Irurakoan, Lasartekoan, Mendarokoan eta Urnietakoan) eta Bizkaiko lau herritakoetan (Ereñokoan, Sestaokoan, Trapagarangoan eta Alontsotegikoan) bakarrik uste dute EELZko antolaketa sistemaren bidez eskaera larriei erantzun egokirik ezin eman zaiela.

Gainerako herrietako oinarriko zerbitzuak aipatu gabe uzteak ez du, hala ere, horiek egoera larriak bideratzeko modua badutenik esan nahi, batzuek erantzuten ziguten bezala, estualdiak estualdiak izaten dira, eta horrelakoetan denbora justua izaten; eta larrialdia zer den ere zeinek bere erara ulertzen du. Dena den, udaletxe batzuetako profesionalak estualdietarako ez dagoela ezer prestaturik duda egin gabe esatea nahikoa da, hainbesteko garrantzia duen auzia zenbait lekutan oraindik behar bezala lotu gabe daukatela pentsatzeko.

### **3.8.7. Eginkizunak erabaki eta jarraipena egin**

Udaletxeek gizarte arazoetarako duten langileak erabakitzen du normalean zer laguntza mota behar duen zerbitzu-hartzaileak eta zer laguntza behar duen etxerako. Laguntza eman behar dionak gutxitan hartzen du parte lehenengo fase honetan.

Laguntza behar duenaren balorazioa egin ondoren hartzen diren xedapenak leku askotan utzi ohi dira idatzirik; hori eskura eduki ohi du gero zerbitzu-hartzaileari laguntza eman behar dionak; baina, ez dute hori enpresa eta udaletxe guztiek egiten.

Esan bezala, “Eginkizunen orriak” deritzen horiek ez dira, enpresa eta udaletxe guztietan egiten, aldiz, gaitzetsi egiten ditu zenbait langilek, eta administrazioarentzat kontroleko tresna izatea baino eginkizun handiagoa dute.

Izan ere, komeni baita gizarte arazoetarako langileak zerbitzu-hartzaileari, horien etxean eta ahal izanez gero familiaren eta laguntza eskaini behar dionaren aurrean, EELZ zer den, zerbitzu horretako profesional bezala lagundu behar dionaren papera zein den, zer espero izan dezakeen eta zer egin behar ez duen jakinaraztea, eta, halaber, familia bere aldetik zertara konprometi daitekeen ere negoziatzea, batzuen eta besteen laguntzarekin ahalik ongien bizi ahal izan dadin. Zerbitzu-hartzailearekin izaten den lehenengo harremanak eta gizarte arazoetarako laguntzaileak lagunduko diona zerbitzu-hartzaileari aurkezteko erak garrantzi handia dute zerbitzuaren geroko funtzionamendurako.

Behar-beharrezkoa da, bestalde, eskainiko zaizkion laguntzak idatzita uztea, zer gerta ere, laguntzaileak bezala zerbitzu-hartzaileak zeinek zein obligazio eta eskubide dituen argi gera dadin.

Ez dira, noski, xedapen eta eginkizun orokorrak bakarrik utzi behar idatzita, baita zehatzak ere, hala pertsoneri nola eginkizunei dagozkienak. Eta hau nahikoa leku gutxitan egiten den gauza da.

Eta garrantzi handia duen gauza da, zeren, besteak beste, etxex etxeko laguntzailearen papera zein den garbi uzteko eta horretan interpretazio okerrik izatea galarazteko behintzat balioko baitu.

Izan ere, zerbitzu-hartzaileak eta bere familiakoek izendatu den laguntzailea etxeko enplegatu gisa hartzea eta horri zerbitzu-hartzaileen ingurukoek derizkieten lanak eginaraztea nahikoa normala baita, eta logikoa, gainera, neurri batean. Argi dago, laguntzaileak zein eginkizun dituen garbi utziz gero, tokatzen ez zaizkionak eginarazteko arrisku gutxiago izango dela.

“Eginkizunen orria” behar bezala egitea oso komenigarria da, bide batez, bere garaian laguntzaileak eskaini duen laguntza ebaluatzeke eta, halaber, dagozkion haiek, neketsuen zaizkionak edo pozik gutxiena ematen diotenak, egin gabe utz ez ditzan ere.

Udaletxeko gizarte arazoetako langilearekin lehenengo kontakturik izan zuten, eta izan bazuten non galdetzean, zerbitzu-hartzaileen erdiak baino gehiagok baietz erantzun zuen, eta horien erdiak etxean izan zuela. %13,5 ez ziren gogoratzen kontakturik izan zuten ala ez, baina horrek ere ez du, berez, harremanik izan ez zuenik esan nahi. Egin genuen inkestan urrutizkin konturik aipatu ez arren, %34k giza-arazoetako langileak telefonoz kontaktatu zuela erantzun zuen. Harremanetan jartzeko telefonoa gehien erabili izan den lurraldea Bizkaia da, dirudienez.

43. KOADROA:  
ZERBITZU-HARTZAILEEN ETA UDALETXEKO GIZARTE-LAGUNTZAKO  
LANGILEAREN ARTEKO HARREMANAK

| Lurralde historikoa   |            |              |               |              |
|---|------------|--------------|---------------|--------------|
|   | Araba<br>% | Bizkaia<br>% | Gipuzkoa<br>% | Guztira<br>% |
| <b>Udaletxeko gizarte-laguntzako langilearekin kontaktuak</b> |            |              |               |              |
| Bai, etxean   | 46,5       | 18,5         | 25,9          | 26,6         |
| Langilearen bulegoan  | 45,5       | 16,3         | 27,1          | 25,8         |
| Telefonoz   | 2,0        | 46,4         | 36,5          | 34,1         |
| Ez  | 5,9        | 18,9         | 10,6          | 13,5         |
| Guztira   | 100,0      | 100,0        | 100,0         | 100,0        |
| <b>Zki. absol.</b>  | <b>101</b> | <b>233</b>   | <b>170</b>    | <b>504</b>   |

Baditeke zenbait zerbitzu-hartzailearen oroimena oso ona ez izatea eta horrek erantzunei fidagarritasuna kentzea; edozein modutara ere, merezi du jasotako datuak konparatzeak, nahikoa deigarriak baitira: Arabako zerbitzu-hartzaileen %45,5ek lehenbiziko harremana etxean izan zutela erantzun zuten; Gipuzkoan %25,9k erantzun zuten horrela eta Bizkaian % 18,5ek. Gauza beretsua esan daiteke giza-arazoetako langilearentzat hori baino erosagoa den eraz, horren bulegoan egiteaz, alegia.

Arabako, zerbitzu-hartzaileen %45,5 gogoratzen dira giza-arazoetako langilearen bulegoan egindako elkarrizketaz, Gipuzkoan %27,1 eta Bizkaian %16,3. Araban, bada, zerbitzu-hartzaileen %92 gogoratzen dira elkarrizketa izan zutela, Gipuzkoan %50 eta Bizkaian %36.

Giza-arazoetako langilea zenbat bider ikusten zuten galderari, berriz, Arabakoek eta beste bietakoek antzera erantzun zioten. Araban, zerbitzu-hartzaileen %5ek gutxienez hilabetez behin izaten dute giza-arazoetako langilearekin elkarrizketa, beste %7,9k, sei hilabetez behin; Bizkaian, %14,1ek izaten dute hilabetez behin edo sei hilabetez behin elkarrizketa, eta Gipuzkoan, %21,1ek, hilabetez edo sei hilabetez behin. Horrek esan nahi du, Gipuzkoakoek, behin harremanetan jarriz gero -Arabakoek baino gutxiagok egiten duen arren- bigarren honetakoek baino sarriago izaten dutela harremana.

44. KOADROA:  
GIZARTE-LAGUNTZAKO LANGILEAREN ETA ZERBITZU-HARTZAILEEN  
ARTEKO HARREMANEN MAIZTASUNA

|                 | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|-----------------|-------|---------|----------|---------|
|                 | %     | %       | %        | %       |
| Hilabetez behin | 5,0   | 2,1     | 8,2      | 4,8     |
| 6 hilab. behin  | 7,9   | 12,0    | 12,9     | 11,5    |
| Aldi-aldika     | 87,1  | 85,8    | 78,8     | 83,7    |
| Guztira         | 100,0 | 100,0   | 100,0    | 100,0   |
| Zki. absol.     | 101   | 233     | 170      | 504     |

Harremanen maiztasunean Arabakoan eta Gipuzkoakoan artean horrela-ko aldea izatearen arrazoia, lehenengoan, laguntza-zerbitzua beren langile propioez ematen duten udaletxeen kopurua handia izatean, eta bigarrenagoan, zerbitzu hori enpresen bidez ematean dago agian, eta, enpresa horiek eginkizunen kontrola beren giza-arazoetako langileen bidez egitean ere bai, bide batez. Antzeko zerbait esan beharko litzateke Bizkaiko EELZz ere.

Dena den, enpresako giza-arazoetako langileen eta zerbitzu-hartzaileen artean harremanak izateak ez du berez, udaletxeetako giza-arazoetako langileen eta zerbitzu-hartzaileen artean edo, lehenengoan eta etxex etxeko laguntzaileen artean, harreman estuagoa izan behar ez duenik esan nahi.

Adiministrazio lanak denbora luzea hartzen diela eta EELZn egiten den lanaren jarraipena eta ebaluatzeko betarik ezin hartu izaten dutela esaten dute giza-arazoetako langileek. Berez tamalgarria izateaz aparte, baliabideak oker erabiltzea eta giza-arazoetako langileen bizimodua hondatzea eragin lezake horrek.

Izan ere, EELZ era mekanikoan edo burokratikoan administratzeak eta zerbitzu-hartzailearen gizarte ingurunean egiten den lana kontuan ez izateak hartutako ohiturak errotsu bihurtzea, zerbitzu-hartzailearen premien eta eskaintzen zaion zerbitzuaren artean desegokitasunak sortzea eta zerbitzu-hartzailearen ingurukoek eskaini lezaketan laguntza sarea behar adina ez erabiltzea ekar lezake, eta ekarri ohi du.

Etxex etxeko laguntzaileek diotenez, zerbitzu-hartzaileak zaintzeko eta horiei erosketak edo konpainia egiteko bere burua eskainiko luketenak aurkitzea ez litzateke gauza zaila izango eta, bide batez, beraiek izendatu zaien denboran ozta-ozta egiten dituzten lanak ere errazago egingo lirateke horrela.

Dena den, EELZko lana zerbitzu-hartzaileen premia berrietara egokitzen joanez gero, begi zorrotza behar da aldaketa horien gain, aztertu egin behar dira noizean behin, eta hobetu, etxex etxeko laguntzaileak aldaketa horiei buruz izan litzakeen oharrak dagozkien lekura iristeko bideak. Esijitzen zaien denbora ere, luze-luzea ez denez, kontuan hartu beharko litzateke soldatak eta

ordutegiak aztertzerako orduan, zeren auzia ez baitago denbora izatean edo ez izatean, jarreran baizik.

Azpmarratu beharra dago, bestalde, zuten lanean oso bakarrik sentitzen zirela esaten zutela etxez etxeko laguntzaile batzuek beraiekin egin genituen bileretan. Horri buruz esan dezagun, bide batez, udaletxe batzuek nahita itzuri izan dituztela EELZko langileekiko harremanak, ez baitzuten horiek bien artean lan-harremanik zegoenik erakutsi nahi. Ez dira horren muturreko kasuak askotan gertatu ohi, baina etxez etxeko zerbitzuan parte hartzen dutenen arteko harremanik eza noraino irits daitekeen nahikoa ongi erakusten du.

EELZko laguntzaileak kexu dira, halaber, zerbitzu-hartzailea eta bere premia hobekien horiek ezagutu arren, eginkizunak programatzerakoan azaltzen dituzten oharrei ematen zaien arreta gutxiaz.

Eta azpmarratzen dute adineko pertsonentzat hain beharrezko ez diren lanak egin behar izaten dituztela askotan eta gero, programan agertzen ez direnez gero beraiek ezin egin dituztenak eskatzen dizkietela beste batzuetan; ahaleginak ahalegin, ez direla zerbitzu-hartzailearen premia berriei behar bezala erantzuteko, edo behar bezain bizkor erantzuteko gai izaten.

Halaber adierazten dute, zerbitzu-hartzaile batzuen kasuan ez direla behar luketeen laguntzaren minimoa eskaintzera ere iristen. Aipatzen dituzte kontrako kasuak ere, eskaintzen zaien zerbitzua zertan eskaini ez dagoenak, alegia. Egindako Inkestan ikusten denez, zerbitzu-hartzaileen portzentaia handi bat gai da berez baliatzeko.

EELZko zenbait langilek dioena ere egia da seguru asko, zenbait zerbitzu-hartzaile eskaintzen zaion zerbitzua, etxeko lanetan laguntzea, alegia, ez dela horiek premiazkoen duten laguntza. Inkestaren arabera, zerbitzu-hartzaile askok etxeko lanetan laguntzea baino nahiago izaten du bere kontuak kontrolatzea eta konpainia egitea, esate baterako. Beste kontu bat da, hori etxez etxeko laguntzaileari dagokion ala ez.

Laguntzaile horien ustetan, garrantzi handiegia ematen zaio etxeko txukuntzari, eta hori baino txango bat egiten laguntzea edo hizketarako denbora luzegoa izatea nahiago lukete zerbitzu-hartzaileek. Erosketak egiteak eta gisako lan konkretuek denbora luzeegia kentzen omen diete, bestalde, eta beste eginkizunetakoetatik kentzen aritu behar izaten dute.

Azkenik, Bizkaiko hiru udaletzek (Ermukoak, Elorrikoak eta Mallabiakoak) eta Gipuzkoako hirutakoak bakarrik (Eibarkoak, Lezokoak, Lasarte-Oriakoak, Errenteriakoak eta Zestoakoak) jarri dute zerbitzu-hartzaileak bere kexak idatziz iritsi ahal izateko bidea.

Dena den, kexak bideratzeko modurik ez jartze hori, EELZetan ezezik giza-arazoetako gainerako zerbitzuetan ere oso zabaldua dagoen gauza da.

### 3.9. EELZ-KO LANGILEAK ETA HORREN ANTOLAERA DESBERDI-NAK

#### 3.9.1. Arazo orokorrak / kopuruak

EELZko sailean 2.032 pertsonak lan egiten dute<sup>1</sup>. Horietako 897k (ia %44k), Bizkaian; 674k (%33k), Gipuzkoan, eta 461ek (%22,7k), Araban<sup>2</sup>.

Horietako langile bakoitzak batez beste 2,6 pertsona zaintzen ditu Araban, 5,1 Bizkaian eta 3,7 Gipuzkoan. Araban, laguntzaile bakoitzak 911 orduko laguntza ematen du urtean, Bizkaian 1.324 ordukoa eta Gipuzkoan 1.211 ordukoa. EAEn, langile bakoitzak 1.193 orduko laguntza eskaintzen du batez beste, egun-ordu osoa baino %45 gutxiagokoa, alegia.

#### 45. KOADROA: ZERBITZU-HARTZAILEEN KOPURUA / LANGILEAK

|          | ZERB. HARTZ.<br>KOPURUA | LANG.<br>KOPURUA | ZER. HARTZ.<br>LANGILEKO |
|----------|-------------------------|------------------|--------------------------|
| ARABA    | 1.192                   | 461              | 2,6                      |
| BIZKAIA  | 4.557                   | 897              | 5,1                      |
| GIPUZKOA | 2.465                   | 674              | 3,7                      |
| GUZTIRA  | 8.214                   | 2.032            | 4,0                      |

#### 46. KOADROA: EELZ-KO ORDUAK / LANGILEAK

|          | ORDUAK / URTEKO | ORDUAK / URTEKO<br>LANG. |
|----------|-----------------|--------------------------|
| ARABA    | 419.920         | 910,9                    |
| BIZKAIA  | 1.187.498       | 1.323,8                  |
| GIPUZKOA | 816.145         | 1.210,9                  |
| GUZTIRA  | 2.423.563       | 1.192,7                  |

<sup>1</sup> 1 Kopuru horri koordinazio-lanetan, kontrolekoetan, administraziokoetan eta zuzendaritzakoetan ari direnak erantsi beharko litzaizkiok. 2.032 horietan ez ditugu Gasteiz edo gisako udaletxe isolaturen batetik garraio lanetan aritzen direnak eta, etxeko-lanetan edo zerbitzu-hartzailearekin zerikusi zuzenik ez duten beste batzuk ere sartu.

<sup>2</sup> Guk Bizkaiaari buruz eman dugun kopurua eta Lurralde horretako Aldundiarena (1.105) ez datoz bat. Zentsuak aldi desberdinetan eginak direlako eta Bizkaiko udaletxeetan enpresa mailan aldaketak izan direlako izango da, agian. Dena den, Lurralde horretako oinarriko gizarte-zerbitzuek emandako elkarte eta enpresa guztiak aztertu ditugu lan hau egiterakoan.

Duten lanaren gogortasunagatik, egun osorako erabaki zena (1.729 ordu) baino ordu kopuru txikiagoa egiten dute berez; egiten dituztenei garraiotan ematen dituzten guztiak edo batzuk erantsita ere, ordea, aipatu den portzentia ez litzateke asko aldatuko.

Hori da EELZko sektoreak eta sektore bereko langileek daukaten arazo handienetako bat, zailtasun handiak dituztela zerbitzu-hartzaileei laguntzen edo oro har horren gisako beste zerbitzuetan ematen dituzten orduak egun osokora egokitzen. Zailtasun horretaz baliatzen dira, bestalde, etxez etxeko laguntzailea egun osoko lana duen batekin parekatu nahi ez dutenak ere, eta hartzen dute horien lana, daukan lanbidez aparte beste bat egin nahi duen batena edo, etxeoandre batena bezala.

Etxez etxeko laguntzaileen %6k astean hamar ordu baino gutxiago lan egiten dute, %14k hogeit hamar ordu baino gutxiago. %23,3k 20tik 25 ordura lan egiten dute, %25,9k 25etik 30 ordura, %21,2k 30etik 40 ordura, eta azkenik, %1,2k 40 ordutik gora.

#### 47. KOADROA: LAN-ORDUAK / ETXEZ ETXECO LAGUNTZAILEEN ASTEA

|                | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|----------------|-------|---------|----------|---------|
|                | %     | %       | %        | %       |
| 5 baino gutx.  | -     | 0,8     | 3,4      | 1,5     |
| 5 - 10         | 4,3   | 2,7     | 8,0      | 4,8     |
| 10 - 15        | 11,9  | 4,3     | 14,7     | 9,5     |
| 15 - 20        | 16,7  | 6,1     | 18,7     | 12,7    |
| 20 - 25        | 15,8  | 39,7    | 6,5      | 23,3    |
| 25 - 30        | 19,3  | 39,4    | 12,5     | 25,9    |
| 30 - 40        | 31,9  | 7,0     | 36,6     | 21,2    |
| 40 baino gehi. | -     | -       | 3,6      | 1,2     |

10 ordurik sartzen ez dutenen proportzioa beste lurraldeetan baino handixeagoa da Gipuzkoan, laguntzailea zerbitzu-hartzaileek kontratatzeko ohitura ere lurralde horretan, nekazaritzako herrietan behintzat, besteetan baino handiagoa delako, seguru asko.

Astean 30 ordu baino gehiago egiten dutenak, berriz, Bizkaian gutxiago dira besteetan baino, proportzioan behintzat.

Lanbide nagusia hori duela esateko, asteko ordu kopuru minimoa 20 ordutan jarriz gero, EAeko laguntzaileen %71,6 sartuko lirateke horien artean. Bizkaian laguntzaile gehiago sartzen da sailkapen horretan, %86,1; Gipuzkoan, berriz, %59,2 eta Araban %67.

Datu horien arabera, Bizkaian dago hori “denbora osoko langintza” gisa hartzen duen laguntzaile kopururik handiena, Gipuzkoan eta Araban baino



handiagoa, nolanahi ere. Araban, hori bigarren lanbide gisa dauka laguntzaile askok.

### 3.9.2. Soldatak eta lan-baldintzak

Esan den bezala, EAEn diren etxez etxeko 2.032 laguntzaileetatik 1.640k, %80,7k alegia, enpresaren batek kontraturik egiten dute lan hori, 253k (%12,5) udaletxe edo mankomunitateren batek kontraturik, eta, 139k zerbitzu-hartzaileak zuzenean kontraturik, edo horrek ordaintzen duela, behintzat. 139 horiek, denek Gipuzkoan lan egiten dute, eta EAeko laguntzaileen %6,8 eta Gipuzkoakoen %20 hartzen dute.

Kasu bakanen bat izan ezik, hala enpresek kontratatuta lan egiten dutenak nola udaletxeek kontratatuta ari direnak Aseguru Sozialean sartuak daude. Sartu gabe dauden bakarrak, 6 enpresak kontratatutako eta 6 udaletxeek kontratatutako, Gipuzkoan hamabiak, orduka eta premia bereziren batengatik hartu dituztelako daude horrela. Dena den, Gipuzkoako udaletxeek egin ohi dute hori tarteka.

Etxez etxeko laguntzailea batez beste orduko 816 pezeta (garbi) pagatzen da EAEn. Udaletxeek eta mankomunitateek kontratatuta lan egiten dutenei gehixeago, 1.012 pezeta pagatzen zaie eta enpresa batek kontratatuta ari direnei, berriz, %20 gutxiago, orduko 804 pezeta. Udaletxeak ordainketa kontua zerbitzu-hartzaileen gain utzita ari direnek batez beste orduko 700 pezeta baino gutxiago kobratzen dute. Azkeneko horiek, behar bezala kontratatuak ez egoteaz gainera, kobratu ere gutxiago egiten dute.

#### 48. KOADROA: LANGILEEN BATEZ BESTEKO SOLDATA

|                | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira |
|----------------|-------|---------|----------|---------|
| Enpresa        | 693   | 877     | 807      | 804     |
| Udaletxea      |       | 982     | 1023     | 1012    |
| Erabil. ordain |       | 650     | 699      | 698     |
| GUZTIRA        | 693   | 906     | 805      | 816     |

Soldata kontuan alde handi samarrak daude lurraldetik lurraldera, baita, halaber, enpresa batek kontratatuta ari direnen eta administrazioak kontratatuta ari direnen artean ere.

Arabian, enpresak kontratatuta ari direnek orduko 693 pezeta (garbi) irabazten dute, Gipuzkoan zerbitzu-hartzaileak zuzenean ordaintzen dituztela ari direnek bezalatsu, eta Bizkaian enpresak kontratatuta ari direnek (877) baino %20 gutxiago.

Arabako erakunde publikoek ez dute beraiek kontratatutako laguntzailerik eta Gipuzkoako eta Bizkaiko udaletxeetako nola mankomunitateetako laguntzaileek %46 gehiago irabazten dute.

Laneko errejimen bakoitzean laguntzaileek asteko eta orduko irabazten duten diru garbiaren batez bestekoak hauek dira:

49. KOADROA:  
ASTEKO SOLDATA GARBIAK

| Etxez etxeko laguntzailearen asteko soldata garbia |           |         |         |
|--|-----------|---------|---------|
|  | Enpresa   | Prezioa | Guztira |
| Araba  | 26,04     | 693     | 18.045  |
| Bizkaia  | 22,56     | 877     | 19.785  |
| Gipuzkoa   | 27,86     | 807     | 22.483  |
|  | Udaletxea | Prezioa | Guztira |
| Bizkaia  | 19,85     | 982     | 19.493  |
| Gipuzkoa   | 19,99     | 1.023   | 20.450  |
|  | Zuzenean  | Prezioa | Guztira |
| Bizkaia  | 9,43      | 650     | 6.129   |
| Gipuzkoa   | 14,40     | 699     | 10.065  |

Soldata garbirik hoberenak, 22.483 pezeta, Gipuzkoan enpresak kontratatuta ari direnek irabazten dituzte, orduak ere, neurri batean, gehiago sartzen dituztelako. Arabako enpresetakoek garbi 18.045 pezeta baino ez dute irabazten, batez beste Gipuzkoakoek adinatsu ordu lan egin arren.

Gipuzkoan eta Bizkaian, oro har ordu gutxiago sartzen dituzte udaletxeek kontratatutako langileek, hala ere, enpresetakoek baino gehiago irabazten dute. Enpresen kasuan langileen garraiorako gastuak eta lekuz aldatzeko denborari dagokiena ez dira soldatan sartzen. Auzi hori kontuan hartu beharko litzateke, batez ere eguneko laguntza-denbora zenbait bisitatan banatu behar denean.

Orduen batez besteko kostuaren eta langileek orduko kobratzen duten diru kopuru garbiaren arteko alderik handiena Araban dago. Bataren eta bestearen arteko desberdintasun-balioa Bizkaian 2 da, Gipuzkoan, berriz, 1,6 eta Araban 2,5. Alde hori, Araban zerbitzu-hartzaileak beste lurraldeetan baino sakabanatuago egotetik eta laguntzaile bakoitzak zaindu behar duen zerbitzu-hartzaileen kopurua ere txikiagoa izatetik dator, agian. Gipuzkoako zenbait herritan, eta batez ere nekazaritza girokoetan nahiko ohizkoa dena ez egiteak, hau da, zerbitzu-hartzailearen auzokoak eta horren familiartekoak laguntzaile edo etxekoandre gisa ez hartzeak eta pagatu beharrik ez izateak ere izango du diferentzia horretan bere eragina.

50. KOADROA:  
EELZ-KO ORDUKO KOSTUAREN ETA LAGUNTZAILEEN SOLDATEN  
ARTEKO ERLAZIOA

|          | Orduko kost.<br>guztira | Orduko kost.<br>batez beste | Orduko<br>soldata |
|----------|-------------------------|-----------------------------|-------------------|
| Araba    | 1.709                   | 1.709                       | 693               |
| Bizkaia  | 1.779                   | 1.804                       | 906               |
| Gipuzkoa | 1.297                   | 1.282                       | 805               |

Baliteke Arabako enpresek egitura mailan gastu handiagoak izatea ere, zeren eginkizunak kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko bezala adminis-  
trazioko langileak eta teknikoak enpresak berak jartzen baititu.

### **3.10. ETXEZ ETXECO LAGUNTZAILEEN ARAZOAK ETA LANGINTZA HORRETAKO BESTE ZENBAIT GORABEHERA**

Ez gara hemen etxez etxeko laguntzaileek eguneroko lanean aurkitzen dituzten arazo guztiak zehatz-mehatz aztertzen hasiko, izan ere, txosten honen helburua beste bat da-eta, laguntza behar duten pertsonen premiak aztertzea, hain zuzen. Gauza normala da, hala ere, pertsonen arteko harremanek (langile/zerbitzu-hartzaile) hainbesteko zerikusia duten lanetan, oro har zerbitzukoetan, eta batez ere EELZn, laguntzailea pozik aritzeak eta hori bere eginkizunetara ondo egokitzeak garrantzi handia izatea, zeren, lanaren kalitatean eta zerbitzu-hartzailearengan ere eragin zuzena baitu horrek. Auzi hau aztertzean laneko arazoak ezin dira baztertu, beraz.

Arazorik ez da falta Euskadiko Autonomia Erkidegoko EELZetan, eta hori ziurtatzeko hor dira egunkariak eta horietan agertzen diren albisteak, han eta hemen izandako liskarren berri eman izan digutenak.

EELZko liskarrak eta beste langintzetakoak batzuetan iturri berekoak izaten dira, lan-baldintzekin behar bezain onak ez direla, dituzten soldatekin konforme ez daudela, etabar, baina etxez etxeko zerbitzuan badira beste arazo batzuk iturri berezia dutenak.

#### **3.10.1. Laguntzaileen eginkizunaren zehaztasun falta**

EELZren barnean diren gorabeherak aztertzerakoan kontuan izan behar da, noski, laguntzailearen paperari buruz dagoen nahasketa, horien eginkizuna zein den zehaztu gabe egoteak eta horri buruz batzuek eta besteek iritzi desberdina izateak dakarrena. Etxez etxeko laguntzaileak zein egiteko duen zehaztu gabe egotea, zerbitzu horrek hemen tradizio txikia izatetik, eta zerbitzu hori, tradizio handiagoa duen eta zabalduago ere dagoen bestearekin, alegia, etxeko-lanetako zerbitzuarekin nahastetik dator. EELZko langile asko kexu da, prestakuntza berezia izan arren eta betetzen duten eginkizuna ere berezia izan arren, gizarteak askotan etxeko-lanetarako langiletzat eta “neskametzat” hartzen dituelako. Duten lana ere, gehienetan ez da etxeko-lanetarako enplegatua bera.

Zenbait estamentu politikotan ere esker gutxi ematen zaio etxez etxeko laguntzailearen paperari, eta maila horietan horrela hartzeak mesede kaskarra egiten die bai EELZri berari eta bai horrek hartu beharko lukeen zabalerari.

Zerbitzu honek izan zuen sorrera dago nahasketa horren guztiaren atzean, neurri batean behintzat. Ez da ahaztu behar zenbait udaletzek estualdian aurkitzen ziren pertsoneri (emakumezkoei batik bat) laguntzeko egin zuen planetik sortu zela EELZ; estualdian zeuden horiei eman zitzaizen lanaren helburu nagusia horiei laguntzea zen, beraz, eta besteak baino garrantzi gutxiago zuen adineko pertsoneri etxeko-lanetan laguntzeak.

Horrela sortuak pisu handia izan du, eta du ere oraindik, EELZren eta erakunde horretan lanean ari direnen gain, sorrera horren baitan baitaude era-

kundea gehiago zabaltzea eta gizarte-zerbitzuetako sarean hainbesteko garrantzia duen langintzaren egitekoa zehaztea ere.

### 3.10.2. Kontrako interesak laguntzaileen papera zehazterakoan

Ekonomiak eragin zuzena du, noski, EELZko laguntzaileen eginkizunari buruz dauden irizpide kontrajarrietan. Profesional mailan etxekoandarearen paretsuan hartzen den bat zerbitzu horretako oinarriko eragile gisa eduki nahi izatea erraz uler daitekeen gauza da ekonomia ikuspegitik bakarrik begiratuta. Baina ez da ahaztu behar, orobat, langintza horrentzat estatus hobea eskatzeak, gordean, soldata hobetzeko asmoa dakarrela.

Joera bata nahiz bestea muturreraino eragiteak arrisku handiak ditu, eta badira erakunde horrekin zerikusia dutenen artean muturreko ikuspegiak, hala politikoen, teknikoen, administrazioen nola langileen artean.

Argi dago, langintza hori gorago aipatu den mailara jaisteak laguntza-zerbitzuen kostua gutxiagotu egingo lukeela, baina orobat, ez lioke instituzionalizazioaren alternatiba bihurtu eta zerbitzu-hartzaileen premiak behar bezala ase nahi dituen zerbitzu horren zabalerari batere onik egingo.

Nonahitik begiratuta ere bistan dago, bestalde, etxeko laguntzailearen eginkizunik garrantzikoetako bat etxeko-lanak egitea, edo horiek egiten laguntzea dela, eta badaiteke zenbait langilek eginkizun hori utzi, neurri batean behintzat, eta neke gutxiagoko eta gogobetegarriago diren eginkizunetara aldatu nahian ibiltzea, gizartean harrera hobea dutela ikusten dutenez.

Langile batzuek zerbitzu-hartzaileei buruz egiten eta EELZko teknikoengana iritsiarazten duten balorazioa, pertsona horiek etxeko-lanak egiteko laguntzailea ez baina pertsona gisa lagunduko dien eta maitasuna eta konpainia gehiago eskaini liezaiekeen bat behar dutela diona, zentzu horretan interpretatu ohi da normalean.

### 3.10.3. Zenbait ohar kritiko laguntzaileei buruz: eragin psikologikoa

EELZko langileekin egindako bileretan eta sektore horretan egindako azterketetan ikusten denez, erakunde horretako laguntzaile asko oso egoera larrian aurkitzen da.

Kontuan izan behar da, alde batetik, horietako asko emakumezkoak direla, eta halako bi lan egin behar izaten dutela askotan, zeren, duten lanaz aparte, familiako kideren baten zaintzaile ere izaten baitira.

Berez baliatu ezin diren pertsonekin lan egiteak, bestalde, eta honi buruzko literaturarik ez da falta, psikologia mailan ere eragin makurra izaten du askotan<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Adineko pertsonak dauden egoitzetan "errearen sindrome" handia izaten dela frogatuta dago. Sare naturalei buruzko azterketek zera bera diote, zaintzaile nagusiek eragin psikologiko handia jasan behar izaten dutela, alegia.

Azkeneko urteotan, gainera, zerbitzu mailari eutsi egin zaio eta, aldi be-  
rean, kobertura maila handitu egin da, intentsitate mailaren batez bestekoa  
murriztu egin da, alegia, eta horrek lan gehiago egin beharra ekarri du langi-  
learentzat, zeren, ordu beretan zerbitzu-hartzaile gehiago zaindu behar baitu  
askotan.

Etxez etxeko laguntzailea, dudarik gabe, erabakiorra da zerbitzuaren kali-  
tatean, baina bai, halaber, horren kostuan ere. Logikoa da erakunde publikoek  
gastuei begiratzea eta ahalegina horiek mugatzen saiatzea, eta are gehiago  
eskea gora doanean. Baina ez da batere bidezkoa, eta zerbitzu horrentzat erdi-  
ko epera arriskutsua, gainera, zerbitzu-hartzaileari laguntzeko egiten den lan  
guztia laguntzaileen gain kargatzea.

Kontua da, EELZko behar ekonomikoak gehitzen doazen eran zerbitzuko  
langileari ere gero eta errendimendu handiagoa eskatzen zaiola, berebat,  
intentsitatea dauden premietara ajustatzen eta ezintasunean daudenen kopu-  
rue ere gora doalako.

EELZko laguntzaileak, asko behintzat, bakarrik sentitzen dira egin behar  
duten lanean, eskaini behar duten laguntzako denbora ezin mugatu dutela, eta  
munduarekin laguntzailea beste loturarik ez duten eta horren egoera ulertzen,  
edo ulertu nahi ez duten zerbitzu hartzaile batzuen jarrera euskoiatatik pertso-  
na gisa ere saihestez ezineko egoeretan nahasturik.

Laguntzaile batzuek lan handia izaten dute laguntzako denbora dagozkien  
eta ordaintzen dizkieten orduetara mugatzen, batez ere, arazo larriak dituen  
batekin daudenean. Ez dira, gainera, bakanak administrazioko lana ere bete  
beharrez, lan-eguna edo laguntzako denbora luzatu behar izaten dutenenak,  
zeren, maitasun edo sentiberatasunezko harremanak tarteko, eta laguntza  
behar duen zenbait pertsona nola dauden ikusita (gaua edo aste bukaera osoa  
bakarrik igaro beharrean edo beharrik premiazkoenak, ohetik jaiki edo beste,  
beren kabuz egiteko gauza ez direla), gogorra egiten baitzaie bakarrik uztea.

#### **3.10.4. Laguntza teknikoen eskasia**

Ezintasun handiko pertsonen laguntzeko baliabide teknikorik ez izatea da  
etxez etxeko laguntzaileek sarritan aipatzen duten beste auzietako bat.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuan aspaldikoa da eskasia hori, eta bada  
azterketaren bat ere ortoprotesia kontuan dauden diferentziak agertzen ditue-  
na; azterketa horretan esaten da osasuneko sailean Suediarekin parekatzeko  
gastuak egiten direla eta gizarte-zerbitzuetarako, berriz, oso gutxi egiten dela.

Etxez etxeko laguntzaile batzuk bainurako guzarik eza salatzen dute,  
baina, ikusten denez, eskasia handiagoa dago oheak zerbitzu-hartzaileen pre-  
mietara egokitze kontuan edo eritetxeetakoan antzeko oheak etxeetan sartze  
kontuan, bere kabuz higitu ezin diren pertsonak mugitu ahal izateko ia nahita-  
ezkoak baitira horiek.

### 3.10.5. **Bidezko bi eskakizun: laguntzaileei dagokien estatusa aitortzea eta prestakuntza berezi bat eskaini beharra**

Garbiketako pertsonarena ez den estatus bat eskatzearen atzean egon daitezkeen asmoak asmo, badira EELZko sektorean eztabaidan jarri ere ezin egin daitezkeen zenbait auzi.

Alde batetik, trebetasun berezia behar dute etxez etxeko laguntzaileek, egiten duten lanak dagokion kalitatea, zerbitzu publikoetako guztiek behar luketeena, izango badu.

Aitortu beharra dago laguntzaile horiek etxe-zaintzan, sukaldaritzan, dietetika kontuan, zaharren gizarte-jokaeran eta hijiene kontuan jakintza teoriko eta praktikoa batzuk behar dituztela. Hala eta guztiz ere, aipatzera goazen puntu hauek askotan uzten dira bazterrerara:

- Etxez etxeko laguntzaileek oso ondo jakin behar dute beren lana non bukatzen den, eta, halaber, konponbide txarreko egoeretan nola jokatu ere.
- Jakin behar dute, orobat, beren langintzan sor daitezkeen arriskuak kudeatzen, eta berez baliatu ezin diren pertsonak lekuz aldatzen eta duten lanerako diren teknikak erabiltzen.
- Sentimen edo gorputz-dependentsia handia duten pertsonekin edo, oro har, psikologia arazo handiak dituztenekin ibili beharrak, langilearen berarengan ere adimen mailan nahasketa handiak sor ditzake, eta sortzen ditu. Baina, lan horretan ibili behar duen langileak asesoria on bat izanez gero, zaharrei buruzko psikologia jakintza sendoa izanez gero, dagokion lan-eremua ondo zehaztua edukiz gero, eta intuizioan nahiz borondate onean oinarriturik ere zaintzaile/zerbitzu-hartzaile bikotearentzat zenbait praktika arriskutsuak direla jakinez gero, errazago saihas litezkeen okerrak dira horiek.
- Gizarteko osasun-zerbitzuei buruzko jakintza sendoa eta horiek nola funtzionatzen duten ere jakin behar du etxez etxeko laguntzaileak, zeren, zerbitzu-hartzaileak zer hartzen duen kontrolatzea ere bere lana baita. Prebentzio-lana egitea ere berari dagokionez, arriskuren baten iturri izan daitezkeen egoerak aurrez ikusten ere jakin behar du, eta behar den momentuan behar den profesionalaren laguntza eskatzen, eta hori tentu handiz baina eraginkor izateko eran egiten, eta dagokion zerbitzu-soziala sortzen diren aldaketen eta zerbitzu-hartzailearen premien jakitun edukitzen.

Lehen aipatu den osasun-zerbitzuen sarea ezagutzeaz gainera, gutxienez, sortzen den arazoarekin zerikusirik izan dezaketenei informazioa iritsiarazteko adina kultura ere izan behar du etxez etxeko laguntzaileak.

Hauxe azpimarratu nahi genuke, bestalde: etxez etxeko laguntzaileak prestatzea zerbitzu publikoek bazter ezin dezaketenei eginkizuna da. Zeren, nahiz eta etxez etxeko laguntzaileek aurre egin behar dieten arazoak sarritan prestakuntza hori gabe konpondu, zerbitzua eskatu duen pertsonak nozitzen baititu gero prestakuntza berezirik ez duten pertsonen eta horien praktikak

ekar litzakeen arriskuak handiak zein txikiak. Eta arrisku kontuan, erantzukizun publikoko zerbitzuan ezin da sail pribatuan onar ditzaketen gorabehera edo marjenekin jokatu.



### 3.11. EKONOMIA AZTERKETA

Euskadiko Autonomia Erkidegoko etxez etxeko laguntza zerbitzuaren gastua lau mila milioi pezeta baino gehiagokoa da; esan nahi du horrek, urteko 15.000 pezeta dagozkiola 65 urtetik gorako pertsona bakoitzari, eta 500.000 pezeta baino zerbait gehiago zerbitzu-hartzaile bakoitzari.

Aldundiek, udaletxeek eta zerbitzu hartzaileek finantziazten dituzte etxez etxeko laguntza zerbitzuak. Gipuzkoak eta Bizkaiak finantziario molde berdinsua dute. Arabakoak baditu bere bereiztasunak, batik bat zerbitzu hori antolatzeko eratik datozkionak.

Arabak, Gasteizen eta Laudion izan ezik, Gizartearen Ongizaterako Foru Institutuak finantziazten du etxez etxeko laguntza zerbitzua: aipatu diren bi udaletxe horietan ere parte bat Gizartearen Ongizaterako Foru Institutuak finantziazten du. Bi udaletxe horietako finantza kontuak, etxez etxeko zerbitzuaren sail-banaketa egiterakoan erabaki ziren alorren arabera dago banatua. Foru Institutuak antolatzen eta finantziazten du zerbitzu-hartzaileenarekin berdindu ezin den zerbitzu guztia; kostu txikiko zerbitzuak, etxe-txukunketak-eta, udaletxeen gain, batik bat Gasteizkoak finantziazten ditu.

Gorago aipatu den banaketa hori dela bide, Foru Institutuak eta bi udaletxeek badute zeinek bere ardura eta finantza saila. Banaketa sistema horren arabera, Foru Institutuak zerbitzuen %70 edo gehiago finantziatu behar du, proportzioan Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundiek pagatzen dutena baino gehiago, EELZko kostu guztietatik, lehenengoak %58,6 eta besteak %48,5 finantziazten baitute horiek.

Gorago esan bezala, Gipuzkoan eta Bizkaiak, EELZ finantziazteko sistema berdintsua dute. Gipuzkoan, Aldundiak hainbesteko bat ematen du urtero, biztanleko 816 pezeta 1994an. EELZk sortu zirenez gero finko bihurtzen joan den diru-partida eguneratuari dagokiona, eta Aldundiak bereziki EELZrentzat ematen duena da hori.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren antolaketa, ordea, Gipuzkoan udaletxeen gain dago. Eskaintzen den zerbitzuaren kostua Aldundiak emandako diru kopurua baino handiagoa denean, urteko eta biztanleko 816 pezeta baino gehiago denean, alegia, aldea udaletxeek berdindu behar izaten dute, aipatu den kopuruaren %15 behintzat; hori 102 pezeta zen 1994an; kopuru horretatik gorakoaren %50 Foru Aldundiak ordaintzen du.

Udaletxeak zerbitzu horretan parte hartzera bultzatzeko jarria dago sistema hori, eta bereziki zerbitzu horri ordu kopuru handi samarra eskaintzera konprometitzen diren haiek bultzatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, joeraz, herri txikiei besteei baino gehiago laguntzen die; dituzten biztanleak dituztela, txikiei ere 2.000 biztanlekoei dagokiena ematen die. 2.000 baino biztanle gutxiagoko herri batek ere 1.632.000 pezeta jaso zituen 1994an, etxez etxeko laguntzako pertsonengatik jaso zutenaz gainera<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> EELZko langileengatik foru-laguntzako lehen puskaren %15, hau da, 68,12 biztanle, finantziazten du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Udalerrri txikietak EELZri laguntzeak badu bere arrazoia, nahiz eta etxez etxeko laguntza ez izan ekonomia-eskalan argien funtzionatzen duen zerbitzua. Dena den, nekazaritza giroko herrietan etxez etxeko laguntza emateko izan ohi diren eragozpenak ere kontuan izan behar dira, besteak beste, erresidentziak eta gisako beste alternatibarik ez delako izaten horietan, eta guztiaz ere, laguntza handia behar duten kasuak gerta daitezkeelako; eta zer esan inora mugitu behar dutenean izan ditzaketenez arazoez?

Esan bezala, Gipuzkoako finantziario-sistemak nekazaritza giroko udalerrriak faboratzen ditu, eta horrela udaletxeak bultzatzen eta gehiago konprometitzen saiatzen da. Horietako askok EELZren ardura hartzeko uzkur izan ziren garai batean; batzuek horretarako ematen zitzaizkien dirua bueltatzera ere iritsi ziren.

Bizkaiko sistema alde horretatik ez da Gipuzkoakoa bezain babeslea. Bizkaiko udaletxeek EELZko gastuen %25 behintzat finantziatu behar dute. Gipuzkoakoen eta Bizkaikoen arteko diferentzia nagusietako bat hori da, bigarren horretan ezin dutela udaletxeek gainerako ardurak ere beren gain hartu gabe laguntza zerbitzurik eskaini, Gipuzkoan, neurri bateraino behintzat, egiten duten bezala. Eta gainerako %75 ere neurri bateraino bakarrik ordaintzen du Bizkaiko Aldundiak, hortik gorakoa berriz ere udaletxeek finantziatu behar izaten dute. Muga egiten duen ratio hori Bizkaiko 64 urtetik gorako pertsona kopuruari EELZko aurrekontu osoa zatituz ateratzen da. EELZ unitate bakoitzeko 64 urtetik gorako pertsona kopurua aurreko ratio horrekin biderkatuz ateratzen da Aldundiak etxez etxeko zerbitzua zer diru kopurutaraino finantziatu behar duen. 1994an, Aldundiak finantziatu beharreko muga 65 urtetik gorako pertsonako 6.742 pezetan zegoen.

Gipuzkoako finantziario sistemaren eta Bizkaikoaren arteko diferentziarik deigarriena horretan dago, Bizkaikoak, Gipuzkoakoak egiten ez duena, beharren bolumena edo maila ere kontuan hartzen baitu, hau da, foru erakundeak finantziatu behar duena kalkulatzekoan 65 urtetik gorako kopurua ere kontuan hartzen baita, eta dependentzia maila ere bai horrekin. Bizkaiko formulak udaletxeei konpromezu handiagoa eskatzen die, bide batez, zeren zerbitzu-hartzaile bati ere ez baitio laguntza doan ematen, eta Gipuzkoan bai.

Parte hartzeko mailari dagokionez ere, tasa desberdinak ematen dituzte EELZ finantziatzeko hiru era horiek. Arabako Aldundiak EELZko gastuen %71,3 finantziatzen du, Gipuzkoakoak %58,6 eta Bizkaikoak %48,5. Hori 65 urtetik gorako biztanle bakoitzari legozkiokeen pezetetara bihurtuz gero, Arabako bakoitzari, urtean 16.580 pezeta tokatuko litzaizkioke, Gipuzkoako bakoitzari horren erdia eta Bizkaiko bakoitzari are gutxiago oraindik, 6.732 pezeta.

**51. KOADROA:**  
EELZ ZENBAT KOSTA IZATEN DEN ETA NOLA FINANTZIATZEN DEN

|          | EELZren<br>kost.<br>X 1.000 pta. | + 65 urte<br>bizt. | Erabil.<br>kopurua | Orduak/<br>urteko | +65<br>biztanleko<br>kost.<br>pta. | Erabil./<br>kost. pta | Ord./<br>kost. | Diput.<br>ematen<br>dutena<br>(X 1.000) |
|----------|----------------------------------|--------------------|--------------------|-------------------|------------------------------------|-----------------------|----------------|---|
| ARABA    | 717.626                          | 30.952             | 1.192              | 419.920           | 23.185,1                           | 602.035               | 1.709          | 511.529                                 |
| BIZKAIA  | 2.112.491                        | 152.082            | 4.557              | 1.187.498         | 13.890,5                           | 463.570               | 1779           | 1.023.876                               |
| GIPUZKOA | 1.198.165                        | 86.064             | 2.465              | 816.145           | 13.921,8                           | 486.071               | 1.297          | 701.716                                 |
| GUZTIRA  | 4.028.283                        | 269.098            | 8.214              | 2.423.563         | 14.969,6                           | 490.416               | 1.662          | 2.237.121                               |

|          | Udaletx.<br>ekarpena<br>(X 1.000) | Erabil.<br>ekarpena<br>(X 1.000) | +65 bizt.<br>erabil.<br>emat. | +65 bizt.<br>udal.<br>emat. | 0/00 udal<br>presup. | Orduko<br>erabil.<br>emat. |
|----------|-----------------------------------|----------------------------------|-------------------------------|-----------------------------|----------------------|----------------------------|
| ARABA    | 122.664                           | 83.433                           | 16.526,5                      | 3.963                       | 5,08                 | 198,7                      |
| BIZKAIA  | 922.684                           | 165.929                          | 6.732,4                       | 6.067                       | 8,7                  | 139,7                      |
| GIPUZKOA | 401.034                           | 95.415                           | 8.153,4                       | 4.660                       | 5,6                  | 116,9                      |
| GUZTIRA  | 1.446.382                         | 344.777                          | 8.313,4                       | 5.374,9                     | 7,19                 | 142,3                      |

**52. KOADROA:**  
EELZ-REN FINANTZIAZIOA (Portzentaiatan)

|          | Diput.<br>emat. % | Udal.<br>emat. % | Erabil.<br>emat. % | GUZTIRA |
|----------|-------------------|------------------|--------------------|---------|
| ARABA    | %71,3             | %17,1            | %11,6              | %100    |
| BIZKAIA  | %48,5             | %43,7            | %7,8               | %100    |
| GIPUZKOA | %58,6             | %33,5            | %7,9               | %100    |
| GUZTIRA  | %55,5             | %35,9            | %8,6               | %100    |

Bizkaiko foru erakundeak 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko ematen duen diruaren eta kostu osoari begira partida horrek duen garrantziaren artean korrelazio oso negatiboa dago, alegia, zenbat eta Aldundiak diru gehiago jarri orduan eta gehiago jarri behar dutela EELZn esku hartzen duten gainerako parteei, eta proportziorik gabe, gainera. Aldiz, badago erlazioa Aldundiak eta udaletxeek 65 urtetik gorako biztanle bakoitzeko ematen duten diru kopuruen artean, eta positiboa, gainera, puntu horretan.

53. KOADROA:  
ZER KORRELAZIO DAGOEN ZERBITZU-KOSTUAREN ETA ERAKUNDEEK NAHIZ  
ZERBITZU-HARTZAILEEK ORDAINTZEN DUTENAREN ARTEAN

|   | F.A.<br>%                             | F.A.<br>> 65          | UDAL.<br>> 65 | UDAL.<br>%            | UDAL.<br>% AURRE.     | ERABIL.<br>%          | ERABIL<br>ORDU        | ORDU/<br>KOST.        | ERABIL<br>KOST.       | BIZT.<br>GUZT.      | BIZT.<br>> 65       | KOBER.              | INTEN.              | NIVEL |
|---|---------------------------------------|-----------------------|---------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|---------------------|---------------------|---------------------|---------------------|-------|
| Diput. emat.<br>(Guztiaren %)             | Araba<br><b>Bizkaia</b>               |                       |               |                       |                       |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. |                       |               |                       |                       |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| Diput. emat ><br>65 pertsonako            | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | 0,53<br><b>-0,89</b>  |               |                       |                       |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | 0,31<br><b>-0,56</b>  |               |                       |                       |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| Udal. ematen<br>duena >65<br>pertsonako   | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | <b>-0,67</b>          | <b>0,36</b>   |                       |                       |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | -0,81<br><b>-0,83</b> | 0,68          |                       |                       |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| Udal. emat.<br>(Guztiaren %)              | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | <b>-0,99</b>          | <b>0,87</b>   | 0,99                  |                       |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | -0,91<br><b>-0,91</b> | -0,24<br>0,59 | 0,92<br>0,90          |                       |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| % EELZri udal.<br>aurrekontuet.           | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | <b>-0,48</b>          |               | 0,99                  | 0,99                  |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | -0,78<br><b>-0,79</b> | 0,45          | 0,91                  | 0,87<br>0,82          |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| Erabil. ematen<br>dutena<br>(Guztiaren %) | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | -0,97                 | -0,53         | <b>-0,45</b>          | <b>-0,33</b>          |                       |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. |                       | -0,45         | -0,29<br><b>-0,56</b> | -0,23<br><b>-0,64</b> | -0,24<br><b>-0,47</b> |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| Orduko erabil<br>ematen duena             | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | -0,94                 | -0,54         |                       |                       | 0,99                  |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | -0,36                 |               | <b>-0,41</b>          |                       | <b>0,82</b>           | 0,73<br>0,76          |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| Orduko kostua                             | Araba<br><b>Bizkaia</b>               |                       |               |                       |                       | <b>-0,41</b>          |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | -0,55<br><b>-0,42</b> | 0,30          | 0,64<br>0,61          | 0,64<br>0,56          | 0,64<br>0,63          | -0,25<br><b>-0,54</b> |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| Erabiltzailere<br>bakoitzeko<br>kostua    | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | 0,49                  | 0,63          | <b>0,40</b>           |                       |                       |                       | -0,48<br><b>-0,56</b> | -0,48<br><b>-0,32</b> | 0,56                |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | -0,44<br><b>-0,49</b> | 0,47          | 0,63<br>0,68          | 0,57<br>0,58          | 0,60<br>0,61          | -0,35<br><b>-0,47</b> | 0,83<br>0,85          |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| Biztanleria<br>guztira                    | Araba<br><b>Bizkaia</b>               |                       |               | 0,99                  | 0,99                  | 0,99                  |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. |                       |               |                       |                       | 0,20                  |                       |                       |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| > 65<br>Biztanleria                       | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | 0,34                  | 0,46          |                       |                       |                       |                       | -0,34<br><b>-0,38</b> |                       | 0,39                | 0,93<br><b>0,99</b> |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. |                       |               |                       |                       |                       |                       |                       |                       | 0,99<br>0,99        |                     |                     |                     |       |
| Hedaper.a                                 | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | <b>-0,69</b>          | 0,58<br>0,59  | <b>0,66</b>           | <b>0,67</b>           | <b>0,56</b>           |                       |                       | <b>-0,35</b>          |                     |                     |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | 0,22<br><b>-0,33</b>  | 0,77<br>0,37  |                       | -0,27                 |                       |                       | -0,28<br><b>-0,38</b> | -0,24<br><b>-0,42</b> |                     |                     |                     |                     |       |
| Intentsitatea                             | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | 0,49                  | 0,67          | <b>0,32</b>           |                       |                       |                       | -0,48<br><b>-0,33</b> | -0,48<br><b>-0,54</b> | 0,97<br><b>0,62</b> | 0,46                |                     |                     |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | 0,36                  |               |                       | -0,29                 |                       |                       | -0,39<br><b>-0,46</b> |                       |                     |                     |                     |                     |       |
| Maila                                     | Araba<br><b>Bizkaia</b>               | 0,46<br><b>-0,70</b>  | 0,99<br>0,54  | <b>0,83</b>           | <b>0,71</b>           | <b>0,64</b>           |                       | -0,47<br><b>-0,40</b> | -0,46<br><b>-0,23</b> | 0,62                | 0,45                | 0,65<br><b>0,80</b> | 0,67<br><b>0,50</b> |       |
|   | Guztira Gipuzkoa<br>Gipuzkoa >2000 h. | 0,30<br><b>-0,35</b>  | 0,74<br>0,45  |                       | -0,33                 | -0,22                 |                       | -0,37<br><b>-0,46</b> | -0,21                 | -0,21               |                     | 0,95<br>0,85        | 0,37<br>0,40        |       |

Datu horietan, beharrik, Aldundiak ezarritako finantziario politikaren ondorioak islatzen dira. Politika horri jarraituz, Aldundiak eta udaletxeek aurren erabakitako proportzio baten arabera parte hartzen dute EELZren finantziarioan, baina Aldundiak diru neurri jakin bateraino bakarrik hartzen du parte, eta hortik aurrerakoak udaletxeek ondu behar izaten dute.

Gipuzkoan 2.000 biztanletik gorako herriak ere sartuz gero, Aldundiak ordaintzen duenaren eta udaletxeek ordaintzen dutenaren arteko korrelazioa oso positiboa da, eta Bizkaian baino positiboagoa, gainera, Aldundiak ematen duen diruaren eta horrek EELZko gastuen finantziarioan hartzen duen portzentaiaren arteko erlazioa, aldiz, negatiboa, eta ez Bizkaian bezain negatiboa. Bi herrialde horiek dituzten finantziario sistemen arabera, zenbat eta Aldundiek gehiago eman are eta gehiago eman behar dutela udaletxeek, eta Aldundiek gehitzen dutenarekin proportziorik gabe, gainera.

Gipuzkoa osorik hartuz gero, ordea, goian esan den hori ez da horrela gertatzen, ez Gipuzkoan eta ez Araban, lehenengoaren kasuan, lurralde horretako udaletxeek 2.000 biztanletik beherako herriei finantziario molde oso eroso jarri dielako, eta bigarrenengoaren kasuan, berriz, etxez etxeko laguntza zerbitzuen gastua Foru Institutuak bere gain hartu duelako, Gasteizkoa eta Laudiokoa izan ezik.

Logikoa den bezala, Aldundiek ematen duten diruak eragin oso zuzena du output adierazleetan.

Arabako udaletxeek etxez etxeko laguntza zerbitzuko gastu osoen %17,1 finantziatzen dute, Gipuzkoakoek %33,5 eta Bizkaikoek %43,7. Arabako portzentaia ezin da dagoen berean hartu, zeren diren udaletxe guztietatik Gasteizkoak eta Laudiokoek bakarrik hartzen baitute EELZko gastuetan parte. Gasteizko Udaletxeak hiriburu horretan Foru Institutuak eta Udaletxeak berak eskaintzen duten zerbitzuko gastuen %26,5 ordaintzen du, Laudiokoak, aldiz, %2,7.

Udaletxeek beren aurrekontu osoetatik dutena portzentaiaetara bihurtuz gero: Arabakoek milako 5,1 ematen dute batez beste, Bizkaikoek milako 8,7 eta Gipuzkoakoek milako 5,6. Batez beste, aurrekontuen milako 7,19 eman-go lukete EAEko udaletxe guztiak.

Ematen duten diruari dagokionez, Aldundiek ematen dutenaren kontrara gertatzen da udaletxeek ematen dutenarekin; hauen aportazioak zerikusi estua eta positiboa du EELZ finantziatzeko ematen duten portzentaiarekin.

Zerbitzu-hartzaile bakoitzari ematen zaion laguntzaren kostua batez beste berdintsua da Gipuzkoan eta Bizkaian, milioi erdia baino gehixeago pertsonako eta urteko, hala ere, diru beragatik zerbitzu-hartzaileari laguntza handiagoa ematen zaio Gipuzkoan, lurralde honetan laguntzako ordua gutxiago kostatzen delako, hain zuzen. Gipuzkoan, orduko laguntza 1.297 pezeta kosta izaten da, EAEko gutxiena; Araban, berriz, 1.709 eta Bizkaian 1.779. Zerbitzu-hartzaileei dagokienez, kostu handienekoak Arabakoak dira, 602.035 pezeta.

Zerbitzu-hartzaileak gehien ordaindu behar izaten duen lurraldea ere Araba da: orduko ia 200 pezeta pagatzen dute, kostu osoaren %11,6. Bizkai-

ko zerbitzu-hartzaileek, berriz, orduko 140 pezeta ordaintzen dute, kostu osoaren %8, eta Gipuzkoakoek orduko 117, gastuen %8.

### 3.11.1. Udaletxe batzuen eta besteen arteko aldean azterketa

EELZko zerbitzuetan parte hartze kontuan, alde handi samarrak daude udaletxe batzuetatik besteetara, eta handiagoak Gipuzkoan Bizkaian baino. Gasteiz eta Laudio kenduz gero, Araban udaletxeek ez dute batere dirurik ematen EELZrako; lurralde horretako udaletxeek ematen duten portzentaia emateak ez luke, beraz, zentzurik.

#### GIPUZKOA<sup>2</sup>

Gipuzkoako udaletxeek, oro har, laguntza zerbitzuko gastuen %33,5 ordaintzen dute, baina diren guztietatik 33k -Arama, zerbitzurik izan ere ez duena alde batera utzita-, %40k alegia, ez du pezeta bat ere ordaintzen.

Horietako udalerrri asko biztanle gutxiak dira, eta Gipuzkoako Aldundiaren finantziario-sistema dela bide, pezetarik pagatu gabe ere eskaini lezake oso maila oneko zerbitzua. Udalerrri handixeagoen artean ere bada bat edo beste, Bergara eta Lasarte-Oria, esate baterako, askorik edo batere ordaintzen ez duena. Biztanle gutxiak udalerrria izatearen eta diru gutxi ematearen arteko korrelazioa txikia bada ere nahikoa adierazgarria da, eta, begiratu hutsera ikusten da udalerrri txiki askok oso portzentaia txikia ematen duela edo batere ez dutela ematen. Hortik dator udaletxeetako portzentaian batez besteko parte hartzea, %19,4, Gipuzkoako udaletxe guztiak batuta ateratzen dena (%33,47) baino dezente txikiagoa izatea. Izan ere, 2.000 biztanlez beheko udalerrriak alde batera utziz gero (Aldundiaren finantziatzeko erak datuak oker bailitzake), biztanle kopuruaren eta udaletxeek ematen duten portzentaia artean ez dago inolako korrelaziorik.

Bada, noski, ematen zaien guztia (1.600.000) gastatzeko joera duen udalerrri txikirik, horretarako ahalik zerbitzu-ordu gehiena eskainiz bada ere.

Eraskineko 3. taulan argi ikusten da 2.000 biztanlez beheko udalerrriak, 1994ko urtean Aldundiak bere gain hartu zuen 1.632.000 pezetako muga, noraino iritsi ziren, etxer etxeko zerbitzuko gastuetan.

Oso laguntza zerbitzu ona eskainiz, Aldundiak emandako diru kopuruaren muga-mugaraino iritsi ziren zenbait udaletxe, Abaltzisketak, Aizarnazabalek eta Amezketak, adibidez. Askok dira, hala ere, Aldundiak ematen ziren hori gastatu ez zutenak: Arama, Berastegi, Errezil, Irura, besteak beste. Horrek esan nahi du herri horietan oso zerbitzu kobertura txikia dutela edo laguntza beharreko gutxi dagoela.

<sup>2</sup> Ikus Eraskineko 13. Taula.

Badira oraindik beste udaletxe batzuk, Aldundiak ematen dien guztia ez gastatu arren eta beren aldetik ezer jarri behar ez izan arren, zerbitzu-hartzailearentzat udaletxeko kutxatik jarri behar izaten dutenak baino gehiago ordainarazten dietenak. Albizturkoak, adibidez, Aldundiari 700.000 pezetako gastua justifikatu arren, kostuen %10,68 eskatu ohi die zerbitzu-hartzaileei. Berastegikoak, Bidegoangoak eta Gabiriakoak, aldiz, kostuen %16a baino gehiago ordainarazten diete eta Elduaingoak are gehiago, %32raino. Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoak dira denak ere, baina ordu kostua ere horietan oro har txikia denez, ordaindu behar izaten dutena ere ia-ia sinbolikoa da.

Eta badira udaletxeak Aldundiak ordaindu ohi duenaren herena ere gatzatzen ez dutenak, Errezil eta Irura, esate baterako, baina zerbitzu-hartzaileari eskatu ere, oso gutxi eskatzen diete horiek. Eskaintzen duten zerbitzua ere ez da Gipuzkoako batez bestekoa bezain ona.

Nolanahi ere, Zegama da kasurik deigarrienetako bat, zeren, 65 urtez gorako 244 pertsona direlarik ere, ez baitu etxez etxeko laguntzatan 54.22 ordu baino gehiago eskaintzen, eta jasotzen duen guztia ezin du justifikatu, milioia bihurtzen baitio Aldundiari. Kontrako muturrean Oresako Udaletxea dago. 65 urtez gorako 12 pertsona baino izan ez arren, astean 1.434 orduko laguntza eskaintzen baitu, baina Aldundiak ematen dion diruaren %96,4 gatzatzen.

Beste udaletxe batzuek, aldiz, ahalegin handia egiten dute etxez etxeko zerbitzuaren gastuak beraiek pagatzen. Aia, Alegia, Azpeitia, Asteasu, Getaria, Legorreta, Oiartzun, Pasaia, Zaldibia, Zestoa, Zizurkil eta Zumarragako udaletxeek, esate baterako, gastuen %40 baino gehiago ordaintzen dute.

Guztiz ere, udaletxe horiek Gipuzkoako guztien batez bestekoa baino gutxiago ordaintzen dute. Horrek esan nahi du, ahaleginak ahalegin, Aldundiaren laguntza-sistema dela bide, ezin direla biztanle gutxiko udalerrien mailara iritsi.

Dena den, eta badago hau zertan azpimarratu, Gipuzkoako udaletxeen diru-aportazioa oso lotua dago zerbitzua orduko kostatzen denarekin. Izan ere, Gipuzkoako udaletxeek EELZk finantziazteko egiten duten ahaleginak ez du hemen aztertzen ari garen laguntza parametroekin, hau da, koberturarekin, intentsitatearen eta mailarekin zerikusirik, neurri gisa horiek 65 urtez gorako pertsonako ordaintzen dutena hartzen bada behintzat. Argiago esateko, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantziazteko ahalegin handiagoa egiteak ez duela, berez, zerbitzu hobea eskaintzen denik esan nahi.

Izatez, udaletxe batek ordaindu behar duena zerbitzuaren kostuak erabakitzen du. Eta EELZ finantziazteko urteko aurrekontuetatik portzentaia handiagoa emateak, eta horrekin kobertura eta intentsitate maila hobea lortu nahi izateak ez du zentzurik, alde batetik, gehienetan nahi den hori lortzen ez delako, eta bestalde gehiago eman beharra kostuen arabera dagoelako.

Udaletxeek etxez etxeko laguntza zerbitzua finantziazteko ematen dutenaren, hau da, urteko aurrekontuetatik EELZrako ematen duten portzentaiaren eta orduko/kostu aldagaiaren artean diren korrelazioen indizeak handiak dira, eta erlazio estukoak. Gipuzkoako udaletxeek, bada, eta Bizkaikoen kontrara,

zenbat eta zerbitzua garestiago are eta gehiago ordaintzen dute, eta zenbat eta gehiago eman -zenbat eta zerbitzua garestiago, alegia- orduan eta laguntza parametro eskasagoak ordaintzen dituzte.

Nolanahi ere, zerbitzuaren kostua dela-eta, udaletxe batzuk lan handiak izaten dituzte behar bezain laguntza ona eskaintzen, eta Azpeitia da horretan adibiderik argiena. Azpeitiko Udaletxeak zerbitzuen kostu osoaren %66,27 finantziatzen eta urteko aurrekontuen %3 ematen du horretarako -gainerakoek ematen dutenaren batez bestekoa milako 4,3 da-, eta guztiaz ere, herri horretako maila edo laguntzako ordu kopurua 117,77koa da, lurralde bereko batez bestekoa baino askoz txikiagoa<sup>3</sup>.

Baina alderantzizko egoera ere egia da. Laguntza maila batzuen pobrezia, udal batzuek finantzaketarik ez ematea bezala gerta daitezkeenak dira, besteak beste zerbitzua emategatik ordua gutxi kostatzen delako, eta beste kasu batzuetan, itxuraz uler ez badaiteke ere, langileei ordaintzen zaiena gutxi, injustua delako<sup>4</sup>.

Eta badira oraindik beste herri batzuk, Aldundiaren partida teorikoaren erdia ere gastatzen ez dutenak eta zerbitzu orduen kostua ere 500 pezetaz azpikoa dutenak, Bidegoianek esate baterako, eta beste batzuk, gastu publikoa mugatu nahiz, zerbitzu-hartzaileei gastuetan parte hartzea esijitzen diena, Eldauainek, Hernialdek eta Alkizak, adibidez.

Horago esan bezala, EELZko laguntzaileekin lan-arazorik ez izatearren horiek zerbitzu-hartzailearen bitartez ordaintzen dituen udaletxe dezente dago; Gipuzkoako 33 udalerritan egiten da horrela, 2.000 biztanlez azpikoetan, batez ere, baina ez horietan bakarrik.

Aian, Azpeitian, Deban eta Hernanin, Lezon, Oiartzunen eta Errenterian, Usurbilen, Zaldibian eta Zumaian, orduko 2.000 pezeta baino gehiago kosta izaten da EELZko zerbitzua. Azpeitian izan ezik, aipatu diren herri guztietan, Udaletxeak berak kontratatzen ditu EELZko langileak.

Donostian, 1.428 pezeta kosta izaten da ordubeteko laguntza; Udaletxeak EELZko gastuen %34,19 ordaintzen du, eta zerbitzu-hartzaileek %8,24.

Hogei bat udaletxe dira Gipuzkoan zerbitzu-hartzaileari pezeta bat pagatuarazten ez diotenak; hauek dira: Abaltzisketa, Aduna eta Alegia, Alzaga, Andoain eta Asteasu, Baliarrain, Ezkio-Itsaso eta Gaintza, Hernani, Mutiloa, Oiartzun eta Olaberri, Errenteria, Segura, Zegama eta Zestoa.

Orduko laguntzagatik 200 pezeta baino gehiago, Arabako batez bestekoa baino gehiago, alegia, 8 udaletxetako zerbitzu-hartzaileek ordaintzen dute Gipuzkoan: Beizamakoek, 208 pezeta; Elgetakoek, 262 pezeta; Ibarraoek, 245 pezeta; Tolosakoek, 221 pezeta; Usurbilgoek, 275 eta Zarauzkoek, 413 pezeta; Gipuzkoako gehiena azkeneko horiek ordaintzen dute<sup>5</sup>.

<sup>3</sup> Ikus Eraskineko 3. Taula.

<sup>4</sup> Ezin da justifikatu familiari zuzenean ematen zaion arren.

<sup>5</sup> Inkesta egitean ikusi ahal izanenez, Gipuzkoan eta Bizkaian, herrialde horietako aldundien datuetan agertzen dena baino %30 eta %40 gehiago ordaintzen dute zerbitzu-hartzaileek. Dena den, diferentzia horiek ez dute egin den azterketa ekonomikoan funtsezko eraginik.



Ez da orduko/kostuaren, edo plazako/kostuaren, eta zerbitzu-hartzaileak orduko pagatzen duenaren artean erlaziorik. Bestalde, zenbat eta zerbitzua gehiago kosta izan orduko, orduan eta parte txikiagoa du zerbitzu-hartzaileak ematen duenak EELZko finantziazioan. Zerbitzuaren ordainketa ez dago, beraz, kostuen araberrako irizpideetan oinarritua. Zerbitzu-hartzaileek ordaintzen dutenen eta 2.000 biztanletik gorako herrietako udaletxeek ordaintzen dutenen artean bai, bada erlazioa, eta negatiboa.

EELZko gastuen finantziatio kontuari dagokionez, Gipuzkoako 15.000 biztanletik gorako herrietako udaletxeak hiru taldetan bana daitezke. Lehenengo taldean, herrialde bereko portzentaia baino gehiago ematen dutenak sartuko lirakeke, Andoaingoa (%36,4), Arrasatekoa (%35,8), Donostiakoa (%34,2), Eibarkoa (%36,9), Hernanikoa (%37,4) eta Tolosakoa (%39,67); bigarren taldean, Gipuzkoako batez bestekora iristen ez direnak, Errenteriakoa (%29,7) eta Zarauzkoa (%28,4), eta hirugarrenean, batere ematen ez dutenak, eta Irungoa, azkeneko honek ez baitu %6,52 besterik ematen.

Eta Gipuzkoakoarekin bukatzeko, esan dezagun EELZko gastuak berdintzeko urteko aurrekontuetatik portzentaia handiena ematen duten udaletxeak Legazpikoa (%12,4), Zaldibiakoa (%21,3), Alegiakoa (%12,1), Legorretakoa (%14,5), Aiakoa (%23,9), Azkoitikoa (%12,0), Azpeitikoa (%29,9), -erlatiboki gehien ematen duena eta Zestoakoa (%11,1) dira. Udalerri horietan orduko zerbitzua kosta dena eta eskaintzen den maila ikusita, argi geratzen da gorago esan dena: udalerri horietako batzuetan, Alegian eta Azkoitia, esate baterako, egiten den gastuak badu zerbitzuaren mailan ere eragina, beste batzuetan, berriz, Zaldibian, Aian eta Azpeitian, adibidez, zerbitzua garesti ateratzetik dator horrenbesteko portzentaia eman beharra.

## *BIZKAIA*<sup>6</sup>

Bizkaiko udaletxeek Gipuzkoakoek baino diru gehiago ematen dute, eta herrialde horretakoen artean ez dago gainera, batzuek ematen dutenetik besteek ematen dutenera Gipuzkoakoetan adinako diferentziarik; Gipuzkoakoen artean adinako alderik ez egotearen arrazoia, neurri batean behintzat, herrialde horretako udaletxeek elkarrekin bilduta jardutean dago, eta guk, hala harturik aztertu ditugu.

Urteko aurrekontuen arabera dirurik gehiena ematen duten udaletxeak Markina-Ondarroako eskualdekoak (%60,42) eta Bilbao Handikoak (%45,81) dira. Azkeneko talde horretan badira unitate batzuk besteek baino gehiago ordaintzen dutenak, Abanto-Zierbanakoak eta Alonsotegik, esate baterako, %60 baino gehiago ordaintzen dute; eta Sestaokoak are gehiago oraindik, %73,77ra iristen baita -Bizkaian gehien ematen duena; horien on-doan, Txorierriko Mankomunitatea, %20 baino zerbait gehiago ematen duena, eta Muskiz, %23,29 ematen duena daude.

<sup>6</sup> Ikus Eraskineko 11. Koadroa.

Udaletxeen parte hartzea txikiagoa da Durangoaldeko eskualdean (%20,04), Arratia-Nerbioi eskualdean (%15,47) eta Gernika-Bermeon (%29,18). Ajangizko Udaletxeak<sup>7</sup> zerbitzu-hartzailerik ez du, eta etxez etxeko zerbitzu gasturik ere ez, beraz. Bermeok, berriz, zerbitzuko kostuen %1,22 bakarrik ordaintzen du, eta udaletxeek ordaindu beharko luketen %25era ez da iristen.

Ez dute eskualdeetako unitate guztiek urteko aurrekontuen portzentaia bera ematen EELZko gastuetarako, hala ere, txikiagoak dira Bizkaiko unitateen artean dauden diferentziak Gipuzkoako udaletxeen artean daudenak baino.

Urteko aurrekontuetatik ematen dutenari dagokionez, deigarria da Markina-Ondarroako eskualdeko unitateek ematen dutena, zeren batez beste milako 24,5a ematera iristen baitira; Durangoaldeko, Plentzia-Mungiako eta Gernika-Bermeoko eskualdekoek, berriz, hurrenez hurren milako 2,6, milako 2,5 eta milako 5,1 baino ez dute ematen.

Urteko aurrekontuen portzentaiari dagokionez, Bizkaiko batez bestekoa-  
ren herenik ere ez dute ematen jarraian datozen udaletxe hauek: Ermukoak milako 1,1 ematen baitu, Txorierrikoak 2,3, Durangoko Mankomunitatekoek 2,6, Bermeokoak 0,2 eta Uribeoak 2,2.

Aipagarria da, bestalde, eta Gipuzkoan gertatzen ez dena, output adierazleek eta udaletxeek ematen dutenak badutela elkarrekin erlazioa, eta oso sendoa, gainera, mailari dagokionez; txikiagoa baina dezente, koberturari dagokionez.

Halaber, Gipuzkoan bestaldera gertatzen dena hau ere, udaletxeek 65 urtez gorako biztanle bakoitzeko ematen dutenak eta horiek EELZ finantziatzeko ematen dutenak ez dute zerbitzuaren orduko/kostuarekin erlaziorik. Bizkaian behintzat, udaletxeek etxez etxeko laguntza zerbitzua finantziatzeko ematen dutenak erlazio handiagoa du eskaintzen duten zerbitzuaren “kantitatearekin”, eta EELZrako eman behar dutena ez dago, Gipuzkoan bezala, zerbitzuaren orduko/kostuari lotua.

Orain arte esandakoa osatzeko erantsi behar dugu, bestalde, zerbitzuaren orduko/kostua ia %40 merkeagoa dela Bizkaian Gipuzkoan baino, beraz, horien artean korrelaziorik izatea, eta zerbitzu hartzaileari kostatzen zaionaren aldakortasuna askoz handiagoa da Gipuzkoan Bizkaian baino.

Bizkaian ez dago (Gipuzkoan bai) orduko/kostuan mila pezetaz beherako preziorik, eta dagoen apalena 1.008 pezetakoa da, Ereñokoa; garaiena, berriz, 2.562koa, Bermeokoa. Bermeoko etxez etxeko laguntza zerbitzuak oso laguntza ordu gutxi (52,43) eskaintzen du, bestalde, eta EELZko finantzazioan ere oso maila apalean hartzen du parte. Baina, lehen aipatu den bezala, zerbitzua orduko kostatzen denak eta eskaintzen zerbitzu parametroek, hau da, koberturak, mailak eta intentsitateak ez dute elkarrekin erlaziorik, aldiz bai, aldagai horiek eta udaletxeek EELZ finantziatzeko ematen dutenak.

<sup>7</sup> 1994an lortu zuen udaletxe izatea.

Herriaren edo unitatearen biztanle kopuruak ere ez du lehenxeago aipatu diren parametro horiekin zerikusirik, ezta zerbitzua orduko kostatzen denarekin ere.

Zerbitzu-hartzaileek ordaindu behar izaten dutenaren portzentaletan ere gorabehera txikiagoak dira Bizkaian Gipuzkoan baino. Dena den, herri batzuetan ordaindu behar izaten dutenetik besteetara nahiko alde handiak daude, hala ere. Nabarnizkoek %18,05 ordaindu behar izaten dute, esate baterako; horiek ordaintzen dute Bizkaiko gehiena; Trapagarangoek, berriz, %4,11, Bizkaiko gutxiena. Nabarnizkoek baino gutxixeago, baina horiek adinatsu ordaintzen dute Arratiako eta Durangoko mankomunitateetakoek eta Ea eta Berangoko udalerrietako zerbitzu-hartzaileek ere.

Zerbitzu-hartzaileek EELZko zerbitzuagatik ordaintzen dutena orduko/pezeta neurrira bihurtu behar izatera, Bizkaian, oro har, orduko 140 pezeta ordaindu beharko lukete. Arratia-Nerbioi eskualdean orduko 255,6 pezeta ordaintzen dute, oro har, Bilbao Handian 129,8 pezeta, Durangoaldean 186,7, Enkartzazioetan 167,3, Gernika-Bermeo eskualdean 166,8, Markina-Ondarroan 172,4 eta Plentzia-Mungian 159,9.

Zerbitzu-hartzaileek ordaintzen dutenaren eta udaletxeek ordaintzen dutenaren artean dagoen korrelazioa negatiboa da, txikia, baina somatzeko adina; gauza bera gertatzen da -Gipuzkoan ez baina- intentsitatearekin eta mailarekin ere. Zerbitzuaren kostuaren eta zerbitzu-hartzaileak ordaintzen duenaren artean, ordea, -hau Gipuzkoan ere horrela gertatzen da- ez da inolako erlaziorik.

Ekonomia aldagai nagusien azterketak erakusten duenez Bizkaiko EELZen egoera ekonomikoa Gipuzkoakoena baino homogeneoagoa da, eta parametroetan ere ez dago Gipuzkoakoetan adinako gorabeherarik, Bizkaiko unitateak Gipuzkoakoek baino hedadura handiagoa dutelako, beharbada. Interes berezia duen auzia denez esan, bide batez, Gipuzkoako kasuan orduko/kostua aldagaiak eragin erabakiorra duela -Bizkaikoan gertatzen ez dena- udaletxeek EELZko gastuak finantziatzeko ordaindu behar izaten duen diru kopuruan, eta kontrara, Bizkaiko udaletxeek eman behar izaten dutenak erlazio handia du koberturarekin eta txikiagoa baina oso estua intentsitatearekin.

## ARABA<sup>s</sup>

Arabako udaletxeen azterketa egiteak ez du interes handirik, zeren etxez etxeko laguntza zerbitzuko lanik handiena Foru Institutuaren eskuetan baitago lurralde horretan.

Kontuan izan behar da, hala ere, Gasteizko udaletxeak bere gain hartzen duela zerbitzu-hartzaileen %45,7; ezintasun handiena dutenak Foru Institutuak beregain hartzen ditu, hala ere, eta baita udaletxe horretako EELZko kostu osoen %26,5 ere. Gasteizko udaletxeak urteko aurrekontuen milako 5,59

<sup>s</sup> Ikus Eraskineko 12. Koadroa.

ematen du EELZ finantziatzeko; Bilbokoak (milako 9) baino bastante gutxiago, beraz, eta Donostiakoak (4,2) baino gehiago.

Laudioko udaletxea lau zerbitzu-hartzailez arduratzen da. 14 orduko laguntza eskaintzen du astean. Udaletxe horrek eskaintzen duen laguntza maila, guztira 470ekoa da, eta urteko aurrekontuetatik EELZ finantziatzeko milako 0,78 ematen du.

Orduen kostua Araba guztian bakarra da, 1.709 pezeta, eta komenioz erabakia bera. Aldiz, ez dute zerbitzu-hartzaile guztiek diru kopuru bera ordaintzen; batzuek eta besteek ordaintzen dutenaren artean ez dago, guztiaz ere, Gipuzkoakoen artean adinako diferentziarik, baina, aldi berean, Bizkaiakoen artean baino handixeago. Arabako zerbitzu-hartzaileen batez bestekoa baino hiru aldiz gehiago, hots, 600 pezetatik gora ordaintzen dute Aramiñongoek (624), Erribera Beitiakoek (605), -Erribera Goitian 200 pezetarik ere ez dute ordaintzen- Donemiliagakoek (607), Zalduondokoek (679), Lantziegokok (1.025) eta Moretakok (1.680); azkeneko horiek ordaintzen dute EAE mailan gehiena.

Zerbitzu-hartzaileak orduko ordaintzen duenak ez du laguntza horren orduko kostuarekin erlaziorik, baina bai, eta negatiboa, gainera, zerbitzu-hartzaile bakoitza kostatzen denarekin. Gipuzkoan eta Bizkaian bezala Araban ere, zerbitzu-hartzaileak orduko ordaintzen duenaren eta zerbitzuaren intentsitatearen eta mailaren artean dagoen erlazioa negatiboa da.

Arabako Foru Institutuak Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundiek baino modu homogeneousagoan parte hartzen du EELZ finantziatzeko orduan, Gipuzkoakoak baino, batez ere. Dena den, Araban ere badira udaletxe batzuetatik besteetara aldeak. Eskualdeka hartuz gero, batez besteko diru kopururik handiena Arabako Kantabriakoek jasotzen dute, 65 urtez gorako biztanle bakoitzeko 31.260 pezeta. Artziniegakoak (eskualde berean), zerbitzuan ia %7ko hedapena duenak, aipatu den kopuru horren doblea jasotzen du, 66.553. Gutxienean Arabako Haranekoek jasotzen dute, 11.310 pezeta; gainerakoek, gutxienetik gehienara, kopuru hauek kobratzen dituzte: Arabako Lautadakoek 14.183, Gorbealdekoek 14.863, Arabako Errioxakoek 19.011 eta Arabako Mendialdekoek 20.773.

Foru Institutuak ematen duen diruak ez du zerbitzuaren ordu/kostuarekin erlaziorik, baina bai zerbitzu-hartzailearen kostuarekin -seguru asko, Gasteizko kasurik larrienak eta garestienak ere Erakunde horren gain doazelako gertatzen da hori horrela-, eta baita herriko 65 urtez gorako biztanle kopuruarekin ere; Gipuzkoan eta Bizkaian aldundiek ematen dutenak ez du erlaziorik 65 urtez gorako biztanle kopuruarekin. Seguru asko, biztanleria ere, Gasteizko udaletxean, oro har, gainerakoetan baino gazteagoa delako gertatzen da hori.

Guzti horren ondorioz, Foru Institutuak ematen duen diruak eta dagoen kobeturak badute erlazioa elkarrekin, eta nahikoa handia, gainera; baina ematen duen diruak are erlazio handiagoa du oraindik intentsitatearekin; eta, batez ere, erlazio estua du mailarekin.

### 3.11.2. Zerbitzu-hartzaileek ematen duten diru kopuruaren azterketa, egindako inkestaren arabera

Gorago esan den bezala, zerbitzu-hartzaileek Gipuzkoan eta Bizkaian baino diru gehixeago ematen dute Araban. Eta ikusi dugu, halaber, aportazio kontuan udaletxe batzuetatik besteetara nolako aldeak dauden.

Egindako inkestaren bitartez ikusi ahal izan den bezala, EAE mailan, zerbitzu-hartzaileen %90ak ordaintzen du eskaintzen zaion zerbitzuagatik zerbait. Araban, zerbitzu-hartzaile guztiek ordaintzen dute; Bizkaian ere ia denek; Gipuzkoan, berriz, %66,3k.

#### 54. KOADROA ERABILTZAILEEK EMATEN DUTEN DIRUTZA

|               | Araba<br>% | Bizkaia<br>% | Gipuzkoa<br>% |
|---------------|------------|--------------|---------------|
| Orduko 6 pta. |            |              |               |
| 0 - 250       | 72,3       | 72,0         | 64,1          |
| 251 - 500     | 20,8       | 22,2         | 22,3          |
| 501 - 750     | 5,0        | 4,9          | 7,8           |
| 751 - 1000    | 2,0        | 0,4          | 4,9           |
| 1001 - 1250   |            | 0,4          | 1,0           |
| Guztira       | 100,0      | 100,0        | 100,0         |
| Zki. absol.   | 101        | 233          | 170           |

|               | Batez beste |         |          |         |
|---------------|-------------|---------|----------|---------|
|               | Araba       | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira |
| Orduko / pta. | 212,53      | 207,26  | 256,38   | 220,29  |

Gipuzkoan laguntza eskaintzeagatik ezer kobratzen ez duten udalteltxeen kopurua ikusita, badirudi ordaintzen ez dutenen portzentaiak handiagoa izan beharko lukeela, baina garbi dago, orohar zerbitzuagatik kobratzen ez dutenak herri txikietakoa udaletxeak direla.

Eskaintakoa laguntzagatik ordaindu ere, beste bi lurraldeetako zerbitzu-hartzaileek baino gehiago ordaintzen dute Gipuzkoakoek: orduko 256,38 pezeta, batez beste; 155 pezeta, ordaintzen ez dutenak ere sartuz gero; Arabakoek 212,53 eta Bizkaikoek 207,26.



**ERASKINA**

# 1. TAULA: ARABA

| Udalerririk eta eskualdeak | Biztan. 1991ko errolda | >65 urtekoak 1991ean | Onuradun | Urteko zerbitzu orduak | Kostua/ordua | Zerbitzuaren kostu orokorra | Kostua laguntza-hartzaile. | Laguntza-hartzaileen ordain. | Laguntza-hartzaile. ordain. % | Ordain. era./ordua |
|----------------------------|------------------------|----------------------|----------|------------------------|--------------|-----------------------------|----------------------------|------------------------------|-------------------------------|--------------------|
| ARABAKO ARANAK             | 3.873                  | 867                  | 21       | 6.999                  |              | 11.959.331                  | 569.492                    | 2.152.917                    | %18,00                        | 307                |
| Aramiñon                   | 126                    | 26                   | 1        | 12                     | 1.709        | 20.505                      | 20.505                     | 7.488                        | %36,52                        | 624                |
| Beranturi                  | 422                    | 80                   | 3        | 520                    | 1.709        | 888.534                     | 296.178                    | 117.784                      | %13,26                        | 226                |
| Koartango                  | 350                    | 76                   | 1        | 161                    | 1.709        | 275.104                     | 275.104                    | 97.508                       | %35,44                        | 605                |
| Lantaron                   | 804                    | 140                  | 4        | 1.661                  | 1.709        | 2.838.184                   | 709.564                    | 302.040                      | %10,64                        | 181                |
| Erribera Goitia            | 499                    | 111                  | 1        | 910                    | 1.709        | 1.554.935                   | 1.554.935                  | 169.896                      | %10,93                        | 186                |
| Erribera Beitia            | 367                    | 72                   | 3        | 806                    | 1.709        | 1.377.228                   | 459.076                    | 487.632                      | %35,41                        | 605                |
| Añana-Gesaltza             | 188                    | 54                   | 2        | 572                    | 1.709        | 977.388                     | 488.694                    | 46.526                       | %4,76                         | 81                 |
| Gaubea                     | 789                    | 231                  | 5        | 2.028                  | 1.709        | 3.465.284                   | 693.057                    | 754.865                      | %21,78                        | 372                |
| Zanbrana                   | 328                    | 77                   | 1        | 329                    | 1.709        | 562.169                     | 562.169                    | 169.178                      | %30,09                        | 514                |
| ARABAKO LAUTADA            | 216.023                | 22.948               | 933      | 291.679                |              | 498.497.836                 | 534.296                    | 52.347.394                   | %10,50                        | 179                |
| Alegria-Dulantzi           | 966                    | 128                  | 5        | 4.498                  | 1.709        | 7.685.823                   | 1.537.165                  | 634.132                      | %8,25                         | 140                |
| Arratzua-Ubarrundia        | 653                    | 112                  | 1        | 312                    | 1.709        | 533.121                     | 533.121                    | 183.216                      | %34,37                        | 587                |
| Asparrena                  | 1.477                  | 296                  | 17       | 7.020                  | 1.709        | 11.995.214                  | 705.601                    | 2.402.579                    | %20,03                        | 342                |
| Barrundia                  | 573                    | 110                  | 4        | 1.040                  | 1.709        | 1.777.069                   | 444.267                    | 359.990                      | %20,26                        | 346                |
| Burgelu                    | 202                    | 38                   | 0        | 0                      | 0            | 0                           | 0                          | 0                            | %0,00                         | 0                  |
| Oca-Iruña                  | 1.538                  | 180                  | 7        | 3.809                  | 1.709        | 6.508.514                   | 929.788                    | 584.330                      | %8,98                         | 153                |
| Iruraitz Gauna             | 425                    | 63                   | 2        | 520                    | 1.709        | 888.534                     | 444.267                    | 260.404                      | %29,31                        | 500                |
| Agurain                    | 3.649                  | 453                  | 13       | 7.476                  | 1.709        | 12.774.391                  | 982.645                    | 1.588.816                    | %12,44                        | 212                |
| Donemiliaga                | 671                    | 127                  | 1        | 201                    | 1.709        | 343.543                     | 343.453                    | 122.064                      | %35,54                        | 607                |
| Gasteiz                    | 205.749                | 21.421               | 403      | 189.247                | 1.709        | 323.370.134                 | 802.407                    | 34.515.193                   | %10,67                        | 182                |
| Gasteizko Udala            | 205.749                | 21.421               | 478      | 77.296                 | 1.710        | 132.177.316                 | 276.522                    | 11.520.000                   | %8,72                         | 149                |
| Gasteiz Guztira            | 205.749                | 21.421               | 881      | 266.543                | 1.709        | 455.547.450                 | 517.080                    | 46.035.193                   | %10,11                        | 172                |
| Zalduondo                  | 120                    | 20                   | 2        | 260                    | 1.709        | 444.267                     | 222.134                    | 176.670                      | %39,77                        | 679                |
| ARABAKO MENDIALDEA         | 3.199                  | 808                  | 20       | 11.693                 |              | 19.980.064                  | 999.003                    | 3.195.034                    | %15,99                        | 273                |
| Arraia-Maeztu              | 696                    | 188                  | 3        | 1.950                  | 1.709        | 3.332.004                   | 1.110.668                  | 279.273                      | %8,38                         | 143                |
| Bernedo                    | 555                    | 125                  | 4        | 1.369                  | 1.709        | 2.339.238                   | 584.810                    | 755.529                      | %32,30                        | 551                |
| Kanpezu                    | 1.144                  | 266                  | 10       | 7.162                  | 1.709        | 12.237.853                  | 1.223.785                  | 1.602.818                    | %13,10                        | 223                |



| A.F.A.aren laguntza | A.F.A.aren laguntza % | Aldun. laguntza/>65 urte | Udalen laguntza | Udalen laguntza % | Udalaren aurrekont. | 0/00 laguntza EELZri emanal. | Udal. lagun. >65 | Hedap. | Intents. | Maila  |
|---------------------|-----------------------|--------------------------|-----------------|-------------------|---------------------|------------------------------|------------------|--------|----------|--------|
| 9.806.414           | %82,00                | 11.310                   | 0               | %0,00             | 549.193.000         | 0,00                         | 0                | 2,42   | 6,41     | 155,24 |
| bai   | 1                   | %0,6       | 11            | %2,2       |
| ez  | 169                 | %99,4      | 493           | %97,8      |
| <b>Jan /<br/>Laguntza behar du</b>                                    |                     |            |               |            |
| bai   |                     |            | 2             | %0,4       |
| ez  | 170                 | %100,0     | 502           | %99,6      |
| <b>Mugikortasuna /<br/>Laguntza behar du</b>                          |                     |            |               |            |
| bai   | 2                   | %1,2       | 11            | %2,2       |
| ez  | 168                 | %98,8      | 493           | %97,8      |
| <b>Kontinentzia /<br/>Laguntza behar du</b>                           |                     |            |               |            |
| bai   | 1                   | %0,6       | 1             | %0,2       |
| ez  | 169                 | %99,4      | 503           | %99,8      |
| <b>Laguntza beharko luke<br/>oinarrizko ekintzetatik<br/>baterako</b> |                     |            |               |            |
| bai   | 4                   | %2,4       | 19            | %3,8       |
| ez  | 166                 | %97,6      | 485           | %96,2      |
| Taula guztira   | 170                 | %100,0     | 504           | %100,0     |

11. TAULA:  
EKINTZA INSTRUMENTALETARAKO EMANDAKO LAGUNTZA

|   | Lurralde historikoa |            |         |            |
|---|---------------------|------------|---------|------------|
|   | Araba               |            | Bizkaia |            |
|   | Frek.               | zut. % koa | Frek.   | zut. % koa |
| <b>Janaria prestatu /<br/>Laguntza behar du</b> |                     |            |         |            |
| EELZ eta laguntzailea                           | 5                   | %7,8       | 17      | %27,0      |
| EELZ bakarrik                                   | 7                   | %10,9      | 17      | %27,0      |
| Laguntzailea bakarrik                           | 50                  | %78,1      | 27      | %42,9      |
| Ez EELZ ez laguntzailea                         | 2                   | %3,1       | 2       | %3,2       |
| <b>Etxeko lanak /<br/>Laguntza behar du</b>     |                     |            |         |            |
| EELZ eta laguntzailea                           | 23                  | %28,8      | 36      | %26,9      |
| EELZ bakarrik                                   | 23                  | %28,8      | 95      | %70,9      |
| Laguntzailea bakarrik                           | 34                  | %42,5      | 2       | %1,5       |
| Ez EELZ ez laguntzailea                         |                     |            | 1       | %0,7       |
| <b>Erosketak /<br/>Laguntza behar du</b>        |                     |            |         |            |
| EELZ eta laguntzailea                           | 9                   | %11,3      | 12      | %10,3      |
| EELZ bakarrik                                   | 11                  | %13,8      | 34      | %29,3      |
| Laguntzailea bakarrik                           | 59                  | %73,8      | 60      | %51,7      |
| Ez EELZ ez laguntzailea                         | 1                   | %1,3       | 10      | %8,6       |
| <b>Dirua adminis. /<br/>Laguntza behar du</b>   |                     |            |         |            |
| EELZ eta laguntzailea                           | 1                   | %2,2       |         |            |
| EELZ bakarrik                                   | 2                   | %4,4       | 6       | %12,0      |
| Laguntzailea bakarrik                           | 39                  | %86,7      | 40      | %80,0      |
| Ez EELZ ez laguntzailea                         | 3                   | %6,7       | 4       | %8,0       |
| Taula guztira                                   | 101                 | %100,0     | 233     | %100,0     |

11. TAULA:  
EKINTZA INSTRUMENTALETARAKO EMANDAKO LAGUNTZA

|   | Lurralde historikoa |            | Taula guztira |            |
|---|---------------------|------------|---------------|------------|
|   | Gipuzkoa            |            | Frek.         | zut. % koa |
|   | Frek.               | zut. % koa |               |            |
| <b>Janaria prestatu /<br/>Laguntza behar du</b> |                     |            |               |            |
| EELZ eta laguntzailea                           | 15                  | %23,8      | 37            | %19,5      |
| EELZ bakarrik                                   | 15                  | %23,8      | 39            | %20,5      |
| Laguntzailea bakarrik                           | 31                  | %49,2      | 108           | %56,8      |
| Ez EELZ ez laguntzailea                         | 2                   | %3,2       | 6             | %3,2       |
| <b>Etxeko lanak /<br/>Laguntza behar du</b>     |                     |            |               |            |
| EELZ eta laguntzailea                           | 50                  | %39,4      | 109           | %32,0      |
| EELZ bakarrik                                   | 67                  | %52,8      | 185           | %54,3      |
| Laguntzailea bakarrik                           | 8                   | %6,3       | 44            | %12,9      |
| Ez EELZ ez laguntzailea                         | 2                   | %1,6       | 3             | %0,9       |
| <b>Erosketak /<br/>Laguntza behar du</b>        |                     |            |               |            |
| EELZ eta laguntzailea                           | 16                  | %12,6      | 37            | %11,5      |
| EELZ bakarrik                                   | 40                  | %31,5      | 85            | %26,3      |
| Laguntzailea bakarrik                           | 61                  | %48,0      | 180           | %55,7      |
| Ez EELZ ez laguntzailea                         | 10                  | %7,9       | 21            | %6,5       |
| <b>Dirua adminis. /<br/>Laguntza behar du</b>   |                     |            |               |            |
| EELZ eta laguntzailea                           |                     |            | 1             | %0,6       |
| EELZ bakarrik                                   | 5                   | %8,3       | 13            | %8,4       |
| Laguntzailea bakarrik                           | 51                  | %85,0      | 130           | %83,9      |
| Ez EELZ ez laguntzailea                         | 4                   | %6,7       | 11            | %7,1       |
| Taula guztira                                   | 170                 | %100,0     | 504           | %100,0     |

12. TAULA:  
EKINTZA PERTSONALETARAKO LAGUNTZA BEHAR DUTEN  
PERTSONAK

|  | ARABA |      | GIPUZKOA |        | BIZKAIA |       | GUZTIRA |       |
|--|-------|------|----------|--------|---------|-------|---------|-------|
|  | Zb.   | %    | Zb.      | %      | Zb.     | %     | Zb.     | %     |
| <b>Janaria prestatu</b>                      |       |      |          |        |         |       |         |       |
| Laguntza behar dute eta ez dute jasotzen     | 2     | %2   | 2        | %1,2   | 2       | %0,9  | 6       | %1,2  |
| Ez dute behar edo ez dute laguntzarik jasot. | 99    | %98  | 168      | %98,85 | 231     | %99,1 | 498     | %98,8 |
| <b>Afaria prestatu</b>                       |       |      |          |        |         |       |         |       |
| Laguntza behar dute eta ez dute jasotzen     | 4     | %4   | 4        | %2,3   | 10      | %4,3  | 18      | %3,65 |
| Ez dute behar edo ez dute laguntzarik jasot. | 97    | %96  | 166      | %97,7  | 223     | %95,7 | 483     | %96,4 |
| <b>Etxeke lanak</b>                          |       |      |          |        |         |       |         |       |
| Laguntza behar dute eta ez dute jasotzen     | -     | -    | 2        | %1,2   | 1       | %0,4  | 3       | %0,6  |
| Ez dute behar edo ez dute laguntzarik jasot. | 101   | %100 | 168      | %98,8  | 231     | %99,6 | 501     | %99,4 |
| <b>Erosketak</b>                             |       |      |          |        |         |       |         |       |
| Laguntza behar dute eta ez dute jasotzen     | 1     | %1   | 10       | %5,9   | 10      | %4,3  | 21      | %4,2  |
| Ez dute behar edo ez dute laguntzarik jasot. | 100   | %99  | 160      | %94,1  | 223     | %95,7 | 483     | %95,8 |
| <b>Dirua adminis.</b>                        |       |      |          |        |         |       |         |       |
| Laguntza behar dute eta ez dute jasotzen     | 3     | %3   | 4        | %2,3   | 4       | %1,7  | 11      | %2,2  |
| Ez dute behar edo ez dute laguntzarik jasot. | 98    | %97  | 166      | %97,7  | 229     | %98,3 | 493     | %97,8 |
| <b>Instrumentalen bat</b>                    |       |      |          |        |         |       |         |       |
| Laguntza behar dute eta ez dute jasotzen     | 8     | %8   | 19       | %11,2  | 23      | %9,9  | 50      | %9,9  |
| Ez dute behar edo ez dute laguntzarik jasot. | 93    | %92  | 151      | %88,8  | 210     | %90,1 | 454     | %90,1 |
| Taula guztira                                | 101   | %100 | 170      | %100   | 237     | %100  | 504     | %100  |

IV. ATALA  
EGUNEKO ZENTROAK



#### 4.1. EGUNEKO ZENTROA: ONGI EZAGUTZEN EZ DEN BALIA-BIDEA

Ikuspegi operatibo batetik, Eguneko Zentroek, adinekoei, beraien etxebizitzetatik kanpo eta egunez oso era ezberdinetako laguntza pertsonala eskaintzen dietela esan daiteke. Noski, hori horrela izanik, zentro mota oso ezberdinak kontuan hartu behar ditugu ematen duten laguntzaren eta zerbitzu-hartzaileen premien arabera. Horrela, alde batean eguneko ospitaleak leudeke, eta bestean, zahar-etxeak, zentzurik itxienean Eguneko Zentroak deitura behar dutelarik.

Foru alduendiek, ordea, Eguneko Zentroen iharduera-eremua mugatu egiten dute, eta lehen aipatu diren bi muturretakoengandik bereizteko, funtsean zerbitzu-hartzaileen ezaugarrietan oinarritzen dira. Agiri ezberdinetan honela definitzen dira zentro horiek: “pertsonalki erabat autonomoak ez diren, baina familia giroan bizi direlako Egoitza batean sartzeko premiarik edo larritasunik ez duten adinekoei egunez laguntza eskaintzeko zentroak” (Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Institutua).

Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Ongizate Zerbitzuen Sailaren agiri batek oso garbi ezartzen zuen Eguneko Zentroen eta Eguneko Ospitalen arteko muga, lehenengo zerbitzutik kanpo geratzen ziren kasuak zehaztuz, alegia:

- Gaisotasun infekto-kutsagarriak
- Jarrera mailako sintoma larriak, gaisoarekin bizitzea zailtzen dutenak
- Ospitalean egoteko premia
- Sendagile edo erizainek tratatu beharreko premia larriak
- Ohean egon beharrekoak

Aipatutako sailaren arabera, goiko talde horietakoren batean sartzen direnek “osasun sareko baliabideen” premia dute.

Eguneko Zentroak oso gutxitan eskatzen dira Autonomia Erkidegoan. Eta ezin da bestela izan, kontuan eduki behar baita etxez etxeko laguntza jasotzen dutenen artetik %70 baino gehiagok ez dituela ezagutzen, eta horrek seguraski esan nahi du biztanlego osoa hartzen bada, gizarte zerbitzuen sarearekin inolako harremanik ez duten pertsonak kontuan hartzen badira, alegia, ezagutza eza are handiagoa izango dela.

Lurralde historikoetan dauden era horretako zerbitzu-hartzaileen arabera, koa da zentro horien ezagutza maila, alegia, zenbat eta hartzaile gutxiago, orduan eta ezagutza maila urriagoa. Araban, 65 urtetik gorako mila biztanleko bost erabiltzaile egonik, etxez etxeko zerbitzua hartzen dutenen artetik %32,7

da Eguneke Zentroak ezagutzen ez dituen. Bizkaian, milatik %0,69 zerbitzu-hartzaile daude, eta %94,4ra iristen da Eguneke Zentroak ez dituztenen portzentaia. Azkenik, Gipuzkoan kontrakoa gertatzen da: Eguneke Zentroak mila zerbitzu-hartzailetatik 2,26k erabiltzen dituzte eta etxez etxeko laguntza jasotzen dutenen artetik %65,9 dira zerbitzu horiek ezagutzen ez dituztenak.

Eguneke Zentroa, egoitzetan eman beharreko zerbitzuak ordezkatzeko modu txar bat da askoren ustez. Adineko eta horien familiarterako asko dira zentro horiek egoitzetako laguntza gabezia ordezkatzeko dutela eta daukaten helburu bakarria laguntza-kostuak merketzea dela uste dutenak. Zentro horien aurka dauden ustez, eguneke laguntza garestia ateratzen da, eta laguntza informala eskuz uzten da laguntza hori behar duen pertsonak suposatzen duen lan-zama handi bat. Baliabide hori onartzen ez duten pertsonen ohizko jarrera oso ongi adierazten da esaldi honekin: “horretarako hobe batere ez”. Garbi dago, jarrera horiek daukaten pertsonak ez dituztela batere ezagutzen laguntzaren kalitatearekin lotuta dauden gaiak, izan ere, tamalez, “batere ez” horrek, kasu askotan, etxetik atera ere egin gabe egon beharra adierazten duelako.

Baina, hasierako zalantzak gainditu ondoren, zerbitzu-hartzaileak normalean pozik egoten dira formularekin, beraien giro sozio-familiarrean integrazio maila on bat edukitzeko aukera ematen dielako. Bestetik, baliabide hori egoitzetan denboraldiak pasatzearekin tartekatuz lortzen da beste formula oso onuragarri bat adinekoa bere ondoan eduki nahi duten familientzat, maila sozio-profesionala baldintzatu gabe lan-zama handiegia ekartzen ez dielako.

## 4.2. XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak Adinekoen Zentroetarako Oinarrizko Estatutua garatu zuen (martxoaren 20ko 482/1990 Foru Dekretua), besteak beste Eguneke Zentroak eratzen dituen.

Bada beste arau bat ere (maiatzaren 9ko 56/1995 Foru Dekretua), zerbitzu-hartzaileen sarrera eta traslado baldintzak arautzen dituen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1994ko apirilean txosten bat osatu zuen, Eguneke Zentro batek eskaini behar dituen zerbitzuak, zerbitzu-hartzaile potentzialen ezaugarriak eta adineko horiek onartzeko irizpideak zehazten zituen. Aldundi horrek bi eratara finantziatzen ditu Gipuzkoako Eguneke Zentroak:

- Eibar, Tolosa eta Legazpin Udalen eta Aldundiaren arteko hitzarmen bat dago, zeinaren arabera Udalak bere gain hartzen baititu langilegoa eta Eguneke Zentroetarako garraioa eta zerbitzu-hartzaileak tarifa bat ordaintzen du ezarri den baremo ekonomikoaren arabera; Aldundiak ordaintzen du kostu erreala eta zerbitzu-hartzaileek ordaintzen dutenaren arteko aldea.



- Beste Egunekeo Zentroetan, Aldundiak kantitate fijo bat ematen du zerbitzu-hartzaile bakoitzeko, 20.000 pezeta adinekoa “berez baliatzen bada” eta 60.000 Kuntzman-en eskalaren arabera “bestez baliatu behar direnen” kategorian sartzen bada. Zerbitzu-hartzaileak ordaindu beharrekoa baremo ekonomikoaren arabera finkatzen da, eta gainerantzeko kostoak Udalak ordaintzen ditu.

Bigarren finantziaketa eredia ezarriko zaie zentro guztiei 1996ko urtetik aurrera.

Bizkaiko Lurralde Historikoan Foru Dekretu<sup>1</sup> bat dago, Txurdinagako Egunekeo Zentroan sartzeko irizpideak eta prozedurak eta ezarri beharreko baremo ekonomikoa finkatzen dituen. Beste Dekretu<sup>2</sup> batek, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpe dauden Egunekeo Zentroak erabiltzeko prezio publikoak arautzen ditu. Plaza-kostuaren eta zerbitzu-hartzaileak ordaintzen duenaren arteko aldea erakunde horrek ordaintzen du.

#### 4.3. ZERBITZUAREN HEDAPENA<sup>3</sup>

|          | Zentroak | plaza kop. | % >65 urte | Zerbitzu hartz. | % >65 urte | % plaza hutsik |
|----------|----------|------------|------------|-----------------|------------|----------------|
| Araba    | 5        | 156        | 5,04       | 146             | 4,71       | 6,4            |
| Bizkaia  | 6        | 114        | 0,74       | 105             | 0,69       | 7,9            |
| Gipuzkoa | 12       | 215        | 2,49       | 189             | 2,19       | 12,1           |
| Guztira  | 22       | 485        | 1,80       | 440             | 1,63       | 9,3            |

Etorbidea: Inkesta

Euskal Autonomia Erkidegoko Egunekeo Zentroetan guztira 485 plaza daude, 65 urtetik gorako mila biztanleko 1,80, beraz. Ondorioz, esan daiteke, egoitzen eskaintza Egunekeo Zentroena baino hogeai aldiz handiagoa dela. Bestalde, egoitza plaza gehien dituen lurraldea, Araba, hain zuzen, Egunekeo Zentroetan plaza gehien dituen ere bada; beste horrenbeste gertatzen da zuzkidura gutxien dituenarekin, Bizkaiarekin, alegia, bi zerbitzuei dagokienez mailarik txikiena ematen baitu.

<sup>1</sup> 13/1991 Foru Dekretua, Txurdinagako Egunekeo Zentroan sartzeko deialdi publikoa onartzen duena. B.A.A. 47. zenbakia, 1991ko otsailaren 25, astelehena.

<sup>2</sup> 12/1991 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpe dauden Egunekeo Zentroez baliatzeko prezio publikoaren erregulazioa ezartzen eta garatzen duena. B.A.A. 47. zenbakia, 1991ko otsailak 25, astelehena.

<sup>3</sup> Araban, gainera, badago asteburuetan adineko zoroentzat egunezko zerbitzu bat ere, goizeko 11etatik aratsaldeko 7etara, Txagorritxuko Egunekeo Zentro Psikogeriatrikoan 16 zerbitzu-hartzaileentzat. Zerbitzu hori, Gizarte Ongizaterako Foru Institutuaren eta Arabako Alzheimer gaisoen Familiartekoen Elkarteak sinatutako hitzarmen baten bidez arautzen da.

Aipatzekoa da Autonomia Erkidegoan dauden plazetatik %10 hutsik daudela. Horrek ez du esan nahi premiak aseta daudenik. Seguruenik, zerbitzuen berri ez da behar bezala eman.

1990eko Euskal Herriko Plan Gerontologikoak -1994koak ez zuen gai honi dagokion daturik ematen-, epe motzera eta erdi epera zegoen plaza-premia finkatzen zuen; 1995erako 65 urtetik gorako mila biztanleko bost plaza finkatzen zituen, 2000. urterako hamar finkatzen zituelarik.

Garbi dago asmoak gehiegizkoak zirela, baina baita ere esan behar da Araban gaur egun dagoen kopurura iritsi beharko liratekela Gipuzkoa eta Bizkaia. Plazak sortzearekin batera mentalizazio-lana ere egin beharko litzateke, Eguneko Zentroetara joan daitezkeen adinekoek eta lehen mailako laguntzarako zerbitzuetako profesional batzuek Eguneko Zentroak egoitzentzat alternatiba baliagarri bezala onar ditzaten.

#### 4.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGUNEKO ZENTROEN EZAUGARRIAK

##### Kokapena

Lehenago aipatu den bezala, proportzionalki plaza gehien dituen Lurralde Historikoa Araba da, baina Erkidegoko zentroetatik erdiak baino gehiago Gipuzkoan daude, 22tatik 12 hain zuzen. Gipuzkoako eta Bizkaiko zentroetan batz bestea 20 plaza baino gutxiago daude, Arabakoetan, berriz, hogeita hamar baino gehiago. Erkidegoko batez besteko proportzioa 22 da. Zentroen batez besteko tamaina oso egokia da, beraz, eta aurrerantzean talde txikiei laguntza eskaintzeko zerbitzuak sustatzen jarraitu beharko litzateke.

|       | Indep. |      |       | Egoitzak |      |       | Zahar-etxe |      |       | Udal. zerb. |      |      | Guztira |      |     |
|-------|--------|------|-------|----------|------|-------|------------|------|-------|-------------|------|------|---------|------|-----|
|       | Zen.   | Pl.  | Pl.   | Zen.     | Pl.  | Pl.   | Zen.       | Pl.  | Pl.   | Zen.        | Pl.  | Pl.  | Zen.    | Pl.  | Pl. |
|       | kop.   | kop. | %     | kop.     | kop. | %     | kop.       | kop. | %     | kop.        | kop. | %    | kop.    | kop. | %   |
| Araba | -      | -    | -     | 5        | 156  | 100,0 | -          | -    | -     | -           | -    | -    | 5       | 156  | 100 |
| Bizk. | 1      | 25   | 11,60 | 8        | 146  | 67,90 | 2          | 24   | 11,16 | 1           | 20   | 9,30 | 12      | 215  | 100 |
| Gipu. | 2      | 55   | 48,24 | 1        | 20   | 17,50 | 2          | 39   | 34,2  | -           | -    | -    | 5       | 114  | 100 |
| Guzt. | 3      | 80   | 16,49 | 14       | 322  | 66,39 | 4          | 63   | 12,9  | 1           | 20   | 4,12 | 22      | 485  | 100 |

Plaza gehienak, ia %70 egoitza-etxeetan kokatuta daude: Araban zentro guztiak, Gipuzkoan %67,9 eta Bizkaian %17,5. Eguneko zentro independientek nahiko ugariak dira Bizkaian, ia erdia; bestalde, lurralde horretan eguneko zentroak eta zahar-etxe edo klubak egoitza berean daude.

Itxuraz, baliabideak hobeto aprobetxatzeko erabiltzen dira bi joera osagarri horiek; alde batetik, egoitzetako baliabideak Eguneko Zentroetarako erabil-

tzen dira, eta zahar-etxeak ere erabilera horretara bideratzen dira. Bi aukerek dirudite egokiak. Halere, eguneko zerbitzuen gizarte bokazioa ez da ahaztu behar, eta bokazio hori betetzea ez da erraza zenbait egoitzen izaera itxia kontuan izanik. Bestalde, gau eta egun egoitzetan dauden eta eguna bakarrik pasatzera joaten diren adinekoen arteko harremanak sarritan istilu-tsuak izan ohi dira. Gau eta egun egoitzan daudenek ustez beraienak diren instalazioak beste pertsona batzuk okupatzen dituztela ikustean kaltetuak senti-tzen dira.

Garbi dago adinekoen egoitzak baliabide ireki bezala erabiltzeak, neurri batean, familia giroa lortzea oztopatzen duela, baina, bestalde, onartu behar da kasu gehienetan egoitzen neurriak edo tamaina direla, hain zuzen, aukera hori baldintzatzen dutenak.

Esate baterako, Erreterian, eguneko zerbitzuak ez dauka egoitzan ezta espazio propiorik ere. “Eguneko zentroaz” baliatzen direnak egoitzako bizitzan txertatzen dira egoiliar gisa. Soluzio hori egiaz eguneko gizarte zerbitzutzat jotzea zalantzakoa da, baina garbi dago premiazko egoera batzuetarako balio dezakeela.

Zahar-etxe deituak berez eguneko zentro bezala egokitzeke soluzioa, hau da, laguntza premia maila handiko pertsonentzako erabiltzea arrazoizkoa izan daiteke, baina horretarako nahiko langile eta instalazio zuzkidurak behar dira.

### *Sarrera emateko irizpideak*

Zentro gehienak dependentzia mailan oinarritzen dira adinekoei sarrera onartzeko orduan, eta balorazio hori egiteko baremo bereziak dauzkate.

Hondarribia eta Erretereriako zentroetan “berez baliatzen diren” pertsonak bakarrik onartzen dituzte, bigarren kasuan “bestez apur bat baliatu behar direnak” ere bai. Aipatzekoa da Hondarribian zerbitzu-hartzaile bat bakarrik dagoela.

Hiru kasutan, Donostiako Julian Rezola, Muskiz eta Ortuellan dependentzia ez da hautaketarako irizpideetan sartzen.

Gasteizen Txagorritxuko “Psikogeriatrikoan” pertsona zoroak eta jarrazko arazoak dituztenak bakarrik onartzen dituzte.

Ia kasu guztietan, zerbitzu-hartzaileak ordaindu behar duen dirua dauzkan irabazbideen arabera da, irizpide horiek Aldundiek finkatzen dituztelarik.

### *Ingurune fisikoa eta garraioa*

Oro har, zentroak ongi kokatuta daude eta inguru fisikoari dagokionez apenas ez dago gabeziarik. Zerbitzu batzuetan eskulekuak falta dira (Muskiz, Ortuella, Laguntza Etxea, Las Mercedes, Eibar, Legazpia, Pasaia); bainuetan ez dago txirrinik (bakarrik dauzkate Txurdinaga, Arana, San Prudencio, Julian Rezola eta Tolosan) eta Ortuellan eta Egunon Etxean egoitzan sartzeko traba arkitektoniko batzuk daude.

Zentro guztietan daude bainu geriatrikoa, segurtasun-barrak komunitatean eta guztiek daukate gurgildun aulkiekin sartzeko moduko komun eta bainu bana.

Zerbitzu bat baino gehiagok behar ditu erretzaileentzako espazioak eta zarata iturrietatik isolatutako egongelak.

Zentru gehienetan erabili daiteke garraio egokitua. Muskizen eta Ortuelan udalak ordaindutako taxi zerbitzua erabiltzen da; Erreterria, Hondarribia eta Bilboko Egunon Etxea dira garraio-zerbitzurik ez daukaten bakarrak.

### *Praktikaren azterketa*

**Ordutegia:** Aste osoan zabalik egoten den Bilboko Egunon Etxea ez beste guztiek astelehenetik ostiralera funtzionatzen dute. Ordutegia 13 zentrotan malgua da, baina garraio-ordutegiak baldintzatzen du. San Prudencio eta Pasaian sarrera-ordua librea da, baina ez irteerakoa, eta gainerantzeko zazpitan -Txurdinaga, Ajuria, Arana, Deba, Laguntza Etxea, Hondarribia eta Legazpia- ordutegia zehatza da.

Gehienek goizean 9etatik 10ak arte zabaltzen dute -Txurdinagak bakarrik zabaltzen du goizago, 8etan-, Eibarren 10,30etan eta Urretxun 11tan. Normalean arratsaldeko 6ak eta 7ak bitartean ixten dituzte eta ordu hori baino lehenago, 5ak eta 5,30ak bitartean hauek ixten dute: Deba, Legazpia, Irun eta Hondarribia; Urretxun eta Portugaleten 8etan, eta Erreterrian 9etan ixten dute. Garbi dago zerbitzu batzuk ordutegi zabalago bat ezartzea komeniko litzatekela.

**Jangela-zerbitzua:** Zentro guztietan ematen zaie bazkaria zerbitzu-hartzaileei, eta Egunon Etxea, Deba, Irun eta Pasaian salbu beste guztietan bazkari ordutik kanpo ere zerbait har daiteke. Guztiek daukate dieta bereziak eta ia erdietan bi menuren artean aukera daiteke. Portugalete, Deba, Julian Rezola, Hondarribia, Erreterria eta Tolosan zerbitzu-hartzaileek ere parte hartzen dute menua eratzen; Legazpian eta Pasaian, zerbitzu-hartzaileek nahi badute, janaria prantatzen ere parte har dezakete.

Zentro gehienetan zerbitzu-hartzaileak mahaiz alda daitezke. Txurdinaga, Muskiz, Pasaia eta Erreterrian ezin dute hori egin.

### *Zerbitzuak eta ekintzak*

Osasun alorreko zerbitzuak: Ortuella, Irun eta Urretxu bakarrik dira inolako osasun-zerbitzurik ez daukatenak, azkenekoak errehabilitazio zerbitzua badaukan arren. Beste guztietan dago erizaintza-zerbitzua, gainera, askotan dago sendagile-zerbitzua ere.

Zentro guztiek eratzen dituzte denborapasarako eta terapia okupazionalerako ekintzak, hala nola: jolasak, eztabaida-taldeak, eskulanak, ariketa fisikoak, etabar.

Pasaian salbu beste guztietan dago ile apaindegi zerbitzua; podologia zerbitzurik ez daukatenak hauek dira: Portugalete, Erreterria eta Urretxu.

### *Laguntza zuzena eskaintzeko langileak*

Laguntza zuzena eskaintzen duten langileen ratorik altuena Ortuellakoa da: langile bakoitzeko 2,75 zerbitzu-hartzaile, bajuena berriz Donostiako Julian Rezolakoa: langile bakoitzeko 11,8 zerbitzu-hartzaile.

94ko Plan Gerontologikoak langile bakoitzeko 5-6 zerbitzu-hartzaile ratioa gomendatzen zuen. Ratio hori gainditzen dutenak hauek dira: Ortuella, Txurdinaga eta Ajuria 4,2rekin; Txagorritxuko Psikogeriatrikoa 4,45, Eibar 4,5 eta Arana 4,9rekin. Planak gomendatutako ratioaren barruan hauek daude: Muskiz 5,1, Legazpia 5,2, Donostiako Las Mercedes 5,5, Txagorritxu 5,7 eta Egunon Etxea eta Tolosa 6rekin.

Nahiz eta hurbildu, gomendioa betetzen ez dutenak hauek dira: Urretxu 6,5, San Prudencio 6,8, Deba 7,5 eta Donostiako Laguntza Etxea 8rekin. Azkenik, langile bakoitzeko zerbitzu-hartzaile ratioa 10ekoa edo handiagoa da ondorengo kasuetan: Irun 10, Portugalete 10,3, Pasaia 10,9 eta Julian Rezo-la 11,8.

Langileen zuzkidura egokitasuna zerbitzu-hartzaileen beharren arabera dago, noski, baina faktore hori alde batera utzita ere garbi ikusten da zerbitzu batzuen defizit nabarmena, dudarik gabe laguntzaren kalitatean eragina izan behar duena.

EGUNEKO ZENTROEN EZAUGARRIAK

| Zentroa                 | Pl. kopurua | Zerb. hartz. kopurua | Kokagune indep. | Egoitzan bertan | Zahar-etxean bertan | Udal zerbitzuen barruan | Sarrera irizpidea: Autonomia |
|-------------------------|-------------|----------------------|-----------------|-----------------|---------------------|-------------------------|------------------------------|
| Bilbo Egunon Etxea      | 35          | 31                   | X               |                 |                     |                         | X                            |
| Bilbo Txurdinaga        | 20          | 20                   |                 | X               |                     |                         | X                            |
| Muskiz                  | 20          | 18                   | X               |                 |                     |                         |                              |
| Ortuella                | 14          | 11                   |                 |                 | X                   |                         |                              |
| Portugalete             | 25          | 25                   |                 |                 | X                   |                         | X                            |
| Gasteiz Ajuria          | 30          | 20                   |                 | X               |                     |                         | X                            |
| Gasteiz Arana           | 21          | 21                   |                 | X               |                     |                         | X                            |
| Gasteiz San Prudencio   | 40          | 40                   |                 | X               |                     |                         | X                            |
| Gasteiz Txagorritxu     | 30          | 30                   |                 |                 |                     |                         | X                            |
| Gasteiz Txag. Psicoge.  | 35          | 35                   |                 |                 |                     |                         | X                            |
| Deba                    | 12          | 13                   |                 |                 | X                   |                         | X                            |
| Donostia Julián Rezola  | 50          | 41                   |                 | X               |                     |                         |                              |
| Donostia Laguntza Etxea | 25          | 25                   | X               |                 |                     |                         | X                            |
| Donostia Las Mercedes   | 32          | 32                   |                 | X               |                     |                         | X                            |
| Eibar                   | 16          | 9                    |                 | X               |                     |                         | X                            |
| Hondarribia             | 10          | 1                    |                 | X               |                     |                         | X                            |
| Irun                    | 20          | 20                   |                 |                 |                     | X                       | X                            |
| Legazpia                | 12          | 6                    |                 |                 | X                   |                         | X                            |
| Pasaia                  | 7           | 9                    |                 | X               |                     |                         | X                            |
| Errenteria              | 12          | 10                   |                 | X               |                     |                         | X                            |
| Tolosa                  | 6           | 6                    |                 |                 |                     |                         | X                            |
| Urretxu                 | 15          | 15                   |                 |                 | X                   |                         | X                            |

| Sarrera irizpidea ekonomia | Sarrera ordua | Irteera ordua | Ordutegi zehatza | Sarrera malgua eta irt. zehatza | Ordut malgua | Egunero zabalik | Zabalik astelehenetik ostiralera |
|----------------------------|---------------|---------------|------------------|---------------------------------|--------------|-----------------|----------------------------------|
| X                          | 9,00          | 18,30         |                  |                                 | X            | X               |                                  |
| X                          | 8,00          | 18,00         | X                |                                 |              |                 | X                                |
| X                          | 10,00         | 19,00         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
| X                          | 10,00         | 18,00         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
|                            | 9,00          | 20,00         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
|                            | 9,30          | 18,30         | X                |                                 |              |                 | X                                |
| X                          | 9,00          | 18,30         | X                |                                 |              |                 | X                                |
|                            | 9,30          | 18,15         |                  | X                               |              |                 | X                                |
| X                          | 9,15          | 18,30         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
|                            | 9,00          | 18,15         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
| X                          | 9,30          | 17,15         | X                |                                 |              |                 | X                                |
| X                          | 9,00          | 18,00         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
| X                          | 9,00          | 18,00         | X                |                                 |              |                 | X                                |
| X                          | 9,00          | 18,00         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
| X                          | 10,30         | 18,30         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
| X                          | 9,00          | 17,00         | X                |                                 |              |                 |                                  |
|                            | 9,00          | 17,00         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
| X                          | 9,30          | 17,30         | X                |                                 |              |                 | X                                |
|                            | 9,15          | 18,30         |                  | X                               |              |                 | X                                |
|                            | 9,00          | 21,00         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
| X                          | 10,00         | 18,00         |                  |                                 | X            |                 | X                                |
| X                          | 11,00         | 20,00         |                  |                                 | X            |                 | X                                |

| Zentroa                    | Sarrera<br>erraza | Ateak<br>zabaldu<br>erraza | Eskulekuak | Komunak<br>oztoporik<br>gabe | Barrak<br>komune-<br>tan eta<br>bainuetan | Txirrinak<br>komunetan<br>eta<br>bainuetan | Komunetan<br>lur zoru<br>ez<br>iristakorra | Bainu<br>geriatrikoa |
|----------------------------|-------------------|----------------------------|------------|------------------------------|---|--|--|----------------------|
| Bilbo<br>Egunon Etxea      |                   | X                          | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Bilbo<br>Txurdinaga        | X                 | X                          | X          | X                            | X   | X  | X  | X                    |
| Muskiz                     | X                 | X                          |            | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Ortuella                   |                   |                            |            | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Portugalete                | X                 | X                          | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Gasteiz<br>Ajuria          | X                 | X                          | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Gasteiz<br>Arana           | X                 | X                          | X          | X                            | X   | X  | X  | X                    |
| Gasteiz<br>San Prudencio   | X                 | X                          | X          | X                            | X   | X  | X  | X                    |
| Gasteiz<br>Txagorritxu     | X                 | X                          | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Gasteiz<br>Txag. Psicoge.  | X                 | X                          | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Deba                       | X                 | X                          | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Donostia<br>Julián Rezola  | X                 | X                          | X          | X                            | X   | X  | X  | X                    |
| Donostia<br>Laguntza Etxea |                   | X                          |            | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Donostia<br>Las Mercedes   | X                 | X                          |            | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Eibar                      | X                 | X                          |            | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Hondarribia                | X                 | X                          | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Irun                       | X                 | X                          | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Legazpia                   | X                 | X                          |            | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Pasaia                     | X                 | X                          |            | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Errenteria                 | X                 |                            | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |
| Tolosa                     | X                 | X                          | X          | X                            | X   | X  | X  | X                    |
| Urretxu                    | X                 | X                          | X          | X                            | X   |  | X  | X                    |



| Erretzaileen<br>gela | Egongela<br>lasaia | Garraio<br>egokitua | Dieta<br>berezia | Menu<br>txandakatua | Menua<br>osatzen<br>partaidetza | Janaria<br>prestatzen<br>partaidetza | Janorduet.<br>kanpo<br>jateko<br>aukera | Jangelan<br>lekuz<br>aldatz.<br>aukera |
|----------------------|--------------------|---------------------|------------------|---------------------|---------------------------------|--------------------------------------|---|--|
| X                    | X                  |                     | X                | X                   |                                 |                                      |   | X                                      |
|                      | X                  | X                   | X                |                     |                                 |                                      | X                                       |  |
| X                    | X                  |                     | X                | X                   |                                 |                                      | X                                       |  |
|                      | X                  |                     | X                |                     |                                 |                                      | X                                       | X                                      |
| X                    | X                  | X                   | X                | X                   | X                               |                                      | X                                       | X                                      |
|                      | X                  | X                   | X                | X                   |                                 |                                      | X                                       | X                                      |
|                      |                    | X                   | X                |                     |                                 |                                      | X                                       | X                                      |
|                      | X                  | X                   | X                |                     | X                               |                                      |   | X                                      |
| X                    | X                  | X                   | X                |                     | X                               |                                      | X                                       | X                                      |
|                      | X                  | X                   | X                |                     |                                 |                                      | X                                       | X                                      |
|                      | X                  | X                   | X                |                     |                                 |                                      | X                                       | X                                      |
| X                    | X                  | X                   | X                |                     |                                 |                                      | X                                       | X                                      |
| X                    | X                  |                     | X                | X                   | X                               |                                      | X                                       | X                                      |
| X                    |                    | X                   | X                |                     |                                 |                                      |   | X                                      |
|                      |                    | X                   |                  |                     |                                 | X                                    | X                                       |  |
|                      | X                  | X                   | X                | X                   |                                 | X                                    |   |  |
| X                    | X                  |                     | X                | X                   | X                               |                                      | X                                       |  |
| X                    | X                  | X                   | X                | X                   | X                               |                                      | X                                       | X                                      |
|                      | X                  | X                   | X                | X                   |                                 |                                      | X                                       | X                                      |

| Zentroa                    | Ratioa | Sendagil.<br>zerb. | Erizain<br>zerb. | Erreabilitazio<br>zerbitzua | Psikoterapia | Zaintza eta<br>garbitasun<br>pertsonal |
|----------------------------|--------|--------------------|------------------|-----------------------------|--------------|--|
| Bilbo<br>Egunon Etxea      | 6      |                    | X                |                             | X            | X                                      |
| Bilbo<br>Txurdinaga        | 4,2    | X                  | X                | X                           |              | X                                      |
| Muskiz                     | 5,1    |                    | X                | X                           |              | X                                      |
| Ortuella                   | 2,75   |                    |                  |                             |              | X                                      |
| Portugalete                | 10,3   |                    | X                |                             |              | X                                      |
| Gasteiz<br>Ajuria          | 4,2    | X                  | X                | X                           | X            | X                                      |
| Gasteiz<br>Arana           | 4,9    | X                  | X                | X                           | X            | X                                      |
| Gasteiz<br>San Prudencio   | 6,8    | X                  | X                | X                           |              | X                                      |
| Gasteiz<br>Txagorritxu     | 5,7    | X                  | X                | X                           | X            | X                                      |
| Gasteiz<br>Txag. Psicoge.  | 4,45   | X                  | X                | X                           | X            | X                                      |
| Donostia<br>Julián Rezola  | 11,8   | X                  | X                | X                           | X            | X                                      |
| Donostia<br>Laguntza Etxea | 8      |                    | X                | X                           |              | X                                      |
| Donostia<br>Las Mercedes   | 5,5    |                    | X                | X                           |              | X                                      |
| Deba                       | 7,5    | X                  | X                | X                           | X            | X                                      |
| Eibar                      | 4,5    | X                  | X                | X                           | X            | X                                      |
| Hondarribia                |        | X                  | X                | X                           | X            | X                                      |
| Irun                       | 10     |                    |                  |                             |              | X                                      |
| Legazpia                   | 5,2    | X                  | X                | X                           |              | X                                      |
| Pasaia                     | 10,9   | X                  | X                |                             |              | X                                      |
| Errenteria                 |        |                    | X                | X                           | X            | X                                      |
| Tolosa                     | 6      | X                  | X                | X                           |              | X                                      |
| Urretxu                    | 6,5    |                    |                  | X                           |              | X                                      |





V. ATALA  
EGOITZEZ KANPO  
ADINEKOENTZAT DAUDEN  
ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-  
ADMINISTRATIBOAREN  
JAURBIDEA EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOAN



## 5.1. GIZARTE-LAGUNTZA KONTZEPTUA

### 5.1.1. Esapidearen zehaztasunik eza

Laguntza soziala jasotzeko eskubideak Ongizate-Estatuaren edo Estatu Soziala deitzen denaren azalpen batean du sustraia; hau da, hemeretzigarren mendeko ongintza edo erruki publikoaren kutsua galdurik, eskubide sozialak konstituzio-arauetan sartu zirenean sortu zen.

Hala ere, sekulako zehaztasunik eza dago eskubidea izendatzeko orduan, zeren eta hainbat eta hainbat esapide desberdin erabiltzen baitira kontzeptu bakartzat jotzen den hori zehazteko -izan ere, adiera bakarreko kontzeptua da, era askotako izendapenak ematen bazaizkio ere: halako doktrina batek, esaterako, ekintza sozial modura definitu du, eta Konstituzioak berak, aldiz, laguntza sozial modura-. Autonomi estatutuek eta alor hau arautzen duten lege autonomikoez inolako bereizketarik egin gabe erabiltzen dituzte laguntza soziala, gizarte-ongizatea, zerbitzu sozialak eta, baita ongintza kontzeptu zaharra ere<sup>1</sup>.

Guk, ordea, laguntza soziala esango dugu, Konstituzioak berak erabiltzen duen esapidea delako, nahiz eta bera ulertzeko modu modernoagoa iruditu ekintza sozial publikoa doktrinak -Beltran Aguirre- sortutako esapidea.

### 5.1.2. Kontzeptuaren mugak jurisprudentzia konstituzionalean eta Zuzenbide positiboan

Konstituzio-Auzitegiak laguntza sozial kontzeptua landu duen arren, nahiko zabala eta zehazkabea da hori. 76/1986 Konstituzio-Auzitegiaren Epaiko (KAE) seigarren oinarri juridikoaren arabera, honako definizio-lerro hauek jar daitezke:

“- Laguntza soziala nozioa zehaztu gabe dago Konstituzioaren testuan; horregatik, konstituziogileak kontuan izan dituen legeria mailako kontzeptuetara jo beharra dago.

---

<sup>1</sup> Otsailaren 25eko 2/1983 Lege Organikoaren bidez onartutako Balear Irltako Autonomi Estatutuko 10.12. artikulua.

- Indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte-Segurantzaren sistematik kanpo badago laguntza sozialik ere, sistema horretan sartuta ez dagoena, beraz; orduan, horri buruzkoa izan behar du Espainiako Konstituzioaren 148.1.20. artikuluko aipamenak, eta, hortaz, autonomi erkidegoen ahalmenen arteko bat izan behar du.

- Laguntza sozial hori halako premia-egoera berezi batzuetarako babes-tresna da, gizarte-segurantzaren sistematik kanpo geratzen diren biztanle-multzoen beharrak asetzeko helburua izan behar duena; laguntza horrek, jakina, ez ditu erabiliko Gizarte-Segurantzak erabiltzen dituen teknikak.

- Gaur egun, laguntza sozial guztien ezaugarrietako bat zera da: jasotzaileek edo onuradunek alde aurretik ordaindu gabe edo inolako zergarik ordaindu gabe mantentzeko gai izatea.”

Bestalde, azaroaren 25eko 146/1986 KAEak berriz ere agertzen ditu lehenago esandakoak, baina honako hau ere gaineratuz:

“- (Laguntza sozialaren) ezaugarri teknikoetako bat hauxe da: erakunde publikoek edo haien menpeko beste sail batzuek emandakoa izatea, erakunde horiek edozein direlarik ere.

- Laguntza soziala babeserako teknika publikoa da, eta horregatik bereizten da ohizko ongintzatik, nahiz eta beronetan eduki sustraiak.

- Laguntza soziala nozioan ez dago bakarrik erakunde publikoek emandakoa -beraiek zehazten eta ematen dutena-, baizik eta, baita erakunde pribatuek emandakoa ere; kasu hauetan, erakunde publikoek laguntza edo atentzio horiek sustatu edo kontrolatu egiten dituzte.

Beste alde batetik, Konstituzioak berak ez du zehazten zer den laguntza soziala; bakar-bakarrik, autonomi erkidegoek beren gain har dezaketen alorre-tako bat dela esaten du (148.1.20. artikulua).

Europako Gutun Sozialak, Espainiak 1980ko apirilaren 19an berretsiak, 13. eta 14. artikuluetan zehazten du zer diren laguntza soziala eta zerbitzu sozialak.

Lege autonomiko desberdinek nola edo hala zehaztu dute laguntza soziala kontzeptua. Gure azterlanari dagokionez, Zerbitzu Sozialei buruzko maiatzaren 20ko 6/1982 Legeak honela zehazten du zer diren zerbitzu sozialak, bere zioen azalpenean: “norbanakoen eta taldeen elkartean ongundea eta hazkundea sustatu, eta horiek gizarte-inguruari egokitzeko laguntza ematen duten zerbitzuak.”



### 5.1.3. Adinekoen babesa gizarte-laguntzaren atal gisa

Konstituzioaren 50. artikulua honakoa dio:

“Botere publikoek zahartzaroa eroso bizi ahal izateko adinako pentsioa -aldian aldian eguneratua- emango diete adindunei. Era berean, eta familiako betebeharretatik kanpo, haien ongitasuna bultzatuko dute zerbitzu sozialen bidez beraien arazo bereziei kasu eginez, hots, osasun, bizileku, kultura eta aisiari.”

Hala ere, Konstituzioaren 148. eta 149. artikuluetan ez dator adinekoei buruzko konpetentzia titulu berezirik, bakar-bakarrik 148.1.20. artikuluko laguntza sozialaren aipamena dago aurrikusita.

Esan daiteke laguntza sozialaren barruan sartuta daudela alor honetako hainbat puntu (emakumearen babesa, haurtzarorako politika, gazteriarako politika, elbarrien babesa, etabar); beraz, adinekoentzako politika ere bai. Orduan, alor desberdinetan egiten diren ekintzak dira, jasotzailegaien arabera zehazten direnak eta, loturiko gaiak izanik, laguntza sozialaren barruko arduratzat hartu behar direnak.

Baieztape hau egiaztatzeko, esan dezagun autonomi estatutu batzuetan, Euskal Herriarenean ez bezala, ekintza sozialaren alorreko eskumenik eduki ez arren, bai transferentzia-dekretuek, bai erkidego autonomoetako arauak ere eragina dutela alor berezi batzuetan (hirugarren adina, gazteria, etabar); izan ere, kontutan hartzen da alor horietako ekintza loturik dagoela laguntza sozialarekin, edo haren barruan sarturik dagoela, horrelakorik berez argi eta garbi aipatuta egon ez arren.

## 5.2. **EGOITZEZ KANPO ADINEKOEI LAGUNTZA EMATEKO DAUDEN ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA**

Adinekoentzako laguntza-zerbitzuen erlazio juridiko-administratiboa laguntza sozialaren erlazio juridiko-administratiboaren osagaitzat jo dezakegu eta, gure txosten honi dagokionez, hari buruz egingo dugun azterketa egoitzez kanpoko laguntza-zerbitzuetara mugatuko da, azken batean.

## 5.3. **ADINEKOENTZAKO LAGUNTZA-ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN HARTZAILE-EMAILEAK**

### 5.3.1. **Egoitzez kanpo adinekoentzako dauden laguntza-zerbitzuen emaileak**

Espaniako Konstituzioaren 50. artikulua arabera, botere publikoek adinekoen “ongitasuna bultzatuko dute zerbitzu sozialen bidez beraien arazo

bereziei kasu eginez, hots, osasun, bizileku, kultura eta aisiari”, eta, beraz, haiek dira egoitzetako laguntza-zerbitzua eman behar dutenak. Lan honetako 5.5. puntuan aztertuko dugu nola banaturik dauden alor honetako eskumenak administrazio publiko desberdinen artean, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzako dauden laguntza-zerbitzuen emaleak nortzuk diren zehazteko.

### **5.3.2. Egoitzez kanpo adinekoentzako dauden laguntza-zerbitzuen hartzaileak**

Egoitzez kanpo adinekoentzako dauden laguntza-zerbitzuen hartzaileak dira, beste inor baino lehen, 6/1982 Legearen 2. artikulua zerbitzu sozialak jasotzeko eskubidearen jabetzat ematen dituenak.

Arau horrek dioenez:

“Euskal Herrian bizi eta arrotz ez direnak, eta bidariak dira lege hone-tan araupetutako gizarte-zerbitzuen eskubidedun, arauz jarri daitezten baldintzapean. Atzerritarrek baliatu ahal izango dute zerbitzu hoietzaz, eta bai iheslariek eta aberririk gabekoek ere, arauz jarri daitezten baldintzekin eta indarrean dauden horretazko nazioarteko ituneetan agindutakoaren arauera.”

Zerbitzu sozialak jasotzeko eskubidea dutenen artean, hirugarren adina deitzen den horretara iritsitakoak dira lan honetan aztertzen ari garen laguntza sozialaren jasotzaileak.

Hirugarren Adina izenez ezagutzen den kontzeptu hori legearen ikuspegitik ez da oso zehatza, baina, eufemismo bat da, lanetik erretiratzeko adinera (hau da, salbuespenak salbuespen, 65 urtera) iritsi diren gizon-emakume zahar-rak izendatzeko erabiltzen dena, ezertarako ere kontutan hartu gabe haien gorputz edo buru egoera.

Euskadiko Plan Gerontologikoak berak dioenez, plan horrek “65 urtetik gorako biztanleen behar guztiei heltzeko asmoa du”.

Hori hala izanik ere, komenigarria litzateke egoitzez kanpo hirugarren adinekoentzako dauden zerbitzu sozialei buruzko arauak argi eta garbi adieraztea nortzuk diren zerbitzu horren jasotzaileak, ez baitago definizio baturik auto-nomi erkidego guztietan.

### **5.3.3. Gizarte-laguntza jasotzeko eskubidea. Egoitzez kanpo adinekoentzat dauden laguntza-zerbitzuen aipamen berezia**

Erakunde honen iritziz, oso garrantzitsua da zehaztea ea zaharrek egiaz baduten adinekoentzako eguneko zentroetan laguntza-zerbitzuak jasotzeko eskubiderik, baita etxean laguntza jasotzekoa ere.

Horri dagokionez, esan dezagun Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua, zahartzaroaren babes-aipatzen duena, Konstituzioaren I. tituluko III. kapituluaren dagoela, hau da, “Politika sozial eta ekonomikoaren gida oinarriez” izenburuaz, eskubide sozialak deitzen direnak konstituzionalizatzen dituen pasartean.

Ez dugu eskubide sozial deritzaien babes-sistema nolakoa den luze eta zabal azalduko; nahiko ezaguna delako eta lan honen asmoetatik kanpo gertatzen delako; halere, komeni da gogoratzea Konstituzioaren testuko 53.3. artikulua dioena:

“Hirugarren kapituluaren aitortuak onartze, errespetu eta babesaz adieraziko du lege-tapen positiboa, auzi praktika, eta botere publikoen ekintzak. Bakarrik aipatu ahalko dira arruntaren aurrean aurrera eramaten duten legeek erabakitzen duten arabera.”

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, egia da Zerbitzu Sozialei buruzko 6/1982 Legeak ez duela argitasun handiz zehazten zerbitzu sozialetarako eskubidea, haren 2. artikuluan “arauz jar daitezkeen baldintzak” bete behar dituela esaten baitu; horrek, azalpen erretoriko hutsean utz dezake aurrirakapen hori.

Gure erkidegoan behar baino gutxiago izanik adinekoentzako zerbitzu publikoak, ohizko doktrinaren arabera, euskal hiritar zaharrek ezingo lukete erabili egoitzez kanpo adinekoentzako zerbitzu eta laguntza berriak sortzeko eskubide subjektiboa; izan ere, doktrina horrek Administrazioaren nahiaren esku uzten du ahalmen hori.

Hala ere, doktrinarik aurreratuenaren arabera, Administrazioak ez dauka halako zerbitzu bat jartzeko edo ez jartzeko erabakia hartzeko askatasunik; izan ere, arau konstituzionaletan azaldutakoari jarraituz eta, zehazkiago, Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua arabera, Administrazioa Konstituzioaren aginduak betetzeko behar diren zerbitzu sozialak sortzera behartua dago.

Beste kontu bat da, aldiz, hiritarrak esparru jurisdikzionaletan eskubide horiek baliaraztea. Esan dugu, bai, Zerbitzu Sozialei buruzko 6/1982 Legeak ez duela inolako araurik euskal hiritarrei zerbitzu sozialak jasotzeko eskubidea aitortzen dienik, baina Toki-Jaurbiderako Oinarriak Arautzeko Legea (TJOAL) delakoak argi eta garbi esaten du 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek zerbitzu sozialak eman behar dituztela.

TJOALaren 18.1.g) artikulua onartzen du “laguntza-zerbitzua eskatzeko eskubidea eta, hala dagokionean, halako zerbitzu publiko bat sortzeko eskubidea, hori udalaren derrigorrezko ahalmena baldin bada.”

Horregatik, egia baldin bada 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak zerbitzu sozialak ematera behartuta daudela, horrek esan nahi du udalerririk horietako biztanleek egiatan dutela zerbitzu horiek eskatzeko eskubidea; beraz, eskubide hori auzitegien bitartez baliaraz daiteke, nahiz eta eskubide hori gero ezin behar bezala bete, udalerriarren ahalbideetatik kanpo dagoelako, berez aitortuta eta onartuta egon arren.

Ondorio modura esan dezagun, TJOALeko aipamena izan ezik, ekintza sozialerako lege autonomikoak eta, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoa ere, ez direla tresna juridiko egokiak izan Konstituzioaren bitartez onartuta dauden eskubide sozialak osorik betearazteko.

Oso bestelako kontua da, aldiz, zaharrek benetan baduten ala ez Erkidegoko eguneko zentroetan postu bat betetzeko eskubidea, adinekoentzako laguntzaren erlazio juridiko-administratibo horren jasotzaileak direnez, edo, bestela, etxean laguntza jasotzeko eskubiderik baduten ala ez. Gure ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoaren 6/1982 legeak aipatzen dituen zerbitzu sozialak jasotzeko eskubidedunek eskubidea dute egoitzez bestelako zerbitzu batean postu bat lortzeko berdintasun osoz, arauen bidez ezartzen diren mugen arabera.

Ezin ahaztuko dugu Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoentzako dagoen laguntza-eskaintza urria dela. Horregatik, postu bat jaso dezaketenen eskubideak badu baldintza bat: alegia, modu objetiboan ipintzen diren lehentasunen menpe dago, eskatzaileen ezaugarri egiaztatuen arabera.

Hori horrela izanik, gure ustez, egoitzez bestelako laguntza-zerbitzu batean postu bat lortzeko eskariari ezetz erantzuten bazaio arbitrarioki eta arau bidez ezarritako irizpideak kontutan hartu gabe, orduan administrazio-auzibideetarako jurisdikzioan horren aurka egin daiteke, ezezko hori baliogabetu dezaten eskatuz eta Administrazioa eskaturiko laguntza ematera behartuz.

Esan gabe doa, egoitzez bestelako zerbitzuak jasotzeko eskubideari babes judiziala ematea zaila denez gero, Ararteko honek eta gainerako legebiltzar-goikargudunek zeregin zeharo garrantzitsua bete dezakete eskubide sozial horien babeserako, Ombudsman erakundeari buruzko aditurik ospetsuenek onartu duten bezala.

#### **5.4. ADINEKOENTZAKO LAGUNTZAREN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN AZTERGAIA**

Laguntza sozialaren erlazio juridiko-administratiboaren aztergaia zera da: egoitza-zerbitzu publikoek beren behar edo gabeziak bereziki babestea eskatzen duten pertsonen zuzenean ala zeharka eskaintzen dizkieten laguntza sozialenguruko ekintza.

Egoitzez kanpo adinekoentzako dauden zerbitzuen kasuan, erlazio horren objektua, beraz, eguneko zentroetan ematen den laguntza izango da, eta baita etxerako laguntza zerbitzuen bidez emandakoa ere.

## **5.5. EGOITZEZ KANPO ADINEKOENTZAT DAUDEN LAGUNTZA-ZERBITZUEN ESKUMEN-ESPARRUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

### **5.5.1. Eskumenen banaketa gizarte-laguntza emaleen esparruan**

Arlo honetako eskumenak nola banatzen diren aztertu nahi dugu, ongi zehaztu nahi dugulako botere publikoetatik zeintzuk bete behar duten adinekoen gizarte-ongizatea sustatzeko agindu konstituzionala. Horregatik, helburu horri begira funts handirik ez duten puntuei ez diegu arreta handirik eskainiko.

### **5.5.2. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen banaketa**

Konstituzioaren 148.1.20. artikulua arabera, erkidego autonomoek eskumena izan dezakete gizarte-laguntzaren alorrean.

Beste alde batetik, Konstituzioaren testuko 149.1 artikulua ez du gai honi buruzko inolako eskumenik uzten Estatuaren gain.

Euskal Autonomia Erkidegoak bere Autonomi-Estatutuan erabaki zuen berak zuela eskumen osoa “gizarte-laguntzaren” alorrean (10.12. art.), bai eta haurtzaro, gazteria eta zahartzarorako politikan ere (10.39. art.)

Konstituzioa egin zenean, beraz, argi eta garbi erabaki zen gizarte-laguntzaren alorreko eskumenak erkidego autonomoen gain uztea, halaxe jasotzen bazuten behintzat beren autonomi-estatutuetan.

Baieztapen horren arabera, pentsa liteke Estatuak ez duela inolako eskumen exekutiborik “gizarte-laguntzaren” alorrean eta, zehazkiago, “adinekoen” alorrean, Konstituzioak ez diolako gai honen inguruko lege-araurik egiteko eskumenik ematen.

Alabaina, gizarte-laguntzaren eta, oro har, gizarte-zerbitzuen esparruan, Estatuak ondoan adierazten ditugun eginkizunak utzi ditu bere gain, gai honen eskualdaketak egiteko erret-dekretuetan:

- estatuaren esparruko beharrak betetzea, eta harremanak ezartzea bere esparruko edo nazioarteko beste erakunde edo sailekin.
- indarrean dauden arauen arabera bere ardurapekoak diren gainerako eginkizun guztiak, baldin eta erkidego autonomoek beren gain hartutako eskumenen barruan ez badaude, edota, egonez gero, ardura horiek eskuz aldatu gabe badaude.

Gainera, praktikan, Estatuaren administrazioak gizarte-zerbitzuak kudeatzen ditu Gizarte-Segurantzaren bitartez eta, Gizarte-Arazoetarako Ministerioa sortu eta gero, hainbat egitarau eta ekintza ere bai.

Gauzak horrela, egoera nahasi samarra aurkitzen dugu, itxuraz Konstituzioaren testua argia den arren.

Eskumenen banaketari begira, interesgarria da Auzitegiaren azaroaren 25eko 146/86 Epaia<sup>2</sup>.

Goi-epaitegiak dioenez, “auzi honetan -ekintza eta babes sozialerako neurri publikoak- ezin da interes kontrajarritakorik egon -Estatuarena eta erkidego autonomoena-, alde batera utzirik aukera politikoengatik gerta daitezkeen desadostasunak; hortaz, lehentasuna eman behar zaio Erkidego Autonomoaren zuzendaritza politikoari, eskumen esklusiboak direlako, Konstituzioak Estatuaren gain utzitako eskumenen kalterik gabe.”

Azpimarratzen du, gainera, ekintza eta babes soziala bezalako gai konplexu batean, eskumen alderazle edo esklusiboak ez direla estu-estuan ulertu behar; hau da, Estatuak esku har dezake babes sozialean, autonomi erkidegoen mailaz gaineko arazo bereziei aurre egin behar zaienean, edota arazo horietarako konponbide eta azterketen gestioa erkidegoen gaineko maila bati, Estuari esaterako, dagokionean.

Leguina Villa auzi-maisuak, hala ere, botu partikularra egin zuen, ados ez zegoelako esandako epaiaren edukiarekin; bere hitzen arabera, “Konstituzioaren 148.1.20 artikuluari jarraituz, laguntza soziala Autonomi-Estatutuen bitartez utzi da erabat erkidego autonomoen esku, eta horrek, nire iritziz, esan nahi du erakunde zentralek ez dutela inolako eskumenik alor horretan beren kasa esku hartzeko, eta, gainera, eskumen-falta hori ezin daiteke konpondu interes orokorraren izenean.”

Ondorioz, autonomi erkidegoek, eta zehazkiago Euskal Erkidegoak, eskumen alderazleak dituzte gizarte-laguntzaren alorrean; eskumen horiek, doktrina baten arabera, erabat alderazleak edo esklusiboak direla esan daiteke, alor guztia betetzen duten neurrian.

Horregatik, erkidego autonomoaren ardura da alor horretako arau-legeak egitea eta horiek indarrean jartzea, nahiz eta horrek ez duen esan nahi autonomi erkidegoen esparruaren gainetik dauden ondasun sozialen babesa Estatuaren eginkizun ez denik, halaxe aitortu baitio Konstituzio-Auzitegiak.

### 5.5.3. **Eskumenen banaketa Euskal Autonomia Erkidegoan**

**A)** Gure Autonomi Erkidegoaren barruan eskumenak erakunde amankomunen eta lurralde historikoetako foru erakundeen artean banaturik daudenez, aparteko aipamena egin beharko dugu, gure ikerlan honetan aztertu dugun gaia Euskal Autonomia Erkidegoan nola banaturik dagoen ikusteko.

Lurralde Historikoen Legea deritzan azaroaren 25eko 27/83 Legearen arabera, lurralde historikoen eskumen berezien zerrendaren barruan, hauen esku uzten du babes sozialaren alorreko legeria autonomikoa indarrean jartzea, erakunde amankomunek alor horretan zuzenean esku hartzeko daukaten aukera galerazi gabe (7.c.1. art.).

<sup>2</sup> Epai honek ebazpena ematen zion Galizako Xuntak Dirección General de Acción Social delakoaren 1983ko irailaren 14ko eta 1985eko urtarrilaren 2ko xedapenen kontra aurkeztutako eskumen-auzi bati, xedapen horien bitartez ekintza sozialaren alorreko halako diru-zuzkidura batzuk banatzeko deialdia egiten baitzen.

Orobat, 7.c arau horretako 2. zatian, lurralde historikoen gain uzten du lurralde bakoitzean erakunde amankomunen legeria betearazteko ardura, alor hauetan zehazki: “Elkarte-hazkuntza, emakumea, haurrekiko, gazteekiko, zahartzaroarekiko, atsedea eta egurastearekiko politika, Euskal Herri osoaren Erakundeek alor hoietan artez ihardutzearen kaltetan gabe”.

Beste alde batetik, lurralde historikoen lege horretako 6. artikulua haxe dio:

“1. Autonomia-Estatutuaren arauera, Autonomia-Erkidegoari dagozkionak izanik, Estatutu horretan, Lege honetan edo gerokoren baten Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailei aitortu edo izendatu ez dakizkien gai guztiekiko legegintza eta egiterapena Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeei dagokien agintepide da.

2. Beti ere, Lege-mailako arauak emateko ahalmena Legebiltzarrari bakar-bakarrik dagokio.”

Beraz, honako hau esan dezakegu, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta lurralde historikoen artean eskumenek duten banaketaz:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde amankomunei -hots, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari, hurrenez hurren- laguntza soziala eta zahartzaroa alorreko legeak egiteko eta arauen bidez garatzeko esku-mena dagokie.

b) Lurralde historikoetako foru aldundiei alor honetako legeria autonomikoa indarrean jartzea dagokie.

Eusko Legebiltzarrak, lurralde historikoen legea baino lehen, Zerbitzu Sozialeri buruzko maiatzaren 20ko 6/82 Legea eman zuen.

**B)** Lehenago esan bezala, legegile autonomikoak Zerbitzu Sozialeri buruzko maiatzaren 20ko 6/82 Legea eman zuen, lurralde historikoen legearen aurretik.

Estatu osoan alor hau arautzen duen lehen legea da, eta garai hartako zerbitzu sozialen egoera antolatzeke helburuaz sortu zen; izan ere, egoera horrek, legearen beraren hitzetan, “arau eta barne-egokitasunezko irizpideekiko ia erabateko hutsa du ezaugarri”.

Zioen azalpenean adierazten denez, “Gizarte-Zerbitzuen Lege honek, oraingo egoeraren alde txarrak onbideratzea du lehenengo xede. Oinarrizko, bakun eta barne-egokitasunezko dela, gizarte-zerbitzuen zati bat ez baina osorik araupetzen duen lege gisa aurkezten da, beraz”.

Gure ikerlan honi dagokionez, hiru alderdi funtsezko azpimarra ditzakegu orain aztertzen ari garen arau honetan.

Lehendabizi, esan behar da arauak eskumen edo agintepideen banaketari buruzko titulu bat duela.

Bere 6. artikulua honakoa dio:

“Legegintza Eusko Legebiltzarrari dagokio. Gizarte-zerbitzuen alo-reango egiterapena eta araubidezko osaketa, legeak agintzen duenaren arabera, honako hauei dagokie:

- a) Jaurlaritzari.
- b) Foru-erakundeei.
- c) Udal, udal-elkarte edo udal-mailaz gaineko erakundeei”.

Jaurlaritzari, foru-erakundeei eta udalei eta udal-mailaz gaineko erakundeei ematen dizkien eskumenak arautu ere egiten ditu. Horrela, 6/1982 legearen 8. artikulua arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio zerbitzu sozialen plangintza orokorra egitea, lehentasunak finkatzea eta laguntzen gutxienezko mailak zehaztea lurraldeen arteko desorekarik egon ez dadin.

Bere azken erabakian, 6/82 lege honek honakoa dio: “Lege honetan ematen diren zerbitzu eta agintepideei atxikitako ogasun eta eskubideen jabetza edo baliapena Diputazioei edo Udalei eman diezaieneko eskua ematen zaio Jaurlaritzari.”

Bigarrenik, legearen 5. artikulua legearen bidez arautzen diren zerbitzu sozialen, eta, beraz, adinekoentzako zerbitzu sozialen oinarrizko irizpideak finkatzen ditu.

Hona hemen oinarrizko irizpide horiek:

### *1. Herri-agintaritzaren erantzukizuna.*

Norbanakoak eta taldeak gizarte-bizitzan sartzeko beharrezko izan daitezzen zerbitzuen erantzukizuna herri-agintaritzari dagokio; hoiek, herri-zerbitzuek modu eraginkorrez ihardun dezaten, diruzko, teknikazko eta gizakizko eskuarteak eskaini beharko dituzte, eta irabazte-xederik gabeko norbanakoen arioak ere haiek mugatutako esparruaren barruan, zerbitzu hoiek egiteko ere laguntza eman dezake.

### *2. Kidesuna.*

Herri-agintariek kidesuna sustatuko dute, bazterkeria-egoeraren iturri direnak gainditzeko norbanakoen eta gizarte-taldearen arteko harremanen sorburu denez.

### *3. Herritarren eskuhartzea.*

Herri-agintariek, lege honetan jartzen diren bideez baliatuz, herritarrek gizarte-zerbitzuen egitamuketan eta zaingoan demokrazia-arauz eskuhartzea sustatuko dute.

### *4. Gizarterapena.*

Gizarte-zerbitzuek, bere familia edo gizarte-giroan jarraitu dezaten joko dute edo, hala behar izanez gero, arauzko gizarte-giroan birsartzera, horretarako, ahal dedin neurrian, gizarte-beharrei erantzuteko agizko bideez baliatuz.

### *5. Erdikoikeriarik eza.*

Gizarte-zerbitzuak egitea, hoiengatik zermolakoa dela eta, ahal dedinean, ahalik eta irizpide erdikoikeriarik ezezkoei atxikiz egingo da, hoiengatik



tzaile nagusia udala dela eta egitamuketaren oinarritzko maila eskualdea denez honen ardura izanik.

#### *6. Egitamuketa.*

Herri-agintariek gizarte-zerbitzuen egiterapena egitamutuko dute, bere ekintzapideak eta irabazte-xederik gabeko norbanako-ariozkoak antolaki-detuz, eta bai herri-agintaritzaren sail berezien artekoak ere, gizarte-beharreri eskabideari dagokionez eta zatikeriatan erori gabe erantzuteko.

#### *7. Aurrea hartzea.*

Gizarte-zerbitzuek, egon dauden bereizkeriei aterapide bat ematera ezezik, hoiien zioei aurrea hartzera ere joko dute, batipat.”

Azkenik, adinekoen alorrari dagokionez, 3.4. artikulua lehentasuna ematen dio ondoko zerbitzu sozial hauetan esku hartzeari:

“Zahartzaroarentzako laguntza, zaharrek bere gizarte-giroan iraun dezate-neko, bere gizarte eta kulturazko hobekuntza lortzeko, eta hala behar izanez gero egoitza-giro egoki bat eskaintzeko xedezko zerbitzuen bidez.”

Hemen aipatzen ari garen 6/1982 lege honek alor batean aitzindari den arau orok duen balioa du; hau da, arautzen duen esparruaren egiazko egoerara hurbiltzeko dauden oztopoak bide erditik kentzen ditu, eta alor honetako hutsuneak betetzeko balio du; baina, aldi berean, badu koska bat: alegia, legeak araupetzen duen errealitatea aldatzen eta bilakatzen den heinean sortzen diren egoerak ezin dituela alde aurretik igarri, eta horregatik arauari egokitzapenak egin behar izaten zaizkiola argitara eman eta gero.

Lege honen ondoren, beste hiru mugarri gehiago aipatu beharko ditugu, haietan bi, arau mailakoak, 6/1982 Legeak araupetutako arloan eragin zuzena dutenak eta gaur egungo legea eraberritzeko ezinbesteko beharra dakartena.

Lehendabizi, esan dezagun Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Amankomunen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko harremanei buruzko 27/1983 legeak, geroago onartutakoa eta Lurralde Historikoen Legea (LHL) izenez ezagunak, zuzen-zuzenean ukitzen duela 6/1982 Legearen II. Titulua, “agintepideen banaketa” arautzen duena; hortaz, titulu hori indargabetutzat hartu beharko genuke LHLak diotenaren kontra doazen puntuetan, berau geroagoko araua delako.

Bigarrenik, 1985eko Toki-Jaurbiderako Oinarriak Arautzeko Legeak ere eragina dauka zerbitzu sozialen alorreko agintepide edo eskumenen banaketan.

Azkenik, 6/1982 legea indarrean sartu zenetik gaur arte igaro diren hamar urteotan, ahalegin handia egin dute botere publikoek zerbitzu sozialak, oro har, eta adineko gizon-emakumeentzakoak bereziki, zabaltzeko, bai eta ongintza-kutsua gainditzen duen laguntza sozialak jasotzeko eskubidea tajutzeko ere. Gainera, laguntza sozialari buruzko arauketa autonomikoa orokortu egin da, eta, horrenbestez, bakoitza bere ahotsaz noski -zerbitzu sozialak, ekintza soziala, gizarte-ongizatea-, alor hau ia autonomi erkidego guztietan araututa dago.

Oraingo araudi berriari (LHL eta TJOAL), eta laguntza sozialaren esparru osoan baina, batez ere, adinekoentzako laguntza sozialen esparruan gertatu diren aldaketa handiei begira, komenigarria da Zerbitzu Sozialei buruzko 6/1982 oraingo legea ere aldatzea, arau berrien arabera moldatzeko eskumen edo agintepideen banaketaz egindako arauketa.

Jakina, hemen azaldu ditugunak ez ditugu egin halako asmo akademizista batek bultzatzen gaituelako, eta are gutxiago Eusko Legebiltzarraren legegintzarako ahalmenean eragina edukitzeko, hori Ararteko honen zereginetatik kanpo dagoelako; aitzitik, gure asmo bakarra da, 3/1985 legeak berak Ararteko honi zuzenbidea suspertzeko ematen dion eginkizunaren barruan, gomendatzea alor hau ukitzen duten arau berrien argitan muga dadila eskumenen banaketa, beti ere segurtasun juridikoaren oinarritzko irizpidea errespetatuz; izan ere, oso garrantzitsua izan daiteke zerbitzu publiko hau behar bezala bete dadin, eragin nabarmena baitu zerbitzu sozialak erabiltzen dituztenengan, eta, zehazkiago esanda, egoitzez kanpo adinekoentzako dauden zerbitzuak erabiltzen dituztenengan.

Koordinazioaren oinarritzko irizpidea, jurisprudenzia ugari batetik abiatuta eratuz joan den kontzeptu juridikoa izanik, egiazko giltzarria, alor honetako eskumenen banaketa ixteko sistema moduan.

Esan dugun bezala, ahalmenei buruzko arauak moldatu ez ezik, beharrezkoa da halaber zenbait aldaketa egitea jasotzaileen eskubideak egiatan bermatzeko moduko esparru egoki bat antolatu nahi badugu, txosten honetako 5.6. atalean zehaztuko denaren arabera.

**C)** Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarreko Lan eta Osasunerako Batzordeak 1994ko maiatzaren 12an egindako bilkuran Euskadiko Plan Gerontologikoa onartu zuen; plan horretan, egoitzez kanpo adinekoentzat dauden zerbitzuen esparrurako, honako hauek finkatu ziren:

#### 1. Etxez etxeko laguntza zerbitzua

\* Helburua:

Euskal Autonomia Erkidegoan etxez etxeko laguntza zerbitzua sistema bateratua ezartzea, nahi duten adinekoak euren etxeetan gera daitezten laguntza orokorretako baliabide-sarea izatearren.

\* Jarduera-proposamenak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan etxez etxeko laguntza sistema bateratua ezartzeari lehentasuna ematea.
- Beharrianak aztertu eta dagozkien laguntza-baliabideak ezartzea.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua areagotzea epe laburrean nahiz erdikoan.
- Zerbitzuaren oinarritzko eta osagarrizko laguntzazko moduloak ezartzea.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzuak gehitzeko asmoak egoitzetako tokiak, halakorik dagoen lekuetan behintzat, finkatzearekin bat egitea.

Epe laburrera edo erdikora, zerbitzuen gabeziak direla eta, ezinezkoa da etxez etxeko laguntza eta laguntza osagarriak egoitzen ordeko lehentasuneko aukeratzat jotzea. Epe luzera, ordea, ezinbestekoa da etxez etxeko laguntza zerbitzua hedatzea eta egoitzetako tokiak %5ean finkatzea. Horrela bada, datozen 10-15 urteetan 65 urtez gorakoentzako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren %6ko ratioa lortu nahi da, eta ratio hori bat dator laguntza intentsiboa behar ez duten beharritaneiei aurre egiteko asmoarekin.

- Beharritana dagoen kasuetarako etxe-laguntza jasotzeko eskubide subjektiboaren ideia bultzatzea apurka apurka.

[Beharrezko den kasu berezietan etxerako laguntza jasotzeko eskubide subjektiboaren ideiak berekin dakartza garrantzizko eragin batzuk:

a) Lehendabizi, eskubide moduan hartuta, ezingo litzateke pertsona bat zerbitzu horretatik kanpo utzi nahikoa bitarteko edukitzeagatik. Beste kontu bat da, zerbitzua jasotzeko, zerbitzu kostuaren zatirik handiena edo osoa finantziatu behar izatea. Gai honi hurbiltzeko beste modu bat honako aukera hau gorai patzea da: erabiltzaileak kostua ordaintzeko egin behar duen ekarpenari muga bat jartzea (inork ez du ordainduko orduko/x pezeta baino gehiago zerbitzua jasotzeagatik).

Epe laburrera, laguntza jasotzeko postu gutxi dagoenez gero, ez dugu ahaztu behar arrisku hau dagoela: nahikoa diru-bitarteko duten pertsonen sare publikoak laguntza ematen dien bitartean, laguntzarik gabe geratzea bitartekorik ez duten pertsonak. Horregatik, laguntza modu orokorrean hartu beharrean, pixkanaka zehaztu daiteke, eta hartara, premia fisikoa edo psikikoa ez ezik, diru-premia ere badutenei bakarrik eman beharko litzateke hasieran.

b) Bigarren, eskubide amankomunaren ideia aurrera eramateko, zenbait aldaketa egin behar dira erabiltzaileei egiaz ematen zaien laguntzan ezberdintasun nabarmenak egon ez daitezten: etxerako laguntza emateko gestio-modu ezberdinak egotea edo, erakunde publikoa zein den, gai honekiko ardura beti berdina ez izatea.

c) Azkenik, etxez etxeko laguntzarako irispidea zuzenbidez arautuko balitz, zerbitzu hori finantziatzeko moduak arautu beharko liriateke ezinbestean, eta horrela gaur egungo sakabanaketa itzuriko litzateke.]

- Edonola ere, etxez etxeko laguntzaren osagarri litzatekeen laguntza-eta baliabide-sistema ezarri behar da: etxeak egokitzekeko laguntzak, etxez etxeko osasun-laguntza eta erretiro-sari eta irabaziei buruzko politika egokia.

## 2. Eguneko zentroak

\* Helburua:

Besteren laguntzaren beharritan handia dutenek beren ingurua utzi behar ez izatea ziurtatzea, familiako kideek ohiko lan-jarduera eta bizimodua egiten jarraitu ahal izateko bitartekoak jarri.

\* Jarduera-proposamenak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan eguneko zentro-sarea ondo banatua ezartzea.

Eguneko zentroen laguntzarako oinarritzko baldintza da adinekoarekin gauzez egon daitekeen familia-egitura izatea. Ezarri beharreko toki-kopurua sarrera eskatzen denetik baliabidea eskuratu arte hiru hilabetetik gora itxoin behar ez izatearen irizpidearen arabera da.

**D)** Amaitu baino lehen, esan dezagun alor honetako eskumenek Euskal Autonomia Erkidegoan eta lurralde historikoetan duten banaketa bereziaren arabera, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari dagokiela adinekoen laguntza sozialari buruzko legeak egiteko ahalmena, bai eta lege horiek araubidez garatzeko ere.

Bestalde, lurralde historikoek betearazi behar dute “laguntza soziala”ri buruzko autonomi-legeria, baina erakunde amankomunek ere esku hartu ahal izango dute alor horretan.

#### 5.5.4. **Toki-administrazioak gizarte-sorospenaren alorrean duen eskumena**

Ohitura handia dago esateko esparru lokala dela babes sozialean erakunde publikoek esku hartzeko egokiena; izan ere, deszentralizazioaren prozesuan oinarrituz, udalak dira hiritarren arazoetatik hurbilen dauden erakunde publikoak.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Zerbitzu Sozialei buruzko 6/1982 legearen zioen azalpenak berak “erdikoikeriarako joera indartsu bati darizkion egokitasunik ezak” aipatzen ditu, eta aurrerago honakoa dio: “Udalak -herritarrak hurbilen duen arduralaritza-sailak, alegia- ez du herri-arduralaritzak egiten dituen zerbitzu murriztekin inolako zerikusirik”; eta, aurrerago: “Erdikoikeria honen ondorioz, baliatzaileak eskaintzen zaizkion zerbitzuetan modu eginkorrez eskuhartu dezaneko bide egokiak aurkitzeko ia erabateko ezina”.

Horregatik, zioen adierazpenean bertan honako hauxe ematen da aditzera:

“Baliatzaileak zerbitzuen egitamuketan eta hartan era eraginkorragoz eskuhartu dezan, legeak ahalik eta erdikoikeriarik eza handienerako bideak jartzen ditu, udala edo eskualdea zerbitzutarako oinarritzko alor egin eta herritarra hoietara iritsi dedineko erraztasunak emanez”.

Adierazpen hori mamituta dago 6/1982 Legearen 5.5. artikuluan, esanez lege horrek araupetutako zerbitzu sozialek erdikoikeriarik ezaren oinarritzko irizpidea izango dutela ardatz, eta honako hau ere adieraziz: “Gizarte-zerbitzuak egitea, hoiien zernolakoa dela eta, ahal dedinean, ahalik eta irizpide erdikoikeriarik ezezkoenei atxikiz egingo da, hoiien eraentzaille nagusia udala dela, eta, egitamuketaren oinarritzko maila eskualdea denez, honen ardura izanik”.

Halaber, lege horrek udalei eta udalaz gaineko erakundeei eskaintzen die bere IV. atala.

Gainera, udalek Gizarte-Ongizaterako Lurralde-Kontseiluetan eta Gizarte-Ongizaterako Euskal Kontseiluan esku hartuko dutela finkatzen du.

1985eko Toki-Jaurbiderako Oinarriak Arautzeko Legeak eragin zuzena izango du udalerriek laguntza sozialaren alorrean eta, zehazkiago, adinekoentzako laguntzaren esparruan izango duten betekizunean.

Horrela, bere 2.1. artikuluan honako hau dio: "Konstituzioak erakunde lokalei aitortzen dien burujabetasuna egiazkoa izango bada, Estatuaren legeriak eta erkidego autonomoenak ere, ahalmenek Konstituzioaren aginduz duten banaketaren arabera ekintza publikoaren alor ezberdinak arautzen dutenak" ziurtatu behar die udalerriei "beren interesak" ikutzen dituzten arazo guztietan esku hartzeko eskubidea; horren ildotik, behar diren ahalmen edo esku-menak eman beharko zaizkie, egin beharreko ekintza publikoaren arabera eta erakunde lokalaren gaitasunaren arabera, eta bi ardatz nagusirekin: deszentralizazioa, eta administrazioaren gestioa hiritarrengandik ahalik eta hurbilen ego-tea".

TJOALk berak bere 25.2.k) artikuluan dio udalerriak, nolana ere, esku-menak izango dituela Estatuaren legeriak eta autonomi erkidegoetakoak zerbitzu sozialen alorrean diotenaren arabera; orobat, bere 26.1. artikuluan, udalerriek eman behar dituzten gutxienezko zerbitzuak finkatzen dituen c) zatian hain zuzen, esaten du 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek derrigorrez eskaini behar dituztela zerbitzu sozialak.

Toki-jaurbiderako oinarrien legegileak toki-erakundeentzat halako ekintza edo betekizun batzuk utzi ditu, halako gutxienezko zerbitzu batzuk emateko beharra ezarriz, eta toki-erakundeak funtsezko zerbitzu batzuk ematera behar-tuz.

Lege honetako testuak udalerrien esku uzten du gutxienezko zerbitzuak emateko ardura, baina argi uzten du ardura hori udalerrien arteko hitzarmenen edo lankidetzaren bitartez ere bete daitekeela, edota, halaber, aldundiek eskaintzen duten laguntza sozialaren bitartez.

Hortaz, gutxienezko zerbitzu derrigorrezkoen kontzeptuan oinarrituta, esan dezakegu TJOALren 26. artikulua zerbitzu sozialak eskaintzeko ahalmena bermatzen diela 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei, eta ahalmen hori, beraz, errespetatu behar dutela arlokako legeria autonomikoek.

Alor honi buruzko arauak plazaratu baino lehen ere, hainbat udalek aha-legin handiak egin dituzte adinekoen beharrak asetzeko; horixe gertatu da Gasteizko Udalarekin, izan ere, 1992. urtean udal honek bere gerontologia-plangintza berezia tajutu zuen.

Udalaren politikabide horri esker, bai eta Arabako Foru Aldundiak egini-ko lanari esker ere, lurralde historiko hau Estatu osoko lehen postuan aurkitzen dugu, adinekoentzako laguntza eskaintzari dagokionez.

Bestalde, azpimarratzekoa da TJOALren 26. artikuluko arau-agindu honek zuzeneko eragina daukala zerbitzu sozialei buruzko 6/1982 euskal legeak udalerriei egiten zien ahalmen-banaketan; hortaz, toki-jaurbiderako oina-

rrizko arauetara moldatu beharko da, autonomi erkidego guztiek beren zerbitzu sozialei buruzko legeekin (ez, ordea, Nafarroako legearekin edo Madrilgo Autonomia Erkidegoarenarekin, ez eta TJOALren aurrekoekin, euskal legearekin, adibidez) egin duten bezala.

### 5.5.5. Ondorioak

Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoentzako egoitzen laguntza-zerbitzuari buruzko ahalmenak nola banatuta dauden erakutsi duen atal hau amaitzeko, zehaztu dezagun botere publikoen artetik zeintzuek bete behar duten aiton-amonen ongizatea bultzatzeko agindu konstituzionala; hala, bada, egoitzez kanpo adinekoei ematen zaien laguntza lurralde historikoetako foru erakundeek eman behar dute, eta haiekin batera baita TJOALaren arabera eskumena duten udalerriek eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden egoitzez bestelako zerbitzuen sistema juridikoki kudeatzen duten erakunde publikoek.

## 5.6. ARAUDIAREN ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK

### 5.6.1. Aztergaiaren aurkezpen orokorra

Lurralde Historikoen Legea (LHL) eta Toki-Jaurpiderako Oinarriak Arautzeko Legea (TJOAL) geroagokoak izanik, esan bezala, aurreko arauak horien arabera moldatu beharra dago; baina, gainera, beste aldaketa batzuk ere egin beharko dira garrantzi handiko zenbait puntutan, bai behintzat lortu nahi badugu zerbitzu sozialak jasotzen dituztenen eskubideak egiatan babesteko arau-esparru egoki bat; izan ere, komeniko litzateke puntu eta aldaketa horiek zerbitzu sozialei buruzko lege berri batean jasotzea, eta baita adinekoentzat egoitzez kanpo dauden zerbitzuak arautzeari dagokion araudian ere.

Horregatik, berriro ere esan behar dugu oraindik ez dela onartu gizarte-zerbitzuei buruzko lege berri bat, adinekoen egoitzei buruzko txostenean eskatu genuen bezala, eta oraindik bere hartan dirautela eskari hura eragin zuten arrazoiak.

Lege-testu horretan beste gai bati ere heldu beharko litzaioke, alegia, egoitzez kanpo adinekoentzat dauden zerbitzuen eskaintza arautzeari.

Horrela, Euskadiko Plan Gerontologikoak berak dio “etxe-laguntzari buruzko gutxienezko araudi amankomuna behar dela Autonomi Erkidego osorako”.

### 5.6.2. Egoitzez kanpoko laguntza-zerbitzuak arautzen dituen araudia eta publizitate irizpidea errespetatzea

Esan beharra dago udalerrri askok oraindik ez dituztela argitaratu etxerako laguntza emateko erabiltzen dituzten irizpideak, eta barne-erabilerarako arau

gisa daukatela; horren ondorioz, zerbitzuaz balia daitezkeen pertsonak ez dakite horren berri, edo ez daukate horri buruzko azalpen garbirik.

Ez dugu ulertzen zergatik zerbitzu hau ematen duten udalek ez duten modu berean ikusten berori arautu beharra, hartara zerbitzu horrek duen izaera juridikoari tratamendu egokia emateko.

Jakina, zerbitzuari buruzko araudia ez argitaratzeak ez du esan nahi, ezinbestean, udal horiek kalitatezko zerbitzua ematen ez dutenik. Hala ere, segurtasun juridikoaren irizpideak izan behar du ardatz nagusi etxerako laguntza zerbitzua ematean sortzen diren harremanetan, eta horregatik agerian jarri nahi dugu egoera hori, udalen esparruko lege-antolamenduaren agindu bazuetan eragina duelako.

Ildo horretatik, udalen araudiak berak dio toki-erakundeek onartzen dituzten xedapenak ordenantza edo araudi itxura izango dutela (Toki Erakundearen Zerbitzurako Araudiaren 7.1. artikulua) eta, xedapen horiek indarrean jartzeko, probintziako aldizkari ofizialean oso-osorik argitaratu beharko direla, Toki Jaurbiderako Oinarriak Arautzen dituen Legearen 70.2. artikulua araberak.

### **5.6.3. Adinekoentzako egoitzez bestelako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea berdintasun-irizpidearen ikuspuntutik**

Laguntza-zerbitzuetako postuak oso urriak izanik, guztiz garrantzitsua da laguntza-zerbitzuak jasotzeko dagoen prozedurak irizpide objektibo zorrotzak edukitzea, arrazoigabeko sarrerak, alegia, berdintasun-irizpidea hausten dutenak, galerazteko.

Berdintasun irizpidea errespetatzeko beharra hartuko da kontuan egoitzetako zerbitzuak eskuratzeko modua arautzen duten araudietan, eta arau orokor eta agirikoak erabili beharko dira sartzeko baldintzak arautzeko.

Ildo honetatik, oso aipagarria da Kataluniako Zerbitzu Sozialerako buruzko abenduaren 27ko 26/1985 Legearen 7. artikulua; honelaxe dio:

“Alor publikoko zerbitzuak eta ekimen pribatuak bultzatuak izan arren dirubide publikoa dutenak arauen arabera onuradun diren guztientzat egongo dira zabalik, beti ere berdintasun-irizpideari jarraituz. Kasu bakoitzean, erakunde, zerbitzu edo establezimendu bakoitzaren helburuek, esparruek eta ezaugarriek zehaztutako lehentasunak errespetatu beharko dira. Arau orokor eta agiriko batzuen bidez arautuko da egoitzetako postuak lortzeko prozedura, beti ere Gizarte-Segurantzaren onuradunen eskubide bereziak kontutan hartuz.”

On litzateke tankera honetako agindu bat egotea oraindik egin gabe dagoen zerbitzu sozialerako buruzko lege horretan.

1992-93ko Txosten berezian -zahar-egoitzei buruzkoa- adierazten genuenez, garrantzitsua da adinekoentzako gizarte zerbitzuak lortzeko bidean berdintasun irizpidea betetzea, eskaeraren aldean eskaintza oso urria dela kontuan izanik.

Egoitzez bestelako gizarte-zerbitzuak lortzeko bidea arautzen duten araudiak adi-adi irakurri ondoren, berdintasun irizpidea urra lezaketen klausula batzuk antzeman ditugu.

Sarriegi ez zaie laguntza-zerbitzu hori jasotzeko aukerarik ematen nahikoa diru-bitarteko dutenei, edo, bestela, horren antzeko beste zerbitzu batzuen ondoan hain da handia eskatzen zaien prezio publikoa, ezen egitez kentzen zaien zerbitzua jasotzeko aukera.

Hona hemen, berriz ere, gizarte-laguntza ez dela benetako eskubidetzat jotzen erakusten digun adibide bat, izan ere, garai batean gizarte-laguntza ongintza-ekintzat hartzen zen eta oraindik bizirik diraute ikuspegi haren zantzu batzuek.

Gainera, zenbait udalek nahikoatzat jotzen dituzten diru-bitartekoak hain dira urriak, ezen, izatez, laguntza-eskaintza gizatalde baztertuenei edo behartsuenei zuzentzen baitzaie.

Horregatik, gure ustez, berdintasun irizpidea urratzen da horrelako klausulak jartzean, hau da, zerbitzua jasotzeko derrigor baldintza batzuk bete behar direnean, arrazoi ekonomikoengatik hiritar batzuei ukatu egiten baitzaie zerbitzu hori. Guztiz desberdina da, noski, laguntza eskaintza hain urria izanik, zerbitzu eskatzaileen artean lehentasun mailak ezartzerakoan, zenbaiti besteen gainera lehentasuna ematea, hala nola ezgaitasun fisiko edo psikikoa dutenei edo baliabide ekonomikorik gabekoei, diru-bitarteko gehien dutenen kaltetan, jakina.

Iritzi bera agertu du Euskadiko Plan Gerontologikoak berak, hauxe baitio: “eskubidetzat hartzen bada, ezingo zaio pertsona bati zerbitzu hori jasotzeko aukera ukatu nahikoa diru-baliabide edukitzeagatik”.

Bestalde, araudi batzuen arabera, etxerako laguntza jaso nahi izanez gero, eskaria egin aurreko urtebete edo sei hilabetez geroztik udalerrian erroldatua egon behar du erabiltzaileak edo ustezko onuradunak.

Aldi berean, badira baldintza gisa udalerrian bizi izatea baino eskatzen ez duten udalak, erroldatze-eperik ezarri gabe, eskatzailea bertan bizi dela egiaztatzen duen agiria bakarrik eskatuz.

Zenbait gizarte-zerbitzu jasotzeko (adibidez, adinekoen egoitzetan sartzea), aurrez gutxienezko epe jakin batean kasuan kasuko udalerrian erroldatua egon behar izaten da. Baldintza hori askotan eskatzen dute eta gainera badago eskatzeko arrazoirik, gizarte-zerbitzuak ezartzean gorabehera handiak nabaritzen direlako lurralde batetik bestera, eta baldintza horren bitartez hauxe lortu nahi delako: beste leku batzuetatik jendea etorritakoan sortu den arazoa, hots, laguntza-posturik eza, ez gaizkitzea.

Alabaina, gizarte-zerbitzu “arinago”en kasuan (etxerako laguntza, eguneko zentroak), ez dugu uste adineko ezin pertsonak bizitokia aldatuko duenik horrelako zerbitzuei onura ateratzeagatik bakarrik.

Aitzitik, badirudi horrelako epe-mugak inertzia jartzen direla, beste zerbitzu batzuetan ezartzen direnei begira, aztergai dugun kasuan lortu nahi den helburua lortzeko egokia den ala ez pentsatu gabe.



Hala ere, horrelako mugak bere hartan mantentzea kaltegarria da familia arrazoiegatik gurasoak beren etxean hartu behar dituzten euskal herritarrentzat, bada hauek ordurarte beste herri batean bizi izan badira, ezin dute laguntza-zerbitzurik jaso ezarritako epe jakin batean.



VI. ATALA  
**LABURPENA ETA ONDORIOAK**



## 6.1. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

### 6.1.1. EELZren zabalerari buruzko datu orokorrak

- EAE guztian, EELZek 65 urtez gorako 8.214 pertsonari ematen die laguntza, Araban 1.192ri, Bizkaian 4.557ri eta Gipuzkoan 2.465ri; guztira, 65 urtez gorako biztanleen %3,05i ematen zaio laguntza. Zerbitzu hedadura handiagoa dago Araban (%3,87), Bizkaian (%2,99) eta Gipuzkoan (%2,86) baino. Alternatibo-edo deritzaien laguntza mailan ere, adineko pertsonentzat hedadura handiagoa dago Araban beste bi lurraldeetan baino: erresidentziak, eguneko zentroak etabar.
  - Intentsitatea edo astean zerbitzu-hartzaile bakoitzari eskaintzen zaion laguntza orduen batez bestekoa, 5,67koa da EAE guztian; Araban 6,77 orduko, Gipuzkoan 6,37koa eta Bizkaian 5,01 orduko.
  - Maila edo adineko pertsona guztien eta eskaintzen diren orduen arteko erlazioa adieraten duen parametroa Araban 261koa da, Bizkaian 150ekoa eta Gipuzkoan 182koa; horrek esan nahi du, EAE erreferentzia modura hartuz gero, 173 laguntza ordu 65 urtez gorako mila pertsonen artean banatu beharko lituzketela. Mila pertsonako ordu gehiena Arabak eskaintzen ditu, Bizkaiak baino 1,7 aldiz gehiago.
  - Espainiako Gerontologia Planak hartutako asmoa, 2.000. urterako hedadura mailan % 8ko indizea iristea da; Euskadiko Plana, berriz, apalagoa hau, 10-15 urteren buruan zerbitzu-hartzaileen portzentaia %6ra, alegia, dagoenaren doblera iristea zen.
- EAEn Arabako kobertura maila egotera, Bizkaian 2.315 zerbitzu-hartzaile gehiago izango lirateke eta Gipuzkoan 2.024 gehiago, gaur dutena baino %70 eta %80 hedadura handiagoa izatea, alegia.
- Ez dago erlazorik lurraldeen artean dauden diferentzien eta horietako bakoitzean ematen diren zerbitzu alternatiboen artean. Egoitza edo eguneko zentroetan laguntza eskaini ere, beste lurraldeetan baino portzentaia handiagoari egiten baitzaio Araban, 65 urtez gorakoen %5,4ri, hain zuzen, Gipuzkoan %3,4ri eta Bizkaian %2,9ri. Etxez etxeko laguntza nahikoa ez dutela-eta, zerbitzu alternatiboak Bizkaian eta Gipuzkoan baino gehiagori eskaini arren, Arabako EELZko zerbitzu-hartzaileen dependentzia maila handiagoa da beste bi lurraldeetakoena baino.

### 6.1.2. EELZren adierazleak Europan

- EAEn zerbitzu hedadura zabaldu egin da azkeneko hiru urte hauetan, mailak, ordea, Gipuzkoan bakarrik egin du gora. Araban eta Bizkaian, intentsitateak eta mailak behera egin dute. EAEn, beraz, lehengo ordu kopuruari eutsiz kobertura edo zerbitzu hartzaileen kopurua %25ean igo da; baina orain, laguntza ordu gutxiago ematen zaio zerbitzu-hartzaile

bakoitzari, %25 inguru gutxiago. Horretarako, noski, zerbitzu-hartzaileko ordu kopurua ia proportzio berean gutxitu behar izan da.

- Maila kontuan, gizarteko laguntza oso ona duten Europako beste lurralde asko baino gehiago saiatzen da EAE. Zerbitzu-hartzaileko Frantzia, Belgika eta Austria baino astean laguntza ordu gehiago ematen da EAEn.

- EAEn eskaintzen den laguntza zerbitzua, oro har, intentsiboa da, zerbitzu-hartzaile gutxiri baino bakoitzari ordu kopuru handi samarra eskaintzen diona, alegia. Europan, berriz, kontrarako joera dago, zerbitzu-hartzaile askori, baina bakoitzari ordu gutxiago eskaintzekoa.

Euskadin ere laguntza estentsiboa eskaintzeko joera sartzen ari da gaur, Europan bestaldera egin behar ez ote litzatekeen aztertzen ari direnean. Gai honetan jakitun direnen iritzian, EELZk batez ere dependentzia mailarik handiena duten haiez arduratu beharko luke, horretarako adineko pertsona gutxiagori lagundu behar izanda ere.

### 6.1.3. Laguntzaren adierazle nagusiak udalerriz udalerriz

- Zerbitzu adierazle nagusiei buruz alde handiak daude bai hiru Lurraldeen artean eta baita lurraldeen barnean ere.

- Gipuzkoan, esate baterako, Zegamak 0,7ko zerbitzu hedadura eskaintzen du eta Oreak 18,75ekoa. Araban, Zuyak 0,7ko laguntza hedadura eskaintzen du eta Zaldudok 10ekoa, eta Bizkaian, Ugao-Miraballesek 0,3koa eta Bilbaok 4,2koa.

- Intentsitate kontuan ere zera bera gertatzen da, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian eta bai Araban; Alkizan, Olaberrian eta Ezkio-Itsason astean 14 ordu baino gehiagoko laguntza eskaintzen den bitartean, Deban 3 bakarrik eskaintzen baitira; Bizkaian, astean ordu gehiena eskaintzen dituen Ereño da, 10,38; gutxiena eskaintzen dituen, berriz, Bilbao, astean 4,01 ordu; eta Araban, gehien eskaintzen dituen Peñacerrada, astean 20 ordu, eta gutxienekoa Aramiñon, astean ordu bat.

- Mailarik altuena Gipuzkoako herri bati dagokio, Elduaieni hain zuzen, 1.459 ordurekin, eta lurralde horretan mailarik txikiena Zegamak dauka, 54,22 ordurekin. Bizkaian, Ereñok 305 ordu eta Ugao-Miraballesek 23, horiek dira muturretan dauden biak. Araban haiek dira muturretakoak: Artziniega, 846 ordurekin eta Armiñon 8,88 ordurekin.

- Alderik txikiak Bizkaian daude, edo, aldea ez da beste bi Lurraldeetan adina nabari, behintzat, EELZko zerbitzuak herriak ez baino mankomunitateka antolatutak daudelako, hain zuen.

- Estatistikaz behintzat, herrialde bat berean ere ez da nabari udalerriko biztanle kopuruaren eta zerbitzu hedadura, intentsitatearen eta mailaren artean korrelazio nabaririk dagoenik.
- Ezta, halaber, eskaintzen den hedaduraren eta intentsitatearen artean korrelazio deigarririk dagoenik ere; horrek esan nahi du zenbait udaldiru eta mankomunitatetan hedadurari ematen zaiola garrantzia, zerbitzu-hartzaile bakoitzari laguntza ordu gutxiago eskainiko bazaio ere, eta beste batzuetan, berriz, kontrako aldera egiten dela. Zerbitzu mailak hiru herrialdeetan du intentsitatearekin zerikusia edo erlazioa, eta are handiagoa hedadurarekin. Zerbitzu-hartzaileen portzentaiak erabakitzen du, zer zerbitzu maila eskaini eta horri zein prezio jarri, ez zerbitzu-hartzaile bakoitzari eskaintzen zaizkion orduak. Araban, hala ere, zerbitzu mailak erlazio berbera du intentsitatearekin eta hedadurarekin; horrela bada, lortua dute orduak hedadura eta intentsitate mailan orekaz banatzea.
- Gipuzkoan, herria handi edo txiki izateak eskaintzen den zerbitzu adierazleekin korrelazio estatistikorik ez badu ere, hedadura, intentsitate eta maila oneko herri gehienak biztanle gutxikoak edo 2.000 biztanlez azpikoak dira.
- Bizkaiari buruz ezer esatekotan, azpimarratu beharra dago Bilbao dela denetan hedadura handiena eta intentsitate maila apalena eskaintzen duena.
- Araban azpinarratzekoa da hiriburuak Lurraldeko batez bestekoa baino hedadura zabalagoa izatea, kontrara, intentsitatean eta mailan gainerako udaldiruaren mediara iristen ez bada ere, Gasteizko udaldiruaren eta Foru Institutuaren artean egin zuten eginkizun banaketan udaldiruak ezintasunik gutxieneko kasuak hartu zituelako seguru asko. Gainerako udaldiruetan ere, nahiz eta Foru Institutuaren gain egon nori laguntza eskaini eta nori ez aukeratzea, alde handiak daude aipatu diren zerbitzu adierazleei dagokienez, batez ere intentsitateari dagokionez; Gipuzkoan eta Bizkaiaren baino alde handiagoak, egon ere. Bestalde, azpimarragarria da Amurrión, Laudion, Dulantzín eta Agurainen laguntza-hartzaile bakoitzari astean eskaintzen zaion ordu kopuruak Arabako batez bestekoa bikoizten duela.
- Datu horien arabera, hiru hiriburuetakoa joera zerbitzu estentsiboa eskaintzekoa da, ahalik pertsona gehienei laguntza ematekoa, alegia; Gipuzkoako herri txikietakoa, berriz, joera zerbitzu-hartzaile bakoitzari ahalik ordu gehiena eskaintzekoa da, eta EAEko gainerako herrietan alde handiak daude batzuetatik besteetara, eta denak batera ditzakeen joerarik ez da nabari.
- Etxez etxeko laguntza kontuan (parametroak lekuko) herrialde eta herri batzuetatik besteetara dauden aldeak ikusita, eta nola hori demografiaren edo kulturaren arrazoiez bakarrik ezin esplikatu daitezkeen, esan daiteke, ez dutela EAEko hiritar guztiek EELZko laguntza izateko eskubide bera.

#### 6.1.4. EELZren laguntza hartzen duten biztanleen ezaugarriak

- EAeko etxeko etxeko zerbitzu-hartzaileen batez besteko adina 80 urtekoa da; horietan, %75 emakumezkoak dira. Proportzio hori, 65 urtez gorako gainerako biztanleetan dagoena baino handiagoa da, hauetan 65 urtez gorako emakumezkoak %58,4 baitira eta, 80 urtez gorakoetan, berriz, %70. Zerbitzu-hartzaileetan emakumezko gehiago egotearen arrazoa kulturazkoa da, seguru asko. Adineko bi pertsonaz osatutako familian gizonezkoa berez ezin balia ahal izatea emakumezkoa hala gertatzea bezain larria ez dela dioen hipotesia, kontuan izateko hipotesia litzateke agian, zeren, dituzten beharrak ezin egina, autonomo ez dena emakumezkoa denean sortzen baita.
- Zerbitzu-hartzaileen %40a gaizki ibiltzen da bere eguneroko beharrak egiteko, proportzioz gainerako biztanleetan baino lau aldiz gehiago; eta horietako %90ek du etxeko lanak egiteko eragozpenen bat.
- EELZko zerbitzu-hartzaileak eguneroko behar pertsonalak egiteko (ohertzeko, jaikitze, garbitze, bainatzeko, dutxatzeko, janzteko, erantzeko, jateko, paseatzeko eta komunekoak egiteko) arazoren bat duten ala ez kontuan izanik, lau taldetan bana daitezke: %40,9 litzateke gai guztiak egiteko, %27,2 litzateke gai bakarrik baina zailtasunarekin egiteko, %24,0 ez litzateke gai laguntzarik gabe egiteko eta %7,95k ezingo luke horietako bat ere laguntzarik gabe egin ahal izango.
- EELZko zerbitzu-hartzaileen ezintasun mailari dagokionez, alde handiak daude hiru herrialdeen artean. Araban, zerbitzu-hartzaileen %20 ez da ezertarako gai; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, %5 inguru dago egoera horretan. Bizkaiko zerbitzu-hartzaileen ia %50 gai da gorago aipatu diren horietako edozein lan egiteko, Araban eta Gipuzkoan, berriz, %34,1 eta %35,6 baino ez. Horrela, Araban, inor EELZn hartzeko orduan dependentzia maila larrian daudenek dute lehentasuna; irizpide horrek beste bi herrialdeetan baino garrantzi handiagoa du behintzat.
- Logikoa denez, berez ezin baliatu denak etxeko lanak ere ezin ditu egin. Autonomo direnetan edo berez balia daitezkeenetan ere, %40k norbaiten laguntza behar izaten du etxeko lanak egiteko; %32k erosketak egiteko, eta %9,2k otorduak prestatzeko. Etxeko lanak egiteko norik zer arazo dituen aztertuz gero, argi ikusten da kulturak zenbaterainoko eragina duen: bere behar pertsonalak egiteko autonomoak diren gizonezkoetatik, %52,0 ez omen da otorduak prestatzeko gai, eta %35,2 etxeko lanak egiteko; egoera berean dauden emakumezkoetan, berriz, %1,3 ez omen da gai otorduak prestatzeko, eta %7,9 etxeko lanak egiteko.



### 6.1.5. Elkarbizitzako egoera eta laguntza informala

- EELZko zerbitzu-hartzaileen %52,2 pasatxo bizi da bakarrik, 65 urtez gorago zerbitzu-hartzaile ez direnak baino dezente gehiago, hauetan %16,5 bizi baita horrela. Bakarrik bizi diren zerbitzu-hartzaileen proportzio handiena Bizkaian dago, %61,8, eta txikiena Araban, %34,7; Gipuzkoan, berriz, %49,4.

Bakarrik edo bestela bizitzeak badu zeresana inori etxez etxeko laguntza ematerako orduan, Bizkaian batez ere.

- Bakarrik bizi diren zerbitzu-hartzaileen artean norbaitekin bizi direnen artean baino pertsona autonomo edo bere kabuz balia daitekeen gehiago dago, % 50,6 lehenengoetan eta %30,3 norbaitekin bizi direnetan; bakartasunak eta dependentzia mailak inor EELZn onartzerakoan garrantzi handia dutela baina horietako bakoitzak bere aldetik funtzionatzen duela esan nahi du horrek.

- Bakarrik bizi diren gizonezkoen artean egoera berean dauden emakumezkoetan baino pertsona autonomo gehiago dago proportzioz. Bakarrik bizi diren gizonezkoetan %70,7k ez du inolako dependentziarik, egoera horretan dauden emakumezkoetan, berriz, %46,8k. Hortik ikusten dena zera da, bakarrik dagoen gizonezkoari hala dagoen emakumezkoari baino errazago ematen zaiola EELZrako sarrera.

Bikotean edo elkarrekin bizi diren zerbitzu-hartzaileetan, berriz, ezintasun larriko gizonezko gehiago dago; horrek adierazten du, gizonezkoa gutxiagora erortzeak, ezintasun larrian ez bada, ez duela seguru asko emakumezkoa gutxiagora erortzeak adinako garrantzirik bikotearen bizimodurako.

- Zerbitzu-hartzaileen %50 baino gehiagok du laguntzaile informal bat, gizonezkoetan %62k eta emakumezkoetan %52k. Laguntzaile informala duten gizonezkoen %50 inguruk bere emaztea du laguntzaile, senarra laguntzaile, berriz emakumezkoen %17,5ek eta seme-alabak (alaba gehiagotan), emakumezkoen %50ek eta gizonezkoen %36k.

- Laguntza informala hartzen dutenak Araban Gipuzkoan baino askoz ere gehiago dira. EELZko laguntzailea eta laguntzaile informala, biak dituztenak, Bizkaian dira bakanen. Horrek esan nahi du, Araban, familiakoren bat, edo beste laguntzailearen bat edukitzeak ez duela EELZko laguntza izatea kentzen, edo beste norbait laguntzeko edukitzeak ez duela Gipuzkoan eta Bizkaian adinako eraginik etxez etxeko laguntza zerbitzua ere eman ahal izateko. Arabako joera, dirudienez, familiaren laguntzaile papera indartzekoa eta horrela ongizatearen ekonomia mistoa sortaraztekoa da.

### 6.1.6. Bizitokiaren egoera

- EELZko zerbitzu-hartzaileen etxebizitza gutxi ez du beharreneko instalaziorik. Zerbitzu-hartzaileen %3,6k ez du etxean ur berorik, %4,8k ez du kafekaziorik, %6,7k ez du bainu edo dutxarrik, %6,9k ez du telefonorik eta, azkenik, %3,6k ez du bere logela berezirik.

EAE mailan, %13,7k du telealarma etxean, eta Gipuzkoan, %21,8k.

- Etxeak eta kaleak eginda dauden eran ere, beren kabuz baliatzeko eragozpen handiak aurkitzen dituzte zerbitzu-hartzaileek. Oztopo horiek direla-eta, etxetik irteteko beldurrez egoten da zerbitzu-hartzaileen %20,8; beste %8,9 gutxiagotan irteletan da oztopo horiek direlako, eta %8,1 -665 pertsona EAE mailan- irten ere ez da egiten oztopo horien-gatik. Bestalde, elkarrizketatu ditugun adineko pertsonen %53,6k ez du aszentsorerik etxean.

### 6.1.7. EELZren eraginkortasun mailaren azterketa

- EELZko zerbitzu-hartzaileen %37,9 gai da bere kabuz jaikitzeo, oheratzeko, janzteko, erantzeko, garbitzeko, jateko, duen dirua administratzeko eta ibiltzeko, autonomo da, alegia. Zailtasun handienak etxea garbitzerakoan aurkitzen dituzte horiek; autonomo direnen %22,5ek ezin izaten du etxea garbitu, garbiketa sakonik ezin eman ahal izaten dio behinizat; %40k azkena aipatu den lan hori ezin egin dutela aitortzen du. Zerbitzu-hartzaile autonomoen edo bere kabuz balia daitezkeenetan %42,1 gizonetzkoak dira, %36,6, emakumezkoak. Etxez etxeko laguntza emakumezkoiei errazago ematen zaie, beraz, gizonetzkoiei baino.
- Logikoa den bezala, zenbat eta zerbitzu-hartzaileak dependentzia maila handiagoa eduki orduan eta ordu gehiagoz laguntzen zaio astean. Horrela, norbere behar pertsonalak egiteko gai denari 4,8 orduko laguntza eskaintzen zaio, horretarako zailtasunen bat duenari 6,21 ordukoa, eta ezintzasun larria dutenei 8,33 ordukoa. Gizonetzko edo emakumezko izateagatik, horiek autonomo direnean bakarrik egiten da diferentzia; bere kabuz balia daitezkeen gizonetzkoiei 5,25 orduko laguntza ematen zaio astean, egoera berean dauden emakumezkoiei, berriz, 4,50 ordukoa.
- Adjudikatutako ordu bitartean araberako azterketa egitean ikusten da, hala ere, ezintasun handia edo larria duen askori berez balia daitezkeen batzuri baino laguntza ordu gutxiago eskaintzen zaiola. Astean 7 orduko laguntza hartzen dutenetatik %20 gai da berez baliatzeko. Zerbitzu-hartzailearen dependentzia mailaren eta eskaintzen zaion ordu kopuruaren edo intentsitatearen artean bada, beraz, desegokitasun edo efikazia faltaren bat, laguntza orduak banatzerakoan kontua izan edo konpondu beharrekoa.

- Elkarbizitzari buruz esan, bestalde, bakarrik bizi diren zerbitzu-hartzaileek, norbaitekin bizi direnek baino astean ordubete gehiagoko laguntza izaten dutela, dependentzia maila berekoak izan arren; eta horrela, dependentzia bakartasunaren osagarri bihurtzen da, irizpideei dagokienez. Berez balia daitezkeen pertsónen kasuan, berriz, kontrako aldera gertatzen da hori, eguneroko beharrak egiteko arazorik ez duten pertsona bakarrek norbaitekin bizi direnek baino laguntza gutxiago (ordubete) izaten dute. Zeren, zerbitzu-hartzailea norbaitekin bizi denean, biak beren kabuz balia daitezkeenak izanik ere, egunero ondoan duen hura -senarra gehienetan- konpainiako lagun gisa ez baino, karga gisa hartzen baita, nonbait.
- EELZren eraginkortasun maila, ezintasun larriko zerbitzu-hartzaileen kopurutan edo, nahitaez zerbitzu hori behar duten kopurutan neurtuta, 31,9koa da EAEn, 51,5koa Araban, 32,4koa Gipuzkoan eta 23,2koa Bizkaian.
- Eraginkortasun horizontala edo ezintasun larria duten biztanleetatik zenbati laguntza eskaintzen zaion neurtzen duen adierazlea ere, Araban beste bi lurraldeetan baino handiagoa da: 52,5koa Araban, 15,2koa Gipuzkoan eta 11,9koa Bizkaian; EAEn, berriz, 17,13koa.

Arabian eraginkortasun tasa handiagoa izatearen arrazoiak, EELZren beraren efikaziaz aparte, Lurralde horretan zaintzailea duten oheak beste bi lurraldeetan baino gehiago izatean, eta etxe partikularretan bizi diren zerbitzu-hartzaileak gutxiago izatean ere badago, agian.

Zerbitzu-hartzaileak ezintasunaren arabera aukeratze kontuan, EAeko etxez etxeko laguntza zerbitzua beste lurraldeetakoa bezain eraginkorra dela esan daiteke. Hala ere, ezin esan daiteke EAeko EELZ biztanle ezinduei nahikoa hedadura emateko gai denik.

#### 6.1.8. EELZren eginkizunak

- Etxeko lanetan ezezik zeregin pertsonaletan ere ia EELZ guztiek laguntzen dute. Sendaketa kontuan dagoen eskasia dela-eta, sendaketa lan-tzat edo *nursing* gisa har daitezkeen laguntza ere eskaintzen dute EELZ batzuek.

Etxeko garbiketa kontuan EELZ batzuk besteak baino gehiago konprometitzen dira. Zenbait herritako EELZk etxeko konponketa koskor oinarritzakoak egiteko zerbitzua ere eskaintzen dute, bonbilak aldatzen etabar; beste batzuetakoek, berriz, etxeko garbiketa sakona egitea, kristalak garbitzea eta konponketa koskorrak egitea etxez etxeko laguntza zerbitzuen lana ez dela diote.

- Etxeko lanetarako eta behar pertsonaletarako laguntza, elkarrizketatutako zerbitzaile-hartzaileen %30ri ematen zaio; hutsik etxeko lanak egiteko laguntza, %60ri, eta behar pertsonaletarakoa bakarrik, %7,5i. Behar

pertsonalak egiteko laguntza behar duen zerbitzu-hartzaile gehiago da Araban -%53,4-, Gipuzkoan -%34,7- eta Bizkaian -%31,8- baino.

- EELZek egin behar pertsonalak egiteko ematen duen laguntzari buruz datu hauek azpimarra daitezke:

- Arabako EELZek lurralde bereko zerbitzu-hartzaileen %40ri laguntzen diote jaikitzen eta oheratzen; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, %11ri. Bizkaiko zerbitzu-hartzaileen %3k -137 pertsonak- eta Gipuzkoakoan %1ak -33 pertsonak- lanak ditu jaikitzeko eta oheratzeko, baina ez du nork lagundurik. Egoera horretan, 196 pertsona daude guztira.
- Arabako EELZek lurralde bereko zerbitzu-hartzaileen %45i laguntzen diote garbitzen, Gipuzkoakoek %23,5i eta Bizkaikoek %21i. Bizkaiko zerbitzu-hartzaileen %3k -137 pertsonak- eta Gipuzkoakoan %1,2k -33 pertsonak- norbaiten laguntzaren beharra du garbitzeko, baina ez du nork lagundurik.
- Arabako EELZek lurralde bereko zerbitzu-hartzaileen %45i laguntzen diote bainatzen, Gipuzkoakoek, berriz, %20ri eta Bizkaikoek %26ri. Gipuzkoako zerbitzu-hartzaileen %3 inguruk -74 pertsonak- eta Bizkaikoan %4k -184 pertsonak- bainatzeko norbaiten laguntza behar du, baina ez dauka nork lagundurik.
- Arabako EELZek lurralde bereko zerbitzu-hartzaileen %40 baino gehiagori laguntzen diote janzten eta erantzten, Gipuzkoakoek, berriz, %20ri eta Bizkaikoek %14ri. Bizkaiko zerbitzu-hartzaileen %4,3k -196 pertsonak- janzteko eta erantzeko norbaiten laguntza behar du, baina ez dauka nork lagundurik.
- Zerbitzu-hartzaile gutxi dira bakarrik jateko gai ez direnak. Horretarako norbaiten beharra dutenei, oro har, laguntzaile informalek laguntzen diete.
- Sabeleko egitekoekin arazoak dituen zerbitzu-hartzaile gehiago da Araban beste bi lurraldeetan baino. Arabako EELZek zerbitzu-hartzaileen %34,6ri laguntzen diote eginkizun horietan, Bizkaikoek, berriz, %3,4ri eta Gipuzkoakoek %5,3ri. Arabako EELZen bereiztasunetako bat zein den bederen argi erakusten dute datu horiek.
- Gipuzkoako zerbitzu-hartzaileen %2,4k eta Bizkaikoan %6,4k jateak, jaikitzeak eta oheratzeak, janzteak eta erantzteak edo garbitzeak, laurretakoren batek sortzen dion arazoa konpondu gabe du oraindik. Horrelako kasurik ez da aurkitu Araban.

- EELZk etxeko lanetan duen eginkizuna, berriz, ondoko puntu hauetan bil daiteke:

- Gipuzkoan eta Bizkaian, zerbitzu-hartzaileen %25i laguntzen dio otorduak prestatzen, Araban, aldiz, %13,8ri.
- Gipuzkoan eta Bizkaian, ia zerbitzu-hartzaile guztiei laguntzen die etxeko lanak egiten, Araban, berriz, %66,4ri.

- Arabako EELZk zerbitzu-hartzaileen %22,8ri egiten dizkio erosketak, Bizkaikoak, aldiz, %35,6ri eta Gipuzkoak %38,2ri.
- EAeko zerbitzu-hartzaileen %10ak du eginkizun instrumentalen bat egiteko orduan laguntza beharra, baina ez du nork lagundurik.

#### 6.1.9. Harremanetarako laguntza

- EELZko zerbitzu-hartzaileek ez dute, oro har, inguruan lagun faltarik, eta gutxi dira lagunik ez dutenak. %4,4 bizi da bakarrik, tarteka bisitatzten dutela.
- Konpainia egiteko zerbitzua eta antzerakoak EELZren eginkizuntzat daukate udaletxe gehienek, baina eginkizun horiei buruz ez dago hiru lurraldeetan jarrera berdina. Etxean nahiz kalean, konpainiako laguntza izaten dutela dioten zerbitzu-hartzaileen proportzioa Araban beste bi lurraldeetan baino handiagoa da.

#### 6.1.10. EELZrekiko adostasun maila

- Laguntza orduen egokitasunari dagokionez, zerbitzu-hartzaileen prementzat oso garai onean jarriak daude. Zerbitzu-hartzaileen gogorako zerbitzu orduak Araban baino -%3,11- egokiagoak dira Gipuzkoan -%12,7- eta Bizkaian -%18,3. Gehienek -%85,9k- beti ordu berean hartzen dute laguntza, goizeko 9etatik 12etara bitartean, zerbitzu hartzaileen erdia inguruk; zerbitzuen %80 arratsaldeko hiruretarako bukatua izaten da.
- Duten laguntzailearekin oso gustura daude zerbitzu-hartzaile gehienak. Laguntzailearen eginkizunei buruz egindako galdera zehatzei ere, oso gutxik -%5ek bakarrik- erantzun zien gustura ez zegoela. Etxez etxeko laguntzaileak beraiek nahi adina ez hitz egitea da erantzunetan gehienetan agertzen den kexua.
- Zerbitzu-hartzaile gehienek aurrerantzean ere duten laguntzaile bera izatea nahi dute; %40k, ordea, onartu egin behar izan du aldatzea.

#### 6.1.11. Etxez etxeko zerbitzuez baliatzen direnak gainerako laguntza zerbitzuen aurrean

- Zerbitzu-hartzaileen %3 baino gutxiago baliatzen da gizarteko beste laguntza zerbitzuez. Elkarrizketatuek emandako erantzunen arabera Jubilatuen etxea da, EELZz aparte, gehien erabiltzen duten zerbitzua; %25 joan ohi da jubilatuen etxera.
- Zerbitzu-hartzaileen %6k egin du egoitzan sartzeko eskaera; hori egin dutenen proportzioa handiagoa da Araban. Ezintasun mailatik begiratu-

ta, dependentzia maila handikoetan edo osokoetan dago eskaera egin duen gutxiena, proportzioz behintzat. Erresidentzia batera behin ere ez litzatekeela joango esaten duen gehiena, eta, halaber, “horiek inorentzat ez direla egokiak” esaten dutenena ere, talde horretan dago. Beraz, adineko pertsonak, dependentzia maila handikoek berek ere, norbaiten laguntza izanez gero, nahiago dute betiko ingurunean bizi. EELZk gehi-ago promozianatu behar direla esan nahi du horrek.

Dirudienek, ezintasunak berak baino ezintasunean geratzeko beldurrak gehiago eragiten ditu adineko pertsonak egoitzan plaza eskatzera. EELZk laguntza zerbitzua garaiz eskainiz gero eta zerbitzua era estentsiboan antolatuz gero, erresidentziarako eske gutxiago izango litzateke, horrela antolatua egoteak adineko pertsonari segurtasuna eta konfiantza emango liokenez.

#### **6.1.12. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren antolaketari dagozkio- nak**

- Gipuzkoan eta Bizkaian, udaletxeen eta mankomunitateen gain dago EELZen antolaketa. Araban, berriz, Gasteizen eta Laudion izan ezik, Gizarteko Ongizaterako Foru Institutuak antolatzen du hori, eta beste bi udalerrietan ere badu bere parte. Gizarte laguntzako oinarriko zerbitzuek jasotzen dituzte eskaerak eta horiek Foru Institutura iritsi arazten dituzte gero; Gasteizko eta Laudioko kasuan ere, eginkizun pertsonaletan laguntza handiena behar duten zerbitzu-hartzaileak beregain hartzen ditu Foru Institutuak.
- Kontratatzeko erari dagokionez, EELZk hiru modutara antolatuak daude, EAEn. Zerbitzu hori enpresa bati adjudikatzea da formuletako bat, zabalduena dagoena, halaber; orduen arabera, Araban eskaintzen den guztia, Bizkaiko %90,7 eta Gipuzkoako %71,1 era horretara antolatua dago. Bigarren formulan, duen garrantziagatik bigarrena, udaletxeak berak kontratatzen ditu langileak; Bizkaiko zerbitzu orduen %9 eta Gipuzkoako %17,4 era horretara kontratatuta dauden laguntzaileek ematen dute. Antolatzeko hirugarren moduan, zerbitzu-hartzaileak berak ordaintzen du laguntzailea, udaletxeak emandako diruarekin. Bizkaiko zerbitzu orduen %0,3 eta Gipuzkoako %11,4 ematen da antolaketa formula horren bidez.
- Udaletxe eta mankomunitate gehienek dituzte zerbitzu-eskatzailea onartzeko eta zerbitzua administratzeko araudiak. Delako araudi horretan aipatzen diren gauzen artean aipagarriak dira, besteak beste, zerbitzu-eskatzailea onartzeko irizpideak, baliabide ekonomikoei eta dependentzia mailari dagozkionak.
- Zerbitzu-eskatzailearen edo haren familiaren errenta maila oinarri gisa hartzen da prezio publikoa kalkulatzeko, eta erabakiorra izan daiteke ere zerbitzu eskeari baiezkoa edo ezezkoa ematea erabakitzeko. Izan ere,

zenbait udaletxetako arauditan argi eta garbi adierazten denez, bada etxez etxeko zerbitzua ukatzea arrazoi ekonomikoak direla medio, eta hori, noski, ez da bidezkoa.

Gehienetan ordea, egitez ukatzen da EELZ, prezio publikoei buruzko sistema aldakorra, eta diru sarreren arabera, ezarritik. Zerbitzuari dagokion kostu osoa ordainarazteak zerbitzua ukatzea dakar berekin, maila jakin batetik aurrera bai behintzat. Izan ere, zerbitzu pribatuen artean bada hori baino aukera merkeagorik.

Zerbitzu-hartzaileak ordaindu beharrekoa erabakitzeko bizikide-unitatea kontuan hartzearekin, adinekoak beraien familia giroan eta inguruan zaintzeaz arduratzen diren familiak saritu ordez kalte handiagoa egiten zaie, adinekoen ardura alde batera uzten duten familiei baino.

Baremo ekonomikoak, alde handiak agertzen dituztenak udalerritik batetik bestera, berriro aztertu beharko lirateke, etxeko lanak egiten dituen norbaitengana jotzea –konponbide desegokia eta, kasurik hoberenean ere, zerbitzu-hartzailea gainerako zerbitzu saretik kanpo uzten duena– ez dadin ekonomikoki hain erakargarria izan diru-sarrera urrikoentzat.

Zerbitzu-hartzaileak zenbat ordaindu beharko lukeen erabakitzeko irizpideak desberdinak direnez, alde handiak daude, udalerritik batetik bestera, eman beharreko diru kopuruan. Nolanahi ere, Araban, zerbitzu-hartzaile guztiek ordaintzen dute zerbitzu, baita Bizkaiko ia guztiek ere, nahiz eta oso kopuru handia ez izan, eta Gipuzkoan %66,3k ordaintzen du. Azken lurralde horretako udalerritik txikitako zerbitzu-hartzaileek, oro har, hutsa ordaintzen dute.

Zerbitzu-hartzaileen laguntza ekonomikoak korrelazio negatiboa ageri du, oro har, zerbitzuaren intentsitatearekiko eta kostuarekiko. Hau da, intentsitate handiagoko laguntza behar duten pertsonen laguntza ekonomiko urriagoa eman ohi dute.

Zenbait prezio publiko zerbitzu-kostuaren azpitik dauden bitartean, etxez etxeko laguntzaren kasuan zerbitzu-hartzaile askorentzat merkatuko prezioa baino askoz garestiagoa ateratzen da.

- Adinekoekin bizi diren familiei ematen zaien trataera fiskalean administrazio ezberdinen artean inkoherentzia dagoela ikusten da, aurreko zuzenak izan gabe subjektu pasiboarekin ahaidetasun mailaren bat daukate-nean.
- Onura jasotzen duenaren ordezko gisa prezio publikoak ordaintzeko ardura familiakoei gaineratzeak hautsi egiten du ondare-prestazioetarako Legeak ezarritako printzipioa. Zerbitzu-hartzailea ez den pertsona bati prezio publikoa ordaintzea esijitu nahi bazazio, lege izaerako arau bat onartu beharko litzateke, ordezko izaera erabakiko lukeena.
- Dependentsia maila neurtzeko irizpideak ere desberdinak izaten dira udalerritik batetik bestera. Hala, dependentsia tasetan, gorabehara handiak daude udalerritik udalerrira eta lurraldetik lurraldera.

Bizkaian eta Gipuzkoan inor bere buruaz baliatu ez izateak pisu handiagoa izan beharko luke zerbitzu eskeari baiezkoa edo ezezkoa ematera-koan, zerbitzuaren eraginkortasuna handitzeko.

- Zerbitzu eskaria egiten denetik laguntza hasten den bitarteko epea lau astekoa izaten da batez beste; bost astekoa hiru hiriburuetan. Izan ere, udaletxe eta mankomunitate guztiek ez baitute malgutasun bera eske larriak bideratzeko.
- Gizarte laguntzailea da etxe bakoitzean egin beharrekoak zehazten dituenak, eta idatzita jasotzen dira egin beharreko horiek udaletxe eta mankomunitate gehienetan. Eginbeharreko guztiak agertzen diren "orri" bat erabiltzea gomendatzen da, laguntzaileak eta zerbitzu-hartzaileak aintzat har ditzaten bakoitzari dagozkion betebeharrak eta eskubi-deak.

Eginbeharrekoak zehaztea eta, gizarte laguntzaileak etxean bertan egitea komeni da, zerbitzu-hartzailearen, EELZen laguntzailearen eta zain-tzaile informalaren aurrean, baina, gaur egun, gutxitan egiten da hori horrela. Laguntza ematen parte hartu behar duten alde guztiak aurrean egoteak bakoitzari dagozkion erantzukizunak negoziatzeko eta argitzeko aukera ematen du, eta baita zerbitzu-hartzailearen ongizatea gainerakoien interesak kaltetu gabe bideratzeko ere.

- Arabako zerbitzu-hartzaileen %92k, Gipuzkoako %50ek eta Bizkaiko %35ek izan dute harremanik gizarte laguntzailearekin, zerbitzu-hartzailearen beraren etxean edo profesionalaren bulegoan. Baina maiztasunari dagokionez, %5ek hilabetez behin eta %11,5ek sei hilabetez behin baino ez dute harremanik izan.

Ikuskatze lanari dagokionez, bestalde, hutsune handiak ageri dira alor horretan. Nolanahi ere, ikuskatze lan hori behar beharrezkoa da behar bezalako zerbitzua eman nahi bada. Batetik zerbitzu-hartzailearekiko zereginak haren beharrianetara moldatu behar direlako, eta beharrian horiek, noski, aldatuz doaz. Horretarako, behin eta berriz aztertu behar dira kasuak, eta harremanetan egon behar da etxeko laguntzaileekin. Bestalde, gizarte laguntzaileak bertatik ezagutu behar du zerbitzu-hartzailearen ingurunea, dependentzia egoera betikotzea ekar dezaketen jarrerak neurtzeko, zerbitzuaren eta zerbitzu-hartzaileak dituen beharri-zanen artean desorekarik izan ez dadin, eta informazio sarea, auzoki-deak ere hartzen dituenak, koordinatzeko.

### 6.1.13. EELZetako langileak eta horren antolaera desberdinak

- Etxeko laguntzaren arloak 2.032 langile hartzen ditu. Horietatik %80,7k enpresa baten egituraren barruan lan egiten du, %22,5 udaletxe edo mankomunitate batean aritzen da, eta %6,8 –Gipuzkoan gehienak– zerbitzu-hartzaileak kontratatzen du zuzenean.



- EAEko etxez etxeko laguntzaile bakoitzak 1.193 ordu lan egiten du batez beste urtean, hau da, lan horren pareko konbenio baten arabera aritzen denaren urteko lanaldi osoari dagokiona baino %45 gutxiago.

Izan ere, zerbitzua antolatzeko arazo nagusietako bat laguntzailea lanaldi osoan bertan enplegatuta egoteko zailtasunean baitatza. Bizkaiko langileen %71,6k, Arabakoek %67k eta Gipuzkoakoek %59,2k hogeita ordu baino gutxiago betetzen dituzte astean.

- Salbuespenak salbu, enpresetan ari diren langile guztiak, eta udaletxeak zuzenean kontrataturikoak, alta emanda daude Gizarte Segurantzari. Ez, ordea, lansaria zuzenean zerbitzu-hartzaileengandik eskuratzen dutenak.

- EAEn lan ordu bakoitzeko lansari garbia 816 pezetakoa da. Lansari handiena udaletxeetako langileek dute, 1.012 pezeta lan orduko. Enpresa baterako lan egiten duen laguntzaileak 804 pezeta irabazten ditu lan orduko, eta udaletxeak zerbitzu-hartzailearen gain uzten duenean ordainketa, laguntzaileak 700 pezeta irabazten ditu. Lana antolatzeko hiru sistema horietako bakoitzean alde handiak daude lurralde batetik bestera, eta ez dago arrazoirik hori horrela izateko. Gauza bat argi dago ordea: ordainketa zerbitzu-hartzailearen gain uzteko formula hori, Gipuzkoan errotua batez ere, irregularra da, sozial auzietarako epaitegiek adierazi duten bezala, eta irregularra izateaz gainera, diru gutxien ordaintzen duena da, eta, beraz, baztertu beharrekoa.

- Lan orduko batez besteko kostuaren eta langileak lan orduko hartzen duen soldata garbiaren arteko aldea handiagoa da Araban beste bi lurraldeetan baino: bi balio horien arteko arazoia 2,5 baita Araban, 2 Bizkaian eta 1,6 Gipuzkoan. Aldea Araban handiagoa izateari buruz, kontuan hartu behar da Araban langile bakoitzari dagokion zerbitzu-hartzaileen ratioa txikiagoa dela, biztanleria sakabanatuagoa dagoela, eta Arabako enpresek, teknikari eta administrari gisa aritzen diren langileak direla eta, egiturazko karga handiagoak dituztela.

Arabian sarri izaten da laguntza denbora-bitarte laburretan zatitua eman beharra, mugitzeko arazoak dituztenek hala eskatuta –horrek esan nahi du laguntzaileak egunean bi aldiz edo bi baino gehiagotan joan behar izaten duela zerbitzu-hartzaile berarengana–, eta hori dela eta, leku batetik bestera aldatuz ibili beharrez arazo handiak sortzen ditu.

Zerbitzuaren kostua zerbitzuaren intentsitatearen arabera izan behar luke hein batean, eta lekuz aldatzen ibili behar duenak, egoera jakin batzuetan behintzat, dagokion ordain saria hartu behar luke.

#### 6.1.14. **Etxez etxeko laguntzaileen arazoak eta langintza horretako beste zenbait gorabehera**

- Laguntzaileek duten arazo nagusietako bat haien eginkizunaren zehaztasunik eza da. EEL.Zetako langileak kexu dira egiten duten lana garbitzaileenarekin berdintzen delako, beraienak garbiketari dagozkionak baino eginkizun zailagoak izanik. Egia da ere, udaletxeek laguntzailearen eginkizuna etxeko lanak egitearekin berdintzeko joera dutela, beldur diotelako, arazo teknikoak gorabehera, beste profesional mota bat sortzeak ondorioz izango lukeen eragin ekonomikoari.
- Langile askok, bestalde, karga psikologiko handia jasaten du. Kontuan izan behar da, langile horietako asko bi lanaldi betetzen dituzten emakumezkoak direla. Hori gutxi balitz, eta egiten duten lanaz aparte, familia-kidderen baten zaintzaile ere izaten dira horietako emakume batzuk. Bestalde, kontuan hartzekoa da ere, berez baliatu ezin diren adinekoekin lan egiteak psikologian eragin handia izan dezakeela.
- Azkeneko urteotan, gainera, zerbitzu mailari eutsi egin zaio eta, aldi berean, handitu egin da hedadura maila, hau da, murriztu egin da laguntzaren intentsitate mailaren batez bestekoa, eta horrek lan gehiago egin beharra ekarri du langilearentzat, zeren, ordu beretan zerbitzu-hartzaile gehiago zaindu behar izaten baitu. Gainera, askotan, langileak ez dira lana mugatzera ausartzen, konpromezu pertsonala baitute zaintzen dutenarekin, eta egoera horretatik ihes egitea zaila egiten zaie.  
Logikoa da erakunde publikoek gastuei begiratzea, are gehiago eskea gora doala kontuan hartzen bada, baina ez da batere bidezkoa, eta zerbitzuaren kalitateari dagokionez, arriskutsua gainera, zerbitzu-hartzaileari laguntzeko egiten den lan guztia laguntzailearen bizkar uztea.
- Mugitzeko ezintasun handiak dituzten pertsonen laguntzeko behar diren baliabide teknikoak –komun eta ohe bereziak adibidez– urriak dira.
- Zerbitzu publiko bati dagokion kalitatea ziurtatu nahi bada, etxez etxeko laguntzaileari prestakuntza berezia eman behar zaio. Hala, bada, etxeko lanei, dietetikari eta sukaldaritzari, edo adinekoaren garbiketari eta laguntzari buruzko ezagupen teorikoak eta praktikoak izateaz gainera, laguntzaileak ezinduari nola lagundu ere jakin behar du, eta ezinduari laguntzeko dauden baliabide teknikoak ezagutu behar ditu; adinekoen psikologiari buruz ere jakin behar du, dependentzia materialari eta afektiboari buruzko arazoei aurre egin ahal izateko, eta, halaber, osasun eta gizarte laguntzako sareari buruzko informazioa izan behar du, prebentziozko lana egin ahal izan dezan. Etxez etxeko laguntzaile izateak, gainera, kultur maila jakin bat eskatzen du, arazoan parte hartzen duten alde guztiei informazioa behar bezala transmititu ahal izateko.

### 6.1.15. **Ekonomia azterketa**

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko etxez etxeko laguntza zerbitzuaren gastua 4.028 miloikoa da. Urtean, beraz, 15.000 pezeta dagozkie 65 urtez gorako pertsona bakoitzari. Gipuzkoan eta Bizkaian gastua 14.000 pezeta baino gutxiagokoa da, eta Araban 23.185 pezetakoa.
- Foru Aldundiek (%55,5), udaletxeek (%35,9) eta zerbitzu-hartzaileek (%8,6), bakoitzak bere neurrian, finantziazten dituzte etxez etxeko laguntza zerbitzuak.
- Arabako Foru Aldundiak bere lurraldeko etxez etxeko laguntzaren %71,3 finantziazten du, Gipuzkoakoak %58,6, eta Bizkaikoak %48,5. Udaletxeei dagokienez, laguntza handiena ematen dutenak Bizkaikoak dira, lurralde horretako EELZren %43,7 finantziazten baitute; Gipuzkoako udaletxeek Gipuzkoako EELZren %33,5, eta Arabakoek Arabako EELZren %171 finantziazten dute. Eta, azkenik, zerbitzu-hartzaileen parte hartzea handixeagoa da Araban beste bi lurraldeetan baino.
- Zerbitzu-hartzaile bakoitzeko kostua antzekoa da Gipuzkoan eta Bizkaian, 500.000 pezeta baino gutxiago, eta hori baino handiagoa da, berriz, Araban, 602.035 pezeta. Laguntza orduko kostuari dagokionez, kosturik handiena Bizkaiko lurraldeak du, 1.779 pezeta. Gipuzkoan, zerbitzu-hartzaile bakoitzeko kostua Bizkaikoaren antzekoa izan arren, orduko kostua txikiagoa da, 1.297 pezeta. Hori, zerbitzuaren intentsitatea Gipuzkoan Bizkaian baino handiagoa delako gertatzen da. Araban, azkenik, kostua 1.709 pezetakoa da.
- Hiru Foru Aldundien finantziario sistemak desberdinak dira, eta neurri desberdinean laguntzen dute ere. Hala, Arabako Foru Aldundiak EELZren %71,3 finantziazten du, Gipuzkoakoak %58,6 eta Bizkaikoak %48,5. Horrek esan nahi du 16.580 pezeta 65 urtez gorako biztanle bakoitzeko Araban, kopuru horren erdia Gipuzkoan eta 6.732 pezeta Bizkaian.

Gipuzkoan eta Bizkaian, EELZk finantziazteko, aldundiek hainbateko bat ematen dute biztanle bakoitzeko –Bizkaia 65 urtez gorako biztanle bakoitzeko–. Bizkaian, finantziarioaren %25 gutxienez udaletxeen gain dago, eta Gipuzkoan 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek biztanle kopuru horri dagokion dirua hartzen dute gutxienez.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren politikak, joeraz, mesede egiten die udalerririk txikiei. Hala, udalerririk ez dute etxez etxeko laguntza zerbitzuen finantziarioan parte hartzen, baina, aitzitik, laguntza handia hartzen dute.

Arabako Foru Institutuak lurralde osoan EELZ finantziazten du berak bakarrik, hiriburuan eta Laudion izan ezik, udalerririk horietan udaltxearekin batera egiten baitu, bi zerbitzu-hartzaile mota bereiziz: batetik, nola-

baiteko autonomia duten pertsonak, eta hauek udaletxearen laguntza hartzen dute, eta, bestetik, bere kabuz balia ezin daitezkeen pertsonak, eta hauek Foru Institutuaren laguntza hartzen dute.

Funtzioak Arabako Foru Institutuaren eta Gasteizko Udaletxearen artean banatu ordez, erakunde horiek lankidetzan aritu beharko lukete, disfuntziorik izan ez dadin. Disfuntzio horiek ez dira oso larriak oraingoz, baina, aurrerantzean, izateko arriskua dute. Izan ere, funtzio horiek behar bezala betetzea, erakundeetako politikarien eta teknikarien borondatearen mende baitago erabat.

- Aipatzekoa da, batez ere Gipuzkoari dagokionez, bai udalek EELZ finantzatzeko jartzen duten diru kopuruan bai output adierazleetan alde handia dagoela herri batetik bestera. Horrek agerian jartzen du aurrera eramanez beharrak jokabidean ez dagoela irizpide batasunik:
  - 33 udalerririk ez dute pezeta bat ere inbertitzen etxeko laguntzan.
  - Foru Aldundiak emandako diru kopuruaren muga-mugaraino iristen ez diren zenbait udaletxek beren baliabide propioetara jo behar duten beste udalerririk batzuek eskatu ohi dutena baino gehiago eskatzen diete zerbitzu-hartzaileei. Beste udaletxe batzuek ez dute Aldundiaren aurrekontuaren arabera dagokien diruaren herena ere gastatzen, eta ez dira iristen lurraldean eskaintzen den zerbitzu mailaren batez bestekoa ematera.
  - Bestalde, badira zenbait udaletxe, zerbitzuaren kostuaren %40 beren gain hartu arren, Lurraldean eskaintzen den zerbitzu mailaren batez bestekoa ematera ere iristen ez direnak.
  - Gipuzkoako udaletxeek ordaintzen duten kopuruak ez du erlaziorik EELZren adierazleetakoa batekin ere, zerbitzuaren kostuarekin baizik.
  - Hogeitabat udaletxek ez diote sosik eskatzen zerbitzu-hartzaileari. Bestalde, ez da orduko kostuaren, edo plazako kostuaren, eta zerbitzu-hartzaileak orduko pagatzen duenaren artean erlaziorik.
- Bizkaian ere diferentziak daude udalerririk batetik bestera, neurri txikiagoan beti ere. Adibidez, Markina-Ondarroa eskualdean, udaleko aurrekontutik milako 24,5 ematen zaio EELZri, eta Plentzia-Mungian, aldiz, milako 2,5 baino ez.
  - Lurralde horretan, udalek pagatzen dutenaren eta mailaren arteko erlazioa handia da oso. Pagatzen dutenaren eta hedadudaren artean, aldiz, askoz txikiagoa da erlazioa.
  - Zerbitzu-hartzaileek pagatzen duten kopuruari dagokionez, gorabehera koefizientea ere txikiagoa da Bizkaian Gipuzkoan baino, baina, hala ere, gorabehera horren heina kontuan hartzekoa da: %18,05 Nabarnizen, eta %4,11 Trapagaranen.

- Araban Foru Institutuak egiten duen diru banaketa askoz homogeneoagoa da, baina, hala ere, gorabeherak daude udalerrri batetik bestera. Gorabehera horrek zerikusia du bai zerbitzu-hartzailearen kostuarekin, bai 65 urtez gorako biztanle tasarekin eta baita hiru output adierazleekin: hedadura, intentsitatea eta, batez ere, mailarekin. Horrek esan nahi du Araban gastuak jardunbide jakin bati erantzuten diola, edo, gutxinez, ez dela orduko/kostua aldagaiak baldintzatua erabat, Gipuzkoan bezala. Zerbitzu-hartzaileak pagatu beharrekoaren batez bestekoa 200 pezeta orduko baino gutxiago da, eta ez dago diferentzia handirik hiru lurraldeen artean, ez bada, Gipuzkoan, hirutik batek ez duela sosik ordaintzen. Ordaintzen duten gipuzkoarrek aldiz, arabarrek eta bizkaitarrek baino 50 bat pezeta gehiago ordaintzen dituzte.

### 6.1.16. Azken gogoetak

- EAEko gizarteak ahalegin handia egiten du adinekoa bere ohizko ingurunean bizitzen segi dezan, are Europako herrialde askok egiten dutena baino handiagoa ere. Ahalegin hori, nolana ere, ez da berdina toki guztietan, eta gorabehera handiak daude lurraldeen artean, eta udalerrri batetik bestera. Horrek erakusten duenez jardunbidea ez dago guztiz zehaztua. Hori horrela izatearen arrazoia, neurri handian behintzat, zerbitzuaren deszentralizazioa da. Izan ere, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren antolakuntza udalerrien gain baitago. Hori horrela dela onartuta ere, administrazioaren gainerako erakundeek, Eusko Jaurilaritzak bereziki, laguntza kalitatea ez ezik gutxieneko zerbitzu maila ere ziurtatu beharko luke, berdintasunaren izenean.
- Arazoak desberdinak dira, noski, udalerrri, mankomunitate eta lurralde batetik bestera. Oro har, konponbidea behar duten arazo nagusien artean, bat aipa daiteke lehenik: zerbitzuaren eraginkortasuna handitu nahi bada, nahitaez zehaztu beharra dago zein izan daitekeen zerbitzu-hartzaile, eta zer irizpide erabili behar den egiten den zerbitzu eskeari baiezta edo ezetza emateko. Lurralde batean zerbitzu-eskatzailea onartzeko erabiltzen diren irizpideak beste lurralde batean erabiliko balira, gaur egun zerbitzua hartzen duten pertsona askok ez luke zerbitzu-hartzaile izateko aukerarik. Nolanahi ere, eta zerbitzuaren eraginkortasun mailari dagokionez, gorabehera handiak antzematen dira lurralde batetik bestera.
- Administrazioak sektore profesional eta behar bezala prestatu baten aldeko lana egin behar du, zerbitzuaren kalitatea handitu nahi bada. Enpresekiko konbenioetan arrazoizko prezioak jarri behar dira, ez dadin langilea bera izan etxez etxeko laguntza politikaren karga sozial gehiena

bere gain hartu behar duena. Gaur egun, etxez etxeko laguntzaile batzuk egoera irregularrean ari dira lanean, baita legez kontra ere, eta dagokiena baino gutxiago irabazten dute.

- Langileak eta sindikatuak konturatu behar dira pertsonak eta instituzioak, profesionalak zein boluntarioak, parte hartu beharra daukatela sektorean, ongizatearen ekonomia mistoaren mesedetan. Ekimen horren alde egiteak, eskariak berez mugarik ez duen alor batean, lagungarri izango da, ezbairik gabe, EAE mailako laguntzaren aldeko kultura zein laguntza zerbitzuen sare formala sendotzeko.

Behin ekonomia misto horretan ezarrita, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek beren gain hartu behar dute laguntza zerbitzuen sare formalaren eta informalaren arteko koordinazioa, biak ahalik eta ongien erabil daitezten, eta adinekoaren zein haren inguruko ongizatearen alde. Adinekoen zerbitzu eskeei baiezkoa edo ezezkoa ematea zer irizpideren arabera egin behar den definitzerakoan, Gizarte Zerbitzuek kontuan izan behar dute, sare naturalak duen eginkizuna bat edo beste izanda ere, sare hori ez dela inondik ere esplotatu daitekeen baliabidetzat hartu behar.

Gizarte laguntzaileek sare formalaren eta informalaren artean eta, oro har, arazoan parte hartzen duten aldean eta laguntzaren mende dagoen pertsonaren beraren artean betetzen duten negoziatzaile papera betetzeko, EAE mailako baliabideak bilatzeko eta koordinatzeko, hain garesti saltzen diren astia eta autonomia behar dira.

- Etxez etxeko laguntzak ez du berez etxean atxilotuta egoteari dagozkion egoerak sor daitezela lagundu behar. Izan ere, jakina baita zenbait kasutan, adinekoa, oinarrizko beharrezkoen aurre ezin eginik, etxean sartuta gelditu izan dela, bakar-bakarrik, laguntzailearen bisita bitartean izan ezik. Hori dela eta, esan beharra dago, EELZ, gaur egun erabiltzen den moduan behintzat, erresidentzia plaza lagunduen ordezkio eskasa bihurtzen dela askotan. Ez da ahaztu behar, bestalde, Araban, erresidentzia plazen eskaintza handiagoa den bezala, handiagoa dela ere eraginkortasun maila horizontala eta bertikala.
- Gaueko eta aste buruetako laguntza zerbitzuak zabaldu egin behar dira, erantzunik gabeko laguntza eskeak orduan izaten baitira gehien.
- Bai politika intentsiboaren alde daudenek bai extentsiboaren alde daudene ere badute zertan oinarritu beren aukera. EAEn, politika intentsiboa egiten da, nahiz eta, azken urteetan, aldatzen ari den joera hori. Zoritarrez, aldaketa horren arrazoia ez da zerbitzuari eta duen eraginari buruzko azterketa sakonaren ondorio, hedadurarik murriztu gabe kostuak ez handitzearen ondorio baizik. Zerbitzu-eskatzailea onartzeko orduan, dudarik ez dago bere buruaz ezin baliatu daitekeenari eman beharko litzaiokeela lehentasuna, eta, gizabideak eskatzen duenez, zuzenago litzateke zerbitzurik ez ematea pertsona autonomo batzuei laguntzaren mende dauden beste batzuei intentsitatea murriztea baino. Eta

ekonomiari begiratzuz gero, hori da, dirudienez, hartu beharreko bidea, zerbitzuaren kostuak zerikusi gehiago bai baitu hedadurarekin intentsitatearekin baino.

Ez da ahaztu behar, hala ere, intentsitatean urria eta hedadura zabala den prestazioa ere errentagarria izan daitekeela epe ertainera, betetzen duen prebentziozko lanarengatik. Hortaz, prestazioak aniztasuna behar du, egoera bakoitzari berea egokituz eta estandarrak, errazkeriaz ezarzen direnak, saihestuz.

- EELZri ematen zaion diru laguntzari dagokionez, instituzioen eta, batez ere, udaletxeen artean dauden diferentziak, ez daukate izateko arrazoirik. Gipuzkoan eta Bizkaian aldundiek ez dute udaletxek bezainbeste laguntza ematen, eta hala, foru aldundien ekarpenak udalen parte hartzea bultzatzen du.

Gipuzkoan, finantziarioari dagokionez, 2.000 biztanlez beherako udalerririak kopuru horretara iristen direnekin berdintzeak mesede egiten die nekazaritza giroko herriei, behar baino gehiago agian. Emaitzak, baina, ez dira beti nahi bezain onak. Arazo bereziak dituzten herri horiek nolabait bultzatzeko, beste finantza bide batzuk erabili beharko lirateke, ez horren mekanikoak.

Gipuzkoako zerbitzu-hartzaileek etxez etxeko laguntza zerbitzuak finantzatzeko ematen duten diru kopuruan ez luke horrenbesteko alderik egon behar, parte hartzerik handiena kolektibitate osoari dagokiolako ez bada ere. Zerbitzu-hartzaile guztiek pagatu beharko lukete hainbateko bat, gutxi bada ere, zerbitzuaren ordainez, Jaurilaritzak ezarritako proposamenei jarraituz.

Baremo ekonomikoek ez lukete inor, duen errenta mailagatik, zerbitzua hartzetik baztertu behar. Prezioak kalkulatzeko ezartzen den errenta muga zehaztean, kontuan hartu beharko litzateke muga horrek ez liokeela gizarte zerbitzuen sarearekin loturiko laguntza kualifikatuaren premia duen inori atzera eragin behar.

## 6.2. EGUNEKO ZENTROAK

Eguneko zentro batzuek dauzkaten langile ratioak ez dira nahikoa, garbi ikusten den bezala; bestalde, gabezia materialak ere badauzkate.

Baina ez horiek, eta ezta biztanlegoaren premiei erantzuteko dagoen eskaintzaren desegokitasun teorikoa ere, ez dira baliabide horretan ikusten diren gabeziarik larrienak. Dударik gabe, arazorik kezgarrienak bi dira: eguneko laguntza eskaintzeko dauden zerbitzuen balioaz dagoen informazio eza, eta horren ondorioz sortzen den komunikazio falta, eta informazio falta maila guztietan dago, baita teknikoetan ere.

Administrazioak gai horri buruzko jarduera-eredu egokiak definitu behar ditu gizarte zerbitzuei buruzko proiektu orokor baten barruan.

Kasu askotan dauden soluzioak, beste baliabide pisuagoen, egoitzen, eta arinagoen, zahar-etxeen aprobetxamenduan oinarrituak ebaluatu egin behar dira, etorkizunean aukera ezberdinez baliatzerakoan berme tekniko egokiekin jokatzeko.

Oso baliagarria litzateke gizarte zerbitzuen barruan eguneko zerbitzuek bete behar dituzten helburu eta funtzionamendu baldintzei buruzko eztabaida gizartean sortzeko beharrezko neurriak hartzea.



VII. ATALA  
**GOMENDIOAK**



1- Politika sozialaren lehentasuneko helburuen artean egoitzaz kanpoko plaza kopuruan dagoen defizita zuzentzeak egon behar du.

Gaur egun alor horretan dagoen plaza kopurua Euskadiko Plan Gerontologikoak berak iragartzen duen helburutik (%6, 65 urtetik gorako biztanleentzat) urruti dago. Gehikuntza hori, gainera, zerbitzu-hartzaile batzuek behar duten intentsitatea murriztu gabe lortu beharko da, baina kasu bakoitzean dagoen menpekotasun mailari egokitzuz eta, beraz, laguntza estandarra ekidinez.

2- Egungo Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea aldatu egin beharko da behingoz.

3- Etxez etxeko laguntza zerbitzuetan aldeak daude herri batzuetatik besteetara. Zerbitzuaren prestazioan, ordea, irizpide amankomunak edukitzeko premia ikusten da, alor horretan udalek daukaten agintea errespetatuz, laguntzaren kalitatearekin batera berdintasun printzipioaren arabera gutxieneko zerbitzu bat bermatuko dituzten irizpide amankomunak izateko.

4- Etxez etxeko laguntzan aritzen diren laguntzaileek mugitzeko arazo handiak dituzten adinekoei behar bezalako laguntza eskaintzeko lagungarri teknikoak behar dituzte: bainuetarako gruak, ohe egokiak, etabar.

Era berean, zerbitzu-hartzaile asko beraien etxebizitzetatik ezin dira atera horretarako erraztasun teknikorik ez daukatelako; aiton-amonei beraien mugikortasunerako beharrezko elementuak erraztu beharko zaizkie, eta ahal den neurrian traba arkitektonikoak kentzeko neurriak sustatu beharko dira.

5- Zerbitzua erabiltzearen, norbere kasa moldatzeko ezintasun-mailak baloratzeko irizpideak batu beharko lirатеke zerbitzua eraginkorragoa izan dadin, eta zerbitzua banatzerakoan zerbitzu-hartzailearen besteekiko beharren intentsitatea eta maila hobeto egokitzen direla bermatzeko.

6- Etxez etxeko laguntzaren barruan gaueko eta asteburuetako zerbitzuak garatzea lehentasunezkoa eta larria da, une edo garai horietan sortzen baitira bete gabe dauden premiazko egoerarik handienak. Edonola, kasurik larrienean laguntza bermatzea ezinbestekoa da, benetan inolaz ere onartu ezin diren babesik gabeko egoerei aurre egiteko.

7- Etxez etxeko laguntza jasotzeko eta zerbitzu-hartzaileen eskubideak eta betebeharrak bermatzeko, sarrera eta eskubide-betebeharrak arautu egin behar dira. Zerbitzu-hartzailearen eta zerbitzua ematen duen administrazioaren arteko harremanetan nagusitu behar den berdintasun juridikoaren bidetik, kasu hauei buruzko irizpideak jasotzen dituzten araudiak argitaratu egin behar dira.

Adinekoentzako laguntza zerbitzuak arautzen dituzten arauak publikitate irizpidea errespetatu beharko dute, berdintasun irizpidea urra dezaketen sarre-ra-baldintzak ez jartzen ahaleginduz.

8- Normalean laguntza eskatzen denetik iristen den arte lau aste pasa ohi dira. Beraz, premia larriei erantzun ahal izateko, prozedurak mekanismo ego-kiak behar ditu.

9- Zerbitzu-hartzaileak dauzkan premiei erantzun egokia emateko ongi zehaztuta egon behar dira laguntza eman behar duen pertsonaren zereginak. Horretarako, "egin beharreko lanen orria" erabiltzea gomendatzen da, laguntza hartzaileak eta laguntzaileak bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak eza-gutu ditzan.

10- Etxe bakoitzean egin beharreko lanen zehaztapena ezin da amaitu "egin beharreko lanen orria" betetzearekin.

Laguntza-hartzailearen premiak aldakorrak izanik, haietara egokitzeko, ematen den laguntza gainbegiratu beharra dago.

11- Etxez etxeko laguntza ematen aritzen diren laguntzaileen ezaugarriak zehatz-mehatz definitu behar dira. Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuan lanean ari direnei esijitzen zaizkien ezagutzak, eta gaur egun daukaten rol definiziorik eza ez datoz bat.

12- Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, etxez etxeko laguntzan aritzen direnak prestatzeko programak behar dira, zerbitzu-hartzaileari zuzenean laguntzeko behar denaz gain adinekoei prebentziozko laguntza eman diezaie-ten.

13- Langile sozialak egin beharreko lanen banaketa laguntza eman behar den etxean bertan egitea komeni da, zerbitzu-hartzailea, laguntzailea eta egon daitezkeen beste laguntzaile informalak aurrean direla.

14- Eskaria egiten duenaren eta bere familia-unitatearen errenta-maila laguntza hartzaileak ordaindu beharko duen kantitatea finkatzeko bakarrik era-biliko da, baina inola ere ezin utziko da inor laguntzarik gabe arrazoi horrega-tik.

15- Baremo ekonomikoari dagokionez, udalen artean dauden aldeak aztertu behar dira, etxez etxeko laguntzaren baliabidea ez dadin izan diru-sarrera apalak dituzten aiton-amonek erabili dezaketen bakarra, ez delako paliatibo oso asegarria, eta kasurik hoberenean ere ez duelako zerbitzu-har-tzailea zerbitzuen sarean integratzen.

Gainera, diru-sarrera altueneko mailan egon eta etxez etxeko laguntza hartzen dutenek ordaindu beharreko preziorik altuena merkatuko prezioetatik urrundu egin beharko litzateke, beste udal zerbitzu batzuen antzera; horietan zerbitzuaren kostuaren azpitik egoten baita prezioa, arrazoi sozial edo interes publikoarengatik.

